AZTERLANA

NAZIOARTEKO BABES ESKATZAILEAK EDO ONURADUNAK DIREN LGBTI+ PERTSONEN ERREALITATE JURIDIKO-SOZIALA EAE-an

GEHITU-k aurkeztutako azterlana
Euskal Autonomia Erkidegoko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen elkartea

Euskal Herriko lesbiana, gay transexual eta bisexualen elkartea
Asociación de gays, lesbianas, transexuales y bisexuales del País Vasco

Egilea:
Andrea BERTOMEU NAVARRO

Licencia Creative Commons
Atribución-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional (CC BY-NC-SA 4.0)

ISBN: 978-84-09-09053-2

Egilea: Andrea BERTOMEU NAVARRO
Aurkeztua: +TU, Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen elkartea
Edizioaren data: Martxoa 2019
Diseinua eta maketazioa: Ikuspe estudio creativo SL

Ikerketa hau 2018ko irailaren 28an amaitu zen eta ez ditu biltzen data hori arte jasotako datuak baino.

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA. 05

LABURDURA ERABILIENAK. 12

TERMINOEN ZERRENDA 14

HITZAURREA 19

LEHEN ZATIA:. 21

ORIENTAZIO AFEKTIBO-SEXUALA EDO/ETA GENERO-IDENTITATE ETA ADIERAZPEN ARRAZOIENGATIK NAZIOARTEKO BABESAREN INGURUKOA ARAUDI MARKOA (SOGI)

I. SOGI-ARENGATIK ASILO ESKUBIDEA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAN 23

1. Pertsona errefuxiatu Lesbiana, Gay, Bisexual, Transexual/Transgenero, Bisexual edo beste batzuk (LGBTI+). 23

2. SOGI-a, gizatalde zehatz bateko partaide izateagatik ezaugarri moduan. 30

3. SOGI-arengatiko nazioarteko babesa osatzen duten elementuak . . . 32

3.1. SOGI-arengatiko jazarpenak diren ekintzen izaera 32

3.1.1. Pertsona baten orientazio afektibo-sexuala eta/edo genero-identitatea eta adierazpenak aldatzen saiatzeko neurriak. 33

3.1.2. Soilik SOGI-an oinarritzen diren askatasuna kentzearen kasuak . 35

3.1.3. Ohore-krimenak 35

3.1.4. Ekintza diskriminatzaileak. 35

3.2. Jatorrizko herrialde barnean babesa eza. Jazarpenaren eragileak 37

3.3. Herrialde barnean ihes egitea edo berkokapenaren aukera, eta SOGI-a estaltzea edo diskrezioaren irizpidea 39

II. SOGI-ko ARRAZOIENGATIK ASILO ESKUBIDEA EUROPAKO ESKUALDE MARKOAN

1. LGBTI+ pertsonen nazioarteko babesa Europako Kontseiluak sustatuta. 45

1.1. Europako Kontseilua eta SOGI-ko arrazoiengatik asilo eskubidearen aitortza. . . . 45

1.2. LGBTI+ pertsona errefuxiatuen babesa Giza Eskubideen Hitzarmen Europarrean (GEHE) 52

1.3. Giza Eskubideen Auzitegi Europarra (GEAE) eta LGBTI+ pertsona errefuxiatuen asilo eskubidearen babesa 60

1.3.1. GEAE-ren esparruan kalteberatasunaren nozioa: LGBTI+ pertsona errefuxiatuen babes juridikoa, "talde kaltebera" moduan, ... 60

1.3.2. SOGI-arengatik asilo eskubidearen arloko GEAE-ren jurisprudentziaren azterketa 63

2. SOGI-arengatik asilo eskubidea Batasun Europarreko Zuzenbidean 72

2.1. LGBTI+ pertsona errefuxiatuek nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea, eta hori Batasun Europarreko sistema juridikoan txertatzea. Batasun Europarreko Oinarrizko Eskubideen Gutuna (BEOEG) 72

2.1.1. LGBTI+ pertsona errefuxiatuen nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea. BEOEG-ko 18. artikulua 75

a) Taldeka kanporatzeko debekua 77

b) Honako Estatuetara bueltatzeko, kanporatzeko edo estraditatzeko debekua: heriotz zigorra ezartzeko, torturatua izateko edo beste zigor edo tratu gizagabea edo umiliagarriak jasateko arrisku larria dagoenean 78

2.1.2. Eragindako beste oinarrizko giza eskubideak 81

2.2. LGBTI+ pertsona errefuxiatuek nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea, eta hori Batasun Europarreko sistema juridikoan txertatzea. Asiloari buruzko Sistema Erkide Europarraren iturriak (ASEE) 85

2.2.1. SOGI-arengatiko asilo eskubidea aitortzea eta babes subsidiarioa 2011/95/UE Zuzentarauan, hirugarren herrialdeetako nazionalak edo aberrigabeak nazioarteko babesaren onuradun moduan aitortzeko 88

a) SOGI-aren aitortza BEren asilo araudian, hain zuzen, gizatalde zehatz bateko kide izateagatik xedatzen duen zioan 89

b) Jazarpentzat jotzen diren ekintzen izaera. Herrialde barneko ihesaldiaren alternatiba ezaugarria eremu europarrean 91

c) BEeko asilo araudian xedatutako irizpideak, nazioarteko babesa eskatzen duen pertsonaren kontaketaren sinesgarritasuna baloratzeko. 94

2.2.2. 2013/32/BE Zuzentarauan SOGI-arengatik nazioarteko babes eskaera egin duten pertsonei nazioarteko babesa emateko edo ukatzeko prozedura erkideak 96

2.2.3. 2013/32/BE Zuzentarauan SOGI-arengatik nazioarteko babes eskaera egin duten pertsonei nazioarteko babesa emateko edo ukatzeko prozedura erkideak 104

2.3. Batasun Europarreko Justizia Auzitegiaren (EBJA) SOGI-arengatik asilo eskubidearen inguruko jurisprudentzia 109

III. SOGI-ARENGATIK ASILO ESKUBIDEA ORDENAMENDU JURIDIKO ESPAINIARREAN 115

1. SOGI-arengatik asilo eskubidearen aitortza eta babes subsidiarioa asiloari buruzko araudi espainiarrean 115

2. SOGI-arengatiko nazioarteko babesaren elementuak asiloari buruzko araudia espainiarrean 119

2.1. SOGI-a, gizatalde zehaztzat jotzeko ezaugarri moduan 119

2.2. Jazarpentzat jotzen diren ekintzak 120

2.3. Jazarpenaren edo kalte larrien eragileak 121

3. SOGI-arengatik asilo eskubidearen gaineko auzitegi espainiarren dotrina 121

4. SOGI-rengatik asilo prozeduren esparruan kontuan hartu beharreko berariazko neurriak 126

IV. SOGI-ARENGATIKO ASILO POLITIKA KOPURUETAN: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN KASUA (EAE) 133

1. Batasun Europarra eta bere Asilo Politika Erkidea kopuruetan 133

2. Espainia eta bere Asilo Politika kopuruetan 137

3. EAEko kasuaren aipamen berezia 146

3.1. LGBTI+ pertsona errefuxiatuen nazioarteko babes eskaeren kopurua EAEn . . . 146

3.2. EAEn nazioarteko babes eskaera egiten duten LGBTI+ pertsona errefuxiatuen jatorrizko herrialdeetako SOGI-aren trataera juridikoa eta soziala 149

V. ARAUDI MARKOARI DAGOZKION KONKLUSIOAK 185

BIGARREN ZATIA : 191

EAEn NAZIOARTEKO BABES ESKAERA EGITEN DUTEN LGBTI+ PERTSONA ERREFUXIATUEN HARRERA ETA INTEGRAZIOA

I. NAZIOARTEKO BABES ESKATZAILE ETA ONURADUNENTZAt HARRERA ETA INTEGRAZIO SISTEMAREN ERRADIOGRAFIA LABURRA 193

1. Nazioarteko babes eskatzaileen eta onuradunen harrera eta integrazio sistemaren funtzionamendu orokorra 193

2. Nazioarteko babes eskatzaileen eta onuradunen harrera eta integrazio sistema Espainian 195

3. Nazioarteko babes eskatzaileen eta onuradunen harrera eta integrazio ibilbidearen faseak. Egungo egoera EAEn 200

4. Nazioarteko babes eskatzaileen eta onuradunen harrera eta integrazio sistemaren Programaren garapena 207

4.1. Lehen fasea, ebaluazioa eta deribazioa (lehen harrera) 209

4.2. Harrera fasea (Lehen fasea) 209

4.3. Integrazio fasea (Bigarren fasea) 209

4.4. Autonomia fasea (Hirugarren fasea) 210

II. DISKRIMINAZIO EGOERAK ERREPIKATZEN DIREN EREMU ETA INGURUNEEN IDENTIFIKAZIOA 211

1. Espazio publikoa 211

2. Hezkuntza eta prestakuntzara heltzea 213

3. Enplegura heltzea 215

4. Enplegura heltzea 217

5. Osasuna 219

6. Kultura, aisia eta denbora librea 221

7. Atzerritar eta errefuxiatuentzako egonaldirako zentroak 223

8. Estatuko Harrera Programaren esparruko harrera pisuak 226

III. POSIBLE AL DA EAEn LGBTI+ PERTSONENTZAKO INGURUNE SEGURUA? 230

1. Helburu espezifikoa 233

2. Hartzaileak 233

3. Harrera baliabide berri honek ze ekarpen emango luke? 233

4. Jada abian dauden mota honetako esperientzien aipamen laburra 234

IV. HARRERA ETA INTEGRAZIOARI BURUZKO KONKLUSIOAK . 239

ERANSKIN BIBLIOGRAFIKOA 243

IKERLANEAN ERABILITAKO GALDESORTAK 261

LABURDURA ERABILIENAK

- MEBKE / MIGRAZIOARI BURUZKO ESPAINIAR BATZORDE KATOLIKO ELKARTEA
- ENBGK / ERREFUXIATUENTZAKO NAZIO BATUEN GOI KOMISIONATUA
- NBAN / NAZIO BATUETAKO ASANBLADA NAGUSIA
- AI / AMNISTÍA INTERNACIONAL
- EN / ENTZUTEGI NAZIONALA
- EHZ / ERREFUXIATUAK HARTZEKO ZENTROA
- TAK / TORTURA ETA BESTE TRATU EDO ZIGOR ANKER, GIZAGABE EDO UMILIAGARRIEN AURKAKO KONBENTZIOA
- BEOEG / BATASUN EUROPARREKO OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA
- ELBE / ERREFUXIATUARI LAGUNTZEKO BATZORDE ESPAINIARRA
- GEHE / GIZA ESKUBIDEEN HITZARMEN EUROPARRA
- IAEZ / INMIGRANTEEN ALDI BATERAKO EGONALDI ZENTROA
- ABMB / ASILO ETA BABESLEKUARI BURUZKO MINISTERIOARTEKO BATZORDEA
- GEBI / GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE INTERAMERIKARRA
- ABZ / ATZERRITARRAK BARNERATZEKO ZENTROA
- JHI / JATORRIZKO HERRIALDEARI BURUZKO INFORMAZIOA
- TAB / TORTURAREN AURKAKO BATZORDEA
- GEB / GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA
- GEGI / GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO GORTE INTERAMERIKARRA
- CRE / GURUTZE GORRI ESPAINIARRA
- EASO / ASILOA LAGUNTZEKO EUROPAR BULEGOA
- ASJE / ASKATASUN, SEGURTASUN ETA JUSTIZIA ESPAZIOA
- EUROSTAT / ESTATISTIKAKO EUROPAR BULEGOA
- LGTBFE / LESBIANA, GAY, TRANS ETA BISEXUALEN FEDERAZIO ESTATALA
- FRA / BATASUN EUROPARREKO OINARRIZKO ESKUBIDEEN AGENTZIA
- HRW / HUMAN RIGHTS WATCH
- ILGA / LESBIANA, GAY, TRANS ETA BISEXUALEN NAZIOARTEKO ELKARTEA
- SBI / SEXU-BIDEZKO TRANSMISIOKO
- LGBTI+ / LESBIANA, GAY, BISEXUAL, TRANS, INTERSEXUAL EDO BESTE BATZUK
- LMGSM / AURREKO EGSM / LAN, MIGRAZIO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA (ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA)

- ABB / ASILOA ETA BABESLEKUAREN BULEGOA
- EAE / ESTATU AMERIKARREN ERAKUNDEA
- NBE / NAZIO BATUEN ERAKUNDEA
- BAE / BATASUN AFRIKARRERAKO ERAKUNDEA
- GNBP / GARAPENERAKO NAZIO BATUEN PROGRAMA
- ASEE / ASILOARI BURUZKO SISTEMA ERKIDEA EUROPARRA
- IIAO / INMIGRANTEEN INTEGRAZIORAKO AZPIZUZENDARITZA OROKORRA
- HIES / HARTUTAKO INMUNOESKASIAREN SINDROMEA
- SOGI/OSIG / ORIENTAZIO AFEKTIBO-SEXUALA EDO/ETA GENERO-IDENTITATE ETA ADIERAZPENA
- GEAE / GIZA ESKUBIDEEN AUZITEGI EUROPARRA
- BEFI / BATASUN EUROPARRAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ITUNA
- BEJA/ BATASUN EUROPARREKO JUSTIZIA AUZITEGIA
- AG / AUZITEGI GORENA
- BEI / BATASUN EUROPARREKO ITUNA
- BE / BATASUN EUROPARRA
- GIB / GIZA INMUNOESKASIAREN BIRUSA

TERMINOEN ZERRENDA[1]

I BLOKEA. NAZIOARTEKO BABESA

- ASILOA: Estatu batek pertsona atzerritar bati bermatzen dion babesa eta laguntza, bere jatorrizko herrialdetik ihes egin duenean arraza, erlijioa, nazionalitate, gizatalde zehatz bateko kidea izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarpena jasatearen ondorioz; hori dena, bere jatorrizko Estatuaren jurisdikzioa egikaritzaren kontra. Figura hau ez itzularazteko printzipioari (non-refoulement) hertsiki lotuta dago, eta nazioarte mailan aitortutako eskubide zehatz batzuk egikaritzea ahalbideratzen du. Asilo eskatzaile eta errefuxiatu terminoak maiz nahasten dira: "asilo eskatzailea" errefuxiatu kondizioa aitortzea eskatzen duen pertsona da, harrera eman dion herrialdeko agintariek bere eskaerari oraindik behin betiko erantzuna eman ez dionean.

- APÁTRIDA:Inongo Estatuk bere legeriaren arabera bere herritartzat jotzen ez duen pertsonari deitzen zaio (Aberrigabeen Estatutuari buruzko 1954ko Konbentzioaren 1. artikulua).

- ERREFUXIATU ESTATUTUA: babes mota bat da pertsona errefuxiatuei aitortu dakiekeena, Errefuxiatuen Estatutuaren Ginebrako 1951ko Konbentzioaren (New Yorkeko 1967ko Protokolo Gehigarriak aldatutakoa) 1.2 (A) artikuluaren arabera pertsona errefuxiatuaren baldintzak betetzen dituen; hori dena, arraza, erlijio, nazionalitate, iritzi politikoak edo gizatalde zehatz batekoa izateagatik jazarpena jasotzeko ganorazko beldurra dagoenean, eta bere nazionalitateko herrialdetik kanpo dagoenean, eta ezin duenean edo, beldur horrengatik, herrialdearen babesa ez duenean eskuratu nahi.

---

1 Este glosario ha sido realizado consultando los siguientes documentos: *Glosario sobre Migración*, Derecho Internacional sobre Migración nº 7, Organización Internacional para las Migraciones (OIM), 2006; Comisión Europea, *Glosario 2.0 sobre inmigración y asilo. Un instrumento para una mayor comparabilidad*, Red Europea de Migraciones, enero 2012; *Directrices sobre Protección Internacional nº 9: solicitudes de la condición de refugiado relacionadas con la orientación sexual y/o la identidad de género en el contexto del artículo 1A (2) de la Convención sobre el Estatuto de los Refugiados de 1951 y/o su Protocolo de 1967*, de 23 de octubre de 2013, HCR/IP/12/09 y los Principios de Yogyakarta *sobre la Aplicación del Derecho Internacional de Derechos Humanos a las Cuestiones de Orientación Sexual e Identidad de Género*, presentados ante el Consejo de Derechos Humanos de Naciones Unidas, el 26 de marzo de 2007.

- NON-REFOULEMENT / EZ ITZULARAZTEA: Nazioarteko zuzenbide orokorraren printzipioa, eta baita ere, batzuentzat, nahitaezko izaerakoa, edo ius cogens izaerakoa, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Genevako Konbentzioko artikuluan xedatzen dena: "1) Inongo Estatu kontratugilek ezingo du kanporatzearen edo refoulement-en bitartez, errefuxiatu bat lurralde baten mugan jarri, bere bizitza edo ber askatasuna arriskuan dagoenean, arraza, erlijio, nazionalitate gizatalde batekoa izateagatik, edo haren iritzi politikoengatik. 2) Nolanahi ere, errefuxiatuak xedapen honen onurak ezingo ditu eskatu, dagoen herrialdearen segurtasunarentzat, arrazoi sendoak medio, arriskutzat jotzen bada. Edo nabarmenki larria den delitu batengatik behin betiko zigortu baldin badute, eta herrialde horretako erkidegoarentzat mehatxutzat jo baldin badaiteke."

- NAZIOARTEKO BABESA: nazioarteko tresna batean edo nazioarteko erakunde edo organo baten manamenduan oinarritzen den babesa da, Estatu batek tresna horietan babesten dena beteko duela bermatzeko. Nazioarteko babesa termino bat da errefuxiatu estatutua ez ezik babes subsidiarioa ere barne hartzen duena.

- BABES SUBSIDARIOA: hirugarren herrialde bateko pertsona bati edo aberrigabe bati ematen zaion babesa da, honek errefuxiatua izateko baldintzak betetzen ez dituenean, baina ganorazko arrazoiak daudenean bere herrialdera, edo, aberrigabeen kasuan, bere aurreko ohiko bizilekura bueltatuz gero, araudian aurrekusitako kalte larriak jasateko arriskua izateko.

- ALDI BATERAKO BABESA: Salbuespenezko prozedura da, berehalako eta aldi baterako babesa ahalbideratzen duena, hirugarren herrialde bateko pertsonen fluxu masiboa edo berehalakoa gertatzen den kasuetarako; haien herrialdera bueltatu ezin daitezkeenak dira; aplikatzen da, zehazki, asilo sistema ez denean gai fluxu honi behar den bizkortasun eta eraginkortasunarekin erantzuteko.

- ARRAZOI HUMANITARIOAK: aldi baterako bizileku baimena ematea da, nazioarteko babes eskatzaileei kasu zehatz batzuetan ematen dena, hain zuzen, Asilo eta Babeslekuari buruzko Batzorde Ministerioartekoak nazioarteko babes eskaera ukatzen duenean, honakoa aintzakotzat hartuta: eskatzailearen jatorrizko lurraldean eskatzailearen giza eskubide oinarrizkoenak arrisku, gatazka edo ezegonkortasun egoera batean daudenean.

- REFOULEMENT: Estatu baten ekintza da, pertsona bat beste Estatu batera edozein moduz bueltatzekoa, beste Estatu horretan bere bizitza edo askatasuna arriskuan denean arraza, erlijio, nazionalitate, gizatalde zehatz bateko kidea izateagatik edo bere iritzi politikoengatik; edo torturatua izateko arriskua duenean. Edozein ekintza izan daiteke, Estatu batera bueltatzeko efektua duenean, hala nola, kanporatzea, deportatzea, estraditatzea, mugan errefusatzea (muga), lurraldetik kanpo geldiaraztea edo bueltatze fisikoa.

II BLOKEA. ORIENTAZIO AFEKTIBO-SEXUALA ETA/EDO GENERO-IDENTITATEA ETA ADIERAZPENA

- BISEXUALA: pertsona bat deskribatzen du, beste pertsona batzuk, gizonezkoak zein emakumezkoak, gustukoak zaizkionean, fisikoki, erromantikoki eta/edo emozionalki. Pertsona bisexualek maiz haien sexu-orientazioa “arintzat” edo “malgutzat” jotzen dute. Pertsona hauen sexu-orientazioa maiz ez benetakotzat edo aldagarritzat jotzen denez, haien nazioarteko babes eskaera askotan ukatzen da, sinesgarritasun ezagatik eta/edo bisexualitatea aitortzeari uko egiteagatik, 1951ko Genevako Konbentzioak babestutako ezaugarri moduan.

- ZISGENERO: Maiz zis moduan laburtzen dena. Termino hau transgeneroaren kontrakoa da; hau da, pertsonak definitzen ditu, haien genero identitateak eta genero biologikoak bat egiten dutenean, eta bere portaerak ere bat egiten duenean gizartean sexu horri esleitzen zaionarekin.

- GAY: askotan erabili ohi da gizonezko bat deskribatzeko, modu iraunkorrean gizonezkoak gustukoak zaizkionean, fisikoki, erromantikoki eta/edo emozionalki. Gay gizonezkoak gizarte askotan bizitza publikoan beste LGBTI+ taldetakoak baino gehiago atzematen dira, eta kanpaina politiko negatiboen erdigune bihur daitezke, eta ondorioz, maiztasun handiagoarekin Estatuak egindako jazarpenaren biktima dira. Ildo honetatik, gizonezkoen pribilegioari desafio egin ondoren -“femeninotzat” jotzen diren rol edo ezaugarriak bereganatzeagatik-, gizonezko gay-ak “traidoretzat” jo daitezke, afeminatuak izan ala ez. Beraz, abusuak jasateko arrisku zehatzean daude presondegietan, ingurune militarretan, tradizionalki gizonezkoenak jo diren lan tokietan, familian, edo gizartean oro har.

- GENERO-IDENTITATEA ETA ADIERAZPENA: generoaren barne bibentzia da, pertsona bakoitzak sakonki sentitzen duen moduan. Horrek bat egin dezake jaiotzean egokitutako sexuarekin; bakoitzaren bibentzian sartzen dira gorputzaren bibentzia pertsonalak eta generoaren beste adierazpenak, hala nola, janzkera, hizkera eta manerak.

- INTERSEXUALA: interesexual terminoa egokitzen zaio pertsona bati jaiotzen denean ugaltzeko edo sexu edo kromosoma patroi anatomiko batekin, bat ez datorrena, hasiera batean, gizonezko edo emakumezkoen ohiko ezaugarriekin. Pertsona intersexual bat gizontzat edo emakumezkotzat jo daiteke, baina bere sexu-orientazio homosexuala, lesbikoa, bisexual edo heterosexuala izan daiteke. Ildo horretatik, pertsona intersexualek modu desberdinetako jazarpenak jasan ditzakete. Diskriminazioa edo abusuak jasan ditzakete, haien jarrera aniztasun funtzionaltzat jotzen direlako, edo gizartean onartuta dagoen emakumezko edo gizonezko gorputz itxurarekin bat ez datorrelako. Herrialde batzuetan baita gaiztakeriatzat jo daiteke, edo sorginkeriarekin lotu, eta eragin dezake familia osoaren kontrako abusua; izan ere, erraz esanda, posible da kultura zehatz batean izaera intersexuala ez ulertzea.

- LESBIANA: emakume bati erreferentzia egiten dio, modu iraunkorrean emakumezkoak gustukoak zaizkionean, fisikoki, erromantikoki eta/edo emozionalki. Lesbianek diskriminazio mota anitzak jasaten dituzte, bere genero, kondizio soziala eta/edo ekonomikoa, askotan apalagoa, eta sexu-orientazioarengatik ere. Pertsona hauek kalteak askoz gehiagotan jasaten dute estatuz kanpoko eragileen aldetik, bortxaketa “zuzentzaileak” bezalako ekintzak barne, senar edo lagun ohien errepresalien bortizkeria, behartutako ezkontzak, familiako kideek “ohorearengatik” egindako delituak.

- LGBTI+: Lesbianak, Gayak, Transexualak, Bisexualak eta Intersexualak. Azterlan honek LGTBI+ akronimoa erabiltzen du ikerkuntza esparru honetan gehien erabiltzen delako. Nolanahi ere, azterlan honek etiketa honen mugak agerian uzten ditu; izan ere, bere baitan pertsona kolektibo oso heterogeneoak biltzen du, ezaugarri komun honekin: ez direna (zisgenero heterosexualak).

- ORIENTAZIO AFEKTIBO-SEXUALA: pertsona bakoitzak duen gaitasuna bere generokoak ez diren pertsonengatik, edo genero berekoengatik, edo genero bat baino gehiagorengatik, erakargarritasun emozional, afektibo eta/edo sexual sakon bat sentitzeko, eta halaber, pertsona horiekin harreman intimoak eta sexualak mantentzeko.

- TRANS: deskribatzen du pertsona baten genero-identitate eta/edo adierazpena, bera jaiotzerakoan esleitutako sexu biologikoarekin bat ez datorrenean. Oro har onartutako gizonezko eta emakumezkoaren inguruko pertzepzio binarioarekin bat egiten ez duenez, herrialde zehatz bateko gizarte arau eta baloreentzat mehatxutzat atzeman daiteke. Pertsona hauek jatorrizko herrialdeetatik ihes egin behar izan dute, oso baztertuak izan ohi direlako. Haien eskaeretan bortizkeria fisiko, psikologiko eta/edo sexualeko esperientziak isla daitezke, bereziki bere auto-identifikazioa eta itxura fisikoa ez datozenean bat bere agiri ofizialetan ezarritako sexuarekin.

SARRERA

E.A.E.n, orientazio afektibo-sexuala eta/edo genero-identitate edo adierazpenarengatik (SOGI) jatorrizko herrialdeetan jazarpena jasaten duten pertsonentzat harrera azpiegiturak sortzeko beharra eta egokitasunaren inguruko diagnostiko hau, Gehitu-k idatzi eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutakoa da. Egiteko arrazoia honakoa da: LGBTI+ nazioarteko babes eskatzaileen ikusezintasuna da, eta ondorio gertukoena da, ez direla ezagutzen diskriminazio eta abusu egoera juridiko batzuk; eta baita ere, pertsona hauei zuzenean eragiten dien egoera sozial batzuk, babes eza eta bazterketa eragiten diena haien eskubideei eta haien bizitzari; eta, eratorritako ondorio moduan, irizpide falta argi bat egoera horri, modu eraginkorrean eta kolektibo honetako beharren ikuspuntutik, aurre egiteko.

E.A.E.n SOGI-arengatik nazioarteko babes eskaerek gora egiten ari dira, eta horrek agerian uzten du pertsona hauek ahulezia asko dituztela. Era honetan, errealitate hau ezagutarazi nahi du, oro har herritarrentzat eta erakundeentzat ezezaguna baita. Hori lehen urrats bat da, haien eskubideak modu egokian atzemateko eta berme eraginkorragoak lortzeko, eta horrek ahalbideratuko du horren kontra jo dezaketen egoera horiek salatzea.

Ildo honetatik, diagnostiko honen helburu espezifikoak dira:

- → Agerian jartzea LGBTI+ pertsonek dituzten oztopo eta arazo juridiko espezifikoak; horiei aurre egin behar diete nazioarteko babes eskaeraren prozeduraren aurretik, prozeduran zehar eta ondoren;
- → Haien behar zehatzak atzematea, ez direnak bete harrera prozeduran eta nazioarteko babes eskaeraren tramitazio prozeduran zehar
- → Mekanismo eta praktika zuzenak identifikatzea, aipatutako gaiak konpontze aldera;
- → Nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonentzat harrera azpiegitura espezifikoak sortzeko beharra baloratzea, ingurune seguruetan bizitzea ahalbideratuko diena;

Lan hau ez da arazorik gabekoa izan, zehazki, azterlan honen alde sozialari dagokionez. Izan ere, ez da datu ofizialik eduki, ez Europa mailakoak, ezta Estatu mailakoak ere. Ondorioz, ordu asko eman behar izan ditugu informazio behar bezain adierazgarria biltzen, erradiografia ahal den eta fidelena egiteko, eta ez bakarrik EAE-an egoera horretan egon daitezkeen pertsona kopuruaren aldetik, baizik eta aurre egin behar dieten egoera zehatzen aldetik. Ildo horretatik, elkarrizketa ordu asko izan dira, eragindako pertsonekin aurrez aurre, eta baita, EAEko gai honen inguruan lan egiten duten elkarteetako harreraren arduradunekin (ELBE-Euskadi, Gipuzkoako Gurutze Gorria eta Accem-Gasteiz). Horri dagokionez, guzti horiei gure eskerrik handiena ohartarazi nahi dugu emandako laguntzarengatik. Azpimarratzeko da Gipuzkoako Gurutze Gorriaren laguntza berezia, eta bere azterlan honetarako arduradunek une oro laguntzeko erakutsitako prestakuntza.

EAE-n nazioarteko babesa eskatu duten LGBTI+ pertsonen harrera eta integrazioa aztertzeko egindako azterlan honen alde soziala osatzen parte hartu duten pertsonen profila - haien esperientzia lehen pertsonan kontatu dutenak - gehiengoak, %86, haien burua gaytzat identifikatzen dute, %7 lesbiana, %5 emakume trans, eta %2 , gizon bisexualak.

Pertsona horien jatorriari dagokionez, asko dira, eta horien artean aipatu ditzakegu: Afganistan, Aljeria, Bielorrusia, Brasil, Kamerun, Kolonbia, Gambia, Ginea Konakry, Honduras, Irak, Iran, Jamaika, Maroko, Mauritania, Nikaragua, Nigeria, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (Mendebaleko Sahara), Errepublika Dominikarra, Senegal, Ukraina y Venezuela.

Horri gehitu behar zaio EAE-n nazioarteko babes eskatzailean harrera eta integrazioaren enkargatuak diren elkarteen pertsona arduradunak eta langileak laguntza estimagarria: elkarrizketen bidez, azterlan honen egileak eta Gehitu-k egindako kontsultei erantzuten, eta horien artean daude aholkularitza juridikoa, psikologikoa, enpleguari buruzkoak eta gizarte laguntza ematen duten pertsonak (gizarte langileak, gizarte hezitzaileak...). Horiei guztiei gure eskerrik zintzoenak.

I ZATIA

SOGI-ARENGATIKO ASILO ESKUBIDEARI BURUZKO ARAU MARKOA

I. SOGI-ARENGATIKO ASILO ESKUBIDEA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAN

1. Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans, Bisexual edo beste (LGBTI+) pertsona errefuxiatuaren figura

SOGI-arengatiko nazioarteko babeserako eskubidea arlo juridikoan giza eskubidetzat eratzen da, subjektiboa, oinarrizkoa, eta nazioarte mailan kontsakratua da; izan ere, Estatuak lotzen ditu, nazioarteko tresna juridikoen sinatzaile diren aldetik horiek erabateko bermea izan ditzaten, eta haien titulartasuna pertsonarena da, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen subjektu[2]. Ildo horretatik, Errefuxiatuentzako Nazio Batuetako Goi Komisionatuak (aurrerantzean, ENBGK)[3] adierazi du errefuxiatu definizioa interpretatu eta aplikatu behar dela giza eskubideak behar bezala kontuan izanda, "sexu-orientazioa eta genero-identitatearekin erlazionatutako diskriminatzeko debekua barne", eta baita bizitzarako, integritate fisikorako eta psikikorako eta askatasunerako eskubideak[4].

Ondorioz, *pertsona orok* eskubidea du Nazioarteko Zuzenbidean aurreikusitako babesa izateko, berdintasunean eta diskriminazio ezan oinarritutakoa. Honela xedatzen da 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, eta 1. artikuluan argi baieztatzen da "Gizon-emakume guztiak aske eta berdinak jaiotzen dira, duintasunean eta eskubideetan", eta 2. artikuluan aldarrikatzen du: "Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak"[5]. Halere, munduko eskualde gehienetan LGBTI+ pertsonek haien eskubide

---

2 SOGI nazioarteko babeserako eskubidearen aitortza sortu zen jurisprudentzia-eraiketa batetik, Estatu batzuk 80. Hamarkadan hasitakoa, giza eskubide guztien kontzientziazio eta aitortza lan baten fruitu izandakoa, munduko herrialde desberdinetan orientazio afektibo-sexuala eta/edo genero-identitatea edo adierazpen arrazoiengatik diskriminaziorik izan ez dadin. Bere aldetik, ENBGK-ak 1986-an genero arrazoeingatik jazarpenen gainean egindako sinposio batean, honako honetan argitaratua: "UNHCR Symposium on Gender-Based Persecution", *International Journal of Refugee Law*, Special Issue Autumn 1997: (22-23 Otsaila 1996). Dotrinaren ikus puntutik, ikusi, DÍAZ LAFUENTE, J., "Asilo eskubidea sexu-orientazio eta gernero-identitateko arrazoiengatik", *Zuzenbide Politikoko aldizkaria*, nº 89. zk.koa, 2014, 345-388. orrialdeak.

3 ENBGK-k, Nazio Batuetako Asanblada Nagusiak 1951ko urtarrilaren 1ean sortu zuenak, bere gain hartzen ditu, besteak beste, bere Bulegoko eskumenen barnean sartzen diren pertsona errefuxiatuei -Nazio Batuen babespean - nazioarteko babesa emateko eskuduntza. *Cfr. Eskuliburua eta Ildoak errefuxiatu kondizioa ezartzeko prozedurak eta irizpideak, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Konbentzioa eta 1967ko Protokoloaren arabera*, Geneva, 2011ko abendua (Berrargitaratzea), HCR/1P/4/Spa/Rev.3, 14. paragrafoa.

4 *Cfr.* ENBGK, *Nazioarteko Babesari buruzko ildoak, 9. zk.koa: errefuxiatu kondizioaren eskaerak, sexu- orientazioa eta/edo genero-identitatearekin erlazionatutakoak, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Konbentzioa eta/edo bere 1967ko Protokoloaren 1A (2) artikuluaren kontestuan,* 2012ko urriaren 23koa, HCR/IP/12/09, 6. paragrafoa. Halaber, kontuan izan, ENBGK, *errefuxiatu kondizioaren eskaerak, sexu- orientazioa eta/edo genero-identitateari buruzko ENBGK-en orientazio-oharra*, Babes Politiko eta Lege Aholkularitzaren Atala, Nazioarteko Babes Zerbitzuen Arloa, Geneba, 2008ko azaroaren 21ekoa.

5 Ondorio hauetarako, kontuan izan 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Ituneko 2.1 artikuluak xedatzen duena. Itun horren Estatu sinatzaileek konpromisoa hartzen dute: "haien lurraldeetan eta bere eskumenaren menpe dauden pertsonei errespetatzea eta bermatzea Itun honetan aitortutako eskubideak, edozein izanda ere bere arraza, larru-kolorea, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politikoa edo beste modutakoak, nazio edo gizarte jatorria egoera ekonomikoa, jaiotzagatik edo beste edozein gizarte baldintza".

oinarrizkoenen kontrako abusuak jasaten jarraitzen dute, eta jazarpena pairatzen dute bere SOGI erreala edo atzemandakoarengatik, eta haien jatorrizko eta bizileku herrialdeetatik ihes egin behar izan dute, beste lurraldeetan babesa eta segurtasuna bilatze aldera.

Horrela berresten dute Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren ebazpenek, 2011 eta 2014koak hain zuzen, *Giza eskubideei buruzkoak, sexu-orientazio eta genero-identitateari buruzkoa*, eta 2016ko bat, *Sexu-orientazio eta genero-identitate arrazoiengatik bortizkeria eta diskriminazioaren kontrako babesari buruzkoa;* bertan erakunde horrek bere kezka handia aditzera ematen du: "pertsonen kontrako bortizkeria eta diskriminazio ekintzengatik, munduko eskualde orotan, sexu-orientazio eta genero-identitatea dela medio burutzen direnak"[6]. Ildo horretatik, 2017an Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren *Aditu Independentearen lehen bi Txostenek, sexu-orientazio eta identitate arrazoiengatik bortizkeria eta diskriminazioaren kontrako babesari buruzkoek,* honako ondorioztatzen dute: giza eskubideak, inolako bereizketarik gabe, pertsona ororentzat berezkoak izan arren, eta horien babesa bultzatzen duten arren, penagarria da egiaztatzea pertsonak - haien SOGIa, benetako edo atzemandakoa, gizartearen arau zehatz batzuetatik urrutiratzen denean -, bortizkeria edo bazterkeria ekintzen biktimak izan ohi dira, oso txikitatik, besteak beste, erailketena, bortxaketena, mutilazioena, atxiloketa arbitrarioena, eraso psikologikoena eta jazarpenarena[7].

Horrela, SOGI-arengatik jazarpenetik ihes egiten duten pertsonak errefuxiatutzat jo daitezke 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioaren[8] 1.A (2) artikuluaren arabera (aurrerantzean, 1951ko Genevako Konbentzioa), non kondizio hori aitortzen zaion pertsona hauei:

---

6 Cfr. Nazio Batuen Asanblada Orokorra, (aurrerantzean, NBAO), Giza Eskubideei buruzko Kontseiluaren Ebazpena, 17/19, 2011ko ekainaren 17koa Giza Eskubideak, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, A/HRC/RES/17/19; Giza Eskubideei buruzko Kontseiluak onartutako Ebazpena 27/32, Giza Eskubideak, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, 2014ko irailaren 26koa, A/HRC/RES/27/32 Giza Eskubideei buruzko Kontseiluak onartutako Ebazpena, 32/2, 2016ko ekainaren 30ekoa, Sexu-orientazio eta genero identitate arrazoiengatik bortizkeri eta diskriminazioari buruzkoa, 2016ko uztailaren 15ekoa, A/HRC/RES/32/2.

7 Cfr. NBAO, Aditu Independientearena, sexu-orientazio eta identitate arrazoiengatik bortizkeria eta diskriminazioaren kontrako babesari buruzkoa, 2017ko apirilaren 19koa (A/HRC/35/36) eta NBAO, Aditu Independientearena, sexu-orientazio eta identitate arrazoiengatik bortizkeri eta diskriminazioaren kontrako babesari buruzkoa, 2017ko uztailaren 19koa (A/72/172).

8 Beharrezkoa da aipatzea zenbait eskualde mailako tresna juridikoek, arlo honen ingurukoek, errefuxiatu terminoaren definizioa eta bere estatutuaren eduki askoz zabalagoa bereganatu dute, eta bertan sartu dute eraso eta kanpoko dominazioa, bortxaketa egoera orokortua edo giza eskubideen urraketa larria. Horren adibidea da 1967an onartutako Afrikan errefuxiatuen arazoen alderdi espezifikoen gaineko Konbentzioko 1.2 artikulua, honakoa xedatzen dueña:""errefuxiatu" terminoa aplikatuko da halaber bere ohiko bizilekua uztera behartuta dagoen pertsona orori, kanpo eraso batengatik, okupazioarengatik edo kanpo dominazioarengatik, edo orden publikoa larriki asaldatu delako jatorrizko herrialde osoan edo zati batean, edo bere nazionalitateko herrialdean, jatorrizko herrialdetik edo nazionalitatearen herrialdetik kanpo babesa bilatzeko"; edo, 1984an onartutako Kartagenako Adierazpeneko III puntuko 3. Atalak xedatzen duena: "Ertamerikako eremuan izan diren errefuxiatu fluxu masiboak direla eta, beharrezkoa da errefuxiatuaren konzeptua zabaltzea, kontuan izanda, eta eskualdean dagoen egoeraren ezaugarrien barruan, OUAren Konbentzioaren (1. artikulua, 2. paragrafoa) aurrekaria, egokia den zatian, eta Giza Eskubideen Batzorde Interamerikanoak erabilitako txostenak. Honela, eskualde horretan erabiltzeko errefuxiatu definizioa edo kontzeptu gomendagarria da 1951ko Konbentzioa eta 1967ko Protokoloaren elementuak edukitzeaz gain, errefuxiatutzat jotzen dituena haien herrialdeetatik alde egin dutenak, haien bizitza, segurtasuna edo askatasuna mehatxupean dagoelako bortizkeri orokortuagatik, kanpo erasoarengatik, barne liskar, giza urraketa orokortu edo beste zirkunstantziengatik, ordena publikoa larriki asaldatu denean". Cfr. Kartagenako Adierazpena, Ertamerika eta Mexikon eta Panaman Errefuxiatuen Babesari buruzkoa, arazo juridiko eta humanitarioak Elkarrrizketan onartua, Kartagenan izandakoa (Kolonbia) 1984ko azaroaren 19tik 22ra, III-3.

> "*arraza, erlijio, nazionalitate, iritzi politikoak edo gizatalde zehatz batekoa izateagatik* jazarpena jasateko ganorazko beldurrarengatik bere nazionalitateko herrialdetik kanpo dagoenean, eta ezin du edo, beldur horrengatik, ez du nahi herrialdearen babesa eskuratzea; edo, nazionalitaterik ez duenean eta, gertaera horiek medio, ohiko bizilekua zeukan herrialdetik kanpo dagoenean, ezin badu bertara itzuli edo, beldur horiengatik, ez badu nahi."[9].

Halaber, *Errefuxiatuentzat Nazio Batuetako Goi Komisionatuaren Estatutuak* - Nazio Batuen Asanblada Orokorrak (aurrerantzean NBAO) bere 428 (V) ebazpenaren bitartez, 1950eko abenduaren 14an onartutakoa - II Kapituluan ezartzen ditu beharrezko baldintzak, LGBTI+ kolektiboko pertsona errefuxiatu orori ahalbideratzen diotenak, horiek betez gero, Nazio Batuen babesa eskatzeko, "eta berdin du 1951ko Konbentzioa edo 1967ko Protokoloko parte izan ala ez, edo harrera herrialdeak errefuxiatu izaera aitortu izan ala ez, aipatutako tresna horietako baten poderioz", eta aurrerantzean horrela izendatuko dira: *ENBGK-ren mandatuaren bitartez babestutako errefuxiatuak*[10]. Baldintza horiek, orokorrean, honakoak dira:

> "a) Pertsona orok, 1951ko urtarrilaren 1a baino lehen izandako gertaeren ondorioz, eta jazarpena jasateko ganorazko beldurraren ondorioz - arraza, erlijioa, nazionalitatea edo iritzi politikoengatik -, bere nazionalitatearen herrialdetik kanpo badago, eta ezin badu edo, beldur hori medio, edo bere komenentzia pertsonaleko ez diren arrazoiak medio, ez duenean nahi herrialde horren babesa hartu; edo nazionalitaterik ez izateagatik eta lehen zuen ohiko bizilekuaren herrialdetik kanpo egoteagatik, ezin duenean edo, beldur hori medio, edo soilik bere komenentzia pertsonaleko ez diren arrazoiak medio, bertara ez duenean itzuli nahi;
>
> b) Beste edozein pertsona bere nazionalitatearen herrialdetik kanpo dagoena, edo nazionalitatea izan gabe, edo ohiko bizilekua zuen herrialdetik kanpo badago, jazarpenen biktima izateko ganorazko beldurra duelako eta izan duelako, *arraza, erlijio, nazionalitate edo iritzi politikoengatik*, eta ezin badu, edo, beldur horrengatik, ez duenean nahi bere nazionalitateko gobernuaren babesa jaso; edo, nazionalitatea izan ezean, lehen ohiko bizilekua zuen herrialdera bueltatu nahi ez duenean"[11].

Bestalde, eskualdeetako sistema desberdinetan babesaren figurak izan duen bilakaerak ahalbideratzen du nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonak babesa eskatu ahal izatea -munduko eskualde hauetako askotan jazarpena eta diskriminazioa jasaten duelako -; besteak beste, honen babesa: 1966an Batzorde Juridiko Aholkulari Asiar-Afrikarrak onartutako *Errefuxiatuen tratuari dagokion Printzipioen* 1. artikulua, non berariaz jasotzen duen 1951ko Genevako Konbentzioaren 1.A (2) artikulua, babes figurari eta hori aitortzeari dagokienez. Gainera, II.1 artikuluan honakoa gehitu zion, "[p]ertsona orok *inolako bereizketarik gabe*

---

9 Kontuan izan 1951ko Genevako Konbentzioaren 1. artikulua; bertan sartzen dira pertsona bati bere errefuxiatu estatutuaren aitorpena ematetik salbuesteko arrazoi batzuk (E, F, D) edo emandako aitortza amaitzeko arrazoiak (C atala). Nolanahi ere, arrazoi hauek modu hertsian interpretatu beha dira eta zuhurtziaz aplikatu. Cfr. GOODWIN-GILL, G.S., *The Refugee in International Law*, Second Edition, Clarendon Paperbacks, Oxford, 1996, p. 106 y HATHAWAY, J. C., *The Rights of Refugees under International Law*, Cambridge University Press, Cambridge, 2005, 191 eta 225. orrialdeak. Halaber, ikus, NBEGK, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Konbentzioaren 1. artikuluaren interpretazioa, 2001, 38-51 eta 52-57 paragrafoak.

10 *Cfr.* NBAN, *Errefuxiatuentzat Nazio Batuetako Goi Komisionatuaren Estatutua*, 428 (V) Ebazpena, II Kapitulo, 6 paragrafoa., A) eta B) atala.

11 *Ibídem.*, 16. paragrafoa.

eskubidea du asiloa beste herrialdeetan bilatzeko eta gozatzeko"; eta asiloa errefuxiatuei aitortzea "egintza humanitariotzat, baketsutzat eta ez politikotzat" jotzen da", eta modu horretan, beste edozein Estatuk ezin du adiskidetasun eztzat jo (II.3 artikulua). Batasun Afrikarraren Erakundearen Konbentzioaren (BAE) (1969ko irailaren 10koa) 1.1 artikuluak, era berean, berariaz jasotzen du 1951ko Genevako Konbentzioaren 1.A (2) artikuluan babesleku figura eta horren aitortzari dagokionez; eta gainera, 2.1 artikuluan gehitzen du, asiloari dagokionez, "[B]AE-ko Estatu kideek haien esku dagoen guztia egiteko konpromisoa hartzen dute, bakoitzaren legeriaren esparruaren barruan, errefuxiatuei harrera emateko, eta haien jatorrizko herrialdera edo haien nazionalitateko herrialdera, ganorazko arrazoiengatik, bueltatu ezin dutenei, edo nahi ez dutenei, bertan gelditzea ziurtatzeko". Jarraian, artikulu beraren bigarren atalean, asilo eskubidea ematea "egintza baketsutzat eta humanitariotzat jo behar da, eta inongo Estatuk ezin du adiskidetasun eztzat jo". Beste aldetik, 1969ko azaroaren 22ko *Giza Eskubideen Konbentzio Amerikarraren* 22.7 artikuluak, xedatzen du: "[p]ertsona orok eskubidea du jazarpen kasuan atzerriko lurralde batean asiloa bilatzeko eta hartzeko (...) Estatu bakoitzeko legeriarekin eta nazioarteko hitzarmenekin bat"[12].

Errefuxiatu izaeraren aitortza deklaratibo honek LGBTI+ pertsonei ahalbideratzen die 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren (aurrerantzean GEAU) 14. artikuluan babesa izatea; honek edozein herrialdetan asiloa bilatzeko eta gozatzeko eskubidea aitortzen die, edo 1967an onartutako *Lurralde Asiloari buruzko Nazio Batuen Aldarrikapena,* zeinek asiloaren honako definizioa ematen duen: "ekintza baketsua eta humanitarioa da, eta horrela den moduan, inongo Estatuk ezin du adiskidetasun eztzat jo"[13]; baita ere, ez itzularazteko printzipioak (*non-refoulement*) ahalbideratzen duen onura hartzeko (*non-refoulement*), 1951ko Genevako Hitzarmenaren 33. artikuluan jasotakoa, eta honakoa debekatzen duena:

> "inongo Estatu Kontratugilek ezingo du, *kanporaketa edo itzulketa bitartez, errefuxiatu bat herrialde bateko mugan jarri, baldin eta bere bizitza edo bere askatasuna arriskuan badago*, arraza, erlijio, nazionalitate, giza talde zehatz bateko kide izatea edo iritzi politikoengatik"[14].

Horri dagokionez, ondoren ez itzularazte printzipioaren araudi-edukia nazioarteko itun askotan, eta esparru honetan espezializatutako oso organo eta erakunde anitzen aldarrikapenetan jaso da, maila unibertsalekoetan nahiz eskualdeetakoetan. Hori izan da ez itzularazteko obligazioa soluzio sinesgarri moduan kontsolitatu delako, eta Estatuen gaitasun subiranoen aurrean benetako muga moduan eratu delako, haien lurraldeetan atzerritarrak sartzeari eta egoteari dagokionez, eta, batez ere, pertsona errefuxiatu eta nazioarteko babes eskatzaileen itzularaztearen babesari dagokionez. Eta zehazki, LGBTI+ kolektiboko pertsonak jazarpena edo tortura jasateko arriskua dagoen lurraldeetara, haien askatasuna, integritate fisikoa eta/edo bizitza arriskuan jar badaitezke. Ildo horretatik, modu berezian azpimarratu behar da printzipio

---

12 *Giza Eskubideen Gutun Arabiarra*, 2004ko maiatzaren 22an onartutakoa, ez aipatzea erabaki da; izan ere, soilik bere 28. artikuluan honela aipatzen du asilo políticoa: "[e]veryone has the right to seek political asylum in another country in order to escape persecution. This right may not be invoked by persons facing prosecution for an offence under ordinary law. Political refugees may not be extradited".

13 *Cfr. Lurralde Asiloari buruzko Nazio Batuen Aldarrikapena*, Asanblada Nagusiaren 2312 (XXII) Ebazpena, 1967ko abenduaren 14koa.

14 Ez itzularazteko debekuak, arriskuaz gain, *ganorazko beldurra* egon behar duela eskatzen du, hau da, posibilitate bat egon behar du pertsona bat bere jatorrizko herrialdera bueltatzen bada, jazarpena jasateko, eta baita ere, jatorrizko Estatuaren aldetik babesa eza pairatzeko. *Cfr.* HATHAWAY, J.C., *The Rights of..., op. cit.*

hau sartu zela aberrigabeen Estatutuari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren Amaierako Aktan, 1954ko irailaren 23koan[15]; *Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren* 7. artikuluan (1966ko abenduaren 19koa[16]), *Lurralde Asiloari buruzko Aldarrikapeneko 3. artikulua*, NBAN-k 2132 (XXII) Ebazpenean ahobatez onartutakoa (1967ko abenduaren 14koa[17]), edo tratu edo zigor ankerrak, inhumanoak edo umiliagarrien kontrako Konbentzioaren (TAK) 3. artikuluan (1984ko abenduaren 10ekoa[18]). Bestalde, eskualde mailan aipatu ditzakegu, guztiak izan gabe, *Giza Eskubideen eta Askatasunen Babeserako Hitzarmen Europarraren (GEHE)* 3. artikulua (1950ko azaroaren 4koa[19]); Caracaseko Lurralde Asiloari buruzko Konbentzioaren 3. eta 4. artikuluak (1954ko martxoaren 28koa[20]); 1957ko abenduaren 13ko Estradizio Hitzarmenaren 3.2 y 21.6 artikuluak[21]; Batzorde Juridiko Aholkulari Asiar-Afrikarrak 1966an Bangkok-en onartutako Errefuxiatuen tratuari buruzko printzipioen III.3 artikulua[22]; Europako Kontseiluko

---

15 "Konferentziak ez zuen beharrezkoa ikusi Aberrigabeen Estatutuaren Konbentzioan sartzea 1951ko Errefuxiatuen Estatutuaren Konbentzioaren 33. artikuluaren baliokidea; izan ere, 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioaren 33 artikulua, jeneralean onartuta dagoen printzipio honen adierazpena da: inolako Estatu Kontratugilek ezingo du, kanporatze bidez edo itzulketa bidez, pertsona bat inola ere bere bizitza edo askatasuna - arraza, erlijioa, nazionalitatea, giza-talde zehatz bateko kidea izateagatik, edo haien iritzi politikoengatik - arriskuan dauden lurraldeetako mugan jarri" (4. atala).

16 7. artikulua: "Inork ez du torturarik pairatuko, ezta tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarririk ere". *Non-refoulement* printzipioaren betebeharra ez da berariaz aipatzen, eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak interpretatzen du, 20 zk.ko Ohar Orokorraren bitartez (1992), *non-refoulement printzipioaren ezaugarri eratzailetzat jotzen dela*, hau da, "[E]statu partehartzaileek ezin dute pertsonak tortura, tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarrien arriskupean utzi, beste herrialde batera bueltatuz, estradizio, kanporatze eta itzulketa bitartez", 1994ko uztailaren 28an, HRI/HEN/1/Rev.1, 9. paragrafoa.

17 3. artikulua: "[i]nolako pertsonek (...) ez du honelako neurririk jasango: mugan harrera ematea ukatzea; edo asiloa bilatzen duen herrialdean sartu balitz, kanporatzea edo nahitaezko itzulketa jazarpena jasan dezakeen edozein Estatutara. 2. Nazio segurtasun funtsezko arrazoiengatik edo biztanlegoa babesteko soilik, aurreko printzipioaren salbuespena egin daiteke, pertsonen fluxu masiboaren kasuetan bezala. 3. Estatu batek erabakitzen badu edozein kasutan artikulu honen 1. paragrafoan ezarritako printzipioari salbuespena justifikatuta dagoela, pertsona interesdunari aukera emango dio, komenigarriena uste duen moduan, behin-behineko asilo moduan edo beste modu batean, beste Estatu batera joate aldera".

18 3. artikulua: "[i]nongo Estatu Partehartzailek ez du petsona bat beste Estatu batera kanporatuko, itzuliko edo extraditatuko, torturatua izateko arriskuan egongo litzatekeela ganorazko arrazoiak baldin badaude".

19 3. artikulua: "[I]nork ez du torturarik pairatuko, ezta tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarririk".

20 3. artikulua: "[i]nongo Estatuk ez du obligaziorik delitu politikoengatik jazarpena jasan duten pertsonak beste Estatu bati entregatzeko, edo bere lurraldetik kanporatzeko", eta 4. artikulua: "[e]stradizioa ez da bidezkoa pertsonari, errekeritutako Estatuak egindako kalifikazioaren arabera, delitu politikengatik jazarpena egin badiote, edo helburu politikoko delitu arruntengatik, eta ezta ere estradizioa eskatzen denean gehienbat motibazio politikoengatik".

21 Horrela, 3.2 artikuluak xedatzen duen moduan ez da estradizioa onartuko "[a]lde errekerituak ganurazko arrazoiak balitu pentsatzeko izaera arruntazko delituagatik estradizio eskaera egin dela pertsona bat pertsegitzeko edo zigortzeko, arraza, erlijio, nazionalitatea edo iritzi politikoen arrazoarengatik; edo arrazoi horietako bat medio, pertsona horren egoerak okerrera egingo duenaren arriskua dagoelako"; era berean, 21.6 artikuluak xedazen du: "[e]ntregatutako pertsonaren ibilbidea ez da lurralde batetik egingo non ganorazko arrazoia legoke pentsatzeko bere bizitza edo askatasuna arriskuan izango liratekeela, arraza, erlijio, nazionalitate edo iritzi politikoengatik".

22 III.3 artikulua: "[p]rintzipio hauekin bat, asiloa eskatzen duen inorri ezin zaizkio honako neurriak aplikatu: mugan errefuxatzea, itzularaztea edo kanporatzea, horrek ekarriko balu itzuli behar izatea lurralde batera, edo bertan jarraitzea, non jazarpena jasateko ganorazko beldurra dagoen bere bizitza, integritate fisikoa edo askatasuna arriskuan jartzeko. Salbuespena egongo da nazio segurtasuna edo biztanlegoak babesteko arrazoi inperatiboak baldin badaude".

Ministro Batzordeak onartutako14. Ebazpena [23], *jazarpen mehatxua duten pertsonen asiloari buruzkoa*, 1967ko ekainaren 29koa,; 1966ko Errefuxiatuen tratuari buruzko Printzipioen III artikulua, Batzorde Lege Aholkulari Asiar-Afrikarrak (BLAAA), 1966an onartutakoa[24]; Batasun Afrikarraren Erakundearen (ABE) Konbentzioaren 2.3 artikulua, 1969ko irailaren 10koa, Afrikan errefuxiatuen arazoen alderdi espezifikoak arautzen dituena[25]; 22.8 artikulua, *Giza Eskubideen Konbentzio Amerikarrarena*, 1969ko azaroaren 22koa[26]; Terrorismoaren Errepresiorako Hitzarmen Europarraren 5. artikulua, 1977ko 27koa[27], edo 1981eko *Giza Eskubideei eta Herriei buruzko Gutun Afrikarraren edo Banjul*eko Gutuneko[28] *5.*, artikulua.

---

23 "Le Comité des Ministres (...) recommande aux gouvernements nombres de s'inspirer des principes suivantes: 1. Ils devraient faire preuve d'un esprit particulièrement libéral et humanitaire à l'égard des personnes qui cherchent asile sur leurs territoires; 2. Ils devraient, dans ce même esprit, assurer qu'aucune personne ne fasse l'objet d' un refus d' admission à la frontière, d'un refoulement, d'une expulsion ou de toute autre mesure qui aurait pour effet de l'obliger à retourner ou à demeurer dans un territoire où elle serait menacée de persécution de fait de sa race , de sa religion, de sa nationalité, de son appartenance à un certain groupe social ou de ses opinions politiques; 3. Dans le cas où, afin de sauvegarder la sécurité nationale ou de protéger la communauté contre des dangers graves, un gouvernement membre envisagerait de prendre des mesures qui seraient susceptibles, d'avoir un tel effet, il devrait accorder à la personne qui en ferait l'objet, dans toute la mesure du possible et selon les conditions qu'il juge appropriées, la faculté de se rendre dans un autre pays que celui où elle serait menacée de persécution".

24 III. artikulua: "[n]o one seeking asylum in accordance with these principles should, except for overriding reasons of national security or safeguarding the populations, be subjected to measures such as rejection at the frontier, return or expulsion which would result in compelling him to return to or remain in a territory if there is a well-founded fear of persecution endangering his life, physical integrity or liberty in that territory". *Cfr. Report of the Eighth Session of the Asian-African Legal Consultative Committee*, in Bangkok from 8th to 17th August 1966, 335. orrialdea.

25 2.3 artikulua: "[E]statu kide batek inongo pertsonari ezin dio ezarri honako neurririk: mugan harrera ez onartzea, itzulketa edo kanporaketa, horrek ekarriko balio lurralde batera bueltatzea edo bertan jarraitzea, non bere bizitza, integritate fisikoa edo askatasuna mehatsupean egongo balira 1. artikuluaren 1 eta 2. paragrafoen arrazoietan oinarrituta, hala nola, arraza, erlijio, nazionalitatea, giza-talde bateko kidea izatea edo iritzi politikoarengatik; bere ohiko bizilekua uztera behartuta daudenak, kanpo eraso batengatik, okupazioarengatik edo kanpo dominazioarengatik, edo jatorrizko herrialde osoan edo zati batean, edo bere nazionalitateko herrialdean, orden publikoa larriki asaldatzen duen gertaerengatik, beste leku batean, jatorrizko edo bere nazionalitateko herrialdetik kanpo babesa bilatzeko."

26 22.8 artikulua: "[a]tzerritar bat inoiz ezin da kanporatu edo beste herrialde batera itzuli, bere jatorrizkoa izan ala ez, non bizitza edo askatasun pertsonalerako bere eskubideak urratuak izateko arriskuan dauden, bere arraza, erlijio, gizarte kondizioa edo iritzi politikoengatik".

27 5. artikulua: "[H]itzarmen honen inolako xedapenik ez da interpretatu behar errekeritutako Estatuak entregatzeko betebehar bat bezala, arrazoi serioak baldin baditu 1. edo 2. artikuluan aipatutako urraketetan oinarrituta estradizio eskaera aurkeztu dela pertsona bat zigortzeko, arraza, erlijio, nazionalitate edo iritzi politikoen arrazoiengatik, edo pertsona horren egoera okerrera joko duela hautako arrazio baten edo bestearengatik".

28 5. artikulua: "[e]very individual shall have the right to the respect of the dignity inherent in a human being and to the recognition of his legal status. All forms of exploitation and degradation of man particularly slavery, slave trade, torture, cruel, inhuman or degrading punishment and treatment shall be prohibited".

Azkenik, aipatu gabe ezin utzi, nahiz eta izaera deklaratiboa izan, *Yogyakartako printzipioak*, Giza *Eskubideen Nazioarteko Legeria Aplikatzeari buruzkoak, Sexu-orientazio eta Genero-Identitateari dagokionez*[29] (2007an onartua), eta, zehazki, 23. printzipioan xedatzen duena:

> "[j]azarpen kasuetan, sexu-orientazioa edo genero-identitatearekin erlazionatutakoak barne, pertsona orok du asiloa bilatzeko eta edozein herrialdeetan eskuratzeko eskubidea. Estatu batek ezingo du pertsona bat mugitu, kanporatu edo estraditatu edozein Estatutara, baldin eta ganorazko beldurra izango balu bertan tortura, jazarpen edo edozein tratu edo zigor anker, gizagabe edo umiliagarria jasateko, sexu-orientazio edo genero-identitatearengatik"[30].

29 Ildo horretatik, *Yogyakartako printzipioek* Estatuen betebeharren zehaztasun koherentea aurreikusten dute, pertsona ororen eskubideak errespetatu, babestu eta gauzatzeko, bere SOGI-a kontuan hartu gabe. Ikus bitez, O'FLAHERTY, M. eta FISHER, J., "Sexual orientation, gender identity and international human rights law: Contextualising the Yogyakarta Principles", *Human Rights Law Review,* 2008, 8. liburukia, 2. zk.a, 207-248. orrialdeak; WAITES, M., "Critique of "sexual orientation" and "gender identity" in human rights discourse: Global queer politics beyond the Yogyakarta Principles", *Contemporary Politics*, 2009, vol. 15, nº 1, pp. 137-156 y BROWN, D., "Making room for sexual orientation and gender identity in international human rights law: An introduction to the Yogyakarta Principles", *Michigan Journal of International Law,* 31. zk.a, 2009, 821-880. orrialdeak. Gainera, komenigarria da aipatzea ENBGK-k printzipio horiek askotan aipatu dituela Nazioarteko Zuzenbidea SOGI-ari lotutako gaiei aplikagarria dela frogatzeko, eta gomendatu du nazio auzitegiek erabakiak hartzerakoan jarraitu beharreko erreferentziatzat hartzeko. *Cfr.* ENBGK, *Orientazio oharra…, op. cit.*

30 *Cfr.* Juristen Nazioarteko Batzordea. Yogyakartako printzipioak, *Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea aplikatzeari buruzkoa, Sexu-Orientazio eta Genero-Identitateari dagokionez*, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluan 2007ko martxoaren 26an aurkeztutakoa. Halaber, ikusi, Kolonbiako Konstituzio Gortearen Epaia (tutoretzen Berrikuspenen Zortzigarren Sala), 2018ko apirilaren 23koa, T-143/18 Epaia.

2. SOGI-a, gizatalde zehatz bateko kidea izateagatik ezaugarri moduan

SOGI-arengatik nazioarteko babes eskaerak aztertzen ohi dira "gizatalde zehatz bateko kide izateagatik"[31]. Horri dagokionez, ENBGK-k gizataldeari honelako definizioa ematen dio:

> "pertsona talde bat da, ezaugarri amankomuna partekatzen duena, eta ez da jazarpena jasatearena, edo gizarteak askotan talde bezala ikusten duela. Ezaugarria izango da sortzetiko bat eta aldaezina dena, edo nortasunaren, kontzientziaren edo giza eskubideak egikaritzearen funtsezko ezaugarria"[32].

Definizio honetatik ondorioztatzen da bi direla gizatalde zehatz bateko partaide izateko ezaugarriak: alde batetik, "babestutako ezaugarriak", eta honek aztertzen du ea talde baten kideak bateratuta dauden sortzetiko eta aldaezin den ezaugarri batekin edo giza duintasunaren funtsezko ezaugarri batekin, zein pertsona bati ezin zaion behartu uztera. Ildo honetatik, SOGI-aren kategorizazioa, sortzetiko eta aldaezin kategorietan, eztabaidak sor ditzake; izan ere, biak pertsona baten bizitzan zehar eboluzionatu dezakete. Hori egiaztatzen da sexualitateari eta generoari buruzko teoria berrietan: queer teorian bezala. Horren abiapuntua da sexu disidentzia eta identitate estigmatizatuen dekonstrukzioa, baieztatzen dutena sexu-aukera desberdina giza eskubide bat dela[33]. Horregatik, ENBGK-k gomendatzen du: "[g]iza-talde zehatz bateko kide izate" nozioa interpretatu behar da modu ebolutibo batean, eta modu irekian hartu behar dira gizarte desberdinetako taldeen izaera anitza eta aldakorra, eta giza eskubideen nazioarteko araudiaren eboluzioa"[34]. Ondorioz, asilo eskaera prozeduren markoan, generoa eta sexualitatearen trataerak eskatzen du nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonaren inguruabar partikularrak eta bizitutako esperientziak aintzakotzat hartzea. Honela, harrera ematen dion Estatuko agintarientzat, eskaera ebatzi behar dutenentzat, estereotipo eta suposizioei heltzea - begi-bistako seinaleak edo hauen falta barne - hutsegiteak sor ditzake, eta LGBTI+ pertsona gizatalde baten partaidetzat jo dezake[35]. Honi dagokionez, ENBGK-k aipatu du "LGBTI+ pertsona oro ez dira ikusten edo ez dira portatzen nozio estereotipatuekin bat [...], nolanahi ere, begi-bistan erakutsitako atributu edo ezaugarri batek eskatzailea LGBTI+ gizataldekoa delaren konklusioa indartu baldin badezake ere, ez da aurrez taldea atzemateko ezaugarri bat"[36].

---

31 Ikusi, ENBGK, *Nazioarteko Babesari buruzko Ildoak: "giza-talde zehatz bateko kide izatea" 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioaren 1.A(2) artikuluaren eta/edo bere 1967ko Protokoloaren kontestuan*, 2002ko maiatzaren 7koa, HCR/GIP/02/02.

32 *Ibídem.*, 44. parrafoa.

33 *Queer* teoriari buruz, ikusi, besteak beste, MÉRIDA JIMÉNEZ, R., *Sexualitate hausleak*. Queer azterlanen antologia bat, Icaria argitaletxea, Barcelona, 2002; BUTLER, J., I*nporta duten gorputzak. "Sexuaren" muga materialak eta diskurtsiboak,* Paidós, Buenos Aires, 2002; HATHAWAY, J.C. eta POBJOY, J., *"Queer cases make bad law", New York University Journal of International Law and Politics*, vol. 44, Issue 315, 2011-2012, 322. orrialdeak, eta SUBNER, P., "Invisible intersections, queer intersections, same sex family reunification under the rule of asylum law", hemen: SPIJKERBOER, Th. (Dir.), *Fleeing Homophobia: Sexual Orientation, Gender Identity and Asylum*, Routledge, Cambridge, 2013, pp. 176-188.

34 *Cfr.* ENBGK, Nazioarteko babesari buruzko Ildoak *9. zk.koa..., op. cit.*, 44. atala.

35 *Cfr. Ibídem.*, 49. paragrafoa. Ildo honetatik, adibide moduan, *In re Soto Vega afer*a, non nazioarteko babes eskatzaile bati errefuxiatu estatutua ukatu zitzaion maskulinitate gehiegi zuelako, ez baitzen bere erropan, portaeran edo bere ahotsean homosexulaen ezaugarri berezkorik. *Cfr.* HANNA. F., "Punishing Masculinity in Gay Asylum Claims", *The Yale Law Journal*, 114. liburukia, 4. zk.a, 2005, 913-920 orrialdeak.

36 *Cfr.* ENBGK, *DNazioarteko babesari buruzko ildoak 9. zk.a..., op. cit.*, 49. paragrafoa.

Bestalde, "giza pertzeptzioa" elementuak lehentasuna ematen dio gizatalde batek ezaugarri komun bat partekatzen duen ezartzeko, eta honek taldea identifikatzea edo taldeko kideak gizartetik oro har desberdintzat jotzea bideratzen du[37]. Elementu horrek zenbait galdera sortzen ditu, konplexutasun handikoak; izan ere, gizatalde zehatz baten parte izatea, gizarteak nola ikusten duen kontuan izanda, behartzen du ikusgaitasun maila bat. Eta horrek kasu honi kontra egiten dio: nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonak bere askatasuna izan behar du bere SOGI-aren adierazpena eta bibentzia bere intimitatean mantentzeko; eta baita bere kondizioa ezagutua izateko beldurra edukitzeko askatasuna, eta gainerako gizartearekin partekatzeko. esperientziak erakusten du nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonek maiz beharra izaten dutela bere bizitza sexualari edo generoari dagozkien alderdiak isilpean mantentzeko, kolektibo honen kontra gizarteko presioa eta etsaitasunagatik, edo jatorrizko herrialdean jasan dezaketen zigor penalengatik[38]. Ondorioz, honek ahalbideratzen du, kasu gehienetan, estigmatizatutako eta askotan kriminalizatutako gizatalde batekin ez lotzea edo identifikatzea. Horri dagokionez, ENBGK-k aipatu du "gizarte-pertzepzioaren ikuspuntuak ez du eskatzen atributu komuna lehen begi-bistan, hitzez-hitz, ikusgai izatea; ezta ere, oro har jendearentzat atributua erraz identifikagarria izatea"[39]; ez da ondorioztatzen ere kolektibo honentzat gizartean publikoki bere sexu-orientazioa edo genero-identitatea erakutsi behar izatea. Baizik eta, hobeto esanda, ENBGK-k adierazi duen bezala, LGBTI+ kolektiboari buruz jatorrizko herrialdeko gizarte-pertzepzio "orokor eta abstraktu"[40] bati buruz arituko ginateke; eta ez da behar nazioarteko babes eskatzailearen gaineko gizarte-pertzepzio hori behartzea.

Nolanahi ere, horren inguruan araudi europar eta espainiarrak eztabaida serioak eragiten dituzte, aurrerago ikusiko dugun bezala; izan ere, auzitegietako praxis komunak eskatzailearen kontakizuna egiaztatzeko, sinesgarritasuna duten zantzu nahikoak aurkeztea eskatzen du. Honek, inplizituki, LGBTI+ pertsonari betebeharra sortzen dio, eta bere SOGI-a ikusgai jartzera behartuta dago. Betebehar hori gogor kritikatu da, ez bakarrik errefuxiatu estatutuaren aitortzari dagokionez, baizik eta baita ere harrera eta babeslekuari buruzko baldintzengatik; izan ere, kolektibo honek jasaten dituen estigmatizazio eta bereizkeriaren erruz, normatibizitutako genero-identitatea edo orientazio afektibo-sexualekin ez duenez bere burua identifikatzen, ezkutatzen dute, eta bere familiarekin ez dute partekatzen, edo ezta ere harrera edo abegi zentroetan bizi diren beste pertsonekin. Asilo prozedura eta harrera baldintzak are korapilatsuagoak egiten ditu[41].

Azkenik, nahiz eta SOGI-arengatik nazioarteko babes eskaera aztertzen den gizatalde zehatz bateko kide izatea kontuan izan, horrek ez du kentzen 1951ko Genevako Konbentzioa beste arrazoiekin ezin direnik uztartu. LGBTI+ pertsonak ihes egiten duen herrialdeko testuinguru politiko, erlijiozko eta kulturalaren araberakoa izango da[42]. Ildo honetatik, gertatu liteke Estatu batean jazarpen bi arrazoi edo gehiago ematea. Adibidez, pertsona batek, bere sexu

---

37 *Ibídem*., 45. paragrafoa.

38 *Cfr.* ENBGK, *Orientazio oharra…, op. cit.* Halaber, kontuan izan, CARROL, A., eta MENDOS, L.R., *Estatu homofobia 2017. Orientazio sexuala zuzenbidean ikerlan juridikoa mundu mailan: kriminalizazioa, babesa eta aitortza*, ILGA, Geneva, 2017ko maiatza.

39 *Cfr*. ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak, 9. zk.a…, op. cit.*, 49. paragrafoa.

40 *Ibídem*., 49. paragrafoa.

41 *Cfr.* DIAZ LAFUENTE, J., "…rako eskubidea", *op. cit.*, 345-388. orrialdeak.

42 Ondorio hauetarako, kontuan izan, *Eskuliburua eta Ildoak…, op. cit*.

orientazioarengatik[43] edo bere genero identitatearengatik, ez du bat egiten erlijio zehatz batek erakusten duenarekin, eta hortaz, jazarpenaren objektu izan daiteke; izan ere, talde zehatz edo erlijio komunitateak LGBTI+ kolektiboarekiko dituzten jarrera negatiboak honakoak izan daitezke: sexu bereko pertsonen arteko jarduera galarazten saiatzea, edo trans portaera edo identitate adierazpena galarazten saiatzea; baita ere oposizio aktiboa bideratu daiteke protesten bitartez, kalte larriak edo torturak, edo heriotz zigorra, herrialde islamiar batzuetan, Shariaren lege islamikoarekin gertatzen den moduan[44]. Baita ere gertatu daiteke SOGI-a ekintza nabarmenki politikotzat jotzea,[45] Estatu zehatz bateko gobernuaren politikari desafio egiten diola ulertzen badu; baita ere gizartean indarrean dauden arau eta baloreentzat mehatxutzak jo badaiteke, baldin eta, kasua balitz, Estatuaren erretorika ofizialaren lematan oinarritzen bada, hala nola, herrialdean homosexualitatea badagoenik ukatzea, edo esatea LGBTI+ kolektiboa ez dela nazio identitatearen parte[46].

3. SOGI-arengatik nazioarteko babesa osatzen duten elementuak

3.1. SOGI arrazoiengatik jazarpentzat jo daitezkeen ekintzen izaera

Errefuxiatu izaera aitortze aldera, ez da aurre baldintza jazarpentzat jo daitezkeen ekintzak iraganean gertatu izana. ENBGK-k baieztatzen duen moduan, *jazarpena jasateko ganorazko beldurraren* arrazoiaren "oinarria honakoa da: jatorrizko herrialdera itzuliko balitz eskatzaileak izango lukeen egoeraren ebaluazioa. Kasu horretan pertsona eskatzaileak ez du egiaztatu behar izango alde egin baino lehen agintariek bere sexu-orientazioa eta/edo genero-identitatea ezagutzen zutenik"[47], baizik eta, egiaztatu behar dutena da, etorkizunean, bere jatorrizko edo bizilekuko herrialdera itzuliko balitz, jazarpena jasan dezakeelaren *ganorazko beldurra*.

---

43 Ildo honetatik, ikusi, BAY LARSEN, L., "Asilo eskaera egiten duten homosexualek giza talde espezifiko bat eratu dezakete, bere sexu-orientazio arrazoiarengatik jazarpena jasaten duena: JA, Laugarren Sala, S 2013ko azaroak 7", Europar Batasunaren Legea, 10. hilabetea, 2013, 65-66 orrialdeak.

44 Cfr. ENBGK, N*azioarteko babesari buruzko ildoak: genero arrazoiengatik jazarpena, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Konbentzioko 1A (2) artikuluaren, eta/edo bere 1967ko Protokoloaren kontestuan*, 2002ko maiatzaren 7koa, HCR/GIP/02/01, 25 eta 26. paragrafoak.

45 ENBGK-k *iritzi publikoa* terminoa modu zabalean interpretatu du eta honakoa deritzo "edozein gai, Estatuaren makinaria, gizartea edo politika nahasia egon daitekeena. Cfr. ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko Ildoak 9.zk.a…, op. cit.*, 5. paragrafoa.

46 ENBGK deritzo iritzi publikoa eta erlijioaren arrazoiak uztartu daitezkeela, erlijio instituzioak eta Estatua ez direnean guztiz independienteak. *Cfr.* ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak, 9 zk.koa…, op. cit.*, 43. paragrafoa.

47 *Cfr.* ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko Ildoak 9.zk.a …, op. cit.*,19. paragrafoa.

SOGI-arengatik errefuxiatu izaera aitortza eskuratu aldera, beharrezkoa da, ondorio hauetarako, aurretik zehaztea ze elementuk osatzen duten *jazarpena*. Ildo honetatik, ENBGK-k jazarpena terminoak honako elementuak dituela dio: "giza eskubideen urraketa larriak, besteak beste, bizitza edo askatasunari mehatxua, eta beste kalte larri batzuk ere"[48]. SOGI-arengatik asilo eskaerek pertsonen kontrako abusu larri eta bortizkeria fisiko, psikologiko eta sexualen mehatxu orokortuak adierazten dituzte[49]. Zehazki, auzitegiek bortxaketa tortura motatzat jo dute, biktimari "arrasto psikologiko sakonak" uzten dizkiotenak"[50] "pertsona beldurtzeko, beheratzeko, umiltzeko, diskriminatzeko, zigortzeko, kontrolatzeko edo suntsitzeko"[51], bere giza duintasunaren kontrako eraso argi eta goria[52].

1951ko Genevako Konbentzioak jazarpentzat jotzen diren ekintzak izendatzen ez dituenez, beharrezkoa egiten da ENBGK-k *SOGI-arengatik nazioarteko babesari buruz* egindako Ildoak begiratzea, eta aztertu ondoren ondorioztatzea zein ekintza, portaera eta neurri jo litezkeen "jazarpen ekintzatzat", nazioarteko babes eskaera argudiatzeko.

3.1.1. Pertsona baten SOGI-a aldatzen saiatzeko neurriak.

Munduko parte desberdinetako herrialde askotan homosexualitatea, bisexualitatea eta genero aniztasuna gaixotasun, buru nahasmendu edo akats moraltzat jotzen dituzte[53]. Ondorioz, neurriak jarri ditzakete, eta horien biktima zuzenak LGBTI+ pertsonak dira, sexu-orientazioa eta/edo genero-identitatea aldatzen saiatzeko, kasu gehienetan, bortizkeria edo hertsikeriaren bitartez, eta hauek "tortura edo tratu inhumano edo umiliagarritzat jo daitezke, eta beste giza eskubideen urraketa larria ekar dezake, besteak beste, pertsonen askatasunerako eta segurtasunerako eskubideen kontrakoak"[54]. ENBGK-k, adibide moduan, jazarpen ekintzatzat jo daitezkeen neurri hauek izendatzen ditu: "behartutako instituzionalizazioa, sexua berrezartzeko behartutako

---

48 *Ibídem*., 16. paragrafoa.

49 Nazioarteko zigor auzitegiek, haien jurisprudentzian, sexu bortizkeriazko delituen hedapena zabaldu dute, eta bortxaketarengatik auziperatua izan daiteke honako ekintzak: ahozko-sexua eta alu eta uzki penetrazioa, objektuak erabiliz edo erasotzailearen gorputzaren edozein parte. Ikusi, adibidez, *Fiskala Anto Furundzijaren kontra* (Lehen auzialdiko Epaia), IT- 95-17/1-T, Yugoslavia ohiarentzat Nazioarteko Zigor Auzitegia, 1998ko abenduaren 10ekoa, 185. paragrafoa eta *Fiskala. Dragoljub, Kunarac, Radomir Kovac eta Zoran Vukovic-en kontra* (Apelazio Epaia), IT-96-23 eta IT-96-23/1-A, 2002ko maiatzaren 12koa, 128. paragrafoa. Ikusi halaber, Naioarteko Zigor Gortea, *Krimenen Elementuak*, 2011, 7 (1) (g) -1 eta 8 (2) (b) (xxii) -1 artikuluak.

50 *Ibídem.*, 20. paragrafoa.

51 Ikusi, GEEAE, 1997ko irailaren 25koa, gaia *Aydin Turkiaren kontra*, 83. artikulua. Ikusi Halaber, *HS* gaia (*Homosexualak: Adingabeak, Itzultzeko Arriskua) Iraneko Barne Ministerioko Estatu Idazkariaren kontra* [2005] UKAIT 00120, Erresuma Batuko Asilo eta Inmigrazio Auzitegia (AIT), 2005ko abuztuaren 4koa, 57. eta 134 paragrafoak, non aitortzen den torturatzat eskatzaileak atxilotzerakoan pairatu zuen eraso sexuala; gaia (arrêt) 36. zk.koa. 527, Atzerritarren arloko Auziei buruzko Kontseilua (Belgica), 2009ko abenduaren 22koa, non aipatzen den errekurtso jartzaileak espetxean jasandako tortura eta integritate fisikoaren urraketa larriak jazarpentzat jotzen direla. Halaber, ikusi, ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak: Jazarpena…, op. cit*, 13. orrialdea.

52 Ikusi, Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegia, 2001ko ekainaren 1koa, gaia *Fiscal Jean-Paul Akayesuren kontra* (Apelazio Epaia), ICTR-96-4-A, 687. paragrafoa.

53 Osasunaren Mundu Erakundearen CIE-11 Gaixotasun Katalogoaren arabera (2018an argitaratua), transexualitatea genero disforiatzat jotzetik, "genero kongruentzia" kalifikaziora pasa da.

54 Cfr. ENBGK, Nazioarteko babesari buruzko ildoak *9. zk.koa…, op. cit.*, 21. paragrafoa.

kirurgia, behartutako elektroshock terapia, eta drogak injektatzea, edo behartutako hormona terapia"[55], "normaltasunera" bideratuak izateko, eta pazientearen informatutako baimenik gabe, jazarpentzat jo daiteke. Ildo honetatik, komeni da gogoraraztea Yogyakartako Printzipioetako 18., honakoa xedatzen duena: "kontrakoa adierazten duen edozein sailkapen izanda ere, pertsona baten sexu-orientazioa eta genero-identitatea ez dira osasunaren nahasmendua, eta ez dute izan behar mediko tratamendu edo artatzea, ezta baztertu ere"[56].

Halaber, 1966ko *Eskubide Zibil eta Politikoen Itunaren* 7. artikuluak hitzez-hitz adierazten du, "zehazki, ezin da inorekin, bere baimen askea gabe, esperimentu mediku edo zientifikorik egin", eta ondorioztatu dezakegu baita ere adostu gabeko esperimentazio mediku edo zientifikoa, tortura edo tratu inhumano edo umiliagarritzat berariaz jotzen dela. Horri dagokionez, Nazio Batuetako Torturaren Aurkako Batzordeak (TABat) eta Nazio Batuen Tortura eta beste Tratu edo Zigor Anker, Inhumano edo Umiliagarriei buruzko Errelatore Bereziak azpimarratu dute xedapen honek jasotzen duela "bere homosexualitatea egiaztatzeko, jarrera homosexuala duten gizonezko susmagarriei baimenik gabeko uzkiko azterketa egiteko debekua", eta praktika hori "ikuspuntu medikotik alferrikakoa da", eta 1984ko Torturaren Aurkako Konbentzioaren espirituaren kontrakoa da.

Ildo beretik, Nazio Batuetako beste erakundek, hala nola Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisionatuak, edo Haurraren Eskubideen Batzordeak adierazten dute konbertsio terapiak deitutakoak osatzen dituzten praktikak, adinez nagusiei edo adingabekoei aplikatuta, hau da, "behartutako genitaletako eta uzkiko azterketak, behartutako edo borondatearen kontrako antzutzeak, eta halaber, ikuspuntu medikotik alferrikakoak diren esku-hartze kirurgiko edo tratamenduak", horiek denak tortura eta beste tratu inhumano eta umiliagarrien debekuaren kontrakoak direla, eta hortaz, gaitzesgarriak[57]. Bere aldetik, ENBGK-k baita ere jazarpen ekintzatzat jotzen du pertsona intersexualei, adingabekoei barne, kirurgia egitea "normaltasunera" bueltatze aldera, baimena ez dagoenean. Tratamendu edo kirurgia pertsona intersexualen kasu hauetan, erakunde horrek espresuki adierazten du garrantzitsua dela borondatearen eta adostasunaren elementuak aztertzea, jazarpen ekintzatzat jo daitekeen ebaluatzeko[58].

---

55 *Ibídem.*, 21. paragrafoa.

56 *Cfr.* Juristen Nazioarteko Batzordea. *Yogyakartako Printzipioak…, op. cit.*

57 Cfr. Torturaren Aurkako Batzordea. Estatu partaideek aurkeztutako txostenen azterketa, Konbentzioaren 19. artikuluarekin bat. *Torturaren Aurkako Batzordearen amaierako oharrak, 2011 abenduaren 11k*oa, CAT/C/DEU/CO/5, 20. paragrafoa; Giza Eskubideen Batzordea. *Errelatore Bereziaren Txostena, tortura eta beste tratu edo zigor anker, inhumano edo humiliagarriei buruzkoa*, Juan E. Méndez, 2013ko otsailaren 1ekoa, A/HRC/22/53, 76-79. paragrafoa; Haurraren Eskubideen Batzordea, *Suitzako bigarren eta laugarren txosten periodiko konbinatuei buruzko amaierako oharrak*, 2015ko otsailaren 25ekoa, CRC/C/CHE/CO/2-4, 42-43. paragrafoa eta Giza Eskubideen Batzordea. S*exu-orientazioa eta genero-identitatearengatik pertsonen kontrako diskriminazioa eta bortizkeri*a. Giza Eskubideen Nazio Batuen Goi Komisionatuaren Bulegoko Txostena, 2015ko maiatzaren 4koa, A/HRC/29/23, 14 y 37. parrafoa.

58 ENBGK-k azpimarratzen du kasu hauetan garrantzitsua dela bereiztea "bizitza edo osasuna babesteko beharrezko kirurgia, eta helburu estetikoengatik edo gizartearen onarpenarengatik egitea". *Cfr.* ENBGK, Nazioarteko babesari buruzko ildoak *9. zk.koa…, op. cit.*, 21. paragrafoa.

3.1.2. SOGI-an soilik oinarritzen diren askatasun-gabetze kasuak

ENBGK-k deritzo atxiloketak, instituzio psikologiko edo medikuetan atxiloketak barne, soilik sexu-orientazio edo genero-identitatean oinarrituta, askatasun-gabetzea arbitrarioaren nazioarteko debekuaren urraketatzat jotzen direla, eta jazarpentzat jo daitekeela[59]. Ildo honetatik, zentro hauetan LGBTI+ kolektiboak jasaten dituen askotariko diskriminazioak salatzen dira, partikularki, segregazio administratiboa edo bakarrik konfinatzea[60]. Zehazki, trans pertsonen askatasun-gabetzea, bereziki "gizonezkotik andrezkora" transitoa egin dutenak, abusu fisikoa eta sexualaren arriskuan jartzen dituzte, kokatzen badituzte gizonezkoen artean[61].

3.1.3. Ohore-krimenak

Gizarteko arauak eta baloreak, "familiaren ohorea" deitutakoa barne, LGBTI+ kolektiboaren kontrako jazarpen ekintzatzat jo daitezke[62]. Batez ere, *ohore-krimenak* deitutakoak, - hain zuzen ere, bortizkeria fisiko larrien mehatxuak, edo baita ere familiako kideek edo komunitateak oro har, "ohorearen" izenean, egindako erailketak -, LGBTI+ pertsonen kontra egindakoak, gizartearen arau eta baloreei aurre egiteagatik; horiek ohiko arrazoiak dira SOGI-arengatik nazioarteko babes eskaerak oinarritzeko. ENBGK-ren arabera, sexu-orientazioa eta/edo genero-identitatearen testuinguruan, jazarpen mota hauek askotan erabili ohi dira adostasun eza egon denik ukatzeko, edo adostasun eza "zuzentzeko". Arrisku berezia dute emakume lesbianek, bisexualek eta trans-ek; izan ere, orokortutako genero desberdintasunek murriztu egiten dute sexualitatea, ugalketa eta familia bizitzari buruzko erabakiak hartzeko autonomia[63].

3.1.4. Ekintza diskriminatzaileak

Munduko eskualde desberdinetan, LGBTI+ pertsonek haien eskubide zibilak aitortzeko eta erabat gozatzeko unean diskriminatzen dituzte, hala nola, jaraunspenen eskubidean, adingabeak zaintzeko eta pentsioetan, haien eskubide politikoak egikaritzerakoan, hala nola, adierazpen askatasuna, elkartzeko edo biltzeko askatasuna, eta eskubide ekonomiko eta sozialetan, hala nola,

---

59 Ildo horretatik, ikusi, *Atxiloketa arbitrariori buruzko Nazio Batuen Erakundeko Lan Taldea*, Iritzia 22/2006 zk.koa, Cameruni buruzkoa, eta 42/2008 zk.koa, Egiptori buruzkoa, A/HRC/16/47, eranskina, 8. paragrafoa (e). Ikusi, halaber, ENBGK, *Atxiloketari buruzko ildoak. Asilo eskatzailearen atxiloketari aplikagarriak diren irizpide eta estandarrei buruzko ildoak*, 2012.

60 *Cfr*. ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak 9. zk.koa..., op. cit.*, 22. paragrafoa.

61 *Cfr.* Giza Eskubideen Kontseilua. *DSexu-orientazio eta genero-identitate arrazoiengatik pertsonen kontrako diskriminazioa eta bortizkeria*. Giza Eskubideentzat Nazio Batuen Goi Komisionatuko Bulegoko txostena, 2015ko maiatzaren 4koa, A/HRC/29/23, 34. paragrafoa.

62 Horri buruz ikusi honako gaia: *RRT* nº 0902671, [2009] RRTA 1053, Australia, Errefuxiatuentzat Berrikuspen Auzitegia, 2009ko azaroaren 19koa, honakoa ezarri zuen: "eskatzaileari kalte larriak, ohore-erailketagatik heriotza jasateko arriskua, bere heen caso de regresase a su [país de origen] ahora o en un futuro razonablemente previsible era real y equivalía a un daño grave, deliberado o intencional e implicaba la persecución por un motivo de la Convención".

63 *Cfr*. ENBGK, *Nazio babesari buruzko ildoak 9. zk.ko..., op. cit.*, 23. paragrafoa.

etxea eskuratzeko, lana lortzeko[64], hezkuntza eskubidea[65] edo osasun artatzea; eta errepikatzen badira, eta larritasunaren arabera, jazarpentzat jo daiteke. ENBGK-ren arabera, komunitateak sortzen duen ostrazismoak eragina izan dezake LGBTI+ kolektiboko osasun mentalean, batez ere, asko luzatzen bada, eta egiten bada inpunitate osoz eta axolagabekeriarekin, eta amaitzen du baieztapen honekin: "[g]iza eskubideen gaineko oztopoen *metatze-efektua* jazarpentzat jo daiteke soilik kasu zehatz batean"[66].

Ekintza horien larritasuna ikusita ere, SOGI-arengatik nazioarteko babes eskaerek *iter procedimental*-ean zehar arazoak dituzte; izan ere, arrazoi horiek egiaztatzea korapilatsua da. Askotan salatu izan da auzitegiek, nazioarteko babesa aitortzerakoan, gehiegi begiratzen dutela eskatzaileak izandako ekintza sexualak, SOGI-ko berariazko arrazoiak aztertu ordez[67]. Horrela, herrialde askotan gutxiesten da LGBTI+ pertsonek haien identitatearengatik, benetan edo susmatua, jasaten duten jazarpena; izan ere, berez gizarte eta kultura balore nagusien kontrako mehatxutzat jotzen da. Horren inguruan, ENBGK-k azpimarratu du SOGI-ak "adierazi daitezke edo egiaztatu daitezke modu askotan, hala nola, zoli edo begi-bistakoa da, itxurarengatik, hizkerarengatik, portaerarengatik, janzteko erarengatik eta keinuengatik; edo modu horietan ere guztiz ezin da egiaztatu", eta ondorioz, "adierazpen erak sexu-orientazioaren [edo genero-identitatearekin] "ardatz zentral" batekin erlazionatutakoak, eta ez erlazionatutakoak, ez dira, hortaz, egokiak jazarpena jasateko ganorazko beldurra dagoen ebaluatzeko"[68].

---

64 LGBTI+ kolektiboak lan tokian jazarpena, degradazioa edo kaleratzea jasan dezake. Pertsona trans-entzat, zehazki lanetik botatzeak, eta askotan etxebizitzareko edo familiarentzako laguntza faltarekin batera, sexu-lanera bultzatu dezakete, eta horrek arrisku fisiko zein osasunezkoak sor ditzake. ENBGK-aren arabera, ia ezinezkoa izango da jatorrizko herrialdean ordaindutako edozein lan izatea, eta hori jazarpentzat jo daiteke. Cfr. ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak 9. zk.koa..., op. cit.*, 5. paragrafoa.

65 LGBTI+ gazteei eskolara joatea galarazi diezaiekete, edo jazarpena jasan dezakete. *Ibídem.*, 24. paragrafoa.

66 *Ibídem.*, 24. paragrafoa. Auzitegietan jazarpen sozio-ekonomikoaren aitortzaren aurrerapausua ez da islatzen; izan ere, batzutan auzitegiek ez dute aitortu nahi SOGI-arengatik nazioarteko babes kasuetan eskubide hauen urraketak kalte larritzat jo daitezkeenik. Hala, 2007an, Estatu Batuetako jurisdikzioak IHES-a zuen gizonezko homosexual bati behar zuen tratamendu medikua ukatzen zion, penagarritzat jo arren, ez baitzuen larritasun maila nahikoa ikusten, jazarpena zegoela ulertzeko, eta babesa aitortzeko. Modu berean, 1998an, Australiako Auzitegi Federalak ulertu zuen, eskatzaile homosexual baten familiaren errefusaren kasuan, nahiz eta bere osasunean eragina izan, asko jota gosez hilko litzateke". Cfr. U.S. Court of Appeals, Paredes c. U.S. Attourney General, 219 F.Ap'x 879, 887 y Australian Federal Court, *MMM c. Minister for Immigration and Multicultural and Indigenous Affairs*, 1998, 90 FCR 324, 326-27.

67 *Cfr*. TÜRK, V., "Keynote at "Invisible in the City: Urban Protection Gaps Facing Sexual Minorities Fleeing Persecution", *HIAS LGBTI* Symposium, September 2012, 6.orrialdea.

68 *Ibídem*, 19. paragrafoa. Jurisprudentziaren ikuspuntutik, ikusi, BEJAE, 2012ko irailaren 5ekoa, *Bundesrepublik Deutschland Y.-ren kontrako asuntoa*, C-71/11, C-99/11, C-71/11 eta C-99/11 bateratutako aferak, 62. paragrafoa; *RT (Zimbabwe) eta beste batzuk Barne Ministerioaren Estatu Idazkariaren kontra*, [2012] UKSC 38, Erresuma Batuko Gorte Gorena, 2012ko uztailaren 25ekoa, 75-76. paragrafoa; ENBGK-aren Adierazpena erlijio jazarpenari eta BE eta ENBGK-ren Elkarren Errekonozimenduaren Zuzentaruaren 9. (1) artikuluaren interpretazioari buruzkoa, eta *Barne Ministerioko Estatu Idazkaritza (errekurtso jartzailea) RT (Zimbabwe), SM (Zimbabwe) eta AM (Zimbabwe) (Demandatuak) eta Nazio Batuetako Errefuxituentzat Goi Komisionatua (Koadyubantea)*, 2012ko maiatzaren 25ekoa, 2011/0011 zk.ko afera, 12.9. paragrafoa.

3.2. Jatorrizko herrialdean barne babes eza. Jazarpenaren eragileak

Beste elementu bat, pertsona batek *jazarpena jasaten duela* egiaztatzeko da jazarpen ekintzaren aurrean jatorrizko Estatuak babesik eman ez izatea. Babes eza etorri daiteke nazio agintariek beraiek jazarpena egiten dutelako, edo ez dutelako gaitasuna edo ez dutelako babesa eman nahi estatuz kanpoko eragileen aurrean. Bi kategoriek LGBTI+ kolektiboaren kontra egiten diren urraketak arrazionalizatu ohi dituzte, argudio hauekin: "zuzentzen", "sendatzen" saiatzeko, edo ""izan beharko lukeen" orientaziora zuzentzen saiatzeko"[69].

Estatuak jazarpena egin dezake, adibidez, legeen bitartez, eta sexu bereko pertsonek adostasunez izandako sexu harremanak zigortuta, edo kalte larriekin, hala nola, heriotz-zigorrarekin edo gorputzeko zigor latzekin (flagelazioa barne)[70], LGBTI+ kolektiboaren kontra Estatuaren funtzionarioek egindakoak edo Estatuaren kontrolpean dauden funtzionarioek, hala nola, poliziak edo militarrak[71]. Baita moral publikoa edo ordena publikoari buruzko legeak ere, baldin eta, LGBTI+ pertsonen kontra selektiboki aplikatzen eta egikaritzen badira, eta modu diskriminatzailean, eta bizimodua oraindik ere nabarmenki jasanezinagoa eragiten diotenean, hauek ere jazarpentzat jo litezke[72]. Egoera guzti hauetan, jazarpena gertatzen da Estatuak kalte horien kontra babesa eman nahi ez duenean edo ezin duenean[73].

Zehazki, sexu bereko pertsonen arteko harremanak debekatzen dituzten zigor legeek - baita ez direnean erregularki, oso gutxitan edo inoiz aplikatzen -, intolerantzia giro itogarria eragiten dute, auzipetua izateko etengabeko mehatxu giroa, eta xantaia eta estortsio tresna erabili daitezke, eta maila batera iritsita, jazarpentzat jo liteke. Kasu hauetan, ENBGK-k *ganorazko jazarpen beldurraren* ebaluazioa gertaeretan oinarritu behar dela interpretatzen du, eta horiek zentratu behar dira bai pertsonan eta baita ere kasuko testuinguruko inguruabarretan. Horretarako, herrialdearen lege sistema aztertu behar da, eta ikusi behar da aplikagarria den edozein araudik, horren interpretazioak, aplikazioak nazioarteko babes eskatzailearengan duen benetako eragina[74]. Halaber, "*beldurra* elementua ez da bakarrik legeek aplikatu zaien pertsonei dagokienez, baita ere lege horiek haiei aplikatzeko arriskua ekidin nahi duten pertsonei dagokienez"[75]. Jatorrizko herrialdeari buruzko informazioak ez badu legeak ze neurritan

---

69 Honelako kasuetan, ez da beharrezkoa "egiaztatzea" jazarpenaren eragileak zigortzeko asmoa zuenik, nahikoa da balizko arrisku egoeraren arrazoiak nazioarteko babes eskatzaileak asumitzea, eta harek kaltea nola jasaten duen. Ikusi, *Fiskala, Jean-Paul Akayesuren kontra* (Apelazio Epaia), ICTR-96-4-A, Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegia, 2001ko ekainaren 1ekoa.

70 *Cfr.* JANSEN, S. y SPIJKERBOER, T., *Homofobiatik alde egiten. Sexu-orientazio eta Genero-Identitatearekin erlazionatutako asilo eskaerak Europan*, 2011ko iraila, 22-24. paragrafoa.

71 Lesbiana, Gay, Bisexual, Transexual eta Intersexualen Nazioarteko Elkartearen (LGNE) azken txostenaren arabera, "Estatu-homofobia", munduan 72 herrialde daude sexu bereko pertsonen arteko sexu harremanak kriminalizatzen dituztenak. Kolektibo horien kriminalizazioa hedatzen da Ekialdeko Europan, Asia osoan, Africa – Hegoafrika, Seychelles eta Cabo Verde izan ezik-, eta Ertamerika eta Hego America. Cfr. CARROL, A., eta MENDOS, L.R., *Estatu-homofobia 2017. Mundu mailako ikerlan juridikoa sexu-orientazio zuzenbidean: kriminalizazioa, babesa y aitortza*, ILGA, Geneva, 2017ko maiatza.

72 *Cfr.* ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak 9. zk.koa…, op. cit.*, 29. paragrafoa.

73 *Ibídem.*, 35. paragrafoa.

74 *Ibídem.*, 28. paragrafoa.

75 *Ibídem.*, 28. paragrafoa.

aplikatzen diren zehazten, honako presuntzioa sortzen da: "jatorrizko herrialdean homofobia giroa nonahikoa eta orokortua izanda, adierazi lezake, ordea, LGBTI pertsonek jazarpena jasaten dutela"[76].

Nolanahi ere, Estatuek homosexualitatea zigortzea berez ez dute beti jazarpen ekintzatzat jotzen; izan ere, herrialde zehatz bateko auzitegiek beraiek adierazten zuten legeria ez zela modu efektiboan aplikatzen, eta horrek eztabaida zaila sortu du, batez ere Batasun Europarreko herrialdeetan[77]. Halere, ENBGK jurisprudentziaren interpretazio honen aurka dago, eta uste du jatorrizko herrialdean legeri hori egoteagatik soilik LGBTIfobia giro orokortu bat sortzen dela, eta hala balitz, ondorioztatu dezake herrialdeko agintariek ez dutela babesa ematen kolektiboaren kontra egiten diren bortizkeria eta diskriminazio ekintzen aurrean[78].

Bestalde, jazarpen ekintzak Estatuz kanpoko eragileek ere egin ditzakete, hala nola, senideek, bizilagunek, mafiek, talde armatu paramilitarrek eta matxinatuek, delitugile-taldetxoek, edo komunitateak oro har, "zuzenean edo zeharka honako jazarpen ekintzetan nahastuta egon daitezke: beldurraraztea, jazarpena, etxeko bortizkeria eta beste bortizkeria fisiko, psikologiko edo sexualak". Egoera horietan, ez badago kontrakoa egiaztatzen duenik, herrialde horrek LGBTI+ pertsonei ezin die babesa eman edo ez die eman nahi[79].

Gertatu daiteke herrialde bateko egoera juridikoa denboraren poderioz eboluzionatzea eta aldatzea, LGBTI+ kolektiboaren aldeko sentsibilizazioa areagotze alderantz. Kasu hauetan, posible da legeak indargabetuak izana, diskriminazioaren kontrako beste neurri positiboak hartu izana, LGBTI+ elkarteen hedapena handitu izana; baina posible da baita ere, horien eragina berehalakoa ez izatea, eta bertan aurreiritziak errotuak jarraitzea, eta nazio agintariek arauak ez dituztela aplikatuko beldur izatea, eta hortaz, aldaketa nazioarteko babes eskatzaileak

---

76 *Ibídem.*, 28. paragrafoa.

Jurisprudentziaren ikuspuntutik, ikusi, RRT 1102877 zk.ko asuntoa, [2012] RRTA 101, Australia, Errefuxiatuentzat Berrikuspen Auzitegia, 2012ko otsailaren 23koa, 89 eta 96. paragrafoak; RRT 071862642 zk.ko asuntoa, [2008] RRTA 40, Australia, Errefuxiatuentzat Berrikuspen Auzitegia, 2008ko otsailaren 19koa, 89 y 96. Paragrafoa.

77 Ikusi, EBJAE, 2013ko azaroaren 7koa, X. *eta beste batzuk*, C-199/12 eta C201/12 aferak; Luxemburgoko Auzitegiak aztertzen ditu kontuan hartu beharreko elementuak homosexualitatea zigrtzen duten ekintzak jazarpentzat jotzeko. Epai hau aztertuko da SOGI-arengatik asiloaren araudia EBko zuzenbidearen markoan.

78 Cfr. ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak 9. Zk.koa…, op. cit.*, 29. paragrafoa.

79 Ikusi, PS, a/k/a SJP, *Holder, EE.BB.ko Prokuradore Nagusiaren aurka*, 09-3291 zk.a, A99-473-409 zk.koa. Agentzia, (3. Zir. 2010), 2010ko ekainaren 22koa: estatuz kanpoko talde militar batek gay gizonezko bati liskar eta eraso egin zioten. Ikusi, halaber, RRT 98/22948 zk.ko afera, [2000] RRTA 1055, Australia, Errefuxiatuentzat Berrikuspen Auzitegia, 2000ko azaroaren 2koa: demandatzaileak delitugileen taldeen jazarpena jasateko arriskuan zegoela ezarri zuen, egiaztatu baitzen gay gizonezkoen identifikazio lanak egiten zituztela, eta "baztertzekotzat" jotzen zituztela, eta "gizarte garbiketa" operazioen arriskupean jartzen zituztela". Halaber, ikusi, ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak*, 9. zk.koa…, op. cit., 35 eta 36. paragrafoa.

ganorazko beldurra gutxitzeko nahiko arrazoi ez izatea, [80]. Horren harira, ENBGK-k interpretatu du "behar da aldaketa *de facto*, ez soilik *de iure*, eta funtsezkoa da kasu bakoitzaren inguruabarrak aztertzea"[81]. Halaber, bai ENBGK-k eta baita Giza Eskubideen Batzordeak ere, Estatuaren babesa dagoela baieztatzeko bi baldintza identifikatu ditu, eta, hortaz, pertsonak kasu hauetan jazarpena ez du jasaten:

> Estatu babesa *eskuragarria* izan behar du, eta irizpide hori nahikoa da auzitegiek LGBTI+ kolektiboari jazarpen kasuetan eman beharreko barne babesa dagoela susmatzeko - sexu bereko pertsonen arteko sexu ekintzak zigortzen dituzten legeak existituta, benetan aplikatzen diren ala ez kontuan izan gabe -,
>
> Estatuaren babesa *eraginkorra*; ez eraginkortzat jo daiteke harrera ematen dioten agintariek, adibidez, babes eskaerei erantzuten ez diotenean, edo LGBTI+ pertsonen kontrako bortizkeriaren eragileak (estatuz kanpokoak) beharrezkoa den prestutasunarekin ikertu, auzipetu edo zigortzeari uko egiten diotenean[82].

3.3. Barne ihesaldia edo berkokapenaren alternatiba, eta SOGI-a ezkutatzea edo diskrezioaren irizpidea

Asilo prozeduraren arduradunak diren agintariek *barne ihesaldia edo berkokapenaren* betebeharra pertsona eskatzaileari nazioarteko babesa ukatzeko erabiltzen dute, nahiz eta jatorrizko herrialdean SOGI-arengatik jazarpena jasateko ganorazko beldurra egon; izan ere, argudiatzen dute herrialdeko beste alde bateko "leku seguru" batean bizi daitekeela, non ez litzatekeen ganorazko beldurrik izateko arriskurik egongo, eta ezingo litzatekeela gauzatu; eta , "kasuko baldintza zehatzak ikusita, zentzuzkoa da pentsatzea [pertsona] bertan kokatu

80 Jurisprudentziaren ikus puntutik azpimarratu daiteke *RRT* 0905785 zk.koa, [2010] RRTA 150, Australia, Errefuxiatuentzat Berrikuspen Auzitegia, 2010ko martxoaren 7koa: ezarri zuen herrialdean homosexualitate ekintzen despenalizazioak jendeak homosexualitateari buruzko pertzeptzioan berehalako eragina izateko aukera txikia zegoela, 88. paragrafoa. Ikusi, halaber, *Guerrero, Canadaren aurka* (Herritarren eta Inmigrazioaren Ministroa) 2011 FC 860, Canada, Auzitegi Federala, 2011ko uztailaren 8koa: adierazi zuen sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioa borrokatzen zuten gobernuz kanpoko erakunde asko egotea, berez, faktore erabakiorra dela herrialdeko baldintzak aztertzeko. Ikusi, halaber, 616907. zk.ko Epaia, *K, Francia, Cour nationale du droit d'asile* (Asilo eskubidearen Auzitegi nazionala), 2009ko apirilaren 6koa: lurralde zehatz bateko gizonezko gay bat errefuxiatutzat aitortzen du, honakoan oinarrituta: 2004ko lege batek sexu-orientazioarengatik diskriminazioa debekatzen zuen arren, homosexualitatea publikoki adierazten zutenak maiz jazarpena eta diskriminazioa jasaten zuten, eta ez zuten agintarien babesa lortzen.

81 Ikusi, ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak, 9. zk.koa..., op. cit.*, 37. paragrafoa.

82 *Ibídem*., 36 eta 37. paragrafoa. Halaber, ikusi, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordea, Ohar Orokorra, 31. zk.koa [80], Itunaren Estatu Partaideei ezarritako betebehar juridikoaren izaera, 2004ko Maiatzaren 26koa, CCPR/C/21/Rev.1/Add.13, 8 eta 15. paragrafoa, eta ENBGK, *Eskubilurua eta ildoak..., op. cit.*, 97-101. paragrafoa.

daitekeela eta bizimodu normal egin dezakeela"[83]. Horretarako, "eremu zehatz bat identifikatu behar da, eta baita ere eskatzaileari horri buruz bere iritzia emateko aukera egokia eman behar zaio"[84]. Halaber, babesa "eskuragarri egotea, modu egiazkoan eta esanguratsuan"; izan ere, ENBGK-k baieztatzen duen bezala, "Nazio Batuetako erakundeak, GKE-k, gizarte zibila eta Estatuz kanpoko beste eragileak ez dira Estatuaren babesaren ordezkoak"[85].

Harrera herrialdeko agintariek betebehar honi heltzeko aukera dagoen ala ez baloratu ahal izateko, beharrezkoa da bidezko eta zentzuzko azterketa bat egitea.

Lehen irizpideak eskatzen du barne ihesaldirako edo berkokapenerako aukerako eremua "irisgarria, praktikoa, segurua eta legezkoa" izatea, hau da, "bertara bidaiatzeko eta sartzeko eta bertan egoteko legezko eskubidea izatea"[86]; betebehar hori ez da onargarria izango proposatutako eremura iristeko nazioarteko babes eskatzaileak gainditzeko zailak diren arrisku fisikoei aurre egin behar dienean, hala nola, minadun eremuak edo gerra fronte aldakorrak, aireportuak, Estatua denean jazarpenaren eragilea, edo estatuz kanpoko talde batek kontrolatzen duenean; sexu bereko pertsonen arteko harremanak zigortzen dituzten, eta dagokion legeria lurralde osoan betearazten dituzten herrialdeak; eta/edo trans edo intersexual bati osasun tratamendu egokira heltzea edo jasotzea galarazteko legeak dituzten herrialdeak; edo bere agirietan generoz aldatzea galarazten dutenak[87]. Egoera horiek ekiditeko, asilo prozeduraren agintari arduradunek frogatzearen karga dute, eta karga honela zehazten da: kasu partikularrari aplikatutako berkokapenaren inguruko azterketa bat egitea, eta bertan sartuko lirateke berkokapenerako proposatutako lekua identifikatzea, eta jatorrizko herrialdeari buruzko informazioa biltzea[88]. Kasu hauetan, SOGI-arengatik nazioarteko babesa aitortzerakoan honako joera ikusten da: pertsonari errekerimendua egiten zaio hiri eremuetara joateko, aurrerapen sozial eta politiko handiagoa dagoela uste delako, eta ondorioz, tolerantzia tarte handiagoa, eremu periferikoetan eta landa eremuetan baino[89].

---

83 ENBGK-aren arabera, "argudio hau batzutan erabiltzen da esleitzaileek eskaerak behar bezala aztertu gabe ukatzeko; eta horiek honakoa onartzen dute: LGBTI+ pertsona bat hiri handi batera segurtasun baldintzekin bueltatzea, edo herrialdeko eremu desberdin batera joatea - ezaguna ez den lekura -, baina eskaera jatorrizko herrialdeko informazioarekin edo beste mota bateko informazioarekin osatu gabe". Cfr. ENBGK, *Asilo eskatzaileen eta errefuxiatu, gay, bisexual, transgenero eta intersexualen babesa*. Eztabaidatzeko agiria, ENBGK-aren mahai ingururako prestatutakoa, hain zuzen, sexu-orientazioarengatik eta genero-identitatearengatik babes bila dabilen asilo eskatzaile eta errefuxiatuen ingurukoa; 2010ko irailaren 30 eta urriaren 1a bitartean izandakoa; Nazioarteko Babesaren Atala, Geneva, 2010ko irailaren 22koa, 28. paragrafoa.

84 *Cfr.* ENBGK, *Nazioarteko Babesari buruzko ildoak: "barne ihesaldiaren edo berkokapenaren alternatiba" 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioaren 1A(2) artikuluaren edo 1967ko Protokoloaren kontestuan*, 2003, HCR/GIP/03/04, 3.4. paragrafoa.

85 Ikusi, ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak, 9. zk.koa…, op. cit.*, 51. paragrafoa. Amsterdameko Unibertsitateak egin zuen ikerlana, 2011koa, *Homofobiatik ihes egiten*, hamasei europar herrialdek, Austria, Danimarka, Finlandia, Alemania, Hungria, Irlanda, Italia, Lituania, Malta, Herbehereak, Noruega, Polonia, Portugal, Errumania, Suedia eta Erresuma Batua, honi heltzen diote errefuxiatu estatutuaren aitortza ukatzeko. Cfr. JANSEN, S. eta SPIJKERBOER, T., *Homofobiatik…*, op. cit., p. 37.

86 *Cfr*. ENBGK, *Nazioarteko Babesari buruzko ildoak:…alternatiba, op. cit.*, 10-12. paragrafoa.

87 Ikusi, ENBGK, *Nazioarteko Babesari buruzko ildoak, 9. zk.koa…, op. cit.*, 53. paragrafoa.

88 *Ibídem*., 55. paragrafoa. Halaber, ikusi, ENBGK, *Naziaorteko Babesari buruzko ildoak: … alternatiba, op. cit.*, 33-34. paragrafoa.

89 *Ibídem*., párr. 55. paragrafoa.

Bigarren irizpidearen *-zentzuzkoa izatea-* xedea da asilo prozeduran parte hartzen duten agintariek azterketa objektibo, inpartzial bat egitea, genero ikuspuntua kontuan izanda[90]. Azterketak honakoak jasoko ditu: ze eragina izango duen pertsona eskatzailearengan jatorrizko herrialdeko beste leku batera aldatzea, kontuan hartuta bere inguruabar pertsonalak; aitzinean jazarpenak egon izana; ingurunearen segurtasuna; giza eskubideak errespetatzea, eta ekonomikoki bizi ahal izatea[91].

Beste betebehar bat da, Estatu batzuetako auzitegiek errefuxiatu estatutua ez emateko erabiltzen dutena (zehazki, Europako Austria, Belgika, Bulgaria, Zipre, Danimarka, Espainia, Finlandia, Frantzia, Hungaria, Irlanda, Malta, Herbehereak, Polonia eta Errumania[92]), nahiz eta jazarpena jasateko ganorazko beldurra egon: *orientazio afektibo-sexuala eta/edo genero-adierazpena eta identitatea ezkutatzearen* baldintza edo "diskrezioaren irizpidea", hau da, jazarpena ekiditeko bere SOGI-a ezkutatzea. Ondorio horietarako, gertatu daiteke LGBTI+ pertsonek haien jatorrizko herrialdeetan begi-bistan bizi ez izana, eta haien SOGI-a erreprimitu izana, ezagutuz gero izango lituzketen ondorio larriak ekiditeko, hala nola, zigor larriak jasotzeko arriskua, egoitza-bortxaketa arbitrarioak, diskriminazioa, gizarteak ez onartzea edo familiatik kanporatzea[93]. Horregatik, ENBGK-k deritzo: "eskatzaile batek jazarpena ekidin dezake bere sexu-orientazioa edo genero-identitatea estaltzean edo "zuhurra izatean", edo aurretik egin izana, ez dela arrazoi baliozkoa errefuxiatu kondizioa ukatzeko (…) pertsona bati ezin zaio errefuxiatu kondizioa ukatu, honako betebeharrean oinarrituta: identitatea, iritziak edo ezaugarriak ezkutatzen dituenean jazarpena ekiditeko"[94]. Gai honetako jurisprudentzia adierazgarriena aztertuta, ikusten da betebehar hori soilik behartzen dela jazarpen arrazoiak SOGI-zkoak direnean, eta ez denean 1951ko Genevako Konbentzioan zerrendatutako beste arrazoiei aplikatzen[95], hala nola, erlijioa edo iritzi politikoei[96]. DÍAZ LAFUENTEren iritziz, "diskrezioaren irizpidea" SOGI-aren bizipena

---

90 Generoaren ikuspuntua beharrezkoa da kontutan hartzea; izan ere, "[e]makumeek gizonezkoek baino aukera ekonomiko gutxiago dituzte, edo agian, ezin dute familiako gizonezkoetatik bereizita bizi, eta hau kasuaren kontestu orokorrean baloratu behar da". *Cfr.* ENBGK, *Naziaorteko Babesari buruzko ildoak, 9. zk.koa…, op. cit.*, 56. paragrafoa.

91 , Ikusi, ENBGK, *Naziaorteko Babesari buruzko ildoak: … alternatiba, op. cit.*, 22-30. paragrafoa.

92 Cfr. JANSEN, S. eta SPIJKERBOER, T., *…-tik ihes* egiten, op. cit., 34. orrialdea. Erresuma Batuan, Epaitegi Goreneko epaiaren ondoren - *HJ (Iran) and HT (Cameroon) v. Secretary of State for the Home Department* aferan– ezarri zen "diskrezioaren irizpidea" herrialde horretan soilik aplikatuko zela, nazioarteko babes eskatzailearentzat borondatezkoa baldin bada, eta familiaren edo gizartearen presio arrazoien ondorioz baldin bada. Supreme Court, 7 July 2010, case *HJ (Iran) and HT (Cameroon) v Secretary of State for the Home Department*, [2010] UKSC 31; [2011] 1 A.C. 596.569, 82. paragrafoa.

93 *Cfr*. ENBGK, Naziaorteko Babesari buruzko ildoak, 9. zk.koa …, op. cit., 30. paragrafoa.

94 *Ibídem*., 31. paragrafoa.

95 Jurisprudentziaren ikus puntutik, ikusi, *Refugee Appeal 74665 zk.koa*, 74665 zk.koa, New Zealand: Refugee Status Appeals Authority, 7th July 2004; Supreme Court, 7th July 2010, case *HJ (Iran) and HT (Cameroon) v Secretary of State for the Home Department*, [2010] UKSC 31; [2011] 1 A.C. 596.569 y *Supreme Administrative Court Decision of 13th January* 2012, KHO: 2012:1, Finland: Supreme Administrative Court, 13th January 2012.

96 Inor ezin da, jazarpena ekiditeko, erlijio zehatz bat ez aitortzera behartu, edo bere iritzi politikoak ezkutatzera, eta publikoki ez adieraztera, bere jatorrizko herrialdeko gobernu era diktadura bat izango balitz; eta, era berean, LGBTI+ kolektiboko pertsonek jazarpena ekiditeko ez lukete bere SOGI-a ezkutatu beharra izan beharrik, eta horrela nazioarteko babesa errezago eskuratuko lukete. Ildo horretatik, ikusi, ENBGK, *Nazioarteko Babesari buruzko ildoak: …bateko kide izatea, op. cit.,* 6 eta 12. paragrafoa, eta ENBGK, Nazioarteko Babesari buruzko Ildoak: *asilo eskaerak erlijiozko arrazoiengatik, 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioaren 1A (2) artikuluaren eta/edo 1967.ko protokoloaren arabera,* 2004ko apirilaren 28koa, HCR/GIP/04/06.

eta adierazpena mugatzen du, eta giza eskubide hauek urratzen ditu: nortasuna libre garatzekoa, berdintasunerako, intimitaterako, eta pertsonaren integritate fisiko eta psikologikorako. Aldi berean, irizpide hori 1951ko Genevako Konbentzioko Hitzaurrean jasotako ez diskriminatzeko printzipioaren aurkakoa da. Irizpide horrek ezartzen du "gizakiek, inolako bereizketatik gabe, oinarrizko eskubide eta askatasunak erabili behar dituztela", eta hortaz, nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsona bati ezin zaio berea ez den SOGI batekin bizitzea behartu, eta ez da pentsa behar hautazko eta borondatezko portaerak direla[97]. Ildo honetatik, eskatzaileek kalteak bide horretatik ekiditen badituzte ere, gertatu liteke denboraren poderioz haien inguruabarrak aldatzea, eta agian sekretua bizi guztirako ezin da izan. Gainera, nahi gabe haien kondizioa ezagun egitea gizarte arauak ez jarraitzeagatik, hala nola, ezkontzea eta semeak edukitzea, jazarpen arriskua eragin dezake, eta hori ezin da ahaztu[98].

Esparru honetan espezializatutako dotrinak *Diskrezioaren irizpidea* ahobatez arbuiatu du; izan ere, uste du SOGI-aren errepresioak kalte psikologiko larriak eragin ditzakeela[99]. ENBGK-k azpimarratu du, "[j]arrera, araua eta balore diskriminatzaileek eta gaitzestekoek LGBTI+ pertsonen osasun mental eta fisikoan eragin larria izan dezakete, eta, kasu zehatz batzuetan, egoera jasanezina sortu dezake, jazarpenaren parekoa litzatekeena"[100]. Ondorioz, sentimenduak pilatu daitezke: nork bere buruari uko egitea, larritasuna, lotsa, isolamendua, eta, baita, bere kontrako gorrotoa, eta horrek eragin dezake bere sexualitatea edo genero-identitatea argi eta garbi bizitzeko ezgaitasuna; eta epe luzean, kalte horien larritasuna areagotzen da[101].

---

97 *Cfr.* DÍAZ LAFUENTE, J., "...eskubidea", op. cit. Halaber, Errefuxiatuari Laguntzeko Batzorde Espainiarrak (ELBE) diskrezioaren irizpidea salatu du; izan ere, "Genevako Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioaren, asilo esparruko araudi europarraren eta legeri espainiarraren kontrakotzat" jotzen du, eta suposatzen du "bere sexu-orientazioa eta genero-identitatearen arabera, libre bizitzeko eskubidearen urraketatzat jo behar da. Gainera, sexu-orientazioa eta genero-identitatea bere borondatearen kontra publikoki hedatzeko arriskua, jazarpena jasateko beldurtzat jo behar da". *Cfr.* "ELBE-k salatzen du sexu-orientazioa eta genero-identitate arrazoiengatik jazarpena, LGBT Harrotasun Eguna dela eta", Prentsa oharra, 2014ko uztailaren 4koa.

98 *Cfr.* ENBGK, *Nazioarteko Babesari buruzko ildoak, 9. zk.koa..., op. cit.*, 32. paragrafoa. Halaber, ikusi, SW (lesbianak - HJ eta HT aplikatua) *Jamaica, Barne Ministerioko Estatuko Idazkariaren kontra*, Erresuma Batua, CG [2011] UKUT 00251 (IAC), Auzitegi Gorena (Inmigrazioa eta Asiloaren Sala), 2011ko ekainaren 24koa.

99 Ikusi, HATHAWAY, J.C. eta POBJOY, J., "Queer cases make bad law", New York University Journal of International Law and Politics, vol. 44, Issue 315, 2011-2012, 388. orrialdea eta DIAZ LAFUENTE, J., "...eskubidea", op. cit. Ikerlanek egiaztatu dute LGB pertsonek ez-heterosexualitatearenganako barneratutako jarrera negatiboek erlazioa dutela honako arazoekin: autoestima, depresioa, larritasun psikosoziala eta psikologikoa, osasun fisikoa, intimitatea, gizartearen laguntza, erlazioen kalitatea, eta garapen profesionala. Ildo honetatik, ikusi, APA, LGB bezeroentzat Ildo Praktikoak. Bezero lesbiana, gay eta bisexualekin Praktika Psikologikorako Ildoak.

100 Ikusi, *Pathmakanthan v. Holder, Attorney General of the United States*, Nos. 08-2644 & 08-3777, United States Court of Appeals for the Seventh Circuit, 16th July 2010.

101 *Cfr.* ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak, 9. zk.koa..., op. cit.*, 33. paragrafoa.

II. SOGI ARRAZOIENGATIK ASILO ESKUBIDEA EUROPAKO ESKUALDE MARKOAN

1. LGBTI+ pertsonen nazioarteko babesa Europako Kontseiluak sustatuta

1.1. Europako Kontseilua eta SOGI arrazoiengatik asilo eskubidearen aitortza.

Estatuen erantzuna, - zehazki herrialde garatuenetan, hala nola, europarretan, nazioarteko babes eskatzaile errefuxiatuen etengabeko hazkundearen aurrean, eta horien artean, LGBTI+ kolektiboko pertsonak -, honakoa izan da: haien eskubideak mugatzea, haien onarpena murriztea, segurtasun nahikoa edo zor zaien tratu humanitarioa ez ematea [102]. Estatuen praxi hori nazioarteko babesaren muinarekin talka egiten du; izan ere, horren funtsezko arrazoia da pertsona errefuxiatuei oinarrizko eskubide eta askatasunak ahal den eta egikaritze zabalena ziurtatzea, harrera herrialdean integrazio benetakoa eta segurua lortzeko beharrezkoak direnak[103]. Horren froga da nola ENBGK-ren Batzorde Exekutiboak urteetan zehar adierazi ohi du, nazioarteko babesari dagokionez, giza eskubideen arauak direla errefuxiatuak babesteko printzipio eta egiturak gauzatzen dituen oinarrizko iturrietako bat[104]. Horrela, baieztatu daiteke pertsona errefuxiatuen babesari buruzko ikuspuntu unibertsal batek bere gain hartzen dituela nahita nahiez, eta besteak-beste, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua, eta ez-itzularazteko printzipioa[105].

---

102 *Cfr.* CRÉPEAU, F., *Non-refoulement as a principle of international law and the role of the judiciary in its implementation,* Statement by François Crépeau Opening of the Judicial Year, ECHR Seminar, Strasbourg, 27th January 2017.

103 Baieztapen hau 1951ko Genevako Konbentzioaren Hitzaurrean gauzatzen da; izan ere, bertan honakoa adierazten da "[k]ontuan izanik Nazio Batuen Gutunak eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak – Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10ean onartutakoak -, baieztatu dutela gizaki orok, berezketarik gabe, oinarrizko eskubide eta askatasunak erabili behar dituela". Beharrezkoa da "errefuxiatuei oinarrizko eskubide eta askatasunen ahal den eta erabilpen zabalena bermatzea".

104 Ikusi, adibide moduan, ENBGK, Nazioarteko babesari buruzko oharra, 1998ko uztailaren 3koa, A/AC.96.898 Dok., 1. paragrafoa.

105 Gainera *"errefuxiatu guztiek prozedura inpartzial eta erenginkorretara heltzea*, errefuxiatu Estatutua eta babes beharrak zehazteko; *mugan ez errefusatzea* prozedura hauek aplikatu gabe; asiloa eta gizakiaren duintasuna eta baloreak aitortzen dituzten soluzio iraukorrak identifikatzea". Cfr. ENBGK, 81. zk.ko Konklusioa (XLVIII) *nazioarteko babesari buruzkoa*, 1997koa, (Batzorde Ejekutiboaren 48. bilkuraldia), h) paragrafoa. Halaber, ikusi, erakunde beraren, 85: zk.ko Konklusioa (XLIX), *nazioarteko babesari buruzkoa*, 1998koa, (Batzorde Ejekutiboaren 49. bilkuraldia), eta atal bat gai honentzat soilik du: "Giza eskubideak eta errefuxiatuen babesa", f)-tik m)-ra bitarteko paragrafoak.

Eskualde europarreko eremuan, merezi du azpimarratzea Europako Kontseiluak, 1949.an sortu zenetik, giza eskubideen sustapen eta babesaren inguruan egindako lana. Bere Estatutuetako 1. artikuluko b) atalak xedatzen du bere helburu garrantzitsuenetakoa hau dela: "giza eskubideak eta oinarrizko eskubideen babesa eta eraginkortasun handiagoa (...) bilatzea"[106]. Baieztapen hori testu bereko 3. artikuluan indartzen da, honako printzipioa aitortzen baitu: "bere jurisdikziopean dagoen edozein pertsonak giza eskubideak eta oinarrizko eskubideak erabili behar ditu". Ildo horretatik, Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak askotan adierazi du LGBTI+ kolektiboko pertsonen giza eskubideak sustatzeko, bermatzeko eta babesteko bere konpromisoa; zehazki, berdintasunaren eta giza duintasunaren printzipioak, eta honakoa aipatzen du: "Europako Kontseiluko tolerantzia eta ez-diskriminatzearen mezua aplikagarria da gizarte europar guztietan, eta sexu-orientazioa eta genero-identitate arrazoiengatik diskriminazioak ez duela bat egiten mezu honekin"[107]. Horri gehitu behar zaio, Ministro Batzordearen 20 zk.ko (97) Gomendioa, non *gorrotoaren diskurtsoa* deitutakoari buruzkoa; izan ere, Batzorde horretako kide diren Estatuei eskatzen die galarazteko edozein diskurtso, bereziki komunikabideen bitartez, "arraza, etnia, xenofobia, antisemitismo edo intolerantzian oinarritutako beste gorroto motak eragiten, bultzatzen, hedatzen, sustatzen edo justifikatzen dituenak". Halaber, gomendatzen du, ondorio horietarako, neurriak hartu ditzatela edozein gorroto era bultzatuko duen mezua eragozteko, fenomenoaren ikuspuntu integral bat oinarri hartuta[108].

Azkenik, Ministroen Batzordeko 5. Gomendioa (2010) dago, *sexu-orientazio eta genero-identitate arrazoiengatik diskriminazioa eragozteko neurriei buruzkoa,* eta Europako Kontseiluaren esparruko lehen nazioarteko *soft law* tresnatzat jo daitekeena, eta zuzenean LGBTI+ kolektiboaren gaiak arautzen dituena. Eta halaber, LGBTI+ pertsonen babesean urrats bat gehiago ematen du; izan ere, ez-diskriminazioaren printzipioaren unibertsalizazioa inolako zalantzarik gabe baieztatzen du, eta bertan sartzen dira orientazio afektibo-sexuala eta/edo genero eta identitate-adierazpen arrazoiak, honakoa aipatzen duelako: "ez balore kulturalak, tradiziozkoak edo erlijiozkoak, eta ezta ere, kultura nagusiaren arauak ezin dira argudiatu gorrotoaren diskurtsoa edo diskriminazio edozein era justifikatzeko, sexu-orientazio eta genero-identitate arrazoiak barne"[109]. Aldi berean, bermatzen du pertsona orok modu berean eskubide berdinak dituela, eta horretarako Estatuei gonbita egiten die neurriak hartzeko, homofobia, bifobia eta transfobia ekintzak modu eraginkorrean eragozteko, hala nola, legeri nazionala berrikustea eta aldatzea -SOGI-arengatik edozein motatako diskriminazio zuzena edo zeharkakoa dutena -, eta benetako epaitegien babesa bermatzeko sistemak ezartzea, eta ekintza horien biktimei erreparazio egokia ematea[110].

---

106 Ikusi, *Europako Kontseiluko Estatutuen Hitzaurreko* 1.b) artikulua, Londonen 1949ko maiatzaren 5ean onartutakoa. 2017rako, 47 dira Europako Kontseiluko kideak. Datu horiek honako web orrian kontsulta daitezke: http://www.coe.int/en/web/about-us/our-member-states (azken sarreraren data, 2017ko abenduaren 10ekoa).

107 *Cfr.* Committee of Ministers, Council of Europe, *Message from the Committee of Ministers to Steering committees and other committees involved in intergovernmental cooperation at the Council of Europe on equal rights and dignity of lesbian, gay, bisexual and transgender persons*, 2nd July 2008.

108 *Cfr.* Committee of Ministers, Council of Europe, Recommendation nº (97) 20 of the Committee of Ministers to member states on *"hate speech"*, adopted by the Committee of Ministers on 30th October 1997 at the 607th meeting of the Ministers' Deputies.

109 *Cfr.* Committee of Ministers, Council of Europe, Recommendation nº (2010) 5 of the Committee of Ministers to member states *on measures to combat discrimination on grounds of sexual orientation or gender identity*, Ministers' Deputies, 31st march 2010CM(2010) 4 add3 final.

110 Ondorio hauetarako, kontuan izan, Council of Europe, *Combating Discrimination on Grounds of Sexual Orientation or Gender Identity*, Council of Europe Publishing, July 2011, 5. orrialdea.

Bestalde, Europako Kontseiluaren Legebiltzar Batzarrak, 1915 Gomendioak (2010) *sexu-orientazio eta genero-identitatean oinarritutako diskriminazioari buruzkoak,* baita ere azpimarratzen du Europako Kontseiluak duen ardura - giza eskubideak, errespetua eta ez-diskriminazioa sustatzeko eta bermatzeko erakundea denez gero -, LGBTI+ pertsona errefuxiatuen behar eta eskaera espezifikoen inguruko eskarmentua eta gomendioak eskaintzeko lana bere gain hartzeko, eta halaber, SOGI-arengatik diskriminazioarekin erlazionatutako gaiei buruzko eztabaida foro izan daiteke. Zehazkiago, azpimarratzen du Europako Kontseiluko Estatu Kideek garatutako ekintza politiko, juridiko eta sozialetan sexu-orientazioa eta genero-identitateko gaiak aztertzeko beharra, eta zehazki azpimarratzen du diskriminazioaren prebentzio programak diseinatzeko eta garatzeko aukera, eta sentsibilizazio programak, LGBTI+ kolektiboaren onarpena, errespetua eta elkar-ulertzea indartzeko[111]. Ildo beretik, 1728 Ebazpenak (2010) *sexu-orientazio eta genero-identitate arrazoiengatik diskriminazioari buruzkoak*, Legebiltzarraren Bilkurarenak, jarduera markoa oraindik gehiago zehazten du, eta gomendatzen du neurri batzuk abian jartzea, sexu-orientazioa eta genero-identitateagatik diskriminazioa desagerrarazte aldera[112]. Azkenik, kontuan izan, 2011ko txostena, Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisario Europarrak argitaratutakoa[113]; honen xedea da LGBTI+ kolektiboaren giza eskubideen defentsa eta babes lanak egiten dituzten erakunde publiko eta pribatuentzat erreferentziazko ikerlan bat izatea.[114].

Beharrezkoa da aipatzea, aztertutako soft law tresnetan xedatutako guztia interpretatu behar dela GEEK-ko 14. artikuluarekin lotuta, zeinek ezartzen duen *ez diskriminatzeko printzipioa* termino hauetan: "Hitzarmen honetan aitortutako eskubide eta askatasunak erabili ahalko dira diskriminaziorik gabe, bereziki sexu, arraza, larru-kolore, hizkuntza, erlijio, politikako edo bestelako iritzi, sorterri edo gizarteko jatorri, ekonomia maila, jaiotza edo beste inolako gorabeherengatik"[115]. Ildo horretatik, xedapen honen garrantzia handia da; izan ere, GEHE-k ez duenez SOGI-arekiko berariazko aipamenik egiten duen xedapenik, GEAE izan da *par ricochet* interpretazio baten bitartez, arrazoi horiek sartu dituena ez- diskriminatzeko klausula barnean[116].

---

111 *Cfr.* Parliamentary Assembly, Council of Europe, Recommendation nº 1915 (2010) *Discrimination on the basis of sexual orientation and gender identity*, 29th April 2010.

112 Neurri horien azterketa sakonago baterako, ikusi, Parliamentary Assembly, Council of Europe, Resolution 1728 (2010) *Discrimination on the basis of sexual orientation and gender identity.*

113 Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisarioaren kargua sortu zen Europako Kontseiluaren Ministro Batzordearen 1999ko maiatzaren 7ko 50. Ebazpenaren ondorioz (99). Bere eskumenen arabera, bere helburuak dira giza eskubideak sustatzea, Parte diren Estatuen legerian eta praktikan egon litezkeen gabeziak identifikatzea, Europako Kontseiluaren tresnetan xedatuta dauden giza eskubideen betebeharrei dagokienez, Estatu kideek arau hauek praktikan benetan jartzeko sustatzea, eta haien adostasunarekin aholkua ematea, gabeziak zuzentzeko lanetan. *Cfr.* Ebazpena (99) 50 Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearena, 104. bilkura, el 7 de mayo de 1999ko maiatzaren 7koa, Budapesten.

114 Ikusi, HAMMEMBERG, T., *Discrimination on grounds of sexual orientation and gender identity in Europe*, Council of Europe Publishing, Second Edition, Strasbourg, 2011.

115 Halaber, kontuan izan, GEHE-ren 12. Protokolo Gehigarria, ez-diskriminatzeko debeku orokorra arautzen duena, eta aipatutako xedapena osatzen duena. DÍAZ LAFUENTE-ren arabera, "Auzitegi Europarrak 12. Protokoloa erabiltzeak - egun arte izan duen jarrera zuhurra gaindituz -, sexu-orientazioa eta genero-identitateagatik herrialde batzuetako legeri diskriminatzailea baloratzerakoan izan duen zalantzako jarrera ekiditea ahalbideratuko luke; ondorioz, aurre egiten die legeri horren aplikazioari edo praxis potentzialari, eta baita diskriminazio arrazoi horren existentzia berari, jazarpena sortzeko gai denez". *Cfr.* DIAZ LAFUENTE, J., *Asiloa eta babesa sexu-orientazio eta genero-identitate arrazoeingatik*, Diputatuen Kongresoko Kuadernoak, 14. zk.koa, Diputatuen Kongresua, Madrid, 2016, 215. orrialdea.

116 Ildo honetatik, ikusi, KARAGIANNIS, S., "Expulsion d'etrangers et Convention européenne des droits de l'homme. Le risque de mauvais traitements dans l'Etat de destination", *Nazioarteko Zuzenbidearen Urtekari Kolonbiarra (NZKU)*, 3. liburukia, 2010, 68 orrialdea eta hurrengoak.

Zehazki, nazioarteko babes esparruari dagokionez, Europako Kontseiluaren Estatutuek bere testu artikulatuan ez dituzte aipatzen pertsona errefuxiatuen arazoak, eta hortaz, lege-hutsune hau bete behar da aipatutako Europako Kontseiluaren Estatutuen 3. artikuluan xedatutakoa zuzenean lotuta GEHE-ko 1. artikuluarekin: "kide diren Estatuek bertan araututako eskubide eta askatasunak aitortuko dizkiote bere jurisdikziopean dauden pertsona oroi"; izan ere, bi arauak interpretatu daitezke LGBTI+ pertsonen berme baten moduan, hain zuzen ere, jazarpenetik ihesean lurralde europarrera iristean nazioarteko babesa behar dutenentzat, eta Europako Kontseiluaren edozein Estatu kidek haien eskubide eta askatasun oinarrizkoenak babestu behar dituzte, kontuan izan gabe herrialde horietan duten estatus juridikoa. Halaber, ondorio hauetarako beharrezkoa da Ministroen Kontseiluak eta Europako Kontseiluko Asanblada Parlamentarioak onartutako *soft law* tresnak errespetatzea; hauek asiloa eskatzeko eskubidea berariaz aipatzen dute, eta europar lurraldean LGBTI+ kolektiboaren nazioarteko babesaren gaia indartzen laguntzen dute.

Ildo honetatik, komeni da 5. Gomendioa (2010) azpimarratzea; honek berariaz honakoa baieztatzen du: "Estatu kideen legeri nazionalek, errefuxiatu estatutua onartzeko, bidezko arrazoitzat sexu-orientazioa edo genero-identitatea aitortu behar dute"[117]. Horretarako, Ministro Batzordearen 9. Gomendioari (2004) heldu behar zaio *"giza talde zehatz bateko kide izatea" kontzeptua osatzeko, 1951eko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioaren testuinguruan*; azken honek, giza talde zehatz bati honako definizioa ematen dio: "giza talde bat da ezaugarri komuna duena, edo egozten zaiona - jazarpena jasaten dutela ez den ezaugarria -, eta gizarteak taldetzat jotzen du, edo Estatuak edo jazartzaileek taldetzat identifikatzen dute. Talde baten kontrako jazarpen ekintza faktore garrantzitsua izan daiteke gizarte zehatz batean talde baten ikusgaitasuna zehazteko". Halaber, printzipio batzuk ezartzen ditu, eta 1951ko Genevako Konbentzioaren arabera interpretatuta, laguntzen du zehazten ea pertsona batek talde horretakoa izateagatik jazarpena jasotzen duen; hala nola, *giza talde zehatza* terminoa "interpretatu behar da modu zabal eta inklusiboan, 1951ko Konbentzioaren xede eta helburuetarako"; "interpretazio horrek Konbentzioaren esparrua ezin du gainditu, eta Estatu kideei ezin zaie betebeharrak inposatu, adostasuna eman ez badiete", eta, azkenik, "giza talde bateko kide izateagatik soilik ez da errefuxiatu estatutua emateko justifikazio nahikoa". Ildo honetatik, "[a]silo eskaera bakoitza banan-bana aztertu beharko da, kontuan hartu behar da lotura badagoen giza talde zehatz bateko kidea izatea, eta jazarpen arriskua izatearen artean. Gainera, jatorrizko herrialdeko inguruabarrak kontuan izango dira"; nolanahi ere, honakoa gerta liteke: "kasu berezietan taldeko kide izatea arrazoi nahikoa da jazarpenaren beldur egoteko"[118].

Halaber, Ministroen Batzordearentzat *ez-itzularazteko printzipioak* garrantzi handia du SOGI arrazoiengatik nazioarteko babesaren esparruan, eta horren froga da 5. Gomendioa (2010); izan ere, organo horrek uste badu LGBTI+ kolektiboko kideek SOGI-arengatik arriskua dutela, bere jatorrizko herrialdean edo hirugarren Estatu batean, heriotz-zigorra, tortura eta/edo tratu edo zigor inhumanoa edo umiliagarria jasotzeko, Estatu kideek ez ditu pertsona horiek itzularaziko edo kanporatuko, "eta horren ordez, bila dabiltzan babesa emango diete"[119]. Horren inguruan,

---

117 *Cfr.* Committee of Ministers, Council of Europe, Recommendation nº (2010) 5 of the Committee of Ministers to member *states on measures to..., op. cit.*, 42. paragrafoa.

118 *Cfr.* Committee of Ministers, Council of Europe, Recommendation nº (2009) o*n the concept of "membership of a particular social group" in the context of the 1951 Convention relating to the Status of Refugees*, 30th June 2004, 42. paragrafoa.

119 *Ibídem.*, 43. paragrafoa.

baita ere gehitzen du, gizarte zehatz batean sexu bereko sexu-harremanak legez kanpokotzat jotzen diren kasuetan, "zigor larriak ezartzea, pertsona herrialde horretara ez bidaltzeko arrazoi nahikoa izango da" [120].

Bestaldetik, aipatutako Ministro Batzordearen 5. Gomendioak (2010) bat egiten du ENBGK-kin, biek garrantzia ematen baitiote pertsona arduradunak LGBTI+ pertsona errefuxiatuek aurre egin behar dieten arazo espezifikoetan gaitzea, nazioarteko babes eskaerak aztertzeko eta tramitatzeko, eta modu honetan, irizpide ankerretan oinarritutako eskaerak ezestea ekiditeko; hala nola, argudiatzea eskatzaileak jazarpena ekidin dezakeela bere jatorrizko herrialdean edo hirugarren Estatu batean bere SOGI-a ezkutuan edukita (*diskrezioaren irizpidea*), edo herrialdeko beste alde batean "leku seguru bat" topatzeko, non arriskuaren beldurra ez litzatekeen ganorazkoa izango (*barne ihesaldia edo berkokapenaren alternatiba*)[121].

Azkenik, Ministro Batzordeak kide diren Estatuei aipatutako 5. Gomendioan (2010) eskatzen die neurri batzuk hartzeko, zehazki LGBTI+ pertsona errefuxiatuei babes handiago bat bermatze aldera. Zehazki, askatasuna galdu dutenei edo kalteberatasun egoera berezi batean daudenei, bere asilo eskaera tramitatzen den bitartean. Neurrien artean, aipatzen dira edozein politika edo praktika diskriminatzailea ekiditeko egokiak direnak, hala nola beldurraraztea, umiliazioa, sexu erasoa, bortxaketa, eta beste eraso motak, eta halaber, LGBTI+ pertsona errefuxiatuak haien SOGI-arekin erlazionatutako eskubideei buruzko aholkua eta informazioa ematea, ulertzen duen hizkuntza batean, eta azpimarratu behar da atxiloketa administratiboko zentroetako langile, polizia, arlo juridikoko langileak, osasun langileak, eta baita honelako esparruetan lan egiten duten GKEkoen trebakuntza[122].

Bere aldetik, Europako Kontseiluko Asanblada Parlamentarioak 2000ko ekainean, 1470. Gomendioa (2000) onartu zuen, *Europako Kontseiluko kide diren Estatuetan gay eta lesbianen eta haien bikoteen egoera asiloaren eta inmigrazioaren esparruan*, -egun indarrean jarraitzen duena, aipatutako organo horrek arlo honetan espezifikoki onartu duen bakarra delako -, eta hori nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonen eskubideen borrokan aurrerapen handia izan zen.

1470. Gomendio horrek (2000), Europako Kontseiluko kide diren Estatuetan LGBTI+ pertsona errefuxiatuen egoeraren azterketan sakontzean, interes handiko gertaera batzuk egiaztatu zituen; besteak beste, haien jatorrizko herrialdeetan, baita Kontseiluko kide diren Estatuetan ere, homosexualen jazarpen kasu kopuru handi batean ez da dokumentatu.[123] Horrela, egiaztatu zuen Europako Kontseiluko kide diren Estatu gehienetan, inmigrazio politikek gay eta lesbianak diskriminatzen zituztela. Zehazki, horietako gehienek ez zuten aitortzen orientazio afektibo-sexualarengatik jazarpena asiloa onartzeko bidezko arrazoitzat.[124]; gai honek, SOGI arrazoiak BE-ko asilo eta emigrazio araudian aitortu eta sartu direnetik, eboluzio bat izan du. Halaber, berretsi

---

120 Cfr. Committee of Ministers, Council of Europe, Recommendation nº (2010)5 of the Committee of Ministers to member *states on measures to..., op. cit.*, 42. paragrafoa.

121 *Cfr.* Committee of Ministers, Council of Europe, Recommendation nº (2010)5 of the Committee of Ministers to member *states on measures to..., op. cit.*, 42. paragrafoa.

122 *Ibídem.*, 44. paragrafoa.

123 *Cfr.* Parliamentary Assembly, Council of Europe, Recommendation nº 1470 (2000) *Situation of gais and lesbians and their partners in respect of asylum and immigration in the member states of the Council of Europe*, 30th June, 2000, 4. atala.

124 *Ibídem*, 2. atala.

zuen Estatu kide askotan ez zela bermatzen bikote atzerritarrari inolako bizileku eskubiderik, sexu bereko pertsonak eta nazionalitate desberdinekoak izanda; horrek eragiten zien "sufrikario handiak bikote lesbiana eta gay askori; izan ere, harremana eteten zen, eta behartuta zeuden herrialde desberdinetan bereizita bizitzeko"[125]; eta egiaztatu zuen errefuxiatu estatutua ez emateko praktika, eta bai ordea, bizileku baimena arrazoi humanitarioengatik, berme txikiago duena, bere giza eskubideen kaltetan[126]. Gertaera horien aurrean, Europako Kontseiluko Asanblada Parlamentarioak aipatutako Gomendioan proposamen batzuk deskribatu zituen, nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonek nazioarteko babesa modu eraginkorrago batean eskuratzeko[127]. Halaber, balio dute Estatu kide gehienetan kolektibo horren kontrako diskriminazio ekintza-segida ekiditeko, eta ongi asko estrapolatu daitezke egungo Asiloaren Sistema Europar Erkidera (ASEE), hala nola, nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonei espezifikoki aplikagarriak diren jarduera Protokoloak garatzeko beharra; kolektibo honen kontrako abusuak dokumentatzen dituzten datuen bilketa eta erregistroa, kontuan izanik Estatu kideen begi-bistako opakotasuna, SOGI-arengatik nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen kopuruen gaineko datuak eta estatistikak argitaratzeko erakusten dutena; eta azkenik, ENBGK-aren laguntza izatea, eta baita ere, LGBTI+ kolektiboaren eskubideak defendatzen dituzten elkarte eta GKE-ena - zehazki, bere nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea, eta halaber, Europako Kontseiluko Estatu Kideen inmigrazio politikak gauzatzerakoan sortutako balizko ondorio negatiboetatik babesteko -. Hori, ondorio hauetarako, baita ere, estrapolatu daiteke BEko Estatuei. Azkenik, aipatutako 1728. Ebazpenak (2010) zalantzarik gabe Estatu kideek honakoa egin behar dutela baieztatzen du: "LGBT+ pertsonen jazarpena asiloa emateko arrazoitzat aitortu behar dute, eta *sexu-orientazioa eta genero-identitatearekin erlazionatutako asilo eskaerei buruzko* [ENBGK-ren Oharra] garatu"[128].

Ildo beretik, Europako Kontseiluko Giza Eskubideentzako Komisarioak argitaratutako txostenek LGBTI+ nazioarteko babes eskatzaileei buruzko Europako Kontseiluaren iritzia ezagutarazten digu. Horien artean, 2009ko *Giza Eskubideak eta Genero-identitateari buruzko* txostena. Bertan, Europan trans pertsona errefuxiatuen egoera lantzen du, eta azpimarratzen du, besteak-beste, migratzerakoan gainditu beharreko arazoak, hala nola, oztopoak "izen egokiarekin eta sexu aldaketarekin, nortasun agiri berriak lortzeko", eta horrek "trans pertsona bati galarazi diezaioke aldameneko herrialde batera bidaiatzea". Halaber, baldin badago "mugako kontrolerako poliziaren aldetik abusuak jasateko beldur bat, nortasun agirian azaltzen diren izena eta sexuak ez dutelako bat egiten itxura fisikoarekin. Hortaz, zirkulatzeko askatasuna oso murriztuta gelditu daiteke". Baita ere, familia batzeko arazoak sor daitezke; izan ere, batzuetan "nazionalitateko herrialdeak trans pertsonari generoa berregokitzerakoan dibortziatzera behartzen dio, eta oztopoa gerta daiteke [bai] familia batzeko, eta ezkontide ohiarekin beste herrialde batean bizitzen jarraitzeko aukerarentzat, [eta baita] familiako semeentzat". Azkenik, "pertsona emigratzailearen helmugako herrialdeak ez dauka genero aldaketa onartu beharrik"[129].

---

125 *Ibídem*, 6. atala.

126 *Ibídem*, 5. atala.

127 *Ibídem*, 5. atala.

128 *Cfr.* Parliamentary Assembly, Council of Europe, Resolution 1728 (2010) *Discrimination on the..., op. cit.,* 16.15. atala.

129 *Cfr.* HAMMEMBERG, T., *Report on Human Rights and Gender Identity*, Council of Europe Publishing, Strasbourg, 29th July 2009, 3.6. paragrafoa.

Bestaldetik, Komisarioak txostenean Europako Kontseiluko Estatu Partaideei neurri batzuk proposatzen dizkie; besteak beste, eta abiapuntutzat hartuta ENBGK-k nazioarteko babesa emateko genero-identitatea arrazoitzat aitortzen duela (1951ko Genevako Konbentzioarekin bat), aipatzen du

"aurrerapauso handia suposatuko luke Estatu kideek genero-identitatea berariaz aipatzea, eta nazioarteko babesa behar duen jazarpen arrazoitzat jotzea"[130]. Nolanahi ere, txostenean jasotzen den moduan, Europako Kontseiluko herrialde gehienek ez dute genero-identitatea jazarpena sortzen duen arrazoitzat jotzen, eta ondorioz, nazioarteko babesa beharrezkoa da, eta herrialde gehienetan trans pertsonei errefuxiatu estatutua aitortzeko, *giza talde zehatz* bateko kide izatearen arrazoi hori sartu behako litzateke. Horregatik, Giza Eskubideen Komisarioak salatzen du Europako Kontseiluko Estatu Partaide kopuru handi batean "trans pertsonak ez direla berariaz "giza talde" zehaztzat jotzen; Frantzia eta Austria bezalako beste herrialde batzuetan, ordea, egiten da. Suedian, trans pertsonak legearen aldetik "genero" kategorian sartzen dira"[131].

Estatuek beste neurri batzuk hartu beharko lukete jazarpen arrazoitzat genero-identitatea edo adierazpena alegatzen den asilo prozeduren esparruan (orientazio afektibo-sexualeko arrazoiengatik jazarpen kasu batzuei aplikatzea bidezkoa denean), egun, erabat indarrean daudenak; eta baita ere gomendio moduan estrapolagarriak izan daitezke, BE-ko Estatuei, *Asilo Sistema Europar Erkidean* (ASEE) sartze aldera. Neurri horiek, oro har, honela zehazten dira: instrukzio batzuk eratzea "asilo arloan eskuduntza duten agintarientzat gida moduan, "trans-ekin" elkarrizketak modu "errespetagarrian" egiteko (baita ere orientazio afektibo-sexualari buruzko gaien inguruan). Txostenak harrera baldintzei buruz aipatzen du asiloa eskatu duten trans pertsonek atxiloketa zentroetan batzuetan arazoak dituztela beste nazioarteko babes eskatzaileekin - askotan haien jatorrizko herrialde berekoak dira -, eta asilo eskatzaile trans-entzat birtraumatizazio arrisku larria dago. Halaber, aitortzen da "[b]atzuetan trans pertsonak ez dituztela sartzen haiek nahi duten gizon/emakumeen instalazioetan, eta horrek potentzialki arriskutsuak diren egoerak sortzen dituela, besteak beste, sexu bortizkeria, jazarpen eta beste tratu txarren arrisku handia". Egoera horiek ekiditeko, gomendatzen du "zentro hauetan ingurune egoki bat sortzea, trans pertsonen kontrako jazarpena ekiditeko", eta aipatzen du "[b] este arazo bat da osasun zerbitzuetara heltzeko arazoak daudela, eta pertsona trans batzuk behar duten tratamendu hormonal iraunkorra eten daitekeela"[132]. Arazo berdinak dituzte jatorrizko herrialdea edo hirugarren herrialde bat utzi dutenean orientazio afektibo-sexual arrazoiengatik jazarpena jasan dutelako, eta hortaz, harrera prozesuan zehar abusu sexual eta tratu txarren egoerak ekiditeko, beharrezkoa da baita ere harrera ingurune egoki bat sortzea.

---

130 *Cfr. Ibídem.*, 3.6. paragrafoa. Txosten honetan berariaz salatzen dira Europan trans pertsonek jasaten duten diskriminazioa, intolerantzia, zuzeneko bortizkeria eta oinarrizko giza eskubideen urraketen maila; azken horretan sartzen dira bizitza eskubidea, integritate fisikorako eskubidea, eta osasunerako eskubidea.

131 *Cfr.* HAMMEMBERG, T., *Report on Human..., op. cit,* 3.6 paragrafoa. Kontuan izan, urriaren 30eko asilo eskubidea eta babes subsidiarioaren araudiari buruzko 12/2009 Lege espainiarraren 3. artikulua, xedatzen duena: "errefuxiatu baldintza pertsona orori aitortzen zaio (...) genero edo sexu-orientazioarengatik jazarpena jasango duelaren ganorazko beldurra dagoenean". Espainia Europako Kontseiluko herrialde kideen artean honela azaltzen da: bere legeri nazionalean ez du jasotzen trans pertsonak,"genero" kategoria barruan sar daitezkeenik; horren arrazoia da txostena 2009ko uztailekoa dela, eta asilo eskubidea arautzeko lege espainiarra urte bereko urrian onartu zela, eta beraz, horren inguruan ez dagoela konklusiorik. EBO, 263. zk.koa, 2009ko urriaren 31koa.

132 *Cfr.* HAMMEMBERG, T., *Report on Human..., op. cit*, 3.6. paragrafoa.

1.2. LGBTI+ pertsona errefuxiatuen babesa GEHE-aren markoan

Bestalde, aipatutako erakundeak giza eskubideen arloan egin duen eragin handieneko lana izan da, hain zuzen ere, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (GEEH)[133], 1950ko azaroaren 4koa[134]; izan ere, nazioarteko testu aitzindari bat da, eta ez bakarrik oinarrizko eskubide eta askatasunen katalogo bat ezartzen duelako, baizik eta baita ere horien babes judizialerako mekanismo bat ezartzen duelako, GEAE-k egindako lanaren bitartez.

Nola nahi ere, GEHE-ak atzerritarrei formalki eskainitako babesak hutsune bikoitz bat dauka, konparatzen badugu eskualde izaerako tresna juridiko zehatzetan eskaintzen den babesarekin. Horrela, alde batetik, berme sistema europarrak asilo eskubidea besterik gabe baztertu egiten du, eta Hitzarmenak bere artikuluetan ez du berariaz asilo eskubide bat aitortzen; beste testu batzuk, ordea, bai egin dute; hala nola, 1969ko *Giza Eskubideei buruzko Konbentzio Amerikarra*, progresistakoa dena, gizaki ororen eskubide hau babesten duena "atzerriko lurraldeetan asiloa bilatzeko eta jasotzeko" (22.7 artikulua)[135], edo 1981eko *Giza Eskubide eta Herriei buruzko Gutun Afrikarra,* honako eskubidea aitortzen duena: "pertsona orok (...) jazarpena jasaten duenean, beste herrialdeetan asiloa bilatzeko eta eskuratzeko" (12.3 artikulua)[136]. GEHE-ak ez du ezta ere xedapenik errefuxiatuen babesarekin erlazionatutakoa, ezta behartutako migrazioen edo migrazioen parte diren pertsonen ingurukorik[137].

Halere, GEAE-ak, jurisprudentzia oparo eta zabal baten bitartez, hitzarmenaren xedapenen inguruan egindako interpretazioa da, bereziki, marko espezifiko bat eratzea ahalbideratu duena, eta bertan pertsona errefuxiatuak sartuko lirateke. Eta MORGADES GILek dioen moduan, "*kalteberatasun* handiko baldintza zehatzetan, Hitzarmeneko eskubideen onuradunak izatean, Hitzarmenean topatu dute babes pribilegiatu baterako ingurune normatiboa"[138]. Honela, azkenean, Estatuei GEEH-ego 1. artikuluko betebehar positiboak behartu ahal izan zaie, hau da, aitortzea Hitzarmenean zehaztutako "eskubide eta askatasunak bere jurisdikziopeko pertsona

---

133 Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Hitzarmen Europarra (GEEH), Erroman 1950ko azaroaren 4an onartutakoa. 1953ko irailaren 3an orokorki indarrean sartu zen.

134 1951ko Genevako Konbentzioa eta 1950ko GEHE-a garai berean onartu ziren, eta Estatuen borondatearen isla argia da, eta, zehazki, herrialde europarrena, printzipioen *corpus* bat egiteko, gizakiaren errespetoan eta babesean oinarritzen direnak; izan ere, duela gutxi bukatutako gerrak erabateko mespretsua erakutsi zuen, eta horrekin amaitu nahi zen behin betirako. WIEDERKEHRen hitzetan, horrek suposatzen du "endossait donc la responsabilité de personnes privées de la protection de leur Etat-les réfugies- ou de personnes dont les droits et libertés fondamentaux étaient méconnus par un Etat- les personnes placées sous la juridiction de cet Etat". Cfr. WIEDERKEHR, M.O., *"L'ouvre de Conseil de l'Europe dans le domaine du droit de l'asile et des réfugiés",* en: VV.AA., Droit d'asile et des réfugiés, Colloque de Caen, *Societé Française pour le Droit International (SFDI)*, Ed. Pedone, Paris, 1997, p. 198.

135 Ikusi, 1969ko *Giza Eskubideei buruzko Amerikar Konbentzioaren* 22.7 artikulua: "[g]izaki orok eskubidea du atzerriko lurraldean asiloa bilatzeko eta jasotzeko, delitu politiko, edo politikoekin erlazionatutako delitu arruntengatik jazarpenaren kasuan, eta Estatu bakoitzeko legeriarekin eta nazioarteko hitzarmenekin bat".

136 Ikusi, 1981ko *Giza Eskubideen eta Herriei buruzko Africa Gutunaren* 12.3 artikulua: "[g]izaki orok eskubidea izango du, jazarpena jasotzen badu, beste herrialdeetan asiloa bilatzeko eta eskuratzeko, herrialde horietako legeriarekin eta nazioarteko hitzarmenekin bat".

137 *Cfr.* MORGADES GIL, S., "Kalteberatasun bereziko arrazoiengatik asilo eskatzaileen babesa Giza Eskubideen Auzitegi Europarraren jurisprudentzian", *Europar Zuzenbide Komunitarioaren Aldizkaria* (EZKA), 14. zk.ko urtea, 37. zk.a, 2010, 802. orrialdea.

138 *Cfr.* MORGADES GIL, S., "...babesa", *op. cit.*, 802.orrialdea.

orori". Hortaz, LGBTI+ pertsona errefuxiatuak, Hitzarmeneko Estatu Parte-hartzaileetako baten lurraldean baldin badaude, eta norbanakoaren errekurtso bidea onartu baldin badio,[139] aukera du dagokion organoaren aurrean aipatutako Estatuek sinatutako Hitzarmenaren edozein urraketa argudiatzeko[140]. Berez, GEAE-k batzuetan onartu du GEHE: "bizirik dagoen tresna bat dela, egungo bizi baldintzen arabera interpretatu beharrekoa, eta ikusita giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen arloan handitzen ari den eskaera maila, honek ekarri du, paraleloki eta modu sahiestezinean, irmotasun handiagoa gizarte demokratikoaren funtsezko baloreei erasoak atzematerakoan"[141].

Ildo honetatik, GEAE-k, GEHE-aren 3. artikuluan oinarrituta – tortura eta zigor eta tratu inhumano edo umiliagarriak debekatzen dituena -, erabaki du Estatu Partaideek ezin dutela pertsona bat lurralde batera itzularazi, kanporatu edo estraditatu, horrelako tratu motak jasateko arriskua balego[142]. Halaber, ez itzularazteko debeku horrek inplizituki pertsonari harrera Estatuan bere asilo eskubidea egikaritzeko bermea ematen dio, baldin eta kanporatu baino

---

139 Horretarako aipatutako Estatuak Hitzarmeneko 11. zk.ko Protokoloa berretsi behar izan du; hain zuen ere, Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen babeserako, *Hitzarmenak ezarritako kontrol mekanismoaren berregituraketari buruzkoa*; Estrasburgon, 1994ko maiatzaren 11n onartua. Halaber, Estatu batek GEHE eta bere 11. zk.ko Protokoloa berresterakoan, haien burua Hitzarmenak aitortzen dituen oinarrizko eskubideen urraketen biktimatzat jotzen duten pertsonei – Estatu horretako agintarien ebazpenen edo amaierako egintzei egotzi dakiokeen urraketa-, GEAE-aren aurrean errekurtso bat jartzeko ahalmena ematen die, urratutzat jotzen duten eskubidea babesteko. Cfr. MORENILLA ALLARD, P., "Babes eskeko prozedura Giza Eskubideen Auzitegi Europarraren aurrean", *UNAM-eko Azterlan Juridikoen Institutuaren Liburutegi Juridiko Birtuala*, 2003, 819. orrialdea. Horri dagokionez, Espainiak GEHE-ren 11. zk.ko Protokoloa berretsi du, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (EAO), 152. zk.a, 1998ko ekainaren 26koa.

140 Cfr. GORTÁZAR ROTAECHE-k ildo horretatik baieztatzen du "asko dira existitzen diren giza eskubideen aldarrikapenak, halere, horien benetako babesa ez da soilik "aitortzea", baizik eta pertsonari "aitortu" zaizkion eskubideen balizko urraketen aurrean defendatu ahal izateko beharrezko mekanismo prozesalak ematea". *Cfr.* GORTÁZAR ROTAECHE, C., *Asilo eskubidea eta errefuxiatua"ez errefuxatzea"*, Ed. Dykinson, Madrid, 1996, 228. orrialdea.

141 GEAEE, 1978ko martxoaren 15ekoa, *Tyrer Erresuma Batuaren kontrako* afera, 31. paragrafoa. Halaber, ikusi, 1979ko ekainaren 13ko GEAEE, *Marckx Belgicaren aurkako* afera. Ildo honetatik, Doctrinak GEHE-ri bizirik dagoen testu kondizioa onartu dio, eta horrek esan nahi du aplikatzen den momentuko ikuspuntutik interpretau behar dela. Hortaz, GEAE-ak akeratu du interpretazio dinamikoa edo ebolutiboaren irizpidea, eta horrek ahalbideratu dio Hitzarmena ulertu behar den modua eguneratzen eta argitzen. *Cfr.* QUERALT JIMÉNEZ, A., *Eskubideen interpretazioa: Estrasburgoko Auzitegitik Auzitegi Konstituzionalera*, Ikasketa Politiko eta Konstituzionalen Zentroa, Bilduma: Ikasketa Konstituzionalak, Madrid, 2008, 94-95. orrialdea. Halaber, ikusi, MATSCHER, F., "Les contraintes de l'interprétation juridictionnelle. Les méthodes d'interprétation de la Convention Européenne", en: SUDRE, F. (Dir.), L'*interprétation de la Convention Européenne des droits de l'homme*, Bruylant, Bruxelles, 1998, 23. orrialdea, eta PREBENSEN, S.C., "Evolutive interpretation of the European Convention on Human Rights", honetan: MAHONEY, P.; MATSCHER, F.; PETZOLD, H. y WILDHABER, L., *Protecting Human Rights: The European perspective. Studies in memory of Rolv Ryssdal*, Ed. Carl Heymanns Verlag, Colonia, 2000, 1123. orrialdea.

142 Horri dagokionez, ikusi, GREENMAN, K., "A castle built on sand? Article 3 ECHR and the source of risk in non-refoulement obligations in international law", *International Journal of Refugee Law*, 72. liburukia, 2. zk.koa, 2015, 264-296. orrialdeak; DE WECK, F., *Non-refoulement under the European Convention on Human Rights and the UN Convention against Torture*, Brill/Nijhoff, Leiden/Boston, 2016; HAMDAN, E., *The principle of non-refoulement under ECHR and the UN Convention against Torture and Other Cruel, Inhuman or Degradating Treatment or Punishment*, Brill/Nijhoff, Leiden/Boston, 2016; JACKSON, M., "Freeing Soering: The ECHR, State Complicity in Torture and Jurisdiction", *European Journal of International Law*, 27. liburukia, 3. zk.koa, 2016, 817-830. orrialdeak; FLEGAR, V., "Vulnerability and the Principle of Non-Refoulement in the European Court of Human Rights: Towards an Increased Scope of Protection for Persons Fleeing from Extreme Poverty?", *Contemporary Readings in Law and Social Justice*, 8. liburukia, 2. zk.koa, 148-169. Orrialeak, eta COSTELLO, C., "The Search of the Outer Edges of Non-Refoulement in Europe", en: CANTOR, D. y BERSON, B. (Eds.), *Human Rights and the Refugee Definition: Comparative Legal Practice and Theory*, Brill/Nijhoff, Leiden/Boston, 2016, 180-209. orrialdeak.

lehen egindako bere egoera partikularraren aurretiko azterketan, erabakitzen bada nazioarteko babesa behar duela, eta hortaz, ezinbestez herrialde jazartzailera itzularaztea ekidin behar da. GEHE-ren 3. artikuluak, aldi berean, Europako Kontseiluko parte diren gizarte demokratikoen funtsezko baloreetako bat ezartzen du, hain zuzen, torturaren debekuarena[143], gizaki izaera eta duintasunari atxikitakoa, eta, erabateko izaera duena, eta ezin dena inolako baldintzetan eten edo murriztu[144]. Hau da, ezin zaio inolako murriztapenik aplikatu, legez edo beste bide batetik, eta segurtasun nazional, ordenu publiko edo moral publikoko arrazoiengatik (CEDH 15.1 artikulua); aukera hori bai onartzen da, ordea, eskubide zibil eta politikoei buruzko hitzarmen orokorretako klausula substantibo gehienetan[145].

---

143 "Tortura" kontzeptua interpretatzerakoan, GEAE-k adierazi du "tratu inhumano edo humiliagarrietatik" bereizteko, Hitzarmenak "[l]ehen terminoarekin estigmatizatu nahi ditu bereziki nahita egindako tratu inhumanoak, sufrimendu larri eta ankerrak eragiten dituztenak". Torturatzat jotzen dira larritasun handiagoko ekintzak. Horrela, GEEHn kontzeptuaren bere definiziorik ez dagoenez, GEAE-k berea egin du 1984ko *Nazio Batuen Konbentzioa, Tortura eta Beste Tratu edo Zigor Anker, Inhumano edo Humilagarriari buruzkoaren (TAK)* 1.1 artikulua. Ildo honetatik, aipatutako Konbentzioaren 1.1 artikuluak honakoa xedatzen du: *"(…) "tortura" terminotzat joko da ekintza oro persona bati nahita oinaze eta sufrimendu larriak, fisikoak zein mentalak, berak edo hirugarren batek informazioa edo aitortza bat lortzeko, egin duen ekintza batengatik zigortzeko (edo egin duelaren susmoa dagoelako), edo pertsona hori edo beste bat beldurtzeko edo derrigortzeko*, edo edozein diskriminazio arrazoitan oinarritutakoak, oinaze edo sufrimendu horiek funtzionario publiko edo beste pertsona batek funtzio publikoak egikaritzerakoan, berak erabakita, edo bere adostasunarekin edo oniritziarekin. (…)". Halaber, ikusi, 1978ko urtarrilaren 18ko GEAEE, *Irlanda, Erresuma Batuaren aurka*, 167. paragrafoa. Gai honen azterketa sakonago bat egiteko, ikusi, PRESNO LINERA, M.A., "Torturaren debekua Giza Eskubideen Hitzarmenean", *Direitos Fundamentais e Justiça*, 4. zk.koa, 2008ko uztaila-iraila, 33-36 orrialdeak, eta CASADEVALL, J., *Giza Eskubideen Europar Hitzarmena, Estrasburgoko Auzitegia, eta bere jurisprudentzia*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2012, 219-221. orrialdeak.

Aldi berean, GEAE-k bere jurisprudentzian "tratu inhumanotzat" jotzen du *jakinaren gainean egonda hainbat ordutan aplikatuta, eta gorputz lesioak eraginez, edo sufrimendu fisiko edo mental handiak.* Beste aldetik, "trato humiliagarria", bere izaerarengatik, da biktimari beldurra, larritasun sentimenduak eragiten dizkiotenak, edo gutxiagotasun sentimenduak, persona humiliatu, gutxietsi edo bere erresistentzia fisiko edo morala hondatu dezaketenak. Ildo honetatik ikusi, GEAEE, 1997ko abenduaren 16koa, *Raninen, Finlandiaren aurka*, 55. paragrafoa, eta 1999ko abenduaren 16koa, V., *Erresuma Batuaren aurka*, 71. paragrafoa.

144 Ildo honetatik, LGBTI+ kolektiboarekin berariaz erlazioa ez duen arren, GEEA-k 1989ko uztailaren 7ko GEAEE-n erabaki zuen kaleratzea, itzuliaraztea edo estraditatzea debekatzea tortura kasuetan, *Soering, Erresuma Batuaren aurkako gaia*; 1991ko urriaren 31koa, *Vilvarajah eta veste batzuk Erresuma Batuaren aurkako gaia*; 1996ko azaroaren 15ekoa, *Chahal Errsuma Batuaren aurkako gaia*; 1996ko abenduaren 18koa, *Aksoy Turkiaren aurka*; 1997ko maiatzaren 2koa, *D. Erresuma Batuaren aurka*; 2006ko uztailaren 4koa, *Ramírez Sánchez Frantziaren kontra*; 2007ko urtarrilaren 11koa, *Salah Sheekh Herbehereen aurkako gaia*; 2008ko otsailaren 28koa, *Saadi Italiaren aurka*, eta 2016ko martxoaren 23koa, *F.G. Suediaren aurkako gaia*, besteak beste.

145 GEEH-ko 15.1 artikuluak honakoa xedatzen du: "[n]azioaren bizitza mehatxatzen duen gerra edo beste arrisku publikoko kasuan, edozein Parte Kontratugilek Hitzarmen honetan aurreikusitako betebeharrak indargabetzeko neurriak har ditzake, baina soilik egoerak eskatzen duen neurri hertsian, eta baldin eta neurri horiek nazioarteko zuzenbideak ezartzen dituen gainerako betebeharren kontra ez daudenean; 2. Aurreko xedapenak ez du baimentzen 2. artikulua indargabetzea, - salbuespena, gerrako legezko ekintzen ondoriozko heriotzen kasua -, ezta 3, 4 (1. paragrafoa) eta 7. artikuluak ere". Ildo honetatik, ikusi, CASADEVALL, J., *Hitzarmen Europarra…, op. cit.*, 217. orrialdea, eta GARCIA ROCA, J. eta SANTOLAYA, P., *Eskubideen Europa. Giza Eskubiden Hitzarmen Europarra*, Ikasketa Politiko eta Konstituzionalen Zentroa, Hirugarren Argitalpena, Madrid, 2014, 87. orrialdea.

Horri dagokionez, - eta horrekin erlazionatuta, nazioarteko babes eskatzaile LGTBI+ pertsonen babesa, GEHE-ren 3. artikuluaren[146] urraketa baten balizko biktima moduan, noraino iristen den -, beharrezkoa da azpimarratzea GEHEko 3. artikuluan eta TAK-en 3. artikuluan[147] arautzen duten ez itzularazteko printzipioaren babesa askoz ere zabalagoa dela 1951ko Genevako Konbentzioaren 1.A.2 artikuluarena baino. Azken honek "errefuxiatu" aipatzen du soilik honela: jazarpena jasateko ganorazko beldurraren ondorioz, arraza, erlijio, nazionalitatea, giza talde zehatz bateko kidea izatea edo iritzi politikoko arrazoiengatik, *bere nazionalitateko herrialdetik kanpo egotea*, eta ezin duenean edo, beldur horiengatik, *ez duenean herrialde horren babesa jasotzea nahi*; edo *nazionalitaterik eduki ezean*, eta gertaera horiek medio, *aurreko bere ohiko bizilekua zuen herrialdetik kanpo egongo balitz, bertara ezingo balu itzuli, edo beldur horiengatik, itzuli nahi ez balu".* Ildo honetatik, bai GEHE-ko 3. artikuluak eta baita TAK-en 3. artikuluak, ez dute inolako mugarik jartzen itzularazteko arriskuaren (*refoulement*) babesaren onuradunak izan litezkeen pertsonen inguruan[148]. Babesa areagotzen da pertsonaren beldurra torturatua izateko arriskuan oinarritzen bada; izan ere, bi xedapenek torturaren kontrako debekua honela jotzen dute: araua, erabateko izaera duena, ezinbestekoa eta indargabetu ezin dena[149].

Tortura debekatzeko testuinguruan, ez itzularazteko printzipioaren urraketengatik bere gain erantzukizunak hartzeari dagokionez, babes organoek, zeharkako itzulketen kasuan, Parte diren Estatuen erantzukizuna honako kasuan baieztatzen dute: itzulketa tratu txarrak jasateko arriskua ez dagoen Estatu batera egiten denean, baina Estatu horretatik arrisku hori dagoen hirugarren Estatu batera berbidaltzeko arriskua dagoenean[150]. Alderantziz, urraketa izan dela baztertzen da tratu txarra jasateko arriskua helburuko Estatu horretako eremu zehatzetara mugatzen bada, eta interesduna arriskua ez dagoen eremu seguru batera bidaltzen bada[151]. Bestaldetik, tortura arriskua baldin badago, itzularazteko debekua edozein lekualdaketari aplikatzen zaio, arrazoia, modua eta prozedura edozein izanda ere; baita ere bidezko kanporatze, itzularazte edo estradizioa kasuetan, edo zoritxarrez ezagunak diren "ezohiko entregak" kasuetan, lege bermeak

---

146 Nazioarteko babes eskatzaileen kasuan, GEHE-ko 3. artikuluaren urraketa baten balizko biktimen egoera espezifikoari buruzko GEAE-ren lehen epaiak izan ziren, besteak beste, honako GEAEEE: 1996ko abenduaren 17koa, *Ahmed Austriaren contra afera*; 2001ko martxoaren 6koa, *Hilal Erresuna Batuaren kontrako afera*, eta 2005ko uztailaren 25ekoa, *N. Finlandiaren kontrako afera*.

147 Ikusi, 1984ko *Tortura eta Beste Tratu edo Zigor Anker, Inhumano edo humiliagarrien kontrako Konbentzioaren* 3.1 artikulua: "[i]nongo Estatu Kidek ez du pertsona bat beste Estatu batera kanporatuko, itzularaziko edo estraditatuko, tortutatua izateko arriskuan egongo litzatekeela uste izateko ganorazko beldurra dagoenean.

148 Ikusi, GEAEE, 2008ko otsailaren 28koa, *Saadi Italiaren aurkako afera*, 138. paragrafoa.

149 *Cfr.* MORGADES GIL, S., "…babesa", *op. cit.*, 808. orrialdea.

150 Ikusi, GEAEE, 2000ko martxoaren 7koa, *T.I. Erresuma Batuaren aurkako* afera,1. paragrafoa. Halaber, ikusi, CHETAIL, V., "Le Droit des Refugies à l'épreuve des droits de l'homme: bilan de la jurisprudence de la Cour Européenne des droits de l'homme sur l'interdiction du renvoi des étrangers menacés de torture et de traitements inhumains ou dégradants", *Revue Belge de Droit International*, 2004/1, 189. eta hurrengo orrialdeak.

151 Cfr. GORTÁZAR ROTAECHE, C., "Askatasun, Segurtasun eta Justiziaren kanpo dimentsioa. SECA eta mugen kontrolen esternalizazioa BE-n: itsas eremuen arazo berezia": MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J. (Coord.), *Askatasun, Segurtasun eta Justiziaren kanpo dimentsioa*, Iustel, Madrid, 2012, 221-222. orrialdeetan, eta SÁNCHEZ LEGIDO, A., "Berme diplomatikoak, ez itzularaztea, eta torturaren debekua", *Nazioarteko Zuzenbidearen Aldizkari Espainiarra* (NZAE), 60. liburukia, 1. zk.a, 2008, 11-27. orrialdeak.

erabat errespetatzen ez dituzten lekualdaketa kasuetan[152]. Aldi berean, itzulketa baztertuko da tortura edo tratu edo zigor anker, inhumano edo umiliagarrien kasuan, pertsonaren egoera partikularra ez bada aztertzen, eta honek islatzen du ez-itzularazteko printzipioaren izaera humanitarioa[153]. Dena den, SÁNCHEZ LEGIDO adierazten duen bezala, "aztertzen ari garen printzipioa aplikatzerakoan, sortzen diren zailtasunen alderdi bat da bere operatibitatea baldintzatua dagoela izaera espekulatibo baten apreziazioarekin, eta horrek behartzen du dagokion operadoreek, nazionalek zein nazioz gaindikoek, lekualdaketaren aurrez ikusi daitezkeen ondorioak baloratu behar dituztela"[154].

TAK-aren 3.2 artikuluan jasotzen da ebaluaketaren unean kontuan hartu beharreko kontsiderazioetako bat dela ea giza eskubideen urraketek, begi-bistakoek edo masiboek, jarraitzen duten; helburuko herrialdeko giza eskubideen egoera orokorra ez da elementu erabakigarria, baizik eta LGBTI+ pertsona errefuxiatua pertsonalki debekatutako tratuak jasateko arriskuan egotea; edo, modu antzekoan, gorabehera pertsonalak edo izaera zehatz bereizgarriak daude, eskatzailearen egoera antzeko egoeran dauden beste pertsonena baino okerragoa dela egiaztatzen dutena[155].

GEAE-ren erabaki batzuk pentsarazten dute, helburuko herrialdeko egoera orokorrak adierazten badu tortura debekuaren urraketek irauten dutela, eta talde zehatz, espezifiko eta mugatu bati eragiten diotela, - LGBTI+ komunitateari, adibidez -, arrazoi desberdinengatik biktima talde horren kide izatea bera, nahikoa da benetako arriskua dagoela egiaztatzeko, eta horrek ez itzularazteko betebeharra ezinbestekoa egiten du[156].

Beste gai bat arriskuaren ebaluazioa egiterakoan kontuan hartzekoa da *benetako arriskua* egotea. Horrela, GEAE-k *Soering, Chahal eta T.I.* aferetan hartutako ikuspuntua oinarritzat hartuta, afera guzti horiek Erresuma Batuaren kontrakoak, irizpide hau azaldu du: "benetako arriskupean

---

152 Ez-ohiko entregen praktikei buruzko azterketa zabalago bat egiteko, ikusi, SANTOS VARA, J., ""Ez-ohiko entregen" desafioa giza eskubideen nazioarteko babesari: Estatu europarren erantzukizuna", *Nazioarteko Zuzenbidearen Aldizkari Espainiarra (NZAE)*, 59. liburukia, 2007, 175. orrialdea eta hurrengoak, eta RUILOBA ALBARIÑO, J., "Estatu Europarren erantzukizuna CIA-ren hegaldi sekretuen inguruan. Espainiaren aipamen berezia", *Nazioarteko Zuzenbidearen Aldizkari Espainiarra (NZAE)*, 24. liburukia, 2006, 541. eta hurrengo orrialdeak.

153 Ikusi, GEAEE, 2016ko martxoaren 23koa, *F.G. Suediaren kontrako* afera,144-158. paragrafoak. Dotrinaren ikuspuntu batetik, ikusi, LAUTERPACHT, E. eta BETHLEHEM, D., "Ez itzularazteko printzipioaren norainokoa eta edukia: iritzia", EGILE BATZUK, Errefuxiatuen Babesa Nazioarteko Zuzenbidean, Nazioarteko Babesari buruzko ENBGK-ren kontsulta orokorrak, Icaria Editorial, ENBGK, Barcelona, 2010,132. orrialdea.

154 Cfr. SÁNCHEZ LEGIDO, A., "Berme diplomatikoak, ez...", *op. cit.*, 11. orrialdea.

155 Ikusi, GEEAE, 1991ko urriaren 30ekoa, *Vilvarajah eta beste batzuk Erresuma Batuaren aurkako* afera, 111. paragrafoa eta hurrengoak; GEAE, 2001ko maiatzaren 31koa, *Katani eta beste batzuk Alemaniaren aurkako* afera, 1 paragrafoa (Onargarritasun erabakia); GEAE, 2002ko urriaren 22koa, *Ammari Suediaren aurkako* afera, (Onargarritasun erabakia), B atala; GEAEE, 2004ko otsailaren 17koa, *Thampibillai Herbeheren aurkako* afera, 65-67. paragrafoak; GEAEE, 2005ko otsailaren 4koa, *Mamatkulov eta Askarov Turkiaren aurkako* afera, 73 eta hurrengo paragrafoak.; GEAEE, 2005ko apirilaren 26koa, *Müslim Turkiaren aurkako* afera, 68. paragrafoa; GEAEE, 2005ko apirilaren 12koa, *Shamayev eta beste batzuk Georgia eta Errusiaren aurkako* afera, 351-353 paragrafoak, edo GEAEE, 2005ko uztailaren 26koa, *N. Finlandiaren aurkako* afera, 32. paragrafoa.

156 Ikusi, GEAEEE, 2007ko urtarrilaren 11koa, *Salah Sheekh Herbeheren aurkako* afera, 148-149. paragrafoak, eta 2008ko otsailaren 28koa, *Saadi Italiaren aurkako* afera, 39. paragrafoa. Ikusi, BEJAE, 2013ko azaroaren 7koa, X. Y. eta Z., C-199/12 eta C-200/12, non "giza taldearen" nozioaren definizioa ezartzen den.

egotea" edo torturatua izateko "benetako arriskua egotea"[157]. Halaber, GEAE-k ezarritako muga honakoa izango litzateke: "[g]anorazko arrazoiak egiaztatu direnean, pentsarazteko [LGBTI+ pertsona] torturatua izateko benetako arriskua izango lukeela" (GEAE-ren 3. artikulua)[158].

GEAE-ren jurisprudentziaren arabera, eskatzaileari dagokio, printzipioz, lekualdaketa kasuan tratu txarrak jasateko arriskua frogatzeko zantzu bat aurkeztea, eta, hala balitz, eskaera egin dion Gobernuari dagokio eragindako zalantzak argitzea[159]. Nolanahi ere, torturaren debekuak duen garrantziak eskatzen du gai hauen azterketa zuhurra eta inpartziala bat egitea. Kasu horretan, GEAE-k bere gain hartzen du alderdiek aurkeztutako materiala, eta baita berak *motu propio*[160] eskuratutakoa, aztertzeko eskumena, eta berariaz baztertu egiten du soilik Estatu demandatuak aurkeztutakoa erreferentziako elementuak izan daitezkeenik. Horren ondorioz, GEAE-k arriskua antzemateko aintzakotzat hartzen dituen elementuak oso desberdinak dira, eta ia beti eskatzen dira GKE ospetsuen, giza eskubideak sustatu eta babesten dituzten nazioarteko elkarteen, edo Gobernuen txostenak[161].

Nazioarteko babesaren esparruan, hasieran adierazi dugun moduan, GEAE-k bere jurisprudentzian askotan lotu ditu itzularazteko debekua (*refoulement*) eta GEHE-ko 3. artikulua (torturaren debekua). Halere, ez itzularazteko betebeharrak sortzen duen kasu tipikoa eta ohikoena torturaren debekuaren urraketarena bada ere, GEAE-k argi utzi du erregela hori ere aplikatu daitekeela, gutxienez, GEHE-n jasotako xedapen juridiko batzuen urraketei, herrialde jazartzailera - gure kasu zehatz honetan, LGBTI+ pertsona errefuxiatuak - kanporatu edo itzularazterakoan, jakinaren gainean egonda ze arriskuak izango lituzketen, hain zuzen, haien bizitza eta integritatea arriskuan jarriko lituzkeenak, hala nola, GEHE-ko 1. artikulua (giza

---

157 Ikusi, GEAEEE, 1989ko uztailaren 7koa, *Soering Erresuma Batuaren aurkako* afera, 88. paragrafoa; 1996ko azaroaren 15ekoa, *Chahal Erresuma Batuaren aurkako* afera, 74 eta 80. paragrafoa; 2009ko irailaren 22koa, *Abdolkhani eta Kariminia Turkiaren aurkako* afera; 2016ko martxoaren 23koa, *F.G. Suediaren aurkako* afera, 111. eta hurrengo paragrafoak, eta 2016ko abuztuaren 23koa, *J.K. eta beste batzuk Suediaren aurkako* afera, 85. paragrafoa eta hurrengoak.

158 Ildo honetatik, ikusi, BEJAE, 2009ko otsailaren 17koa, *Meki Elgafaji eta Noor Elgafaji, Staatssecretaris van Justitie-rem aurkako* afera, C-465/07.

159 Ikusi, GEAEEE, 2008ko otsailaren 28koa, *Saadi Italiaren aurkako* afera, 129-132. paragrafoak; 2012ko maiatzaren 9koa, *Othman (Abu Qatada), Erresuma Batuaren aurkako* afera, 261. paragrafoa; 2015ko ekainaren 2koa, O*uabour Belgikaren aurkako* afera, 65. paragrafoa, eta 2016ko martxoaren 23koa, *F.G. Suediaren aurkako* afera, 120. paragrafoa. Nolanahi ere, *Hirsi Jamaa aferan*, GEAAk adierazten du, eskatzaileak jatorrizko herrialdean jazarpena jasateko beldurra duela, edo bere bizitza edo bere askatasuna arriskuan daudela adierazi badu ala ez, Estatuaren betebeharra izango da inor Estatu batera ez kanporatzea, itzularaztea edo estraditatzea, giza eskubideen urraketa sistematikoa egiaztatzen duen informazioa baldin badu, Libiako kasuan bezala. GEAEE, 2012ko otsailaren 23koa, *Hirsi Jamaa eta beste batzuk Italiaren aurkako* afera, 133. paragrafoa.

160 Ikusi, GEAEEE, 1991ko urriaren 30ean, *Vilvarajah eta beste batzuk Erresuma Batuaren aurkako* afera, 107. paragrafoa; 1997ko apirilaren 29koa, H.R.L. *Frantziaren aurkako* afera, 37. paragrafoa; 2001ko martxoaren 6koa, *Hilal Erresuma Batuaren aurkako* afera, 60. paragrafoa; 2005ko uztailaren 5ekoa, *Said Herbeheren aurkako* afera, 49. paragrafoa; 2005ko uztailaren 26koa, *N. Finlandiaren aurkako* afera, 160. paragrafoa; 2007ko urtarrilaren 11koa, *Salah Sheekh Herbeheren aurkako* afera, 136. paragrafoa; edo 2008ko otsailaren 28koa, *Saadi Italiaren aurkako* afera, 128. paragrafoa.

161 Ildo honetatik, ikusi, LAMBERT, H., "Protection against Refoulement from Europe: Human Rights Law Comes to the Rescue", *International and Comparative Law Quarterly (ICLQ)*, 1999/1, 543. orrialdea.

eskubideak errespetatzeko konpromisoa)[162]; GEHE-ko 2. artikulua (Bizitza eskubidea)[163]; GEHE-ko 3. artikulua (aske izateko eta segurtasunerako eskubidea)[164]; GEHE-ko 7. artikulua (bidezko auziperatzea izateko eskubidea)[165]; GEHE-ko 8. artikulua (Bizitza pribaturako eta familia bizitzarako eskubidea)[166]; GEHE-ko 13. artikulua (Benetako errekurtsorako eskubidea)[167], eta Hitzarmenaren Protokolo Gehigarriaren 4. artikulua (Atzerritarren kanporatze kolektiboaren debekua)[168]. Azken xedapen horrek izaera bikoitzeko debekua jasotzen du: alde batetik, atzerritarren kanporatzearen esparruan, debekatzen du taldeka egitea, kasu bakoitzaren gorabehera pertsonalak banan bana aztertu gabe, pertsonak nazioarteko babesa behar duen, eta zein arrazoirengatik atzemateko; baina, bestaldetik, Estatuen diskrezionalitatearen

---

162 GEHE-ren 1. artikulua: "[K]ontratatzaile Parte Gorenek bere jurisdikziopean dagoen pertsona orori Hitzarmen honen I Tituluan ezarritako eskubide eta askatasunak aitortzen dizkiote".

163 GEHE-ren 2.1. artikulua: "[p]ertsona orok bizitza eskubidea legez babestua izango du". Ondorio hauetarako, kontuan izan behar da GEHE-ren 1983ko 6. zk.ko Protokolo Gehigarriaren 1. artikulua, zeinek heriotz-zigorraren indargabetzea modu honetan jasotzen duen: "[h]eriotz zigorra indargabetzen da. Inorri ezin zaio heriotz-zigorra ezarri edo egikaritu".

164 GEHE-ren 5.1. artikulua: "[p]ertsona orok aske izateko eta segurtasunerako eskubidea du. Inorri ezin zaio askatasuna kendu, ondorengo kasuetan salbu, eta xedatutako prozedurari jarraituz: a) Auzitegi eskudun batek ezarritako epai baten ondorioz askatasuna legalki kentzen bazaio; b) Atxilotu edo askatasuna kentzen bazaio zuzenbidarekin bat, auzitegietako agindu bat ez obeditzeagatik, edo legez ezarritako betebehar bat segurtatzeko; c) Atxilotu eta askatasuna kentzen bazioa auzitegi eskudun batera eramateko, lege-hauste bat egin izanaren arrazoizko zantzuak daudenean, edo beharrezkotzat jotzen bada arau-urraketa egin dezan galarazteko, edo egin ondoren ihes egitea galarazteko; d) Adingabe bati askatasuna kentzea, legalki emandako agindu bat beteta, bere heziketa ikuskatzeko, edo bere atxiloketa, zuzenbidearekin bat, auzitegi eskudunaren aurrean azalarazeko; e) Zuzenbidearekin bat diren askatasun-gabetzeak, gaixotasun kutxakorra hedatu dezakeen pertsonena, zoroena, alkoholikoena, toxikomanoena edo arloteena; f) Pertsona baten atxiloketa edo askatasun-gabetzea, zuzenbidearekin bat, lurraldean legez kontra satzea galarazteko, edo bere kontra kanporatzeko edo estraditatzeko prozedura abian dagoenean". Ildo honetatik, ikusi, GEAEE, 2015ko ekainaren 16koa, *O.M. Hungariaren aurkako* afera.

165 GEHE-ren 6.1. artikulua: "[p]ertsona orok eskubidea du legez eratutako auzitegi independiente eta inpartzial batek bere gaia modu bidezkoan, publikoki eta arrazoizko epe baten barruan aztertzeko; honek bere izaera zibileko eskubide eta obligazioen inguruko auziak erabakiko ditu, edo bere aurka zigor arloan ezarritako edozein salaketen ingurukoak. Epaia publikoki eman behar da; baina komunikabideentzat eta herritarrentzat epaiketa aretora sartzea debekatu daiteke prozesu osoan zehar edo zati batean, honako arrazoietan oinarrituta: gizarte demokratiko batean moralitate, ordenu publiko, segurtasun nazionalaren intereserako; prozeduran zehar adingabeen interesek edo alderdien bizitza pribatuaren babesak horrela eskatzen badute, edo auzitegiak zorrozki beharrezkotzat jotzen badu, baldintza berezietan publizitatea justiziaren intereserako kaltegarria izan litekelako".

166 GEHE-ren 8.1. artikulua: "[p]ertsona orok bere bizitza pribatua, eta familiarra, bere bizilekua eta bere gutuneria errespetatua izateko eskubidea du".

167 GEHE-ren 13. artikulua: "[p]ertsona orok, Hitzarmen honetan aitortutako eskubide eta askatasunak urratu bazaizkio, eskubidea du auzialdi nazional batean benetazko errekurtsoa izateko, eta baita urraketa funtzio ofizialak egikaritzen ari diren pertsonek egin badituzte ere". Nazioarteko babes-eskaera ukatzen bada, pertsonak eskubidea du ebazpen horren aurkako errekurtso bat izateko. Gainera, errekurtsoak automatikoki eteteko ahalmena izan behar du, hau da, kanporatzeko agindua etenda egon behar du erabaki arte. Gai hau planteatu zen *M.B. Espainiaren aurkako* aferan, kamerudar emakume lesbiana batekin erlazionatutakoa, baina, azkenean, GEAE-k ez zuen onartu. GEAEE, 2016ko abenduaren 13koa, *M.B. Espainiaren aurkako* afera (Onargarritasunaren erabakia). Ildo honetatik, GEAE-k erabaki zuen, asunto zehatz honetan, senegaleko nazionalitatea zuen pertsonak alegatzen zuen Senegalera itzuliarazten bazuten Hitzarmeneko 3. artikuluaren kontrako trataera jasateko arriskuan zegoela. GEAE, 2017ko irailaren 26koa, *E.S. Espainia* (Onargaritasunaren erabakia).

168 1963ko GEHE-ren 4. Protokolo Gehigarriaren 4. zk.koa: "[d]ebekatuta daude atzerritarren kanporatze kolektiboak".

salbuespen bat izango litzateke; izan ere, Estatuek subiranotasunaren ezinbesteko elementua da atzerritarrak kanporatzeko arrazoiak ezartzea[169]. Modu honetan, GEHE bihurtzen da LGBTI+ pertsonen babeserako tresna juridiko garrantzitsuenetakoa, Estatu subiranoaren eskubidearekin parez-pare (atzerritar bat lurralde nazionalean sartzea edo egotea kontrolatzeko). Honela, ez itzularazteko betebeharrak LGBTI+ nazioarteko eskatzaileak eskubide oinarrizkoenak urratuak izateko arriskutik babesten ditu.

Nolanahi ere, orain arte, eta ondoren ikusiko den bezala, GEAE-k ez du erabakirik hartu SOGI-ko jazarpen arrazoiengatik jatorrizko herrialdetik ihes egiten duten pertsonei GEHEko xedapenenek ematen dien babesaren inguruan; baina etorkizunean erabaki bat hartu beharko du; izan ere, kasu hauek Europan soberan ezagunak dira, eta halaber, Europako Kontseiluko Estatu Parte-hartzaileek arrazoi horiengatik nazioarteko babesa emateko eragozpenak jartzen dituzte.

1.3. (GEAE) eta LGBTI+ pertsona errefuxiatuen asilo eskubidearen babesa

*1.3.1. **GEAE-aren esparruan** kalteberatasunaren **nozioa: LGBTI+ pertsona errefuxiatuen babes juridikoa "talde kaltebera" moduan***

Adierazi dugun moduan, GEHE-k ez du xedapenik asiloa eta errefuxiatuen babesa arautzen duenik, edo atzerritarrak, arrazoi desberdinengatik migratu behar dutenak, babesten dituenik. Halere, horrek ez du eragotzi, azken urteetan, Hitzarmenaren kontrolerako organoek, batez ere GEAE-k, bere jurisprudentzia eratzea, babesa behar duten egoerak arautzeko, non argi eta garbi parte diren pertsona errefuxiatuak eta nazioarteko babes eskatzaileak[170]; MORGADES GILek aditzera ematen duen moduan, Hitzarmeneko eskubideen onuradunak izatean, "kalteberatasun" handiko baldintza berezietan, Hitzarmenean topatu dute babes pribilegiatu baterako ingurune normatiboa" [171]

169 Ikusi, LGBTI+ kolektiboarekin berariaz ez erlazionatua izan arran, GEAE-ak erabakiak hartu ditu kanporatze kolektiboen debekuaren inguruan: 2002 otsailaren 5eko GEAEE, *Conka Belgikaren aurkako* afera; 2012ko otsailaren 23koa, *Hirsi Jamaa eta beste batzuk Italiaren aurkako* afera; 2014ko uztailaren 3koa, *Georgia Errusiaren aurkakoa* (I); 2014ko urriaren 21ekoa, *Sharifi eta beste batzuk Italia eta Greziaren aurkakoa*, eta 2017ko urriaren 3koa, *N.D. eta N.T Espainiaren aurkakoa*, besteak beste.

170 Horri dagokionez, azken urte hauetan GEAE-aren jurisprudentziak lagundu du pertsona eskatzaileen kolektiboa bereziki kaltebera moduan atzematen. Baita ere, ENBGK-k arlo honetako diskurtsoa berritu du *ENBGK-en Kontsulta Globalen bidez*, eta bertan Estatuen kolektibo horren kalteberatasuna "aitortzeko" betebeharra eskatu du. *Cfr*. ENBGK, Nazioarteko babesari buruzko *kontsulta globalak*, Asilo prozedurak. Asilo Prozedura zuzenak eta eraginkorrak, 2001ko maiatzaren 31koa, EC/GC/01/12. GEAE-ak horrela baieztatzen du *M.S.S. Belgika eta Greziaren kontrako aferan*: "babes bereziaren beharrak nazioarte eta Europa mailan adostasun zabala du, eta hala islatzen da Genebako Konbentzioan, ENBGK-aren mandatua eta jarduerak, eta baita ere Batasun Europarreko Harrerari buruzko Zuzentaraua jasotzen diren arauak". *Cfr.* GEAEE, 2011ko urtarrilaren 21ekoa, *M.S.S. Belgika eta Grezia*, 251. paragrafoa. Dotrinaren ikuspuntutik, ikusi, TRINIDAD NUNÉZ, "Giza eskubideen kalteberatasunaren babesaren bilakera", *Naziaorteko harremanen aldizkari espainiarra*, 4. zk.koa, 2012 iraila, 125-166. orrialdeak.

171 *Cfr*. MORGADES, GIL, S., "…-ren babesa", *op. cit.*, 802. orrialdea.

Horrela, GEAE-k nazioarteko babes eskatzailearen kondizioa aintzakotzat hartu du, eta Hitzarmena interpretatu behar da babesa kalteberatasun berezira egokitzeko[172]. Ildo honetatik, Soering Erresuma Batuaren aurkako aferak[173] bide eman zuen 1989an, Estatu baten lurraldetik besterako urrutiratze motak, estradizioa ez direnak (kanporatzea, itzularaztea, mugan errefusatzea, eta abar.) GEHE-ren 3. artikuluaren kontrakoak izan daitezkeela jotzeko, horiekin pertsonak, zehazki, LGBTI+, pertsona errefuxiatuak artikulu horrek debekatutako tratuak jasaten badute; gainera, epelki aipatu zuen urrutiratze neurria bera berez debekatutako tratutzat jo daitekeela, horren egitatezko gorabeherengatik, edo pertsonaren kalteberatasun egoera bereziarengatik. Halere, M.S.S Belgika eta Greziaren aurkako aferan, GEAE-k baieztatu du argi asilo eskatzaileak osatzen dutela "biztanle talde bat bereziki babesgabea eta kaltebera, babes berezia behar duena"[174].

---

172 Interesgarria da azpimarratzea GEAE-k bere jurisprudentzian kalteberatasunaren nozioa ezartzeko irizpiderik ez duela aurreikusten, eta beraz, zaila dela zehaztea. *Kalteberatasunaren edo talde kalteberaren* definiziora gerturatzea ez da erreza; izan ere, definizio zalantzagarri baten aurrean gaude, eta anitz karakterizazio eman dakioke, ikuspuntu teorikoen arabera. BESSON-en arabera, orohar, ondorioztatu dezakegu kalteberatasuna dela pertsona edo taldearen ezaugarri bat, zeinaren bidez haien interesentzat eta haien eskubide eta haien askatasunentzat arriskutsua izan daitekeena.

Kontzeptu hau lau ezaugarrik definitzen dute. Lehenik eta behin, *potentziala* den kontzeptu bat da, hau da, aukera bat da, ez da benetazko eta egungo mehatxu bat; bigarrenik, aldi berean *objektiboa* eta *subjektiboa* den kontzeptu bat da; izan ere, mehatxua objektiboki ezarri daiteke, baina atzemateko ebaluazio subjektibo bat egin behar da; hirugarrenik, kontzeptu *erlazional* bat da, subjektu batek mehatxua jasaten du, eta beste batek, aurrekoarekin erlazionatutakoak, mehatxu horren subjektu aktiboa da; eta laugarrena eta azkenik, kontzeptu *deskriptibo* eta *preskriptibo* bat da; izan ere, alde batetik, kalteberatasunaren egoera definitzen du, eta bestetik, definizio horren ondorioak ezartzen ditu. *Cfr.* BESSON, S., "La vulnérabilité et la structure des droits de l'homme l'exemple de la jurisprudence de la Cour Européenne des Droits de l'homme", en: BURGORGUE LARSEN, L. (Dir.), *La vulnérabilité saisie par les juges en Europe, Cahiers Europeens nº 7*, Pedone, Paris, 2014, 60. orrialdea. Para AL TAMIMI "[t]he Court applies vulnerability in a variety of ways and adjusts its use to fit individual circumtances". Cfr. AL TAMIMI, Y., "The protection of vulnerable Groups and individuals by the European Court of Human Rights", Journal européen des droits de l'homme, 5. zk.a, 2016, 572. orrialdea. Halaber, ikusi, ARLETTAZ, F. eta PALACIOS SANABRIA, M.T., *Giza eskubideen eta talde kalteberen inguruko hausnarketak*, Jurisprudentzia Testuak, Universidad del Rosario Argitaletxea, Bogota (Kolonbia), 2015, 2. eta hurrengo artikuluak.

173 GEAEE, 1989ko uztailaren 7koa, *Soering Erresuma Batuaren* aurka. Nolanahi ere, GEAE-k kalteberatasun terminoa lehen aldiz 1981ean erabili zuen, *Dudgeon Erresuma Batuaren aurkako* aferan; hau izan zen GEAE-k gizonezko homosexualitatearen penalizazioari buruzko lehen afera. Ikusi, GEAEE, 1981ko urriaren 22koa, *Dudgeon Erresuma Batuaren aurkako* afera.

174 Paragrafo osoak honakoa dio: "[A]uzitegiak *garrantzia ematen dio eskatzailearen estatutuari, hau da, asilo eskatzailearenari, eta horregatik, populazio talde bateko kide da, bereziki babesgabekoa eta kaltebera, babesa behar duena (…). Babes bereziaren behar horrek naziarteko eta europar adostasun zabala du,* Genevako Konbentzioan islatzen den moduan, eta baita ENBGK-ren aginduan eta jardueretan, eta Batasun Europarreko Harrera Zuzentarauan jasotzen diren arauetan". *Cfr*. GEAEE, 2011ko urtarrilaren 21ekoa, *M.S.S. Belgika eta Greziaren aurkako afera*, 251. paragrafoa.

Bestalde, GEAE-k ez du sekula kalteberatasuna definitu, eta ez du bere funtzioa justifikatzeko asmoa izan, soilik bere jurisprudentzian modu bidezkoan eta geroz eta maiztasun gehiagorekin argudiatu du, N.A. Erresuma Batuaren aurkako aferan [175] ikusi zen bezala.

Horregatik, eskatzaileak bere kanporaketa ezinezkoa dela alegatzen badu, jatorrizko Estatuan bereziki kaltebera den talde bateko kidea delako, LGBTI+ kolektiboko kidea izatea bezala, nagusiki bi gorabehera kontuan hartu behar dira: a) taldea GEHE-ren 3. artikuluak debekatzen dituen tratu txarrak sistematikoki jasateko arriskuan izatea, eta b) eskatzailea talde horretako kidea izatea[176].

Azken urteetan, ikusi dugu BE-ko Estatu kideen inmigrazio politika hertsiagoa egin dela, eta oztopatu direla kanpo mugetara migrazio fluxuak, eta nazioarteko babesa azkar eskuratzea mugatu dela. Horrekin ekiditen da lurralde-babes mota iraunkorrak edukitzea, eta errefuxiatu kondizioaren eraginkortasuna galtzen laguntzen du. Baldintza horietan, pentsatu behar da nazioarteko babesa eskatzen dutenek, eta bereziki, LGBTI+ pertsonek, kalteberatasun berezia duten pertsona kolektibo bat dela, ez soilik atzerritarrak direlako, baizik eta deserrotzearengatik eta babesgabetasunarengatik ere, bere nazionalitatearen Estatuak benetako babesa ez dielako ematen; gainera ezin da eskatu, izan ere, bere herrialdera ezin du itzuli, jazarpena edo giza eskubideen urraketa larriak jasateko beldurrarengatik alde egin baitzuen[177]. Zirkunstantzia horietan ez itzularazteko printzipioak (non-refoulement) garrantzi berezia hartzen du[178]. Arrazoi horiengatik, LGBTI+ pertsona asilo eskatzaileei arreta espezifikoa eman behar zaie, nazioarteko babes beharra dutelako.

---

175 GEAE-k horren inguruan honakoa deritzo: "Exceptionally, however, in cases where an applicant alleges that he or she is a member of a group systematically exposed to a practice of ill-treatment, the Court has considered that the protection of Article 3 of the Convention enters into play when the applicant establishes that there are serious reasons to believe in the existence of the practice in question and his or her membership of the group concerned (…). In those circumstances, the Court will not then insist that the applicant show the existence of further special distinguishing features if to do so would render illusory the protection offered by Article 3. This will be determined in light of the applicant's account and the information on the situation in the country of destination in respect of the group in question (…). The Court's findings in that case as to the treatment of the Ashraf clan in certain parts of Somalia, and the fact that the applicant's membership of the Ashraf clan was not disputed, were sufficient for the Court to conclude that his expulsion would be in violation of Article 3". GEAEE, 2008ko uztailaren 17koa, *N.A. Erresuma Batuaren aurkako* afera, 116. paragrafoa. Halaber, ikusi, 2008ko otsailaren 28koa, *Said Herbeheren aurkako* afera, 132. paragrafoa.

176 *Cfr.* HAMDAN, E., *The principle of…, op. cit.,* 227. orrialdea.

177 Ildo honetatik, MARIÑO MENÉNDEZ-retzat kalteberatasun berezia izango litzateke "pertsonen kolektibo batzuk - giza talde desberdinak osatzen dituztenak barne -, gizarte guztietan kasu gehienetan, eta gizarte askotan egiazki, oztopo sozial eta eta juridikoak, larriak eta zehatzak, topatzea; eta horrek galarazten die "herritar normalek" dituzten eskubideen titulartasun eremu bera eta horien erabileraren sakontasun bera izatea; eta baita, edozein modutan, haien egoeran dagoen pertsonaren berezko duintasunaren errespetuak exijitzen dituenak". *Cfr.* MARIÑO MENÉNDEZ, F., "Sarrera: Zuzenbide europarrean pertsona eta talde kaltebeheraren noziora hurbilketa" hemen: MARIÑO MENÉNDEZ, F. eta FERNÁNDEZ LIESA, C. (Zuzendariak), *Pertsona eta talde kaltebeheren babesa zuzenbide europarrean*, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Argitalpenen Azpizuzendaritza Orokorra, Madrid, 2001, 21-22. orrialdea.

178 Iritzi berekoa da PÉTIN, honakoa adierazterakoan : "le demandeur d'asile incarne l'image de l'individu vulnérable du fait de sa démarche, de son parcours en quête de protection, fuyant son pays d'origine ou de résidence. Exilés, voulant échapper aux violences et persécutions, cherchant à sauvegarder leur vie et leurs libertés, recherchant un refuge dans un pays souvent hostile, du fait des barrières linguistiques et/ou culturelles, ou encore du fait des tendances grandissantes au rejet des étrangers dans les sociétés d'accueil, les demandeurs d'asile sont en position de vulnérabilité certaine". *Cfr.* PÉTIN, J., "Vulnérabilité et droit européen de l'asile: quelques précisions nécessaires", *Réseau Universitaire Européen. Droit de l'Espace de Liberté, Sécurité y Justice (CDRE)*, 18 avril 2015.

Ildo honetatik, GEAE-k GEHE-ren 3. artikuluari buruz egindako interpretazio jurisprudentzialeko lanak 1951ko Genevako Konbentzioan ezarritako babes berezia sendotzen du. Halaber, babes bat eratzen du, honakoak aintzakotzat hartzen dituena: era zuzenean eta espezifikoki, nazioarteko babes eskatzaileen kalteberatasun berezia; eta bereziki, SOGI-arengatik jatorrizko herrialdetik alde egin dutenena, erlazionatutako beste pertsonena, eta baita atzerritarrena ere[179]; izan ere, nazioarteko babes eskatzaileek talde bezala duten kalteberatasun bereziak, ez du kentzen pertsona horietako batzuk beste kolektibotako kide izatea ere, bereziki kaltebera den kategoria bateko parte bezala[180]. Ildo honetatik, LGBTI+ kolektiboa aipatuko dugu; izan ere, haiek Estatu Kide batetik beste Estatu baterako kanporatzea edo itzularaztea, berez, bere bizitza eta integritate fisikoarentzat mehatxutzat jo daiteke, eta ondorioz, ez itzularaztearen debekuaren zuzeneko urraketatzat (non-refoulement); hori GEHE-ren 3. artikuluaren parte da, eta asiloa eskatzeko eskuinaren partea[181].

179 *Cfr.* MORGADES, GIL, S., " …babes", *op. cit.,* 803. orrialdea, eta PÉTIN, J., "Vulnérabilité et droit…, *op. cit.*

180 Nazioarteko babes eskatzailea kalteberatasun egoeran egon daiteke arrazoi naturalengatik (esate baterako, generoa, adina, orientazio-sexuala, gaixotasun mentala, haurdunaldia, etabar.), baina baita ere gertaera zirkunstantzialengatik ere (adibidez, atxiloketa, adingabeak nagusien laguntzarik Gabe, edo migrazioa, etabar.). Baina modu konbinatuan ere eman daitezke, eta modu larriagoak sortu. Esate baterako, nazioarteko babes eskatzaile gaixo mentala atxilotzea, edo haurdun dagoen emakume bat, biak kanporatzeko/itzularazteko aginduaren zain; halaber, adingabeak nagusien laguntzarik gabekoak, nazioarteko babes eskatzaileak, kanporatzeko edo itzularazteko neurria jartzen bazaie. Batzuetan, GEAE-k biktima/demandatzailearen kaltebera egoerari buruzko iritzia eman du, batez ere, biktimak torturatuak izan baldin badira (1997ko irailaren 25eko, GEAEE, *Aydin Turkiaren aurkako* afera)*;* pertsona desgaituak (2013ko otsailaren 19ko GEAEE, *B. Errumaniaren aurkako* afera), edo susmagarriak (2011ko irailaren 15eko GEAEE, *Paskal Ukrainiaren aurkako* afera). Beste batzutan, besterik gabe ez du erabakitzen biktima/demandatzailea kalteberatasun egoeran dagoen ala ez, eta zuzenean bere kalteberatasuna aipatzen du, adingabeen kasuan bezala (2013ko azaroaren 14ko GEAEE, *Blokhin Errusiaren aurkako afera*).

181 BESSON-ek baieztatzen duen moduan, eta aipatutakoaren ondoren, hala ikus daiteke, GEAE-k bere jurisprudentzian kalteberatasunaren gaia modu ez oso zehatzean eta elkar trukatzeko moduan aipatzen dela, pertsona, talde, kategoria, gutxiengo edo egoerei dagokionez¸eta ez dio kasu zehatzik egiten norberaren eta kolektiboaren kalteberatasunaren bereizketari. *Cfr.* BESSON, S., "La vulnérabilité et…", *op. cit.,* 69. orrialdea.

1.3.2. SOGI-arengatiko asiloeskubidearen arloko GEAE-ren jurisprudentziaren azterketa

GEAE-k, GEHE-ren interpretazio eta aplikazioaren auzitegi goren moduan, SOGI-aren gaiari buruzko jurisprudentzia ugaria du, GEHE-ko 14. artikuluari derrigorrean ez-diskriminatzeko klausulari lotuta, Hitzarmenean sexu-orientazioa edo genero-identitateari buruzko xedapenik ez dagoelako. Hori aurrerapauso bat izan da Europan, LGBTI+ pertsonen oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak aitortze eta babeste aldera. A sensu contrario, zehazki LGBTI+ pertsonen nazioarteko babeserako eskubideari dagokionez, Auzitegi horrek ez du orain arte erabakirik hartu. Halere, ondoren ikusiko dugun bezala, LGBTI+ pertsonen itzularazteari lotutako demandaren bat ezagutzeko aukera izan du, GEHE-ko 3. artikuluaren araberako jazarpen arriskua dagoenean[182], baina azkenik arrazoi desberdinengatik artxibatu ditu[183].

Honela, A.S.B. Herbehereen aurkako aferan, nazionalitate jamaikarra zuen batek GEHE-ko 3. artikuluaren balizko urraketa alegatzen zuen, Jamaikara itzularaztekotan bere homosexualitatearengatik torturatua izateko arrisku larria izango lukeelako. Hasiera batean, tramitatzeko onartu baldin bazen ere, GEAE-k artxibatzea erabaki zuen 2012ko uztailaren 10eko erabakiaren bitartez, 37. artikuluarekin bat[184], eskatzaileari asiloa Herbehereetan onartu zitzaiolako, eta Auzitegiak, ondorioz, argudiatu zuen ordurako ez zegoela "Jamaikara kanporatzeko arriskurik"[185].

---

182 Komenigarria da azpimarratzea, SOGI-arengatik asilo eskubidearekin zehazki erlazio zuzena ez duen arren, GEAE-k iritzia eman du GEHE-ren 3. artikuluan jasotzen den tortura debekuari buruz, besteak beste, GEAEEE, 2015ko maiatzaren 12koa, *Identoba eta beste batzuk Georgiaren aurkako* afera, eta 2016ko uztailaren 12koa, *M.A. eta C.A. Errumaniaren aurka*. LGBTI+ pertsonen atxiloketa baldintzei eta GEHE-ren 3. artikuluaren balizko urraketei buruz, ikusi, besteak beste, GEAEEE, 2011ko urriaren 20koa, *Stasi Frantziaren aurkakoa,* eta 2012ko urriaren 9koa, *X. Turkiaren aurkakoa*. Dotrinaren ikuspuntutik, ikusi, GILBAJA CABRERO, E., "Sexu-orientazioa Giza Eskubideen Auzitegi Europarraren aurrean", *Zuzenbide Politikoko Aldizkaria*, 91. zk.koa, iraila-abendua 2014, 303-340. orrialdea.

183 Beharrezkoa da azpimarratzea 2004an, bai *I.N.N. Herbeheren aurkako* aferan, eta *F. Erresuma Batuen aurkako* aferan, GEAE-k bi errekurtso tramitatzera ez zituen onartu: nazionalitate iraniarra zuten bi gizonek sexu-orientazio arrazoiengatik nazioarteko babes bi eskaera ukatzearen kontra aurkeztu zituzten. Horietako lehenean, *I.N.N. Herbeheren aurkako* aferan (Onargarritasun erabakia), Irango agintariek demanda jartzailea atxilotu zuten kalexka batean gizonezko batekin musuka ikusi ondoren. Horri dagokionez, GEAE-k adierazi zuen emandako informazioan ez zuela aurkitu zantzu nahikorik ondorioztatzeko agintari irandarrek aldetik ez zegoela harreman homosexual pribatuak eta adostuak izan zituzten bi pertsona helduen kontrako jazarpen aktiboko egoerarik. GEAEE, 2004ko abenduaren 20koa, *I.N.N. Herbeheren aurkako* afera. Horietako bigarrenean, *F. Erresuma Batuaren aurkako* aferan, GEAE-k aitortu zuen Irango egoera orokorrak ondorioztatzen zuela giza eskubideen babesa ez zela sustatzen eta homosexualek abusuak jasan zezaketela; halere, ulertu zuen LGBTI+ pertsona bat ekintza homosexualak kriminalizatzen diren herrialde batera itzularaztea, berez, bizitza pribaturako eta familia bizitzarako eskubidearen urraketatzat jo behar zela. GEAEE, 2004ko ekainaren 22koa, *F. Erresuma Batuen aurkako* afera. Beste batean, Zimbabwetik heldu zen emakume lesbiana bati errefuxiatu estatutua ukatzearen kontrako errekurtsoa onartu zuen, eta bertan alegatzen zuen bizitza pribaturako eta familia bizitzarako eskubideak ezin zituela erabili (GEHE-ko 8. artikulua), bere herrialdean zegoen propaganda ofizial bortitz eta homofobiko etengabearen kontestuan, beldurrarekin bizi beharra zuen, eta bere sexu-orientazioarengatik ezkutatuta, vaina auzia artxibatu zuten, Erresuma Batuak errekurtsoa tramitatzeko onartu ondoren. GEAE, *D.B.N. Erresuma Batuaren aurkako* afera (Onargarritasun erabakia). Ildo honetatik, ikusi, DÍAZ LAFUENTE, J., "…eskubidea", *op. cit.*, 375-376. orrialdeak.

184 GEHE-ko 37. artikuluak xedatzen du "[A]uzitegiak prozeduraren edozein momentutan demanda bat artxibatzea erabaki dezake, inguruabarrek egiaztatzen badute: a) demanda jartzailea jada eusteko prest ez egotea; edo b) auzia jada erabakia egotea; edo c) Auzitegiak egiaztatutako beste edozein arrazoiengatik, demanda aztertzen jarraitzeko justifikaziorik ez egotea. Nolanahi ere, Auzitegiak demandaren azterketarekin jarraituko du Hitzarmenak eta bere Protokoloek bermatutako giza eskubideen errespetuak hala exijitzen badu".

185 GEAEE, 2012ko uztailaren 10ekoa, *A.S.B. Herbeheren aurkako* afera.

2013ko ekainaren 27ko M.K.N. Suediaren aurkako aferan, nazionalitate irakiarra zuen pertsona batek GEHE-ren 3. artikuluaren balizko urraketa alegatzen zuen, Mosulera itzularazten bazuten, bere sexu-orientazioa eta bere erlijio sinesmenarengatik torturatua izateko arrisku larria legokeela. Demanda jartzaileak alegatzen zuen bere txapa tailerra suntsitu zutela, eta bera bahitu zutela, eta ziurtatzen zuen gertakari horiek, eta baita ere bere koinataren erailketa erlazionatuta zeudela haien kristau sinesmenekin; izan ere, Iraken kristauen kontrako bortizkeria, tortura eta arrazoi ekonomikoengatik bahiketen erabilera ohikoa zela. Halaber, suediar agintariek "babes, berkokapen barne ihesaldiaren alternatiba" aukeratzeko proposamenaren aurrean, adierazi zuten bere kontrako jazarpena eta mehatxuak horren larriak ziren, ze Kurdistaneko Eskualdera lekualdatzea ez zela egingarria, Mosuletik dagoen distantzia dela eta, bere bizitza eta integritatearentzat egongo liratekeen arriskuarengatik. GEAE-k, eta dagokion txostenak aztertu ondoren, erabaki zuen Irakeko egoera hobetzen ari baldin bazen ere, eta gutxiengoen kolektiboen kontrako eraso indiskriminatuak egon arren, Kurdistan Eskualdea, nazioarteko iturrien arabera, erramu segurua samarra zela[186]. Eta, ondorioz, "3. artikuluak ez du galarazten, berez, Estatu kontratatzaileek eskaeraren ebaluazioa egiterakoan, herrialde barruko hegaldia edo berkokapen alternatiba bat badagoen ziurtatzea (hori guztia, jatorrizko herrialdera itzultzerakoan xedapen horretan debekatzen diren tratuetako bat jasateko benetako arriskua izateko norbanakoko alegazioei erantzuteko)." Nolanahi ere, Auzitegiak adierazi du alternatiba hori egon arren, horrek ez diola kanporaketa egiten duen Estatu kontratatzailearen erantzukizunari eragiten, eta bermatu behar duela, bere kanporatze erabakiaren ondorioz, eskatzaileak GEHEko 3. artikuluaren kontrako tratua ez duela jasango. Horregatik, pertsona batek "babes, berkokapen edo barne-ihesaldiaren alternatiba" aukeratzeko, berme batzuk eduki behar ditu: hala nola, kanporatu izango den pertsonak eremura bidaiatzeko, onartua izateko eta bertan finkatzeko aukera izatea. Bestela, halako bermeak faltaz gero, GEHE-ko 3. artikuluaren kontrako tratuak jasateko benetako arriskua dagoen jatorrizko herrialdeko eremu batera iristeko arriskua egongo balitz, 3. artikulua urratzera iritsi liteke, [187]. Auzitegia jabetua zegoen Iraken homosexualen egoera zaila zela, eta zailtasun horiek ere Kurdistaneko eskualdean bazeudela, baina halere, baieztatu zuen eskatzaileak adierazi zuela bere emaztea eta semeekin bizitza "diskretu" bat egiteko asmoa zuela, bere sexu-orientazio jendaurrean ezkutatuta[188]. Honek ondorioztatzen digu GEAE-k berriz diskrezioaren irizpideari zeharka heldu diola. Nolanahi ere, kontuan izanda demanda jartzailearen gertakizunen kontaketan dauden nahasketa eta inkoherentzia, "Auzitegiak uste du eskatzailearen harreman homosexualaren baieztapena ez dela sinesgarria"[189], eta ondorioz, kanporaketaren kasuan, 3. artikuluaren urraketa ez legokeela.

Ondoren, 2015ko apirilaren 2ko *M.E. Suediaren aurkako aferan*, nazionalitate libiarreko pertsona batek jarritako demandan alegatzen zen Libiara itzularaztekotan, GEHE-ren 3. artikuluaren ustezko urraketa; izan ere, sexu-orientazioarengatik torturatua izateko arrisku larrian egon zitekeen, Zigor Kode libiarrak jarrera homosexual oro zigortzen baititu bost urterainoko espetxe zigorrarekin[190]. Zehazki, M.E. jn.ak adierazten zuen:

186 GEAEE, 2013ko ekainaren 27koa, *M.K.N. Suediaren aurkako* afera, 36. paragrafoa.

187 *Ibídem*., 35. paragrafoa.

188 [188] *Ibídem.*, 43 . paragrafoa.

189 [189]*Ibídem.*, 43. paragrafoa.

190 [190] Ikusi, Libiako Zigor Kodea, zati batean aldatu zena, 1973ko urriaren 2ko 40. Legearen bitartez.

> "berak bere homosexualitateari eutsi zion, eta baieztatu zuen Libian lagunak zituela, bai homosexualak eta baita transexualak, eta oso zuhurrak izan behar izan zuten, homo eta transexualak Islama eta libiar kulturaren kontrakotzat jotzen zirelako". Arrazoi honengatik, "jazarpenak jasan zituzten, eta polizia moralak bi alditan atxilotu zituzten. Pertsonek han bera eta bere lagunak kolpatu zituztela eta lapurtu zietela. Gainera, Suediara iritsi eta gutxira, N.-rekin topo egin zuen, eta orain, ezkonduta zeuden. N. transexuala zen, eta emakume bihurtzeko tratamenduarekin ari zen. Eskatzaileak alegatzen zuen Suedian homosexual moduan argi bizi izan zela, eta bere sexu-orientazioa eta N.-kin ezkontzari buruzko informazioa Libian bere familiarengana iritsi zela, eta arrazoi horrengatik heriotz mehatxua jaso zuela"[191].

2010ean, M.E. jn. Suediara migrante irregular moduan sartu zen, urte bete beranduago N.-rekin jn.arekin ezkondu zen, eta honek Suedian iraunkorki bizitzeko baimena zuen. Halere, bere kasuan, Suediako agintariek bizileku iraunkorrerako baimen eskaera askotan ukatu zuten, eta adierazten zioten Libiara itzultzeko, eta, handik, bere ezkontidearekin familia berriz elkartzeko eskaera egiteko. M.E. jn.ak ez zuen onartu, eta alegatu zuen Libiara itzularazterakoan bere eskubide oinarrizkoenak urratuko zirela, hau da, GEHE-ren 3. artikulua; izan ere, Libian homosexualitatearen aurkako errepresioa dago, eta horren ondorioz, torturatua izateko arriskua, eta gainera, GEHE-ren 8. artikuluaren urraketa egongo litzateke, zeinek arautzen duen *bizitza pribatua eta familiakoari errespetatzeko eskubidea,* nahita nahiez bere ezkontidetik aldendu beharko lukeelako. GEAE-k gai honi buruz lehen aldiz epaia 2014ko ekainaren 26an eman zuen. Bertan Suediako agintari nazionalek gaia aztertzerakoan argudiatutakoa aintzakotzat hartu zen, hau da, eskatzaileak sinesgarritasunik ez zuela, prozeduran zehar bere kontaketa aldatu zuelako, eta, ondorioz, ez zuelako egiaztatu Libiara bueltatzerakoan atxiloketa edo tratu txarrak jasateko arrisku benetakoa eta pertsonala izango zuenik. Horregatik, Auzitegiak berresten du eskatzaileak ez zuela kontaketa koherentea eta sinesgarria eman bere erreklamazioaren azterketa oinarritzerakoan[192]. Gainera, Libiari buruzko informazioa kontuan izanda, GEAE-k ikusi zuen 2011n Gaddafi boteretik baztertu zutenetik, Libiako egoera 2014an ez zela segurua, eta herrialdea hartzen ari zen noranzkoa ez zela argia. Ondorioz, Libian homosexualen egoerari buruzko informazioa eskasa zen, eta oso antzekoa, eta Auzitegiak gai honi buruz ebaluazioa egitea zailtzen zuen. Zehazki, GEAE-k horri buruz honako adierazten zuen:

---

191 GEAEE, 2014ko ekainaren 26koa, *M.E. Suediaren aurkako* afera, 57. paragrafoa.

192 "In particular, it seems strange that in his first submission to the Court, in December 2012, the applicant claimed that he had already lived as a homosexual in Libya before going to Sweden and had suffered beatings and two arrests by the morality police. He has never brought these claims before the Swedish authorities even though he requested the Migration Board to reconsider his case in October 2012, only a few months before raising them before the Court. On the contrary, during the in-depth interview with the Migration Board on 20 August 2010, the applicant had stated that he had lived well in Libya until his arrest and that he had planned to marry a woman in Libya in May 2010". GEAEE, 2014ko ekainaren 26koa, *M.E. Suediaren aurkeako afera*, 84. paragrafoa.

> "[a]rgi badago ere Zigor Kode libiarraren 407 eta 408. artikuluen arabera, ekintza homosexualei espetxe zigorra jartzen zaiela, eskatzaileak ez du aurkeztu, eta Auzitegiak ez du inolako informazio edo erregistro publikorik, inor aipatutako xedapenen ondorioz ekintza homosexualengatik auzipetu edo zigortua izan denik, 2011n Gaddafiren erregimenaren amaieraz geroztik. Horregatik, kontuan izanda ere homosexualitatea gai tabua dela, eta Libian jarduera immoraltzat jotzen dela, Auzitegiak ez du nahiko oinarri ondorioztatzeko Libian agintariek homosexualei modu aktiboan jazarpena egiten dietela"[193].

GEAE-k honi gehitzen zion eskatzaileak ez zuela egiaztatu Libiara aldi baterako bueltatuz gero - handik familia berriz elkartzeko eskaera aurkezteko -, GEHE-ren 3. artikuluaren kontrako tratua jasateko arriskua izango zuenik. Gainera, azpimarratu zuen gai hau ez zela eskatzaile baten bere jatorrizko herrialdera kanporatze iraunkor bati buruzkoa, baizik eta aldi baterako itzultzea, Suediako Inmigrazio Juntak bere familia elkartzeko eskaera aztertzen zuen bitartean. Auzitegiaren iritziz, hau arrazoizko epe labur batean izan beharko luke, eta, eskatzailea *epe horretan bere bizitza pribatuan diskretua izan beharko balu ere*, horrek *ez liokeela behartuko bere identitatearen zati handi bat iraunkorki ezkutatzea* [194]. Ondorioz, Auzitegiak ahobatez erabaki zuen demanda ezin zitekeela onartu, eta uste zuen - sei bozka baten kontra - gai honetan gertaerak berez ez zirela Hitzarmenaren 3. artikuluan ezarritako mailara iristen.

---

193 *Ibídem*., 87. paragrafoa. Ondorio hauetarako, gogoratu GEAE izan zela lehen auzitegi organoa, adierazi zuena harreman homosexualen penalizazioa GEHE-ren urraketa argia zela, eta, zehazki, GEHE-ren 8. artikuluan ezarritako bizitza pribaturako eta familiarrerako eskubidearena. Ikusi, GEAEE, 1981ko urriaren 22koa, *Dudgeon Erresuma Batua eta Ipar Irlandaren kontrako* afera; 1988ko urriaren 26koa, *Norris Irlandaren aurkako* afera; 1993ko apirilaren 22koa, *Modinos Kipreren kontrako* afera; 2000ko uztailaren 31koa, *A.D.T. Erresuma Batuaren aurkako* afera, eta 2014ko ekainaren 3koa, *Ç Turkiaren aurkako* afera. Ildo beretik GEAE-k iritzia eman du adinez nagusiak eta nerabeen arteko jarrera homosexualen kriminalizazioari buruz, eta sexu-orientazioarengatik diskriminazioari buruz, sexu harremanak edukitzeko adin-mugarekin erlazionatuta; izan ere, GEHE-ren 14. artikuluaren urraketatzat jotzen da (diskriminazioaren debekua), GEHE-ren 8. artikulualarekin lotuta, ezartzen baita adin desberdintasunak, adostutako harreman homosexualak edukitzeko eta harreman heterosexualak edukitzeko. Ildo honetatik, ikusi, besteak beste, GEAEEE, 2003ko urtarrilaren 9koa, *L. eta V. Austriaren aurkako* afera, eta *SL Austriaren aurkako* afera, eta 2004ko otsaialren 10ekoa, *B.B. Erresuma Batuaren aurkako* afera; 2004ko urriaren 21ekoa, *Wodistschka eta Wilfing Austriaren aurkako* afera; 2005ko otsailaren 3koa, *Ladner Austriaren aurkako* afera; 2005ko maiatzaren 26koa, *Wolfmeyer Austriaren aurkako* afera; 2005ko ekainaren 2koa, *H.G. eta G.B. Austriaren aurkako* afera; 2006ko urtarrilaren 19koa, *R.H. Austriaren aurkako* afera; eta, 2013ko azaroaren 7koa, *E.B. eta beste batzuk Austriaren aurkako* afera.

194 GEAEE, 2014ko ekainaren 26koa, *M.E. Suediaren aurkako* afera, 88. paragrafoa. Horren ildotik, Auzitegiak gaia aztertzerakoan ikusi arren Suediak ez zuela Libian ordezkaritzarik, eskatzaileak pasaportea edukita, familia berriz elkartzeko eskaera telematikoki, eta lehentasunarekin. Ondorioz, aldameneko herrialde bateko Suediako enbaxadara joan zitekeen, elkarrizketa pertsonala egitera, egun gutxiko epean egin zitekeena. Horren epe laburrean, Auzitegiak ez zuen inongo arrazoirik ikusten demanda jartzailearen sexu-orientazioarengatik GEHE-ren 3. artikuluaren kontrako traturen bat jasateko arriskua izango lukeenik Algerian, Tunez edo Egipton (gure iritziz, homosexualitatearen aldekoak ez diren herrialdeak. Ondorioz, GEAE-ren iritziz, gertaerak ezin dute berez nahikoa izan Hitzarmenaren 3. artikuluko mugara iristeko. *Ibídem*., 89-90 parragrafoa. *F. Erresuma Batuaren aurkako afera, eta I.I.N. Herbehereak-en aurkako aferetan,* Auzitegiaren arrazonamenduan inplizitoki jada ikusten da honako suposizioa: eskatzailea bere sexu orientazioari buruz "diskretua" izango zela Iranen, bere etxeko pribatutasunetik aratago. GEAE, 2004eko ekainaren 2koa, *F. Erresuma Batuaren aurkako afera*, (Onargarritasunaren erabakia), eta 2004ko abenduren 9koa, *I.I.N. Herbehereak-en aurkako aferan*, (Onargarritasunaren erabakia).

Interesgarria eta beharrezkoa da azpimarratzea ildo honetatik POWER-FORDE Epailearen kontrako iritzia gai honetan, planteatu baitzuen Libian, eskatzailearen jatorrizko herrialdean, homosexualitatea ilegala dela, eta espetxe zigorra aplikatzen zaiola. Nahiz eta, Gaddafiren erregimenari amaiera eman zitzaionetik "auzipetze aktiboak", itxuraz, ez izan, zantzuek adierazten dute homosexualek atxiloketak eta eraso larriak jasaten dituztela soilik homosexuala izateagatik. Ildo honetatik, Epaile horrek adierazi zuen GEAE-k aztertu behar zuela, Libiako egoerari buruzko txostenak ikusita, ea Estatu demandatuak pertsona bat kanporatu zezakeen, aldi baterako izan arren; izan ere, pertsona horren sexu-orientazioak tratu inhumanoa jasateko benetako arriskua sortu zezakeen, bere jatorrizko herrialdean bere homosexualitatea argi erakutsiz gero, eta GEHE-ren 3. artikulua urratu zezakeen.[195]

Harritzekoa bada ere, epaile gehienak gai honetan ondorio honetara iristen dira: Libiara kanporatu ondoren, denboraldi batean eskatzaileak *bere bizitza pribatuari buruz diskretua izan* behar baldin badu ere, horrek ez luke suposatuko bere identitatearen zati garrantzitsu bat iraunkorki ezkutatzea, eta ondorioz, ez luke GEHE-ren 3. artikulua urratzeko hainako indarra izango. POWER-FORDE Epailearen iritziz, Libian jazarpenaren arriskua ekidin ahal izatea argudiatzea, bere sexu-orientazioaren inguruan heterosexual batek baino diskrezio handiagoa izanda, ez da gai honetan gertaerak baloratzeko kontutan izan beharreko faktorea. Ildo honetan, ezin da espero nazioarteko babes eskatzaileak jatorrizko herrialdean bere homosexualitatea ezkutatzea jazarpenak ekiditeko. Berez, *diskrezioaren irizpide* hori bateraezina da honako honekin: ezaugarria pertsona baten identitaterako horren oinarrizkoa da, bere sexu kondizioa aske eta argi bizitzekoa, ze ezinezkoa da eskubide horri uko egitea[196]. Halaber, epaileak dio Auzitegiak bere dotrina zaharrari heltzen diola honako honen inguruan: "[d[iskrezioaren" irizpidea aldi baterako jazarpena ekiditeko onargarria izatea", eta, horretan oinarrituta, Auzitegiak, hausnarketa moduan, eduki kritikoko bi gai planteatzen dituela: "gehienek aurkitzen al dute neurria eskatzaile honek topatuko lukeen sufrikario maila onargarritzat jotzeko? Gehienek nola neurtuko luke gizonezko heterosexual batentzako sufrikario maila baliokidea, bere sexu-identitatea ezkutatzeko behartua egongo balitz hilabete batzuetan edo epe luzeago batean?; azkenik ondorioztatzen du ez dagoela bidezko estandar bat; izan ere, hori da gauza bat inork jasan behar ez lukeena[197].

Auzitegiak, 2014ko azaroan, jakinarazi zuen, demanda jartzaileak hala eskatuta, demanda Areto Nagusira bidaliko zela aztertze aldera. Informazio horren harira, eta Libian giza eskubideen

---

195 Duela urte batzuk, bi errekurtsoren onargarritasuna ukatu arren, Auzitegiak herrialdeko txostenei buruzko txostenak aztertu zituen, eta azkenik, ondorioztatu zuen frogek ez zutela egiaztatu "Irango agintariek adinez nagusiak adostasunez eta pribatuan sexu harremanak izan dituztelako jazarpen aktiboko egoera". Zehazki, Auzitegiak, *F. Erresuma Batuaren aurkakoa aferan*, 2014ko ekainaren 22koan, eta *I.I.N. Herbehereak-en aurkako aferan*, 204ko abenduaren 9koan. Errekurtsoak Irandik iritsitakonazioarteko babes eskatzaile zien bi gizonezko homosexualek sexu-orientazioarengatik aurkeztu zirenak. Auzitegiak ondorioztatu zuen, soilik sexu-jarreran oinarritutako benetazko auziperatzeari buruzko material eskasa ikusita, GEHE-ren 3. artikuluarekin aplikazio arin edo bigun bat ez zela nahikoa erabakitzeko eskatzailea Iranera kanporatzeak xedapen hori urratuko lukeenik.

196 Ikusi, aipatutako epaia, United Kingdom Supreme Court judgment, 7th July 2010, case *HJ (Iran) and HT (Cameroon) v. Secretary of State for the Home Department* [2010] UKSC 31; [2011] 1 AC 596. Halaber, ikusi, ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko irizpideak 9. zk.koa:..., op. cit.* Bestaldetik, EBJA-k *Minister voor Immigratie en Asiel c. X., Y. and* Z. aferan adierazi zuen: "beharrezkoa da honakoa adieraztea: sexu-orientazio bera partekatzen duten giza talde baten kideei orientazio hori ezkutatzeko esijitzea, bateraezina da honekin: pertsona baten identitaterako horren oinarrizkoa den ezaugarriari ezin zaio uko egitea esijitu". EBJAE, 2013ko azaroaren 7koa, *Minister voor Immigratie en Asiel c. X., Y. and* Z. *afera*, 70. paragrafoa.

197 Ikusi, Opinion of Lord Rodger, case *HJ (Iran) v. Secretary of State*, 80. paragrafoa.

eten gabeko urraketek okerrera egin zutela. Suediako agintariek gaia berraztertzea erabaki zuten, eta erabaki zuten asilo eskatzailea Libiara joatea ez zela bidezkoa, eta ondorioz, Suediako Inmigrazio Juntak M.E.-ri bizileku baimen iraunkorra eman zioen. Gorabehera hauen ondorioz, GEAE-k ez zuen erabaki behar izan homosexual argia zen M.E. jn.a ekintza homosexualak kriminalizatzen dituzten herrialde batera kanporatzeko erabakia GEHE-ean aurreikusitako giza eskubideen urraketa zen ala ez; zehazki, bere 3. Artikulukoak; eta arbuiatu zuen demanda jartzailearen tramitazioarekin jarraitzeko eskaera, eta ondorengo azterketa egitekoarena, honakoan oinarrituta:

> "Bere eskaera onargarritzat jo zen, eta ondorioz, eskatzailearen hasierako kexua zen, Konbentzioaren arabera, bera kanporatzerakoan Konbentzioaren 3. artikuluaren aurkako tratu txarrak jasateko arriskua izango zuela. Urraketa mehatxu hori Inmigrazio Juntaren 2014ko abenduaren 17eko erabakiaren ondorioz ezabatu zen; honek indargabetu zuen kanporatze agindua, prozeduraren zain exekuzioa etenda zuena, eta Suedian bizilekurako baimen iraunkorra eman zitzaion. Horregatik, Auzitegiak uste du, aurretik azaldutako bere jurisprudentziarekin bat, gaia erabaki dela Konbentzioaren 37 § 1 (b) artikuluaren arabera."[198].

Gai honetan adituak diren batzuentzat, Auzitegiak, azkenean, demanda artxibatzeko erabakia hartzea, interes handiko aukera bat galtzea izan da, Europan babesa bilatzen duten LGBTI+ pertsona errefuxiatuei GEHE-ren xedapenak aplikatze aldera. Are gehiago, gai honen bitartez, GEAE-k erabaki zezakeen Hitzarmenaren urraketatzat jo daitekeen ala ez Europako Kontseiluaren 47 Estatu Kideetako batek gizonezko homosexual bat sexu bereko pertsonen arteko sexu-ekintzak kriminalizatuta dauden bere jatorrizko herrialdera kanporatzea. Nolanahi ere, positibotzat jo behar da Auzitegiak erabakitzea ustezko arriskua kentzeko bidea dela Suedian bizileku baimen iraunkorra ematea; eta hori erabakigarria izan da gaiari soluzioa eman zitzaiola ondorioztatzeko[199].

A.E. Finlandiaren aurkako aferan, demanda jartzaileak, Irango nazionalitatekoak, alegatzen zuen, GEHE-ren 3. artikuluari jarraiki, Iranera itzularaziz gero, bere bizitza eta integritate fisikoaren beldur izango zela; izan ere, baieztatzen zuen polizia irandarrak bere homosexualitateari buruzko zantzuak zituela (argazkiak eta Bideo zintak), eta bere lagun homosexualak arrazoi horrengatik jada atxilotuak izan zirela, eta gainera, torturatuak izan zirela, bere izena agintariei emateko. Asilo eskatzaileari bere eskaera hainbat instantzia juridiko finlandiarretan ukatu zitzaion, Iran homosexualei dagokienez, herrialde tolerante samarra zela oinarritzat hartuta, publikoki ez bazen adierazten behintzat. Ildo honetatik, agintari finlandiarrek argudiatzen zuten, heriotz zigorra ezarri badakioke ere, zigortzat jotzeko muga altua zela[200]. Azken urteetan, inor ez zuten arrazoi horrengatik soilik exekutatu. Nahiz eta Iranen homosexualak diskriminatuak izan zitezkeen, ez zuten jazarpen sistematikoa jasaten. Berez, agintari finlandiarrek argudiatzen zuten

198 GEAEE, 2014ko apirilaren 8koa, *M.E. Suediaren aurkako* afera, 34-35. paragrafoak.

199 *Cfr.* DÍAZ LAFUENTE, J., *Asiloa eta babeslekua…, op. cit.*, 198. paragrafoa. Halaber, ikusi, JOHNSON, P., "Gran Chamber of ECtHR "dodges" ruling on the merits of gay asylum complaint in M.E. v. Sweden", *ECHR Sexual Orientation Blog*, 10th April 2015.

200 Zigorra, kasu hauetan, lau pertsona "trebeen" sexu harremanaren lekukotasuna behar zen, edo akusatuak aitortzea. *Cfr.* ECtHR, Fourth Section, Application no. 30953/11, case *A.E. v. Finland* lodged on 19th May 2011.

polizia irandarra ez zela eskatzailea lokalizatzen saiatu ere egin, ustez bere homosexualitatearen berri izan ondoren. Nolanahi ere, argudiatzen zuten benetan jazarpena jasango balu, Iranen Beste hiri batera lekualdatu zitekeela (berriz ere diskrezioaren irizpideari heldu zioten); izan ere, soilik bere homosexualitatearengatik atxilotua izatea ez zen gertagarria, bederen, bere jaiotze-hiritik kanpo biziz gero, Iranen bere bizitzaren zati handienean bakean bizi izan zelako[201].

Inmigrazio Zerbitzu finlandiarrak, 2015ko urtarrilaren 28an, eskatzaileari gomendatu zion ikasketa edo lan baimena eskuratu zezala, eta horrela egin zuen 2015ko otsailaren 9an. Bi hilabete beranduago Inmigrazio Zerbitzu finlandiarrak lan baimen bat eman zion urte beterako, erabakiaren egunetik kontatzen hasita; nolanahi ere, berritu zitekeen[202]. 2015ko maiatzaren 22an, Gobernu finlandiarrak GEAE-ri informatu zion baimen hori eman ziola, eta Auzitegiak, 2015ko urriaren 15ean, demanda jartzaileak ez zuela berehala kanporatzeko agindu bat pentsatu zuen, eta iritzi zuen, eragin horietarako, Finlandiaren kontra jarritako demanda, ustez GEHE-ren 3. artikulua urratzeagatik, konponduta gelditzen zela, GEHE-ren 37.1 artikuluaren arabera[203].

Ildo honetatik, GEAE-k *A.T. Suedian aurkako aferan*, nazionalitate irandarra zuen pertsona batek aurkeztutako demandarekin ez jarraitzea erabaki zuen, Inmigrazio Zerbitzu suediarrak nazioarteko babes eskaera sakon aztertzea onartu zuelako, GEHE-ren 37.1 artikuluan oinarrituta; demanda GEHE-ren 2 eta 3. artikuluen urraketa alegatuta aurkeztu zuen, Iranera itzularazita homosexuala izateagatik jazarpena jasateko arriskua zegoelako[204].

A.N. Frantziaren kontrako aferan, non nazionalitatea senegaldarra zuen gizonezko batek alegatzen zuen GEHE-ren 3. artikuluaren urraketa, Senegalera itzularazita, homosexuala izateagatik jazarpena jasateko arriskuan egongo zelako, GEHE-k auzia artxibatu zuen demanda funtsagabekotzat jo zuelako, hau da, demanda jartzaileak ez zuen nahiko froga aurkeztu bere sinesgarritasuna egiaztatzeko, hau da, Hitzarmenaren 3. artikuluaren kontrako tratua emateko arriskua izango lukeela Senegalera itzularaziko balute. Ondorio horietarako, Auzitegiak berariaz adierazten du: "esparru pertsonalarekin erlazionatutako gaien izaera sentsiblea ikusirik, eta zehazki, bere sexualitatea, zailtasuna dago eskatzaileak bere alegazioak justifikatzeko (...) uste du, ordea, kasu honetan ez duela nahiko froga aurkezten egiaztatzeko Hitzarmenaren 3. artikuluaren aurkako tratua jasateko arriskua lukeenik. Berez, dosierrean dauden bi deklarazioak oso laburrak eta xehetasunik gabekoak dira Auzitegiari alegatutakoa egia dela sinetsarazteko. Zehazki, (...) Gorteak, Gobernuak bezala, uste du, bestaldetik, egindako mediku ziurtagiriak [izandako erasoengatik) ez duela datarik, eta erabilitako idazpuruko bi medikuren izenarekin bat egiten duen pertsona batek ez duela idatzi, eta hortaz, ez duela benetako berme nahikorik. Azkenik, uste du LGBT elkartearen postak, soilik eskatzaileak alde egiteko arrazoia kontatzen dena, frogarik gabe, eta elkarteko kideetako batek ere gertaerak zuzenean ez zituenez ikusi, horrek guztiak eskatzailearen sinesgarritasuna indartzen ez du uzten"[205].

Azkenik, *M.B. Espainiaren aurkako aferan*, nazionalitate kamerundar batek alegatzen zuen Hitzarmenaren 3. artikuluaren aurkako tratua jasateko arriskua zuela, eta GEAE-k ez onargarritzat jo zuen, uste zuelako espainiar agintariei egindako eskatzailearen nazioarteko

---

201 *Ibídem.*

202 GEAE, 2015ko uriaren 15ekoa, *A.E. Finlandiaren aurkako afera*, (Onargarritasunaren erabakia), 20-21. paragrafoa.

203 *Ibidem.*, 23-29. paragrafoak.

204 GEAE, 2017ko apirilaren 25koa, *A.T. Suediaren aurkako afera*, (Onargarritasunaren erabakia).

205 GEAE, 2016ko apirilaren 16koa, *A.N. Frantziaren aurkako afera*, (Onargarritasunren erabakia).

babes eskaera aztertzeke zegoela. Ukatuko baliote, demanda jartzaileak espainiar auzitegietara jo dezake dagokion errekurtsoa jartzeko; izan ere, GEHE-k aipatzen duen moduan, GEAE-n ezin da demanda bat aurkeztu, barne errekurtsoen bidea agortu arte[206].

Konklusio moduan, baieztatu daiteke, GEAE-ren erabakietan, GEHE-ren 3. artikuluan oinarrituta, agerian gelditzen da ez duela aurrekari judizial bat sortzea nahi, SOGI-ko arrazoiengatik nazioarteko babesa Europako Kontseiluko Parte diren Estatuetan bilatzen duten LGBTI+ pertsonei babesa emateko, bi bidetatik: a) demanda ez onartzea, eta aintzakotzat ez hartzea mehatxuek larritasuna dutenik, GEHE-ren 3. artikuluak eskatutako arrisku mailara iristeko modukoa - nahiz eta zigor legeak izan adinez nagusien arteko ekintza homosexualak debekatzen dituztenak -, edo aipatutako herrialdean barne errekurtsoen bidea agortu ez izatea (GEHE-ko 35.1 artikulua); b) edo artxibatzea, Parte den Estatu zehatz bateko agintariek, azkenean, demanda jartzaileari bizileku baimen bat eman ziotelako, errefuxiatuaren Estatutua baino berme txikiagoko babesarekin; c) eskaera nabarmenki funtsagabekotzat jotzea, gertaeren kontaketa nahasia, inkoherentea eta ez sinesgarritzat jotzen delako, Auzitegiaren arabera. Horregatik, GEAE-k halere jarraitu dezake "demandaren azterketa egiten, Hitzarmenak eta bere Protokoloek bermatzen dituen giza eskubideen errespetuak horrela eskatzen duelako" (GEHE-ren 37.1 c) artikulua)[207].

Egun, GEAE-ren erabakietatik ondorioztatu dezakegun mezua hau da: GEHE-k LGBTI+ pertsonei eman beharreko babesari dagokionez, organo horrek aurrekari bat ezartzeko aitzakia eta konpromiso eza duela; eta irizpide zalantzagarriak aukeratzen dituela, hala nola, babes alternatiba, berkokapena edo barne aldeko ihesaldia, edo *diskrezio irizpidea;* horiek denak LGBTI+ pertsona errefuxiatuen duintasunaren aurkako eta bere eskubide eta askatasun oinarrizkoenen erabilerarako -besteak beste, asilo eskubidearentzat-, eraso argia suposatzen dutena.

206 GEAE, 2016ko abenduaren 13koa, *M.B. Espainiaren aurkako afera*, (Onargarritasunaren erabakia). Ildo beretik erabaki zuen, baina afera honetan nazionalitate senegaldarra zen alegatzen zuena Hitzarmenaren 3. artikuluaren kontrako trataera jasateko arriskua legokeela, Senegalera itzularazten bazuten. GEAE, 2017ko irailaren 26koa, *E.S. Espainiaren aurkako afera*, (Onargarritasunaren erabakia).

207 Ikusi, JOHNSON, P., "The European Court of Human Rights and gay asylum seekers: A shameful history?", *ECHR sexual orientation blog*, Thursday, 22nd October 2015.

2. SOGI-rengatik asilo eskubidea Batasun Europarreko Zuzenbidean

2.1. LGBTI+ pertsona errefuxiatuen nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea, eta horren txertatzea Batasun Europarreko sistema juridikoan. Batasun Europarreko Oinarrizko Eskubideen Gutuna (EBOEG)

SOGI-rengatik jazarpenak BE-ko Zuzenbidean eratze-juridiko prozesu bat izan du, *Asilo Sistema Europar Erkidearen* (ASEE) barruan. Bere aldetik, BE-k, bere inmigrazio politikak garatzen hasi zenetik, beti kontuan izan ditu inmigrazio irregularraren, asiloaren eta kanpo mugen kontrolaren inguruko gaiak[208] egikaritzerakoan, giza eskubideen errespetuari lotuta egon behar zutela[209], Batasun Europarreko Itunak (EBI) bere 2. artikuluan ezarritako mandatuarekin bat: "[B]atasuna oinarritzen da giza duintasunean, askatasunean, demokrazian, berdintasunean, Zuzenbide Estatuan eta giza eskubideen baloreen errespetuan (...). Balore hauek Estatu kideentzat komunak dira (...)" eta, are gehiago, LGBTI+ pertsona errefuxiatuaren itzularazte edo kanporatzearen larritasuna eta sortzen duen kaltearen izaera konponezina kontuan hartuta -bere jatorrizko herrialdera edo hirugarren herrialde batera, non arrisku larria dagoen heriotz zigorra, tortura eta/edo tratu inhumano eta umiliagarriak jasateko -, BEJE-k *Centre public d'action sociale d'Ottignies-Louvain-la-Neuve y Moussa abdika*[210] aferan adierazten zuen moduan. Halere, egun maxima hori zalantzan jartzen ari da, Batasuneko Estatu kideen erantzun geroz eta errepresiboagoarekin; Europa nagusiki gotortutzako asmoarekin, asilo prozedurari heltzeko

---

208 Arlo honetan indarrean dagoen Zuzenbidearen nukleoa Batasun Europarreko Funtzionamendu Itunaren Hirugarren Zatiko V. Tituluak osatzen du, *Askatasun, Segurtasun eta Justizia Espazioa* (ASJE), zehazki, 77.tik 80.ra bitarteko artikuluak, "Mugen kontrola, asiloa eta inmigrazioari buruzko politikak".

209 Batzorde Europarrak *inmigrazioa, integrazioa eta enpleguari* buruzko komunikazioan, honakoa adierazten zuen: "[B]E-ean legez kanpo bizi diren hirugarren herrialdeetako herritarrak oztopo handia dira integrazio prozesuarako (...) legez kanpoko inmigrazioaren aurkako politika sendoak aplikatzen jarraitu behar da (...). Komeni da gogoratzea legez kanpoko inmigranteak giza eskubideen arau unibertsalen babespean daudela, eta oinarrizko eskubide zehatz batzuk erabili ahal izan behar dutela (...)". *Batzordeak Kontseiluari eta Legebiltzarrari emandako komunikazioa, legez kanpoko politika erkideari buruzkoa* [COM (2001) 672, 2001ko azaroaren 15ekoa]. Kontseilu Europarrak erabaki du inmigrazio arlo guztietan hobetzeko beharra, baina bereziki migrazo irregularra zehaztasun handiagoarekin landuta. Kontseilu Europarraren Ondorioak, 2014ko ekainaren 26 eta 27an egindakoa, [EUCO 79/14], 8. paragrafoa. Halaber, Batzordeak, bere *Legebiltzar Europarrarentzat, Kontseiluarentzat, Batzorde Ekonomiko eta Sozial Europarrarentzat, eta Eskualdeen Batzordearentzat Komunikazioa*. *Migrazioaren Agenda Europar bat* agirian baieztatzen zuen: "Europa jazarpenetatik ihes egiten dutenen babestoki segurua izaten jarraitu behar du (...). Horretarako, sakonera handiko neurri sorta bat behar da, eta politika erkide argia eta koherentea. Konfidantza berrezarri behar dugu, ahalegin nazionalak eta europarrak migrazio arloan elkartzeko gaitasunaren inguruan, gure betebehar etiko eta nazioartekoak betetzeko, eta modu eraginkorrean elkar laguntzeko, elkartasun eta erantzukizun partekatuaren printzipioekin bat (...). Argi dago ikuspuntu berri bat europarragoa behar dugula (...). Eragile guztiek, Estatu kideek, EBko Instituzioek, nazioarteko erakundeek, gizarte zibilak, toki agintariek eta hirugarren herrialdeek, elkarri lagundu behar diote, migrazio arloan politika europar erkide bat egi bihurtzeko". [COM (2015) 240 azkena, 2015ko maiatzaren 13koa], 2-3 orrialdeak. Dotrinaren ikuspuntutik, ikusi, REIG FABADO, I., *Zirkulazio askatasuna, asiloa eta babestokia Batasun Europarrean*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2014, 213-256. orrialdeak. Halaber, ikusi, GARCÍA COSO, E., *Inmigrazio irregularraren, giza eskubideen eta mugen kontroalri buruzko araudia Batasun Europarrean*, Aranzadi/Thomson Reuters, Zizur Nagusia, Nafarroa, 2014, eta *Asiloa, Mugak eta Inmigrazioari buruzko Zuzenbide Europarreko Eskuliburua*, Batasun Europarreko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA) Europako Kontseiluak idatzia, Luxemburgo, 2014.

210 BEJAE, 2014ko abenduaren 18koa, *Centre public d'action sociale d'Ottignies-Louvain-la-Neuve y Moussa Abdida* afera, C-562/13, paragrafoa.

oztopoak jarriz, eta nazioarteko babesa murriztuz[211]. Hori guztia, lurraldeko segurtasuna eta bere herritarren gizarte ongizatea babesteko, eta hori, argi eta garbi, asilo eskubidearen kaltetan doa, eskubide humanitarioa den neurrian, Europan babes seguru baten bila dabilen LGBTI+ pertsonak babesten dituena.

Asilo eskubidea arautzeko funtsa, zehazki, *Asilo Politika Erkidearen* markoan datza, BE-ko *Askatasun, Segurtasun eta Justizia Espazioa* (ASJE)[212] deitutakoaren zutabe nagusia dena. Hori da BEI-ren 3.2 artikulutik ondorioztatzen dena: "[B]atasunak bere herritarrei barne mugarik gabeko askatasun, segurtasun eta justizia espazio bat eskainiko die, *asilo* (…) *esparruan neurri egokiekin* (…)". Espazio horren barruan, giza eskubideei erabateko errespetua ukaezina da, espazio horren funtsa bihurtzen dena.

Baieztapen horren isla juridikoa Batasun Europarreko Funtzionamendu Itunaren 67.1 artikuluan dago (EBFI), eta honakoa xedatzen du: "[*B]atasuna askatasun, segurtasun eta justizia espazio bat da, giza eskubideen errespetoaren barruan,* eta baita Estatu kideen sistema eta tradizio juridiko desberdinen barruan"[213].

Ondorioz, Estatu kideek, giza eskubideen bermatzaile diren neurrian, asilo politikak garatzen dituztenean, kontuan izango dituzte esparru honetarako Batasuneko Itunek xedatzen dutena[214], zehazki, BEFI-ren 78.1 artikulua: "[B]atasunak asiloa, babes subsidiarioa eta aldi baterako babesaren arloan politika erkide bat garatuko du, eta horren helburua izango da nazioarteko

---

211 Jada 1996an, DE LUCAS-ek honela hitzegiten zuen Batasunari buruz: "[S]ortu berri den Batasun Europarra gotorleku bihurtu da; bere eskubideak ixtea (eskubideak pribilegiotzat jotzen ditu, *gotorlekutik kanpo* daudenek ustez mehatxatzen dituztenak), eta hori da migrazio fluxoen aurrean bere erantzun miopeak, bere politikak paradoxikoki egiaztatzen duena". *Cfr.* DE LUCAS, J., *Ixten diren ateak*, Icaria Editorial, Valentzia, 1996, 9-10. orrialdeak. Halaber, ikusi, Amnistia Internacional-en Agiria, "Le coût humain de la "forteresse Europe": détention et expulsion de demandeurs d'asile et de migrants dans l'Union européenne", juillet 2014; POITEVIN, A., "La forteresse Europe opte pour l'option sécuritaire au détriment des droits fondamentaux", *Revue des droits de l'homme (ADL)*, 1er juin 2015 (en línea) y CARR, M., *Fortress Europe: Inside the War Against Immigration*, Hurst Publishers, London, 2015.

212 ASJE zuzenean erlazionatuta dago pertsonen zirkulazio librerako oinarrizko eskubidearekin (egun oinarrizko eskubidetzat jotzen da BESI-aren 20.2.a) eta 21 artikuluetan, eta BE-ko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 45. artikuluan), eta eratzen da, neurri batean, eskubide horren adierazpen moduan. Ikusi Legebiltzar Europarraren eta Kontseiluaren 2004/38/CE Zuzentaraua, 2004ko apirilaren 29koa, *Batasuneko herritarrak eta haien senideak Estatu kideetako lurraldean zehar aske mugitzeko eta bizitzeko eskubideari buruzkoa. DO*, L 158, 2004ko apirilaren 30ekoa. Halaber, ASJE arautua dago BESI-aren V tituluan (67tik 89.ra bitateko artikuluak), eta mugen kontrola, asiloa eta inmigrazioari buruzko politikek osatzen dute; arlo zibilean lankidetza judiziala; zigor-arloan lankidetza judiziala, eta lankidetza poliziala. ASJE sakonago aztertzeko, bereziki Lisboako berrikuntzen ikuspuntutik, ikusi, MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., (Koordinatzailea), *Batasun Europarraren Askatasun, Segurtasun eta Justizia Espazioaren kanpo dimentsioa*, Iustel, Madrid, 2012, eta LIÑÁN NOGUERAS, D.J., "Askatasun, segurtasun eta justizia espazioa", hemen: MANGAS MARTÍN, A. eta LIÑÁN NOGUERAS, D.J., *Batasun Europarreko Instituzioak eta Zuzenbidea*, 11. Argitalpena, Edición, Tecnos, Madrid, 2010, 87-120. orrialdeak.

213 Ildo honetatik, artikulu hori BEFEG-n zerrendatutako Batasun Europarreko Oinarrizko Eskubideen aitortza orokorraren helmuga da, zehazki EBI-ren 6. artikulua, eta ASJE-ren esparrura proiektatzen da: "1. Batasunak aitortzen ditu Batasun Europarreko Oinarrizko Eskubideen Gutunean zerrendatutako eskubide, askatasun eta printzipioak (…) eta horrek Itunen balio juridiko bera izango du (…); 2. Batasunak atxikimendua ematen dio Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmen Europarrari. Atxikimendu horrek ez ditu aldatuko Batasunaren eskumenak, Itunetan zehazten direnak; 3. Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmen Europarrak bermatzen dituen oinarrizko eskubideak, kideak diren Estatuen tradizio kostituzional erkideen ondorio direnak, Batasunaren Zuzenbidearen parte izango dira, printzipio orokor moduan".

214 Ikusi, BEI (finkatutako testua). *DOUE*, C 83, 2010ko martxoaren 30koa, 47. eta hurrengo orrialdeak, eta BEFI (finkatutako testua). *DOUE*, C 83, 2010ko martxoaren 30koa, 13. eta hurrengo orrialdeak.

babesa behar duen hirugarren herrialde bateko nazional orori estatutu egokia ematea, eta *ez itzularazteko printzipioa errespetatuko dela bermatzea. Politika honek bat egin beharko du Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko uztailaren 28ko Genevako Konbentzioarekin, eta 1967ko urtarrilaren 31ko Protokoloarekin*, eta baita ere, bidezkoak diren gainerako itunekin"[215]; Batasun Europarreko Oinarrizko Eskubideen Gutuna (EBOEG)[216], soilik Batasuneko Zuzenbidea aplikatzen denean, eta zehazki, 18. artikulua (Asilo eskubidea) eta 19. artikulua (Babesa, itzularazte, kanporatze eta estradizio kasuetan), eta baita, Estatu kideen tradizio konstituzionalak eta nazioarteko obligazio erkideek bereziki aitortutako eskubideak, Batasunetik eratorritako Zuzenbidea, eta, azkenik, BEJA-ren jurisprudentzia[217].

---

215 Horrela aitortzen du BEJA-k *N.S. eta beste batzuk* aferan: "[a]silo sistema erkide europarra Genevako Konbentzioaren erabateko aplikazioan oinarritzen da, eta baita berme honetan: inor ez da itzularaziko jazarpena jasango duen herrialde batera. Gutuneko 18. artikuluan eta EBFI-ren 78. artikuluan Genevako Konbentzioa eta bere 1967ko Protokoloarenganako errespetoa aurreikusten da. (...). Asilo sistema erkide europarra osatzen duten arau guztiak aztertuta, ondorioztatzen da hura honako kontestuan sortu zela: Estatu partehartzaile guztiek giza eskubideak errespetatzen dituztela suposatzen zen, Estatu kideak izan edo hirugarren Estatuak izan, barne hartuta Genevako Konbentzioan eta 1967ko Protokoloan, eta GEHEn oinarritzen diren eskubideak; eta Estatu kideek, horri dagokionez, elkarrekiko konfidantza eman diezioketela suposatzen zen. (...). Baldintza hauetan, suposatu behar da Estatu kide bakoitzean asilo eskatzaileari emandako tratua Gutuna, Genevako Konbentzioa, eta GEHE-rekin bat dagoela". Ikusi, BEJAE, 2011ko abenduaren 21ekoa, *N.S. eta beste batzuk* afera, metatutako gaiak C-411/10 eta C-493/10, 75, 78 eta 80. paragrafoa. Halaber, ikusi, BEJAE, 2010ko martxoaren 2koa, *Salahadin Abdulla eta beste batzuk*, metatutako gaiak C-175/08, C-176/08, C-178/08 eta C-179/08, 52 eta 53. paragrafoak; 2010eko ekainaren 17koa, *Bolbol* afera, C-31/09, 38. paragrafoa, eta 2010ko azaroaren 9koa, *Bundesrepublik Deutschland B. eta D.-ren aurkako* afera, metatutako gaiak C-57/09 eta C-101/09, 77 eta 78. paragrafoa.

216 Horri dagokionez, BEOEG-ren Hitzaurrean honakoa adierazten da: *"[G]utun honek berresten ditu (...) tradizio konstituzionalak eta Estatu kideen nazioarteko obligazio erkideek aitortutako eskubideak*, Batasun Europarreako Ituna eta Itun komunitarioak, *Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako Hitzarmen Europarra*, Komunitateak eta Europako Kontseiluak onartutako Gutun Sozialak, eta baita ere, Komunitate Europarretako Justizia Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Auzitegi Europarraren jurisprudentzia".

217 *Cfr.* LECZYKIEWICZ, D., "Human Rights and the Area of Freedom, Security and Justice: Immigration, Criminal Justice and Judicial Cooperation in Civil Matters", *Legal Research Paper Serie*s, Paper nº 1, January 2016, 1-4. orrialdeak.

2.1.1. LGBTI+ pertsona errefuxiatuen nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea. BEOEGko 18. artikulua

Asilo eskubidearen adierazpen maximoa, Komunitate mailan, Batasun Europarreko Giza Eskubideen Gutunaren (BEGEG) 18. artikulua da, eta horri buruz honakoa dio:

> "[b]ermatzen da asilo eskubidea, 1951ko uztailaren 28ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioaren eta 1967ko urtarrilaren 31ko Protokoloko arauak errespetatuz, eta Batasun Europarra eratzeko Itunarekin bat"[218].

Xedapen honek, Batasuna (erakundeak, organoak eta agentziak) juridikoki lotzen du, eta baita Estatu kideak ere, "Batasuneko Zuzenbidea aplikatzen denean soilik"[219], Gutunaren 51.1 artikuluaren berariazko mandatuaren bitartez[220]. Ondorioz, BEOEG-ren 18. artikuluak aldarrikatzen du asiloa eskatzeko eskubidea, eta Estatuen bermatzeko betebeharra, nazioarteko arauetan jasotako kasuetan, zuzenbide autonomo baten moduan, berezko existentzia duena. Halaber, xedapen horrek "pertsona oro" babesten du, edozein izanda ere bere nazionalitatea edo dagokion Estatuan duen estatutu juridikoa, eta izaera unibertsala duen eskubide moduan eratzen da. Hortaz, GEHE-ko 18. artikuluan aurreikusitako asilo eskubidea, BE-ko mugen barruan sartzen den hirugarren herrialdeko herritarren giza eskubideak babesteko tresna bihurtzen da, eta soilik azpimarratzen da jatorrizko herrialdeetan arriskuan egon daitezkeen pertsonak babesteko beharra[221]. Halere, bere garaian ahobatez baztertu zen asilorako eskubide *subjektiboaren* aukera. Beste modu batean esanda, badago asilorako eskubide bat BE-k eta bere Estatu kideek bermatu behar dutena, baina, pertsonak oro har eta, zehatzago, LGBTI+ kolektiboko kideak, ezin dute inola ere berau egikaritu, Estatuari ematera behartzeko zilegitasunik ez dutelako. Ondorioz, erlatiboki bermatzen den eskubide baten aurrean gaude, ez baitago Estatu kideentzat betebehar

---

218 Garrantzitsua da azpimarratzea BEOEH-n sartzea, asilo eskubidea oinarrizko eskubidea zela egiaztatzea suposatu zuela, ez baitzegoen GEHE-n berariazko aitorpen bat. Ondorio hauetarako kontuan izan, *Oinarrizko Eskubideen Guturari buruzko azalpenak*. *DOCE*, C-303, 2007ko abenduaren 14koa. BEJA-k artikulu hau aintzakotzat hartu du asiloari buruzko bere erabaki eskasetan, gai prejudizialei erantzuna emateko argudio moduan. Ildo honetatik, ikusi, BEJAEE, 2010ko martxoaren 2koa, *Salahadin Abdulla eta beste batzuk*, metatutako gaiak C-175/08, C-176/08, C-178/08; 2010ko ekainaren 17koa, *Bolbol* gaia, C-31/09, 38. paragrafoa; 2010ko azaroaren 9koa, *B*. afera, metatutako gaiak C-57/09 eta C-101/09; 2011ko abenduaren 21ekoa, *N.S. eta beste batzuk* afera, metatutako gaiak C-411/10 eta C-493/10, 75. paragrafoa; 2012ko irailaren 5ekoa, *Y*. afera, metatutako gaiak C-71/11eta C-99/11 eta 2013ko azaroaren 7koa, *X., Y. eta Z*. aferak, metatutako gaiak C-199/12 eta C-2010/12.

219 BEOEH betetzea soilik esijitzen da Estatu kideen jarduera eremuetan, BE-ra eskualdatutako eskumenen barruan sartzen direnak. Ildo honetatik, BEOEH-ko 51.2 artikuluak honakoa xedatzen du: "[G]utun honek ez du Komunitatearentzat eta Batasunarentzat eskumen berririk edo helburu berririk sortzen, eta ez ditu aldatzen Itunean ezarritako eskumenak eta helburuak".

220 Guturaneren 51. artikuluak beraraiz xedatzen du: "[G]utun honen xedapenak Batasuneko erakunde eta organoei zuzenduak daude, subsidiariotasunaren printzipoa errespetatuz, eta baita ere Estatu kideei, soilik Batasunaren Zuzenbidea aplikatzen dutenean. Ondorioz, hauek eskubideak errespetatuko dituzte, printzipioak gordeko dituzte eta bere aplikazioa sustatuko dute, dagokien eskumenen arabera".

221 *Cfr.* MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., "18. artikulua. Asilo eskubidea": MANGAS MARTIN, A. eta GONZÁLO ALONSO, L.N. (koordinatzaileak.), *Batasun Europarreko oinarrizko eskubideen Gutuna: azalpena artikuluz artikulu*, Fundación BBVA, Bilbo, 2008, 356 eta hurrengo orrialdeak.

bat juridikoki loteslea dena, baizik eta *bermatzeko* eskubidea bat[222]. Ikuspuntu kritiko batetik, horrek ondorioztatzen digu Estatu kideentzat diskrezionalitate handi baten eremuan gaudela; izan ere, Estatuek une oro errefuxiatu estatutua edo babes subsidiarioari buruzko behin betiko erabakiaren inguruan kontrola izaten jarraitzen dute; haiek ere babesaren hedapena zehazteko arduradunak dira, 1951ko Genevako Konbentzioa eta Batasuneko Zuzenbidea erreferentziatzat hartuta.

Bestaldetik, BEOEH-ren 18. artikuluak aldarrikatzen du asiloa eskatzeko eskubidea eta Estatu kideen bermatzeko betebeharra, eta eremu europarrean estuki erlazionatuta dago BEOEH-ren 19. artikuluarekin, eta honek itzularazteko debeku orokorra aurreikusten du, LGBTI+ pertsona errefuxiatuaren bizitzarentzat eta integritate fisikoa eta/edo psikikoarentzat arriskua dagoenean:

> "1. Kanporatze kolektiboak debekatzen dira. 2. Inor ezin da itzularazi, kanporatu edo estraditatuko Estatu batera, heriotz zigorra, tortura edo beste zigor eta tratu inhumano edo umiliagarriak jasateko arrisku larria dagoenean".

Bi xedapen arteko lotura baldin badago ere, biak eratzen dira eskubide autonomo moduan, bakoitza bere izaerarekin. Horrela, EBOEH-ren 18. artikuluak ez bezala, EBOEH-ren 19. artikuluak azpimarratzen du ez itzularazteko printzipio klasikoa (*non-refoulement*), eta ordura arte izandako eduki juridikoa birformulatzen du, estradizio debekua gehitzeko, eta, kasu guztietan, oinarrizko betebehar bat betetzea eskatzen du, hau da, heriotz zigorra ezartzeko edo torturatua izateko edo tratu inhumano edo umiliagarriak jasateko arrisku larria egotea.

Ildo honetatik, BEJA-k ondorioztatzen du *Aleksei Petruhhin* aferan, "[1]9. artikuluaren arabera, inor ezin dela itzularazi, kanporatu edo estraditatu Estatu batera non heriotz zigorra ezartzeko, torturatua izateko edo tratu txarrak edo beste zigor edo tratu inhumano edo umiliagarriak jasateko arrisku larria dagoen (...)"[223]. Ildo beretik, *Mohamed M'Bodj y État belge* aferan, gaixotasun larria zuen hirugarren herrialdeko nazional bat itzularazteari buruz, ondorioztatzen zuen kasu hauetan Estatu kidea lotuta dagoela: "[G]utunaren 19. artikuluaren 2. atala betetzeko betebeharra du (...), zeinaren bitartez inor ezingo da itzularazi estatu batera tratu inhumano edo umiliagarriak jasateko arrisku larria dagoenean, (...) GEHE-ren 3. artikulua aintzakotzat hartuta"[224]. Beste modu batean esanda, gaixotasun larria duen hirugarren herrialdeko nazional bat itzularaztea non ez dagoen tratamendu egokirik, 19.2 artikuluan xedatutako ez itzularazteko printzipio humanitarioa urratu lezake[225].

Bestalde, EBOEH-ko 19. artikuluaren ezaugarri berezi bat, EBOEH-ko 18. artikulutik nabarmenki bereizten duena, honakoa da: asiloaren instituzioa eskubide subjektibo eratzen ez den

---

222 *Cfr.* MARTÍN MARTÍNEZ, M.M. eta JIMÉNEZ SÁNCHEZ, C., "18. artikulua. Asilo eskubidea", MONEREO ATIENZA, C. eta MONEREO PÉREZ, J.L. (Zuzendariak), *Eskubideen Europa. Batasun Europarreko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren azterketa sistematikoa*, Ed. Comares, Granada, 2012, 424-425. orrialdeak.

223 Ildo honetatik, ikusi, EBJAE, 2014ko abendua 18koa, *Centre public d'action sociale d'Ottignies-Louvain-la-Neuve y Moussa Abdida*, C-562/13, 46. paragrafoa.

224 BEJAE, 2014ko abenduaren 18koa, *Mohamed M'Bodj y État belge* afera,, C-542/13, 38. paragrafoa. Halaber, ikusi, BEJAE, 2012ko abenduaren 19koa, *Abed El Karem El Kott eta beste batzuk* afera, C-364/11, 43. paragrafoa.

225 BEJAE, 2014ko abenduaren 18koa, *Abdida* afera, C-562/13, 49. paragrafoa.

bitartean, LGTBI+ pertsona errefuxiatuek ezin dute eskatu, eta soilik Estatuentzat bermatzeko betebehar bat da; EBOEH-ko 19. artikuluaren kasuan, pentsa dezakegu, MÁRTÍN Y PEREZ DE NANCLARES-ek dioen moduan "eragindako partikularrari eskubide subjektibo bat bai ematen zaiola, eta Estatuari judizialki behartu diezaioke aipatutako erabakia hartzea"[226], ez bada oraindik LGBTI+ pertsona errefuxiatua itzularazi, kanporatu edo estraditatu. Egoera hauen aurrean, eta duten larritasun bereziarengatik, arrazoi nahikoa izan beharko luke Estatuari kanporatzea, itzularaztea edo estraditatzea eteteko kautelazko neurria hartzera behartzeko, gaiaren mamiari buruzko erabakia hartzen ez den bitartean; GEAE-ren jurisprudentzian aipatzen den gaia da, eta azpimarratzen du garrantzitsua dela kautelazko neurri horiek hartzea, GEAE-an prozedura amaitzen den arte.

a) Kanporatze kolektiboen debekua

BEOEH-eko 19.1 artikuluak debeku orokor bat ezartzen du, eta zehazten du kanporaketa kolektiboak, hau da, EBko Estatu Kide bateko lurraldetik pertsona talde bat kanporatzea, Gutunak zorrotz debekatzen duela. Puntu honetan, derrigorrezkoa da GEHE-ren 4. Protokolo Gehigarriaren 4. artikuluari eta GEHE-ren jurisprudentziari heltzea[227], Gutunaren 19.1 artikuluaren zentzu eta hedapenaren interpretaziorako parametro moduan[228]. Atal honetan gogora ekarri behar da kanporaketa kolektibotzat jo behar dela edozein neurri atzerritarrak Estatu batetik alde egitea behartzeko - diskriminazio irizpideetan oinarrituta -, taldea den neurrian edo kolektiboko kidea den neurrian, LGBTI+ komunitatea bezala; hortik ondorioztatu daiteke neurriaren izaera arbitrarioa, eta lege kontrakoa dela. Ildo honetatik, ulertu behar da debeku legezkoa kanporaketaren erabakiari dagokiola, eta baita exekuzio berari ere.

---

226 *Cfr.* MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., "18. artikulua. Asilo eskubidea": MANGAS MARTIN, A. eta GONZÁLO ALONSO, L.N. (Koordinatzaileak), *Batasun Europarreko oinarrizko eskubideen Gutuna: azalpena artikuluz artikulu*, Fundación BBVA, Bilbo, 2008, 383-384. orrialdea.

227 Ondorio hauetarako, kontuan izan, Oinarrizko Eskubideen Gutunari buruzko Azalpenak. *DOCE*, C 303, 2007ko abenduaren 14koa.

228 *Cfr.* MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., "19 artikulua. Babeslekua...", *op. cit.*, 381. orrialdea.

Horregatik, ondorioztatu behar da hiru direla berme nagusienak kanporatze batek eskaini behar dituenak, Batasunaren markoan kolektibotzat ez jotzeko: alde batetik, kolektibo zehatz bateko kide izateagatik arrazoiengatik ez izatea, LGBTI+ kolektibokoa, esate baterako; bestetik, eragindako pertsona bakoitzaren bana-banako egoeraren ondorioa izatea[229]; eta azkenik, kanporatutako pertsonak baliabide juridikoak izatea, kanporatze agindua agintari eskudunen aurrean aurkaratzeko[230].

b) Estatu batera itzularazteko, kanporatzeko eta estraditatzeko debekua, heriotz zigorra, torturak edo beste zigor edo tratu inhumanoak edo umiliagarriak jasateko arriskua dagoenean

BEOEH-ren 19.2 artikuluak xedatzen du debekatuta dagoela pertsona bat derrigorrean jatorrizko Estatura itzularaztea, jazarpen ekintza bat jasateko arriskua duenean[231], bere bizitza edo integritate fisikoa arrisku egoera larrian dagoenean. Neurri batean, xedapen honek ere BEOEH-ren 3. artikuluak aurreikusten duen pertsonaren integritaterako eskubide orokorragoa babesten du[232], edo baita ere Gutuneko 2. artikuluko[233] bizitzarako eskubidea.

---

229 *A. B. C. y Staatssecretaris van Veiligheid en Justitie* aferan, nazioarteko babes eskaera bat aztertzerakoan, sexu-orientaziogatik jazarpen arrazoietan oinarrituta, BEJA-k Estrasburgoko dotrina berresten du honela: "eskaera bat banan- bana ebaluatu behar dira, eta kontuan izan behar dira egoera partikularra, eta eskatzailearen gorabehera pertsonalak, hala nola, pertsonaren iragana, sexua eta adina, zirkunstantzia horiekin, jasandako edo jasan ditzakeen ekintzak jazarpen edo kalte larritzat jo daitezkeen ebaluatzeko". BEJAE, 2014ko abenduaren 2koa, *A. B. C. y Staatssecretaris van Veiligheid en Justitie* afera, C-148/13tik C-150/13ra, 57 eta 61. paragrafoak. Epai berean, BEJA-k ohartarazten du galdeketak edo gertaerak eta asilo eskaera oinarritzen duten gorabeherak aztertzeko praktikak ezin dutela inoiz oinarrizko eskubideen kontrakoak izan. Kasu honetan harrera Estatuak galdaketa bat erabili zuela eskatzaile horren sexu-prektikei buruzko xehetasunak jakiteko, asilo eskaera eusten zuten frogen sinesgarritasuna ebaluatzeko, eta hori BEJA-k "oinarrizko eskubideen kontrakotzat" jotzen zituen". *Ibídem*., 64. paragrafoa. Doktrinaren ikuspuntutik, ikusi, BOLLO AROCENA, M.D., "Agintari nazionalek sexu-orientazioarengatik jazarpena jasateko beldurrean oinarritutako asilo eskaerak ebaluatzeko dituzten mugak. BEJA-ren epaia, 2014ko abenduaren 2koa (Metatutako gaiak C-148/13tik C-150/13ra)", *Batasun Europarra Aranzadi*, 1. zk.a, 2015, 55-61. orrialdea. BEJAren dotrina hau extrapolatu daiteke, baldintza berdinetan, kanporatze kolektiboetako kasuetara.

230 Ildo honetatik, ikusi, GEAEEE, 2002ko otsailaren 5ekoa, *Conka Belgikaren kontrako* afera; 2012ko otsailaren 23koa, *Hirsi Jamaa eta beste batzuk Italiaren aurkako* afera; 2014ko uztailaren 3koa, *Georgia Errusiaren aurkako (I)* afera; 2014ko urriaren 21ekoa, *Sharifi eta beste batzuk Italia eta Greziaren aurkako* afera, eta 2017ko urriaren 3koa, *N.D. Espaiaren aurkako eta N.T. Espaiaren aurkako* aferak.

231 Metatutako *Y. eta Z.* aferetan, BEJA-ri eskatu zitzaion zehazteko zer gertaera izan litezkeen "jazarpen ekintza", hemengo kasu zehatzean, erlijio askatasunaren urraketa larri baten esparruan, 2011/95/EB Zuzentarauaren 9.1, a) eta 10.1 b) artikuluarekin bat ("Errekonozimendurako baldintzen Zuzentaraua"). Zehazki, ea erlijio arrazoiengatik jazarpen ekintzatzat jo daitezkeen "fedea aldarrikatzeko askatasunaren" kontrakoak. Ildo honetatik, BEJA-k argitu zuen erlijio askatasunaren aldarrikapen publikoaren kontrako injerentzia jazarpen ekintza bat izan daitekeela, horrela: "*[e]kintzen berezko larritasunak, eta eragindako pertsonengan bere ondorioen larritasunak, ezartzen dute Gutunaren 10.1 artikuluak bermatutako eskubidearen urraketa,ea jazarpen ekintzatzat jo daitekeen* Zuzentarauaren 9.1 artikuluen arabera". BEJAE, 2012ko irailaren 5ekoa, *Alemaniako Errepublika Federala Y. eta Z. afera*, 72 eta 80. paragrafoa. Ikusi, 2011/95/UE Zuzentaraua, Legebiltzarrare Europararena eta Kontseiluarena, 2011ko abenduaren 13koa, *zeinaren bidez ondorengo arauak ezartzen dira: nazioarteko babesaren onuradun diren hirugarren herrialdeetako nazionalak edo aberrigabeak onartzeko baldintzei buruzkoak, eta errefuxiatuentzat estatutu uniforme bati buruzkoak edo babes subsidiarioarako eskubidea duten pertsonei buruzkoak, eta emandako babesaren edukiari buruzkoak*. *DOUE*, L 337, 2011ko abenduaren 20koa.

232 BEOEH 3. artikulua: "Pertsona orok integritate fisiko eta psikikorako eskubidea du".

233 BEOEH 3. artikulua: "Pertsona orok bizitzareko eskubidea du".

Halaber, 19.2 artikulua Gutunaren 4. artikuluaren babespean dago (Tortura eta zigor edo tratu inhumano edo umiliagarriak debekatzea) eta oro har, giza eskubideak babesten dituzten nazioarteko testu batzuenean - zehazki, GEHE-ko 3. artikuluan bere baliokidea dago -, eta gainera, 1984ko abenduaren 10eko *Torturaren eta beste Tratu edo Zigor Anker, Inhumano edo Umiliagarriei buruzko Konbentzioak* arautzen du, eta hitzarmen europar bat, *Torturaren eta beste Tratu edo Zigor Anker, Inhumano edo Umiliagarriei* buruzko Hitzarmen Europarra, 1987ko azaroaren 26koa. Ildo honetatik, Gutunaren 19.2 artikuluak tortura edo tratu inhumanoak edo umiliagarriak jasotzen ditu, baina baita ere hirugarren arrazoi bat gehitzen du, heriotz zigorra, alegia. Eta elementu berri hori da *non-refoulement* printzipioari BEOEH-k egiten dion ekarpen handiena*;* izan ere, beste nazioarteko testutan babesari edo bizitzaren arriskuari buruz hitz egiten da, baina ez zehazki heriotz zigorrari buruz. Horrela, BEOEH-k emandako babesa sendoa eta segurua da[234].

Horri buruz, 2016ko irailaren 6ko *Aleksei Petruhhin* aferan, BEJA-k ondorioztatu zuen BEOEH-ren 19. artikulua aplikatu behar zela errekeritutako Estatu kideak beste Estatu kide bateko nazional bat, hirugarren Estatu batek eskatuta, estraditatzeko kasuan; lehen Estatu kideak egiaztatu behar du estradizioak xedapen horretan ezarritakoak ez lituzkeela urratuko, eta ezta ere, Gutunak aurreikusten dituen gainerako bermeak kasu hauetarako:

> "[e]rrekerimendua egin zaion Estatuko agintari eskudunak baldin baditu elementuak egiaztatzen dituztenak errekerimendua egin duen Estatuan pertsonei tratu inhumano edo umiliagarria ematen zaiela, Estatu horretara pertsona bat estraditatzeari buruzko erabakia hartu baino lehen, arrisku hori dagoela aztertu beharko du"[235].

Bestalde, *N.S. eta beste batzuk* aferan, BEJA-ri eskatzaile baten lekualdaketa bati buruz erabakia hartzeko eskatu zitzaion, eta beste tresna juridikoen artean, BEOEH-rekin bateragarria zen galdetu zitzaion, eta zalantzarik gabe honakoa erantzun zuen: "Gutunaren 19. artikuluko, 2. Atalak berariaz xedatzen du inor ez dela Estatu batera itzularaziko, kanporatuko edo estraditatuko, heriotz zigorra, tortura edo beste zigor eta tratu inhumano edo umiliagarriak jasateko arrisku larria dagoenean"[236].

Nolanahi ere, ez bada lortu "tortura" edo "tratu inhumano edo umiliagarriak" terminoen edukiari dagokion definizioa ezartzea, ezinbestekoa egin zaio BEJA-ri jurisprudentziari heltzea, bereziki GEAE-rena. Honek lagundu du arriskuaren balorazioa egiteko irizpide batzuk ezartzen,

---

234 *Cfr.* ARRESE IRIONDO, M.N., "19. artikulua: Babeslekua…", *op. cit.*, 349. orrialdea eta MARTÍN MARTÍNEZ, M.M. eta JIMÉNEZ SÁNCHEZ, C., "19. artikulua: Babeslekua …", *op. cit.*, 436. orrialdea. Ildo honetatik, heriotz zigorra ez dago GEHE-n zorrozki arautua, GEHE-ren 6. zk.ko Protokolora jo behar da; izan ere, bertan lurralde europar osorao zigor hori indargabetu zen. Ikusi, Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmenaren 6. zk.ko Protokoloa, *heriotz zigorra indargabetzeari buruzkoa*, Estrasburgon onartutakoa, 1983ko apirilaren 28koa, 1-9. artikuluak.

235 Ildo honetatik, ikusi besteak beste, EBEAEE, 2016ko irailaren 6koa, *Aleksei Petruhhin* afera, C-182/15, 58. paragrafoa; 2016ko apirilaren 5ekoa, *Aranyosi eta Căldăraru* afera, C-404/15 eta C-659/15 PPU, 88. paragrafoa; 2013ko otsailaren 26koa, *Stefano Melloni* afera, C-399/11, 59 eta 63. paragrafoa; 2014ko abenduaren 18koa, *Mohamed M'Bodj eta État belge* afera, C-542/13, 38. paragrafoa; 2014ko abenduaren 18koa, *Centre public d'action sociale d'Ottignies-Louvain-la-Neuve eta Moussa Abdida* afera, C-562/13, 46. paragrafoa; 2013ko azaroaren 14koa, *Puid* afera, C-4/11, 30 eta 36. paragrafoak, eta BEJAE, 2011ko abenduaren 21ekoa, *N.S. eta beste batzuk*, metatutako aferak C-411/10 eta C-493/10, 88, 94 eta 112. paragrafoa.

236 BEJAE, 2011ko abenduaren 21ekoa, *N.S. eta beste batzuk*, metatutako aferak C-411/10 eta C-493/10, 112. paragrafoa.

probabilitateak baztertuta, eta erabat subjektiboak, eta eremu europarrean onartuak izan direnak. BEJA-k adierazten duen moduan, hauek izango lirateke, besteak beste: helburuko herrialdean giza eskubideen egoera aztertzeko betebeharra, "errekeritutako Estatu kideko agintari eskudunak errekerimendua egiten duen Estatuan pertsonei tratu inhumano edo umiliagarriak ematen zaiela benetako arrisku bat egiaztatzeko elementuak dituenean"[237], ez urratzeko "Gutunaren 19. artikuluak aipatzen dituen eskubideak"[238]. Horretarako, BEJA-k *Aleksei Petruhhin* eta *Aranyosi eta Căldăraru* aferetan dioen moduan, errekerimendua egin zaion Estatu kideko agintari eskudunak oinarritzat hartu beharko ditu: "elementu objektibo, fidagarriak, zehatzak eta behar bezala eguneratuak"[239]. Elementu hauek etor daitezke, zehazki, nazioarteko ebazpen judizialetatik, BEAE-ren epaietatik, Errekerimendua egin duen hirugarren Estatuko ebazpen judizialetik, edo Europako Kontseiluaren organoek egindako erabaki, txosten edo beste dokumentuetatik, edo Nazio Batuen sistematik[240]. Azterketa honek pertsonaren egoera pertsonalari buruzko txosten bat izan behar du; izan ere, arriskua egon daiteke, Estatu zehatz batek giza eskubideen arloan duen egoera orokorraren kalterik gabe. Gainera, giza talde baten kontrako bortizkeria orokortua dagoenean, hori argudioa izan daiteke itzularazteko aginduaren kontrako babesa aktibatzeko. Egoera horietan, GEAE-k ezarritako doktrinari heltzen zaio; hau da, giza eskubideen urraketa orokortuak ez dute erabakigarriak izan behar; eta ezta ere pertsonaren zirkunstantziei nahita nahiez lotutako egoerak. Horrela, giza talde zehatz baten parte izatea soilik, LGBTI+ kolektibokoa esate baterako, arrazoi nahikoa izan daiteke jazarpena jasateko edo torturatua izateko ganorazko arrazoiak daudela pentsatzeko. Bestalde, adierazpenak eta nazioarteko itunak onartu badira ere, hasiera batean, oinarrizko eskubideak bermatzen dituztenak, berez, ez dira nahikoak tratu txarrak jasateko arriskuaren kontrako babes egoki bat eskuratzeko, iturri fidagarriak medio agerian jartzen direnean agintarien praktikak, edo, hauek toleratuak, argi eta garbi GEHE-ren

---

237 BEJAE, 2016ko irailaren 6koa, *Aleksei Petruhhin* afera, C-182/15, 58. paragrafoa. Halaber, ikusi, BEJAE, 2016ko apirilaren 5ekoa, *Aranyosi eta Căldăraru* afera, C-404/15 eta C-659/15 PPU, 88. paragrafoa.

238 Horri dagokionez, BEJA-k baieztatzen du hitzez-hitz: "[e]lementu hauen jatorria izan daitezke, zehazki, nazioarteko ebazpen judizialak, hala nola, Giza Eskubideen Auzitegi Europarraren epaiak, errekerimendua egin duen hirugarren Estatuko ebazpen judizialak, edo Europako Kontseiluak egindako erabakiak, txostenak eta beste agiriak, edo Nazio Batuen sistemarenak". BEJAE, 2016ko irailaren 6koa, *Aleksei Petruhhin* afera, C-182/15, 60. paragrafoa.

239 BEJAE, 2016ko irailaren 6koa, *Aleksei Petruhhin* afera, C-182/15, 59. paragrafoa. Halaber, ikusi, EBJAE, 2016ko apirilaren 5ekoa, *Aranyosi eta Căldăraru* afera, C-404/15 eta C-659/15 PPU, 89 paragrafoa. Kontuan izan, Legebiltzar Europarrreko eta Kontseiluko 2011/95/BE Zuzentarauaren 4. artikulu zabala, 2011ko abenduaren 13koa, *zeinaren bidez ondorengo arauak ezartzen dira: nazioarteko babesaren onuradun diren hirugarren herrialdeetako nazionalak edo aberrigabeak onartzeko baldintzei buruzkoak, eta errefuxiatuentzat estatutu uniforme bati buruzkoak edo babes subsidiarioarako eskubidea duten pertsonei buruzkoak, eta emandako babesaren edukiari buruzkoak.* Horrek azaltzen du gertaeren eta zirkunstantzien balorazioa nola egin behar den nazioarteko babes eskaerak aztertzerakoan eta ebazterakoan; xedapen hori ere analogiaz aplikatu daiteke estradizio, kanporatze edo itzularazte kasuetan herrialdeko arrisku egoera ebaluatzerakoan. Nolanahi ere, BEJA-k bere erantzuna gai prejudizialei bakarrik mugatzen du, eta 19. artikuluari buruz gertaera eta zirkunstantzien balorazioarekin erlazionatutako erantzun bat ematen du; eta GEAE-ren jurisprudentziara atxikitzen da, baina Zuzentarauak gai honi buruz xedatzen duenarekin ez du konektzen. *DOUE*, L 337, 2011ko abenduaren 20koa.

240 BEJAEE, 2016ko irailaren 6koa, *Aleksei Petruhhin* afera, C-182/15, 59. paragrafoa, eta 2016ko apirilaren 5ekoa, *Aranyosi eta Căldăraru* afera, C-404/15 eta C-659/15 PPU, 89. paragrafoa. Ikusi halaber, EBJAEE, 2013 maiatzaren 30koa, *Halaf* afera, C-528/11, 44 paragrafoa; 2012ko abenduaren 19koa, *Abed El Karem El Kott eta veste batzuk* afera, C-364/11, 43 paragrafoa, eta 2011ko abenduaren 21ekoa, *N.S. eta beste batzuk* afera, metatutako aferak C-411/10 eta C-493/10, 75 paragrafoa.

printzipioen kontrako praktikak[241]. Demanda jartzaileari dagokio, oro har, probaren karga[242], eta frogak aurkeztu behar ditu egiaztatuko dutenak bera kanporatzean edo itzularaztean egoera inhumanoak jasateko arrisku larrian egongo litzatekeela; nolanahi ere, Auzitegiak, *motu propio*, frogak bilatu eta aurkeztu ditzake[243]. Azkenik, ez da beharrezkoa jarreren jatorria berariaz botere publikoa izatea, nahiz eta ohikoena izan; debekua ere aplikatzen da jarrera horiek jasateko arriskua talde partikularretatik ere eratortzen bada, Estatua gai ez denean arriskuan dauden pertsonak babesteko[244].

Argi dago orduan *prebentziozko eragina duen xedapen* baten aurrean gaudela; hau da, itzularaztea galarazten duen zirkunstantzia da heriotz zigorra, tortura edo zigor edo tratu inhumanoak edo umiliagarriak ezartzeko arrisku larria, eta ez jarrera horiek benetan jasatea, pertsona itzularazi, kanporatu edo estraditatu ondoren. Kasu hauetan, LGTBI+ pertsona itzularazten, kanporatzen edo estraditatzen duen Estatua soilik zigortu daiteke aipatutako jarrera zehatzak ez direla exekutatuko behar bezain bermatuta ez dagoenean. Honekin erlazionatuta, GEAE-ren jurisprudentziak aipatu du kasu hauetan kontuan eduki behar dela, bai helburuko herrialdeko giza eskubideen egoera orokorra, eta baita bere egoera pertsonala ere (nagusiki, bere aurrekari pertsonal eta politikoak), eta beraz, hori frogatzeko karga berak izango du.

2.1.2. Eragindako oinarrizko beste eskubide batzuk

Estatu kide batek, LGTBI+ pertsonaren egoera partikularraren mamia indibidualizatzeko, identifikatzeko eta aztertzeko prozesu bat bideratu gabe, hura kanporatu, itzularazi (*refoulement*) edo estraditatuko balu herrialde batera, non pertsona horrek torturak, tratu inhumanoak edo umiliagarriak edo zigor heriotza jasateko ganorazko arriskua izango duen (BEOEH-ren 19.2 artikulua), horrek ekarriko luke Gutunaren Beste eskubide batzuk errebotez (*par ricochet*)

---

241 Ikusi, GEAEE, 2008ko otsailaren 28koa, *Saadi Italiaren aurkako* afera, 147. paragrafoa, eta GEAEE, 2016ko irailaren 6koa, *Aleksei Petruhhin* afera, C-182-15, 57. paragrafoa.

242 Kontuan izan, 2011/95/BE Zuzentarauaren 4.1 artikulu zabala, hitzez-hitz honakoa xedatzen duena: "[E]statu kideek pentsa dezakete eskatzailearen betebeharra dela bere nazioarteko babes eskaera oinarritzeko beharrezko elementu guztiak lehen baino lehen aurkeztea". *DOUE*, L 337, 2011ko abenduaren 20koa.

243 Ildo honetatik, GEAE-k, *Meki Elgafaji eta Noor Elgafaji Staatssecretaris van Justitie-ren aurkako* aferan, baieztatu zuen "eskatzailearen bizitza edo integritate fisikoaren kontrako mehatsu larri eta banan-banakoak [kasu honetan, babes subsidiarioarena, baina era berean babes edo asilo eskatzaileei aplikagarriak] baldintza honen menpe daude: froga aurkeztu behar du egoeraren elementu propioengatik bereziki eraginda dagoela egiaztatzeko (...)". GEAEE, 2009ko otsailaren 17koa, *Meki Elgafaji eta Noor Elgafaji Staatssecretaris van Justitie-ren aurkako* afera, C-465/07, 28. paragrafoa. Halaber, *A. B. C. eta Staatssecretaris van Veiligheid en Justitie-ren aurkako* aferan, aditzera eman zuen: "normalean eskatzailearen betebeharra izan ohi da bere eskaera oinarritzeko behar dituen elementu guztiak aurkeztea, bera baita, bestalde, gaituena bere sexu-orientazioa egiaztatzeko elementuak aurkez ditzakeena [afera honetan jazarpen arrazoia hori zen]". GEAEE, 2014ko abenduaren 2koa, *A. B. C. eta Staatssecretaris van Veiligheid en Justitie-ren aurkako*, C-148/13tik C-150/13ra, 56. paragrafoa. GEAE-k ezarritako jurisprudentziari dagokionez, eta BEJA-k bere egin duena, ikusi, besteak beste, GEAEEE, 1991ko urriaren 30ekoa, *Vilvarajah eta beste batzuk Erresuma Batuaren aurkako* afera, 107. paragrafoa; 1997ko apirilaren 29koa, *H.R.L. Frantziaren aurkako* afera, 37. paragrafoa; 2001ko martxoaren 6koa, *Hilal Erresuma Batuaren aurkako* afera, 60. paragrafoa; 2005ko uztailaren 5ekoa, *Said Herbeheren aurkako* afera, párr. 49, paragrafoa; 2005ko uztailaren 26koa, *N. Finlandiaren aurkako* afera, 160. paragrafoa; 2007ko urtarrilaren 11koa, *Salah Sheekh Herbeheren aurkako* afera, 136 paragrafoa, edo 2008ko otsailaren 28koa, *Saadi Italiaren aurkako* afera, 128. paragrafoa.

244 Ikusi, besteak beste, GEAEEE, 2001ko urtarrilaren 11koa, *Salah Sheekh Herbeheren aurkako* afera, eta 2011ko azaroaren 28koa, *Sufi eta Elmi Erresuma Batuaren aurkako* afera.

urratuak izatea, hala nola, 4. artikulua, *tortura eta zigor edo tratu inhumanoak edo umiliagarriak* debekatzen dituena[245]; 1. artikulua, *giza duintasunari* buruzkoa[246]; 2. artikulua, pertsona ororen *bizitzarako eskubidea*, eta ezin zaio heriotz zigorra ezarri, eta ezta ere exekutatu[247]; 3.1 artikulua, *integritate fisikoa eta psikikorako eskubidea* aitortze duena; 6. artikulua, *askatasunerako eta segurtasunerako* eskubidea aitortzen da, pertsona orori dagokiona[248]; 7. artikulua, *bizitza pribatua errespetatua izateko* eskubidea[249]; 5.3 artikulua, *gizakiak salerosketa* debekatzen duena; 10.1 artikulua, *pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasunerako eskubidea* jasotzen duena[250]; 11.1 artikulua, xedatzen duena *pertsona orok adierazpen askatasunerako eskubidea* duela; 21. artikulua, *diskriminazio oro* debekatzen duena, eta zehazki, sexu, arraza, larru-kolore, nazionalitatea, etnia edo giza jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijio edo konbikzioak, iritzi politikoak edo beste edozein motatakoak, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa eta genero-identitatearengatik.

---

245 Ikusi, BEJAEE, 2016ko irailaren 6koa, *Aleksei Petruhhin* afera, C-182/15, 56. paragrafoa, eta 2016ko apirilaren 5ekoa, asunto *Aranyosi eta Căldăraru*, metatutako aferak C-404/15 eta C-659/15 PPU, 85. paragrafoa.

246 Ikusi, besteak beste, BEJAEE, 2016ko irailaren 6koa, *Aleksei Petruhhin* afera, C-182/15, 56. paragrafoa, eta 2016ko apirilaren 5ekoa, asunto *Aranyosi eta Căldăraru*, metatutako aferak C-404/15 eta C-659/15 PPU, 85. paragrafoa; 2011ko abenduaren 21koa, *N.S. eta beste batzuk* asunto, metatutako aferak C-411/10 eta C-493/10, 109-115. paragrafoak, eta 2014ko abenduaren 2koa, *A. B. C. eta Staatssecretaris van Veiligheid en Justitie-ren aurkako* afera, metatutako aferak C-148/13, C-149/13 eta C-150/13, 65. paragrafoa.

247 Ikusi, besteak beste, BEJAEE, 1989ko uztailaren 7koa, *Soering Erresuma Batuaren aurkako* afera, 101 eta hurrengo paragrafoak; 2005ko maiatzaren 12koa, *Öcalan Turkiaren aurkakoa* afera, 58-59. paragrafoa; 2005ko azaroaren 8koa, *Bader and Others Suediaren aurkakoa* afera, 33 y 42-48 paragrafoa; 2010ko urriaren 4koa, *Al Saadon y Mufdhi Erresuma Batuaren aurkako* afera, 143. paragrafoa, eta 2016ko martxoaren 23koa, *F.G. Suediaren aurkako* afera, 156-158. paragrafoa.

248 Ikusi, besteak beste, BEJAEE, 2011ko apirilaren 28koa, *El Dridi* afera, C-61/11, 29-62. paragrafoa; 2014ko ekainaren 5ekoa, *Mohamed Ali Mahdi* afera, C-146/14 PPU, 37. paragrafoa; de 16 de julio de 2015, *Lanigan* afera, C-237/15, 57-63. paragrafoa; 2016ko otsailaren 15ekoa, *J.N. eta Staatssecretaris van Veiligheid en Justitie* afera C-601/15 PPU, 81. paragrafoa; 2016ko otsailaren 15ekoa, *J.N. y Staatssecretaris van Veiligheid en Justitie* afera C-601/15 PPU, 47. paragrafoa; 2016ko apirilaren 5ekoa, *Aranyosi eta Căldăraru aurkako* afera, C-404/15 eta C-659/15 PPU, 81. paragrafoa, eta 2016ko uztailaren 28koa, *J.Z. eta Prokuratura Rejonowa Łódź – Śródmieście,* afera C-294/16 PPU, 48 eta 49. paragrafoa.

249 BEJAE, 2014ko abenduaren 2koa, *A. B. C. eta Staatssecretaris van Veiligheid en Justitie-ren aurkako* afera, metatutako aferak C-148/13, C-149/13 eta C-150/13, 53 eta 73. paragrafoa.

250 BEJAE, 2012ko irailaren 5koa, *Y. eta Z.* afera, metatutako aferak C-71 eta C-99/11, 56. paragrafoa.

Halaber, 24. artikuluak jasotzen ditu *adingabearen eskubideak*[251]; 41. artikulua, *administrazio zuzena izateko* eskubidea arautzen duena. Horrela, nazioarteko babes eskatzaileen kasu partikularrean, harrera Estatuan entzuna izateko eskubidea dakar[252], kontrako eragina duen banan-banakako neurria hartu baino lehen, BEJA-k *Mukarubega*[253]aferan baieztatzen duena:"[J]ustizia Auzitegiak behin eta berriz erabaki duenaren ildotik, defentsa eskubideari errespetua da Batasuneko Zuzenbidearen funtsezko printzipioa, eta horren parte da edozein prozeduratan entzuna izateko eskubidea".

> "Entzuna izateko eskubidea (...) Gutunaren 47 eta 48. artikuluetan jasotzen da, bermatzen duena defentsa eta prozesu inpartzialerako eskubideari errespetua, edozein prozedura jurisdikzionalaren markoan, eta baita ere, 41. artikulua, administrazio zuzenerako eskubidea bermatzen duena. 41. artikuluaren 2. atalak xedatzen du administrazio zuzenerako eskubide honek bere baitan hartzen duela, zehazki, pertsona orok entzuna izateko duen eskubidea kontrako eragina duen banan-banakako neurria hartu baino lehen"[254].

251 BEJAE, 2013ko ekainaren 6koa, *M.A. eta beste batzuk* afera, C-648/11, 57, 59 eta 61. paragrafoak.

252 EBJA-k, *M.* aferan, EBOEH-ko 14. artikuluan xedatzen den entzuna izateko eskubidea garatzen du modu zabalean, errefuxiatu estatutua emateko edo babes subsidiarioen estatutua emateko prozeduretan. Ikusi, EBJAE, 2012ko azaroaren 22koa, *M.* afera, C-277/11, 82-94. paragrafoa.

253 Horrela adierazten du EBJA-k *Boudjlida* afera honela: "2008/115 Zuzentarauak ez du inolako tramite zehatzik aurreikusten hirugarren herrialdeko nazional bati entzuna izateko, itzularazteko erabakia hartu baino lehen". "Kasu honetan, (...) horrelako egoera batean, Batasunaren Zuzenbideak arautzen duena, Estatu kideek Batasuneko ordenamendu juridikoak bermatzen dituen oinarrizko eskubideak aplikatu behar dituzte, besteak beste, entzuna izateko eskubidea, agintari nazionalak pertsona baten kontrako erabakia hartu behar duenean". "Baldintz hauetan, Justizia Auzitegiaren jurisprudentziareki bat, eskubide horren errespetua beti gailendu egiten da, baita ere, aplikagarria den araudiak berariaz ez duenean formalitate hori ez duenean ezartzen". Ikusi, EBJAE, 2014ko abenduaren 11koa, *Boudjlida* afera, C-249/13, 49, 52 eta 53. paragrafoa.

254 BEJAE, 2014ko azaroaren 5ekoa, *Mukarubega* afera, C-166/13, 42-43. paragrafoa. BEJA-k *Boudjlida* aferan ildo beretik ebatzi zuen: "[a]uzitegi organo bidaltzaileak bere lehen gaian entzuna izateko eskubidea aztertzen du, eta Gutunaren 41. artikulua aipatzen du, eta bidezkoa da gogoratzea Justizia Auzitegiak behin eta berriz emandako jurisprudentzian defentsarako eskubidea Batasuneko Zuzenbidearen funtsezko printzipioa dela, eta horietako bat dela prozedura orotan entzuna izateko eskubidea". "Prozedura orotan entzuna izateko eskubidea jasota dago bai Gutunaren 47 eta 48. artikuluetan – defentsa eskubidea eta prozesu inpartzialerako eskubidearen errespetua bermatzen duena edozein prozeduraren markoan -, baita 41. artikuluan ere, administrazio zuzenerako eskubidea bermatzen duena. 41. atikuluaren 2 atalak ezartzen du administrazio zuzenerako eskubideak babesten dituela, zehazki, pertsona orok entzuna izateko duen eskubidearen kontrako eragina duen banan-banakako neurria hartu baino lehen (...)". Ikusi, BEJAE, 2014ko abenduaren 11koa, *Boudjlida* afera, C-249/13, 30-31. paragrafoa.

Halaber, berari dagokion *espedientera sartu ahal izateko eskubidea* ere bere barnean hartzen du, konfidentzialtasunaren interes zilegiaren errespetuaren barnean[255], eta horrekin batera, *defentsarako eskubidea* egikaritzerakoan, agirietan atzemandako *akatsak edo omisioak zuzentzeko eskubidea*[256]. Era berean, kontuan izan behar da *Administrazioak bere erabakiak arrazoitzeko betebeharra,* dagokion gertaerak eta erabakiaren oinarri juridikoak argi azaltzeko[257]. Azkenik, eskatzaileak honako eskubidea du: Batasuneko *erakundeek, organoek eta erakundeek bere gaiak modu zuzen eta inpartzial batean tratatzeko, eta arrazoizko epe baten barruan,* eta baita ere hartzen diren erabakiek *legea oinarritzat izatea*[258]*,* eskubide eta interes zilegiei eragiten baitie[259], eta, azkenik, 47. artikulua, bermatzen dituena *benetako babes judiziala* eta *epaile inpartziala*., Guzti horrek, egituraren konplexutasuna ikusten uzten du, aldi berean eskubide anitzek osatzen dutelako, eta horiek berme espezifiko batzuen babesa behar dute[260]. Alde batetik, xedapen honek pertsona orori *benetako babes judizialerako eskubidea* aitortzen dio, Batasuneko Zuzenbideak bermatutako eskubideak eta askatasunak urratuak izan direnean, eta bertan sartzen da *benetako errekurtsoa izateko eskubidea,* eta horrek eusten du pertsona ororen eskubidea bere itzularazte edo kanporatzeko erabakia edo nazioarteko babes

---

255 Horri dagokionez, auzitegi zehatz batzuen *praxisak* egiaztatzen du kasu askotan Estatuak zigortu direla, oinarrizko eskubideen urraketarengatik, hain zuzen ere, pertsona interesdunari bere itzularazte edo kanporatzearen arrazoien inguruan informazioa ez emateagatik, edo behar bezala ez emateagatik. Hau izango litzateke BEJA-ren kasua, zeinek *Batzordea eta beste batzuk/Kadi* aferan honakoa ondorioztatzen da: "Batasuneko oinarrizko eskubideen Gutunaren 41. artikuluaren 2. atalak (...) bere barnean sartzen du entzuna izateko eskubidea, eta espedientara sartu ahal izateko eskubidea, konfidentzialtasunaren interes zilegiei errespetatuz". BEJAE, 2013ko uztailaren 18koa, *Batzordea eta beste batzuk/Kadi* afera, metatutako aferak C-584/10 P, C-593/10 P eta C-595/10 P, 99. paragrafoa. Halaber, ikusi, BEJAE, 2011ko abenduaren 21ekoa, *Francia/People's Mojahedin Organization of Iran* afera, C-27/09 P, 66. paragrafoa. Baita ere, GEAE-ren kasua izango litzateke, epai houetan: 2007ko abenduaren 6koa, *Liu Errusiaren aurkako* afera, 58. eta hurrengo paragrafoa; 2002ko ekainaren 20koa, *Al Nashif Bulgariaren aurkako* afera, 25 eta hurrengo paragrafoak; 2006ko ekainaren 8koa, *Lupsa Errumaniaren aurkako* afera, 39 eta hurrengo paragrafoak; 2011ko urtarrilaren 11koa, *Musa eta beste batzuk Bulgariaren aurkako* afera, 61 paragrafoa; 2008ko urriaren 2koa, *Rusu Austriaren aurkako* afera, 40-43. paragrafoak; 2008ko urtarrilaren 29koa, *Saadi Erresuma Batuaren aurkako* afera, 84 paragrafoa, 2009ko irailaren 22koa, *Adolkhani eta Karimnia Turkiaren aurkako* afera, 140-142. paragrafoa, eta 2012ko otsailaren 23koa, *Hirsi Jamma eta beste batzuk Italiaren aurkako* afera, 201-207. paragrafoa.

256 BEJA-k, *M.* aferan, honakoa erabaki zuen: "Justizia Auzitegiaren behin eta berriz ezarritako jurisprudentziaren arabera, defentsrakoa eskubidea errespetatzea Batasunaren Zuzenbidearen oinarrizko printzipio bat da (...) zehazki, prozedura orotan entzuna izateko eskubidea oinarrizko printzipioaren parte da. EBJAE, 2012ko azaroaren 22koa, *M*. afera, C-277/11, 81-82. paragrafoa.

257 Ikusi, Council of Europe, *Twenty Guidelines of the Commitee of Ministers of the Council of Europe on Forced Return*, September 2005, Guideline 4 "Notification of the removal order", 18. orrialdea.

258 Horrela, atzerritar bat kanporatzea edo itzularaztea dagokion Estatuaren legeriarekin eta aurreikusitako prozedurarekin bat egin behar da, eta baita ere nazioarteko Zuzenbidearekin bat, bere gain hartutako betebeharrak erabat beteta. Horri dagokionez, *Europako Kontseiluaren Giza Eskubideentzako Batzordeak* baieztatu du erabakia agintari eskudunak egin behar duela, zuzenbide materialaren xedapenekin eta aplikagarriak diren prozedura-arauekin bat. *Cfr. Explanatory Report on Protocol nº 7 to the Convention for the Protection of Human Rights and Fundamental Freedoms*, 9. paragrafoa. Agiria aztertu daiteke honako web orrialdean: http://conventions.coe.int/Treaty/FR/Reports/Html/117.htm (azken kontsultaren data, 2018ko uztailaren 18a).

259 *Cfr.* ÁVILA RODRIGUEZ, C.M., "Administrazio zuzenerako eskubidea": MONEREO ATIENZA, C. eta MONEREO PÉREZ, J.L. (Zuzendariak), *...ko Europa, op. cit.,* pp. 1128-1129.

260 *Cfr.* FAGGIANI, V., "Benetako babes judizialerako eta berme guztiak dituen prozesu baterako eskubidea Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean", *Zuzenbide Europarraren Aldizkari Orokorra*, 33. zk.a, 2014, 6. orrialdea.

eskaera ukatzeko erabakia berraztertzeko eskaera egiteko eskubidea[261]. Bestaldetik, baita ere aurreikusten du *auzi zuzena izateko eskubidea,* oro har honela zehazten dena: modu zuzenean eta publikoki, arrazoizko epe batean, aurretik legez ezarritako epaile independente eta inpartzial batek *bere gaia entzuna izateko eskubidea*[262]. Azkenik, GEHE-ren 47. artikulua azaltzen zaigu xedapen garrantzitsu moduan, defentsa eskubidea lotzen duelako nazioarteko babesa emateko prozeduran atzerritarrek dituzten berme/eskubide prozesal batzuekin, hala nola, *ordezkaritza izateko eta abokatuak laguntzeko eskubidea;* izan ere, aipatzen du pertsona orok aholkua jasotzeko, defendatua eta ordezkatua izateko aukera dituela, bere eskubideak urratu ez daitezen bere jatorrizko herrialdera nahita nahiez itzularazte edo kanporatzerakoan.

2.2. LGBTI+ pertsona errefuxiatuek nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea eta horren txertaketa Europar Batasuneko sistema juridikoan. Asiloari buruzko Sistema Europar Erkidearen iturriak (ASEE)

Nahiz eta *asilo eskubidea* eremu europarrean BE-ko jatorrizko Zuzenbidean adierazpen nagusiena izan, zehazki BEOEH-eko 18. artikuluan, beharrezkoa da aipatzea zuzenbide horrek bere isla izan duela ere *Asilo Sistema Europar Erkidean* (ASEE), eta honen araubidea BEFI-ren V Tituluan kokatzen da (67-89. artikuluak), zehazki, EBFI-ren 78. artikuluan, eta "Askatasun, Segurtasun eta Justizia Espazioari" buruzkoa da, asilo politikari dagokiona; eta honen gainean garatzeko araudi europar oparo bat dago, eta Estatu kideek konpromisoa dute bera inplementatzen laguntzeko. Ildo honetatik, BEFI-ren 67.2 artikuluak oro har xedatzen du BE-k "asilo politika erkide bat garatuko duela (...) Estatu kideen arteko elkartasunean oinarrituko dena, eta hirugarren herrialdeko nazionalentzat bidezkoa izango dena". EBFI-ren 67.2 eta 80. artikuluak batera irakurrita[263], ondorioztatzen da inmigrazio politikek ardaztzat dutela Estatu kideen arteko elkartasun eta arduraren bidezko banaketa printzipioak. Horregatik, ASEE-aren helburu nagusiena da Estatu kideek onartu dezatela nazioarteko babes eskatzaileei modu duinean *harrera emateko ardura partekatua,* eta ziurtatu eskubide eta oinarrizko askatasunei dagokienez tratu egokia emango zaiela, eta haien eskaerak aztertuko direla irizpide orekatuekin, edozein dela nazioarteko babes eskatzaileak bere eskaera aurkezten duen BE-ko lekua. Nolanahi ere, nahiz eta "politika erkidea" terminoa erabili BE-ko asilo politika aipatzeko, eta horrek erakutsi hedatzeko eta koordinatzeko duen bokazioa, gertatzen dena da ez dela BE-ren eskuduntza esklusiboa, baizik eta Estatu kideek eta Batasunak berak partekatuta dutela. Errealitate honen arrazoia da politika honek duen espezifizikotasuna eta konplexutasuna, bere egitura eratzeko eta jardun ardatzak garatzeko; izan ere, Estatu kideek horren aplikazioari buruz kontrola mantentzen dute,

---

261 Ildo honetatik, Europako Kontseiluaren Batzar Parlamentarioaren 1624. zk.ko Gomendioak (2003), egoera irregularrean dauden atzerritarrak aipatuz, aitortu zuen "apelazio organo independiente baten aurrean kanporatu baino lehen errekurtsoa aurkezteko eskubidea eta aukera". *Cfr.* Europako Kontseiluaren Batzar Parlamentarioa, 1624. zk.ko Gomendioak (2003), 2003ko irailaren 30ekoa, 9. paragrafoa. Honi dagokionez, ikusi, BEJAE, 2015ko abenduaren 17koa, *Tall* afera, C-239/14, 58. paragrafoa, eta 2014ko abenduaren 18koa, *Abdida* afera, C-562-13, 53. paragrafoa.

262 *Cfr.* LÓPEZ ESCUDERO, M., "Benetako babes judizialerako eta epaile inpartzilerako eskubidea": MANGAS MARTÍN, A. (Zuzendaria), *...-en gutuna, op. cit.,* 739-758. orrialdeak, eta TRIGUERO MARTÍNEZ, L.A., "Administrazio zuzenerako eskubidea": MONEREO ATIENZA, C. eta MONEREO PÉREZ, J.L. (Zuzendariak), *...ren Europa, op. cit.,* 1241-1246. orrialdeak. Jurisprudentziaren ikuspuntutik, ikusi, BEJAE, 2013ko irailaren 10ekoa, *G. eta R.* afera, C-383/13 PPU, 32. paragrafoa.

263 "Kapitulu honetan aipatutako Batasunaren politikak eta bere ejekuzioaren ardatzak Estatu kideen arteko elkartasun eta arduraren bidezko banaketa printzipioak dira (...)".

eta horri uko egiteko ez daude prest. FERNÁNDEZ ROZAS-en arabera, politika honek desoreka larriak ditu, eta desoreka horiek Estatu kideek haien borondatez sortu dituzte, lehentasuna elementu batzuei eman diete, hala nola, mugen kudeaketa operatiboari, segurtasunari edo legez kanpoko immigrazioa borrokatzeari, asilo eskubidea eta legezko inmigrazioaren kaltetan[264]. DÍAZ LAFUENTE-k ere honakoa baieztatu du: BE-ko migrazio politikak asilo politika zurrupatu du, eta hortaz, eta zoritxarrez, pertsona fluxuak kontrolatzeko ikuspuntu ekonomizista gailendu da, eta ez politika humanitarioa eta garapenari buruzkoa. Horri gehitu behar zaio Estatu kideek beldurra diotela asilo eskubidearen "abusuari" eta *dei efektuari,* hain zuzen ere, eskubide honek nazioarteko babesa eskatzeko zilegitasuna duten beste pertsonengan izan dezakeen eraginari. Ondorioz, horrek guztiak asilo eskubidearen murriztapen interesatu bat eragin du. Hori duela urte batzuetako joeraren ildotik doa, hain zuzen, gotorleku europar bat eraikitzearena, Europaren existentzia eusten duten oinarrizko baloreekin kontraesanean[265]. Halere, asilo arloan ikuspuntu koherente bat ezartzeko beharrezkoa da Estatu kideek eta Batasunak berak nazioarteko babesa behar duten pertsona errefuxiatuei bereziki eragiten dien araudiaren xedapenekin errespetu eta konpromiso handiagoa erakustea, besteak beste, LGBTI+ pertsonei. Ildo horretatik, BEFI-eko 67.1 artikuluak adierazten du:"[B]atasunak askatasun, segurtasun eta justizia espazio bat eratzen du, eta Estatu kideek oinarrizko eskubideak eta sistema eta tradizio juridikoak errespetatuta".

Horregatik, aipatu dugun bezala, Estatu kideek asilo arloan arau europarren exekuziorako duten maniobra-tartea oinarrizko eskubideak errespetatzeko betebeharrak ezartzen du[266], Batasunaren Zuzenbidearekin bat; eta baita ere, giza eskubideen nazioarteko Zuzenbidea, 1951ko Genevako Konbentzioa, GEHE eta BEOEH-rekin bat. Baina, pertsonak babesten dituen asilo arloko Batasunaren politika eta oinarrizko eskubideen eragina aztertzerakoan, beharrezkoa da bereizketa bat egitea: "Batasuneko Estatu kideetako nazionalei" [267] emandako trataera juridikoa, eta "hirugarren herrialdeetako nazionalei" emandakoa. Azken talde honetan zentratuko da azterlan hau, izan ere, hirugarren herrialdeetako nazionalek ez dute Estatu kideetan sartzeko eskubide bat aitortuta. Eskubide hori baldintzatuta dute, eta Batasunak asilo eta inmigrazio arloan dituen politikak ezarritako baldintzak bete beharko dira, eta horregatik, kanpo mugan kontrol espezifikoak eta zuhurragoak jasan beharko ditu baldintza horiek ematen diren ala ez egiaztatzeko[268].

---

264 *Cfr.* FERNÁNDEZ ROZAS, J.C., "Batasun Europarrean mugen kontrola, asiloa eta inmigrazioa: konpondutako eskumen liskarra", *Estatuaren berrikuntzarako memoriala. Santiago Muñoz Machado irakaslearen omenezko azterlanak*, t. I, Ikasketa Konstituzionalen Zentroa, Madrid, 2016, 360. orrialdea; QUINDIMIL LÓPEZ, A., "Batasun Europarra, Frontex eta itsas-mugetan Segurtasuna. ¿Itsasoan segurtasun eredu europar gizatiarragoruntz?, *Zuzenbide Komunitario Europarraren Aldizkaria (ZKEA)*, 41. Zk.a, urtarrila/apirila 2012, 57-118. orrialdeak, eta CANO LINARES, M.A., "Batasun Europarraren kanpo mugen kudeaketa migrazio eta segurtasun erronken aurrean", Migrazio eta Atzerritarren Zuzenbidearen *Aldizkaria*, 44. zk.a, urtarrila-apirila 2017, 1-30. orrialdea.

265 *Cfr.* DIAZ LAFUENTE, J., *…asiloa eta babeslekua, op. cit.,* 125-126 orrialdeak.

266 *Cfr.* SCUTO, F., *I diritti fondamentali della persona quale limite al contrasto dell'immigrazione irregolare*, Giuffrè, Milan, 2012.

267 Kontuan izan, ondorio hauetarako, 2004/38/KE Legebiltzar Europarra eta Kontseiluaren Zuzentaraua, 2004ko apirilaren 29koa, *Batasuneko herritarren eta hauen senideen eskubidea Estatu kideen lurraldeetan libre zirkulatzeko eta bizitzeko eskubidei buruzkao*. *DO*, L 158, 2004ko apirilaren 30ekoa.

268 Ildo honetatik, ikusi, DONAIRE VILLA, F.J., "Eskubideak Askatasun, Segurtasun eta Justizia Espazioan": GOIZUETA VÉRTIZ, J. eta CIENFUEGOS MATEO, M., *BE-ko oinarrizko eskubideen eragina*, Thomson Reuters Aranzadi, Zizur Nagusia, 2014, 337-338. orrialdeak

Horrek guztiak justifikatzen du azterlan honek aztertu behar izatea BE-k ordenamendu juridikoaren barnean asilo eskubideari ematen dion trataera, eta halaber, oinarrizko eskubide zehatz batzuei ematen dien trataera; eta batzuetan, eta kasu zehatz honetan, nazioarteko babes eskatzaileen LGBTI+ pertsonen kanporatze, itzularazte edo estradizio prozeduretan oinarrizko eskubideei eragiten die. Bertan azpimarratzen da berme oinarrizkoenak falta ohi direla, eta askotan eskubide eta askatasun oinarrizkoenak urratu ohi direla.

Ildo honetatik, asiloa atzerritar edo aberrigabeei ematen zaien babes modu bat da honako kasuetan: ihes egiten dutenak jazarpena jasateko ganorazko beldurrarengatik, eta/edo jatorrizko herrialdera itzuliko balira kalte larriak benetan jasateko arriskuarengatik.

Pertsona hauek babesteko BE-ren *betebeharra* BEFI-ren 78.1 artikuluan xedatzen da:

> "*[B]atasunak asiloa, babes subsidiarioa eta aldi baterako babesaren arloan politika erkide bat garatuko du, eta horren helburua da estatutu egoki bat eskaintzea hirugarren herrialdeko nazional orori, nazioarteko babesa eta ez itzularazteko printzipioaren errespetua bermatzeko beharra duenari.* Politika hori 1951ko uztailaren 28ko Genevako Konbentziora, eta 1967ko urtarrilaren 31ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Protokolora egokitu behar da, eta baita ere, bidezkoak diren gainerako itunetara"[269].

Hori irakurrita ondorioztatzen da ASEE-k hiru babes maila dituela[270], eta bi lehenak Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko abenduaren 13ko 2011/95/BE Zuzentarauan aurreikusten direla. Horren bitartez, *arauak ezartzen dira hirugarren herrialdeetako nazionalak edo aberrigabeak nazioarteko babesaren onuradunak izateko baldintzei buruz, eta baita ere, errefuxiatuentzat edo babes subsidiariorako eta babesaren edukierarako eskubidea duten pertsonentzat estatutu uniforme bati buruz* ("aitorpenerako baldintzei buruzko Zuzentarau")[271], hau da, errefuxiatu estatutua[272]; eta pertsona onuradunek, 1951ko Genebako Konbentzioko 1.A.(2) [273] artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte; eta "babes subsidiarioa" - babes bat da hirugarren herrialdeko pertsona nazional bati edo aberrigabe bati ematen zaiona, errefuxiatua izateko baldintzak betetzen ez dituelako, aipatutako artikuluaren arabera[274];

---

269 Artikulu horretan ezarritakoari jarraituz, BEFI-ren 80. artikuluak honakoa xedatzen du: "kapitulu honetan aipatutako Batasunaren politikak, eta horien exekuzioa, Estatu kideen arteko elkartasun eta arduraren bidezko banaketaren (…) printzipioekin arautuko dira".

270 Horien azterketa xehekatu baterako, ikusi, BOU FRANCH, V., "Europar Batasuneko migrazio politikaren aplikazio praktikoa.": REIG FABADO, I., *Zirkulazio, asilo eta babeslekua Batasun Europarrean,* Tirant lo Blanch, Valentzia, 2014, 235. orrialdea.

271 *DOUE*, L 337, 2011ko abenduaren 20koa.

272 2011/95/BE Zuzentarauaren 21. zk.ko Arrazoiak, ENBGK-ren ildotik, aitortza hori "ekintza deklaratibotzat" kalifikatzen du.

273 ENBGK-kin bat, 2011/95/BE Zuzentarauaren 29. zk.ko Arrazoiak xedatzen du: "[e]rrefuxiatu estatutua aitortzeko baldintzetako bat da (Genevako Konbentzioaren 1. artikuluko A sekzioaren ildotik) kausazko lotura bat egotea, jazarpen arrazoien (hala nola, arraza, erlijioa, nazionalitatea, iritzi politikoak edo giza talde zehatz bateko kidea izatea), eta jazarpen ekintza edo ekintza horien aurkako babes ezaren artean".

274 Nolanahi ere, 2011/95/BE Zuzentarauaren 33. zk.ko Arrazoiak argi uzten du: "[b]abes subsidiarioa, Genevako Konbentzioan jasotako errefuxiatuen babesaren osagarria eta gehigarria izan behar du."

ganorazko arrazoiak egon behar dute pentsatzeko aipatutako Zuzentarauaren 15. artikuluan[275] araututako kalte larriren bat jasateko benetako arriskua izango lukeela bere jatorrizko herrialdera, edo aberrigabe baten kasuan, bere aurreko bizilekuaren herrialdera bueltatzekotan, eta ez badu nahi, edo ezin badu arrisku horrengatik herrialde horretako babesa eskatu. BE-ren esparruan, bi izan dira LGBTI+ pertsona errefuxiatuen babesa aitortzeko bide nagusiak: alde batetik, sexu bereko adinez nagusiek libreki izandako sexu ekintzak zigortzen diren herrialdeetan, eskatzaileari banan banako jazarpen bat frogatzea ezinezkoa izan zaionean; eta bestaldetik, eta ohikoagoa dena, SOGI-arenatik torturak jasan dituela edo jasateko arriskua duela egiaztatzen den kasuan[276].

Azkenik, "aldi baterako babesa", 2001/55/KE Zuzentarauaren 2. a) artikuluan xedatzen dena: *desplazatutako pertsona jario masiboen kasuan aldi baterako babesa emateko arau minimoei buruzkoa*[277]; ohiz kanpoko izaerako prozedura bat da, honako kasuetarako sortu dena: jatorrizko herrialdeetatik desplazatutako eta haien herrialdera itzuli ezin daitezkeen pertsonen etorrera masiboen edo berehalako etorrera masiboen kasuan, berehalako eta aldi baterako babesa ematea bermatzeko. Zehazki, kasu honetan: "baita ere asilo sistemak pertsona fluxu hau kudeatu ezin izateko arriskua eduki dezake, eta bere funtzionamendu zuzenarentzat, eragindako pertsonen interesarentzat, eta babesa eskatzen duten beste pertsonentzat kontrako eragina izan dezake".

Eta, *eskubide* moduan, BEOEH-ren 18. artikuluak[278], EBOEH-ren 19.2 artikuluarekin lotuta, itzularazteko debekua ezartzen du erabateko izaerarekin, eta baterako interpretazio uniforme batekin, BEFI-ko 78. 1 artikuluarekin bat, Batasunaren arlo honetako Zuzenbide guztia informatu behar du, eta, zehazkiago, ASEE-a. Arlo honetako praktikaren ondorioz, badago Batasunaren ondare garrantzitsu bat asiloaren arloan, ez itzultzearen printzipioak ezinbestean lotzen duena, eta nazioarteko babesa bilatzen duten LGTBI+ pertsonak babesten dituena, eta ondoren garatuko dena.

---

275 Ikusi, 2011/95/BE Zuzentarauaren 2. f) artikulua. Interesgarria da azpimarratzea, BEJA-ko *El Kott eta beste batzuk* afera, non argi uzten duen: "2004/83 Zuzentarauak [egungo 2011/95/BE] (Genevako Konbentzioak dioenaren kontra, soilik errefuxiatuen estatutua arautzen duena) bi babes araudi desberdinak ezartzen ditu, alde batetik, errefuxiatu estatutua, eta babes subsidiarioak ematen dion estatutua" eta "babes subsidiariorako eskubidea duen pertsona da "errefuxiatua izateko baldintzak betetzen ez dituena". BEJAE, 2012ko abenduaren 12koa, *El Kott eta beste batzuk* afera, C-364/11, 66. paragrafoa.

276 *Cfr*. TSOURDI, E, *Guidelines transposition of the Asylum Qualification Directive*: *Protecting LGBTI asylum seekers*, ILGA Europe, 2011, 11. orrialdea.

277 *DO*, L 212, 2001ko abuztuaren 7koa. Aldi berean, Zuzentarau honek "etorrera masiboa" terminoa 2. d) artikuluan definitzen du: "Komunitatera desplazatutako pertsona kopuru handi bat iristen denean, herrialde edo eremu geografiko zehatz batetik datozenak, eta berdin du etorrera hori berez izan baldin bada, edo laguntzarekin, ebakuazio programa baten ondorioz, esate baterako".

278 "Asilo eskubidea bermatzen du, 1951ko uztailaren 28ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioaren eta 1967ko urtarrilaren 31ko Protokoloaren arauak errespetatuta, eta Komunitate Europarraren eratze Ituna". Asiloa garatzen dituzten arau nazionalak dira: 12/2009 Lege Organikoa, *asiloa eta babes subsidiarioa arautzen duena*. *BOE*, 263. zk.a, 2009ko urriaren 31koa; 203/1995 Errege Dekretua, otsailaren 10ekoa, zeinaren bidez onartu zen 5/1984 Legearen aplikazioarako Erregalamendua, martxoaren 26koa, *asilo eskubidea eta errefuxiatu kondizioa arautzen dituena*, 9/1994 Legeak aldatutakoa, maiatzaren 19koa. *EBO*, 52. zk.koa, 1995ko martxoaren 2koa; 1325/2003 Errege Dekretua, urriaren 24koa, *zeinaren bitartez pertsona desplazatuen etorrera masiboen kasuetarako aldi baterako babes araudiari buruzko Erregalamendua onartzen zuena*. *EBO*, 256. zk.koa, 2003ko uriaren 25ekoa, eta 865/2001 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, *aberrigabeen estatutuaren aitortzari buruzko Erregalamendua onartzen duena*. EBO, 174. zk.a, 2001ko uztailaren 21ekoa.

2.2.1. SOGI-arengatiko asilo eskubidea aitortzea, eta babes subsidiarioa ematea 2011/95/BE Zuzentarauan, hirugarren herrialdeetako herritarrak edo aberrigabeak nazioarteko babesaren onuradun moduan aitortzeko

LGBTI+ pertsona bat Batasunean nazioarteko babesaren onuradun izateko abiapuntua 1951ko Genevako Konbentzioa eta 1967ko New Yorkeko Protokolo gehigarria dira, eta Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/95/UE Zuzentarauaren bitartez BE-ko Zuzenbidean sartu da. Zuzentarau horretan *hauetarako betebeharrak ezartzen dira: hirugarren herrialdeetako nazionalak edo aberrigabeak nazioarteko babesaren onuradun aitortzeko, errefuxiatuentzat estatutu uniforme baterako, edo babes subsidiariorako eskubidea duten pertsonentzat, eta babes horren edukitarako*[279]. Ildo honetatik, ez dago esan beharrik Estatuek Zuzentarau honen xedapenak aplikatzerakoan kontuan izango dutela, eskatzailearen egoeraren banan-banakako azterketa bat egin ondoren, pertsona kalteberen behar zehatzak, hala nola, "adingabeak, lagundu gabeko adingabeak (Zuzentarau honen bidez "haurraren interes hobeagoa" lehentasunez kontuan izango da Estatuek nazioarteko babesa aitortzeko orduan)[280], (...) gaitz psikikoak dituzten pertsonak, eta *torturak, bortxaketak edo beste bortizkeria psikologiko, fisiko edo sexualak izan dituzten pertsonak*" (20. artikulua), eta hor sartzen ditugu LGBTI+ pertsonak. Halere, Estatu kide desberdinetako SOGI-rengatik asiloa emateko prozeduren arteko desberdintasuna, egun ASEE-ren erronka handienetakoa izaten jarraitzen du.

a) SOGI-aren aitortza BE-ren asilo araudian, hain zuzen, gizatalde zehatz bateko kide izateagatik xedatzen duen zioan.

Ondorioztatzen da aipatutako Zuzentarauak 1951eko Genevako Konbentzioaren 1.A. (2) artikuluan xedatutakoa kontuan hartu duela bere 10. artikuluan honakoak xedatuta: alde batetik *jazarpen arrazoiak* jasotzen ditu, "arraza, erlijio, nazionalitatea, iritzi politikoak edo giza talde bateko kidea izatea"[281]; baina ez du berariaz aipatzen sexu-orientazioa jazarpen arrazoi autonomo moduan[282]; bestalde, *jazarpena jasateko ganorazko beldurraren* elementua jasotzen da kasu honetarako: pertsona errefuxiatuak "ezin duenean edo, jazarpena jasateko beldur horrengatik, herrialde horren babesa ez duenean eskatu nahi"[283]. Elementu hauek, baita ere, hedatu daitezke pertsonak jatorrizko herrialdea utzi zuenetik izandako gertaeretara (5.1 artikulua), eta halaber, herrialdetik ihes egin duenetik parte hartu duen jardueretara, zehazki, egiaztatzen bada jatorrizko herrialdean izan zituen konbikzio edo orientazioen adierazpenean eta jarraipenean oinarritzen direla (5.2 artikulua).

---

279 *DOUE*, L 337, 2011ko abenduaren 20koa.

280 Kontuan izan 2011/95/BE Zuzentarauaren 18., 27. eta 28. zk.ko Arrazoiak, non aipatzen diren ondorio hauetarako "Estatu kideek kontuan izan ditzatela haurren aurkako jazarpenaren modu espezifikoak".

281 Ikusi, BEJAE, 2013ko azaroaren 7koa, *X. eta beste batzuk* afera, metatutako aferak C-199/12-tik C-201/12-ra. Dotrinaren ikuspuntutik, ikusi, BOLLO AROCENA, M.D., "BEJA-ren (Laugarren Sala), 2013ko azaroaren 7koa (metatutako aferak C-199/12-tik C-201/12-ra): sexu bereko pertsonen arteko adostutako harremanak kriminalizatzen diren herrialdeetatik ihes egiten duten homosexualak babesteko benetako urratseruntz?, *Aranzadi Aldizkaria. Batasun Europarra*, XL Urtea, 1. Zk.ko, 2014ko urtarrilekoa, 133-137. orrialdeak.

282 *Cfr.* TSOURDI, E., "Sexu-orientazioa eta genero-identitatea: BE-ko legerian aurrerapausuak", *Behartutako Migrazioen Aldizkaria*, 42. zk.a, 2012 maiatza, 20. orrialdea.

283 Ikusi, 2011/95/BE Zuzentarauaren 2. artikuluko d) y f) atalak.

Itzularaztearen (*refoulement)* aurkako babesa (hau da, pertsona batek, jazarpen horietatik ihesean, harrera herrialdean sartu ondoren nazioarteko babesa eska ahal izatea, eta itzularazia edo kanporatua ez izatea) 21. artikuluak xedatzen du, eta berariaz ez itzularazteko printzipio humanitarioa arautzean: "[E]statu kideek errespetatuko dute ez itzularazteko printzipioa, nazioarteko bere betebeharrekin bat"[284]. Halere, 1951ko Genevako Konbentzioak ez bezala, Zuzentarau horrek bai jasotzen duela berariaz SOGI-arengatik jazarpen arrazoia *giza talde zehatz* kontzeptuan sartuta. Nahiz eta ENBGK-k azpimarratu zuen beste arrazoi batzuk ere garrantzitsuak izan zitezkeela nazioarteko babes eskaera aztertzerakoan, herrialdeko testuinguru politiko, erlijioso, kulturalaren arabera. Pentsa LGBTI+ pertsonen eskubideen defendatzaileak Estatu baten agintariek jazarpena egiten dietena, ez bakarrik LGBTI+ kolektiboko partaide direlako, baizik eta haien iritzi politikoengatik[285]. Ildo honetatik, 10.1 artikuluko d) atalak ezartzen du:

> "Jatorriko herrialdean dauden gorabeheren arabera, giza talde zehatzaren kontzeptuan sar liteke *sexu-orientazioko* ezaugarri komun batean oinarritutako talde bat. Sexu-orientaziotzat ezingo dira ulertu Estatu kideen legeri nazionalek delitutzat jotzen dituzten ekintzak. Pertsonaren sexuarekin zerikusia duten alderdiak, *genero-identitatea* barne, kontuan behar bezala izango dira, giza talde zehatz bateko kidea dela zehazteko, edo talde horretako ezaugarri baten identifikaziorako"[286].

Xedapen horrekin bat, Estatu kideak behartuta daude haien legedi nazionaletan LGBTI+ pertsona errefuxiatuei SOGI-rengatik nazioarteko babesa emateko aukera aitortzea. Ondorioz, asilo prozeduran zehar giza talde zehatz bateko kide dela egiaztatzeko, Zuzentarauak bi irizpide ezartzen ditu: alde batetik, talde hori osatzen duten pertsonek partekatzea *berezko ezaugarri bat edo aurrekari komunak, alda ezin daitezkeenak*, edo ezaugarri edo sinesmen bat partekatzea, *bere identitatearentzat edo kontzientziarentzat ezinbestekoa* dena, eta horri uko egitea ezin dena behartu; eta beste alde batetik, talde horrek dagokion herrialdean *identitate bereizgarria* izatea, inguruko gizarteak desberdintzat atzematen duelako (10.1. artikuluaren d) atala)[287].

Gure iritziz, jazarleak atzematen badu pertsona batek ezaugarri zehatz bat duela, eta jazarpena egitea erabakitzen badu - kasu honetan SOGI-arengatik -, ez du garrantzirik ezaugarria benetan duen ala ez, eta giza pertzeptzioa nahikoa izan beharko luke. ENBGK-k ezartzen duen moduan, irizpide horiek modu ezberdin erabili behar dira, eta ez modu metagarrian. Horrela, kasuz kasu frogatu ondoren pertsona errefuxiatuak gay, lesbiana, bisexuala, trans edo intersexualak

---

284 Kontuan izan, ondorio hauetarako, 2011/95/BE Zuzentarauaren 48. Arrazoiak honakoa diola: "[b]idezkoa da aldiro Zuzentarau honen aplikazioaren ebaluazioa egitea, aintzakotzat hartuta, zehazki, ez itzultzearen arloan Estatu kideen nazioarteko betebeharren bilakaera (…)".

285 *Cfr*. ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak, 9 zk.ko…, op. cit.*

286 Ondorio hauetarako kontuan izan, 2011/95/EB Zuzentarauaren 30. zk.ko Arrazoia: "[b]eharrezkoa da baita ere jazarpenaren arrazoiaren kontzeptu komun bat ezartzea: "giza talde zehatz bateko kidekoa izatea". Giza talde zehatz bat definitzeko, kontuan hartu beharko dira behar bezala eskatzailearen sexuarekin erlazioatutako gaiak (genero-identitatea eta sexu-orientazioa barne hartuta), erlazionatuta badaude eskatzaileak jazarpena jasateko duen ganorazko beldurrarekin (…)".

287 Ikusi, BEJAE, 2013ko azaroaren 7koa, *X. eta beste batzuk* afera, metatutako afera C-199/12-tik C-201/12-ra. Ikuspuntu doktrinaletik, ikusi, BOLLO AROCENA, M.D., "JA epaia…", *op. cit.*, 43-48. Paragrafoa, eta DIAZ LAFUENTE, J., *Asiloa eta babeslekua…, op. cit.,* 133-137. paragrafoa.

izateagatik jatorrizko herrialdean giza talde zehatz bat osatzen dutela, Estatu kideen legeriak nazioarteko babesa aitortzea ahalbideratu behar du[288].

Nolanahi ere, komeni da azpimarratzea errefuxiatu estatutuaren edo SOGI-rengatik babes subsidiarioaren aitorpena Zuzentarauan jaso dela modu hertsian eta baldintzatuta, eta gure iritziz, LGTBI+ kolektiboko balizko pertsona errefuxiatu guztientzat dei efektua geldiarazten saiatzeko: bai arrazoi horiengatik jatorrizko herrialdean jazarpena jasan edo jasateko beldurra dutenak, eta baita, asilo eskubidea neurri gabe erabili lezaketenak, benetan jazarpenik jasan ez dutelako, edo benetan kolektibo horretako kide ez delako[289].

Lehen murriztapena 10.1 artikuluaren 10.1 artikuluko d) atalean jasotzen da, eta horren bitartez, sexu-orientazioa sar daiteke giza talde zehatza kontzeptuaren barruan "[j]atorrizko herrialdean nagusi diren zirkunstantzien arabera"; eta praktikan behartzen dute nazioarteko babes eskaeraren azterketaren arduradunak izango diren Estatu kideetako agintari nazionalek herrialde bakoitzeko LGBTI+ pertsonei emandako trataerari dagokion egoera zehatzaren ezagutza izatea (beharrezkoa eta nahikoa). DÍAZ LAFUENTE-ren arabera, honek "askotan balio izan du justifikatzeko nazioarteko babes eskaerak sistematikoki ukatzeko", gainera, "jazarpena baloratzea jatorrizko herrialdean nagusi diren zirkunstantzien arabera, diskriminatu egiten ditu sexu-orientazio eta genero-identitatea, nazioarteko babeserako beste arrazoien aurrean: arraza, erlijioa, nazionalitatea edo iritzi politikoa, eta horien kasuan ez da jazarpenaren testuinguruaren zehaztapena eskatzen"[290].

Bigarren murrizketa jasotzen da – dotrinak ez beharrezkotzat, anbiguotzat, eta argiki diskriminatoriotzat jo duena -, halaber, 10.1 artikuluko d) atalean honela: "[s]exu-orientaziotzat ezingo dira ulertu Estatu kideen legeri nazionalek delitutzat jotzen dituzten ekintzak". Jakina da BE-n ez direla delituzko ekintzatzat joko sexu bereko pertsona adinez nagusiek izandako sexu harremanak. Gainera, atal hau anbiguoa da eta nabarmenki diskriminatzailea; izan ere, sexu-orientazioak ezin du ondorio bezala ekarri inolako delituzko jarrerarik, Estatu kideetako ordenamendu juridikoetan delitutzat tipifikatzen direnetakoa. Aldiz, ematen du hori dela legegile europarrak ez duelako ezagutzen orientazioa terminoaren izaera eta edukia, ENBGK-ren *Nazioarteko Babesari buruzko Ildoen* 9. zk.an jasotzen dena: "pertsona bakoitzak duen gaitasuna bere generokoak ez diren pertsonengatik erakargarritasun emozional, afektibo eta/edo sexual sakon bat izateko, edo genero berekoengatik, edo genero bat baino gehiagorengatik, eta halaber, pertsona horiekin harreman intimoak eta sexualak mantentzeko gaitasuna"[291]. Horrek bultzatzen du legegile europarrak berak aurreiritzi diskriminatzaileak izatera, eta zeharka lotzen ditu sexu-orientazioa eta Europan zigor arloan tipifikatutako jarrerak, eta azken horietan berdin da ekintza horiek egin dituen pertsonaren sexu-orientazioa[292].

---

288 *Cfr.* ENBGK, *Naziaorteko babesari buruzko ildoak 9. zk.koa…, op. cit.,* 44. paragrafoa. Halaber, ikusi, TSOURDI, E, *Guidelines transposition of…, op. cit.,* 9. orrialdea.

289 *Cfr.* DIAZ LAFUENTE, J., *Asiloa eta babeslekua…, op. cit.,* 135-136. paragrafoa.

290 *Ibídem.*, 136. orrialdea.

291 *Cfr.* ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak, 9. zk.ko…, op. cit.*

292 *Ibídem.*, 136-137. orrialdeak.

b) Pertsekuziotzat jotzen diren ekintzen izaera. Herrialde barneko ihesaldiaren alternatibaren betekizuna eremu europarrean

Zuzentarauak, jasandako jazarpen edo jasateko beldurra dagoen kasuei dagokionez, irizpide minimoak ezartzen ditu bai jazarpenaren izaerari buruz, eta baita, horiek eragin behar dituzten arrazoiei buruz, eta nazioarteko babesa aitortza justifikatzen dutenak, eta hortaz, jatorrizko herrialdera itzularaztea debekatzen du. Ildo honetatik, 9. artikuluak azpimarratzen du *jazarpen ekintzak* izango direla: "bere izaerarengatik edo behin eta berriz gertatu direlako nahiko larriak direnak; oinarrizko giza eskubideen urraketa larritzat jotzeko modukoak direnak, zehazki, salbuetsi ezin daitezkeenak [GEHE-ko] 15. artikuluko 2. atalaren arabera (9.1. a) artikulua), hau da, ekintzak modu larrian edo behin eta berriz, bizitza eskubidea urratzen dutenak, tortura, zigor edo tratu inhumanoak edo umiliagarriak eragiten dituztenak, eta esklabotza edo morroitza motaren bat eragiten dutenak; eta baita ere neurri metaketak ulertzen dutenak: "giza eskubideen urraketak barne, nahiko larriak direnean, eta pertsona bati lehen aipatutako eskubideen urraketek bezala eragiten diotenean" (9.1. artikuluko b))[293].

Xedapen honen inguruko eztabaida zentratzen da ea diskriminazio ekintza larriek oinarrizko eskubide sozialak urratu ditzaketen – hala nola, osasun-laguntzarako, enplegurako edo etxebizitzarako eskubideak, LGBTIfobiazko arrazoiengatik LGBTI+ pertsonek askotan jasaten dutena –; hau da, ea nahiko larritasun duten jazarpen ekintzatzat jo daitezkeen nazioarteko babesa emateko moduan. Batasuneko araudiak onartzen du pertsona bati nazioarteko babesa aitortzeko aukera onartzea kasu hauetan: oinarrizko eskubideen urraketaren diskriminazio maila parekatu daitekeenean bizitza eskubidearen urraketarekin edo torturak tratu inhumano edo umiliagarriak eragitearekin. Baieztatutakoa juridikoki oinarritzeko, zehazki, aipatutako Zuzentarauaren 16. zk.ko Arrazoiak BEOEH-ren 21. artikulua aipatzen du, diskriminazio oro debekatzen duena, besteak beste, sexu-orientazioko arrazoiengatik.

Bestalde, nobedade moduan eta lehen atalaren ondorio moduan, 9. artikuluak, bere bigarren atalean zerrenda batean ezartzen du *jazarpen itxura izan dezaketen neurri eta ekintza* multzo bat *numerus apertus* moduan, eta errefuxiatu Estatutua eskatzeko beharra ezartzen da, hala nola, bortizkeria fisiko edo psikikoa, eta baita ere, sexu bortizkeria ekintzak; lege neurriak, administrazioarenak, poliziarenak edo judizialak, horiek denak berez diskriminatzaileak direnak edo diskriminazioz aplikatzen direnak; auzipetze edo zigorrak, neurriz kanpokoak edo baztertzaileak direnak[294]; babes judiziala ukatzea, eta hortik zigor desproportzionatuak edo diskriminatorioak ondorioztatzea; konfliktu unean soldaduskari uko egiteagatik auziperatzea edo zigorrak, edo bere sexuarengatik edo adingabeak izateagatik eraso egitea. Babes subsidiarioaren kasurako, ordea, 15. artikuluak bereizten eta aipatzen ditu *kalte larriak*, babes subsidiarioa izateko eskubidea sortze aldera, eta aipatzen du modu mugatuan: a) heriotz zigorra ezartzea edo bere exekuzioa, edo b) tortura edo zigor edo tratu inhumano edo umiliagarria, eskatzaile bati

293 Halaber, BEJA-k ezarri du errefuxiatu kondizioa lortzeko eskaera bat aztertzen denean, agintari eskudunek ezin dutela zentzuzki espero jazarpen arriskua ekiditeko nazioarteko babes eskatzaileak bere jatorrizko herrialdean bere homosexualitatea ezkutatzea edo bere sexu-orientazioa diskrezioarekin bizitzea. EBJAE, 2012ko irailaren 5ekoa, *Y. eta Z.* aferak, metatutako aferak C-71/11 eta C-99/11, 72 eta 80. paragrafoak.

294 Ikusi, EBAEE, 2015ko otsailaren 26koa, *Shepherd* afera, C-472/13, 47 eta 56. paragrafoa.

bere jatorrizko herrialdean[295], edo c) zibil baten bizitzaren edo integritate fisikoaren kontrako mehatxu larriak eta bana-banakoak, bortizkeria indiskriminatuak eraginda, nazioarteko edo barneko gatazga armatuen egoeran"[296].

Beste aldetik, *jazarpenaren eragileen edo kalte larriak sortu dituztenen inguruan,* Zuzentarauak, ENBGK-k xedatutakoarekin bat egiten du bere *Errefuxiatu baldintza zehazteko prozedura eta irizpideen eskuliburuan,* eta halaber, GEAE-ren arlo honetako jurisprudentzia berresten du, bere 6. artikuluan errekeritzen baitu BE-ko Estatu kideek nazioarteko babesa emateko, jazarpena *jatorrizko edo bizilekuko Estatuak* exekutatu behar duela; Estatua edo bere lurraldeko zati handi bat kontrolatzen duten *alderdi edo nazioarteko erakundeek*[297]; edo *Estatuz kanpoko eragileek* (partikularrak). Horiek denak egiaztatu baldin badaiteke aurreko eragileek ezin dutela, edo ez dutela nahi babesa eskaini, arauak zehaztutako jazarpen edo kalte larrien kontra. LGBTI+ pertsonek aukera hori jasan ohi dute, izan ere, azterlan honen lehen kapituluan adierazi zen moduan, horietako asko ekintza bortitzen biktima dira, giza taldeek edo bere familiaren inguruneak egindakoak.

Horregatik BEAE-k, *Abdulla eta beste batzuk* aferan, aipatzen ditu *egiteko betebehar positiboak*, kasu honetan, hirugarren pertsonetatik babesteko; eta ondorioztatzen du bai Estatuak, eta baita Estatua edo bere lurraldeko zati handi bat kontrolatzen duten alderdi edo erakundeek, nazioartekoak barne, jazarpenari edo kalte larriei aurre egiteko - 2011/95/EB Zuzentarauaren 7.1 artikuluarekin bat - honakoa behar da: *arrazoizko gaitasun eta borondate maila bat izatea, jazarpen ekintzak sahiesteko modukoak*, eta jazarpena sahiesteko beharrezko neurriak hartu behar dira, hala nola, pertsona interesatuarentzat eskuragarri den benetako sistema juridiko bat - jazarpen ekintzak atzemateko, segitzeko eta zigortzeko -, eta betebehar batzuk betetzea, hala nola, agintaritza izan, antolaketa egitura bat, eta beharrezkoak diren baliabideak, eskatzailearen nazionalitateko herrialdean zuzenbide eta ordena minimo bat mantentzeko[298].

Horregatik, Estatu kideek nazioarteko babes eskaera baloratzerakoan, erabaki dezake eskatzaileak ez duela nazioarteko babesa behar, eta ondorioz, bere jatorrizko herrialdeko zati batean *barne babesa* figurari heldu diezaiokeela: a) jazarpena jasateko ganorazko beldurrik ez badu, edo kalte larriak jasateko benetako arriskua ez badago, edo b) jazarpena edo kalte larrien kontrako babesa eskuratzeko aukera badu (...), eta herrialde horretako alde horretara segurtasunez eta legalki bidaiatu badezake, eta bertan onartua izan daiteke, eta arrazoizkoa da pentsatzea bertan geldituko daitekeela (8.1 artikulua). Ildo honetatik, Estatuek kontuan izango dute eskaera erabakitzerakoan herrialde horretako zati horretan nagusi diren zirkunstantzia orokorrak eta eskatzailearen gorabehera pertsonalak. Bermatu behar da eskuratutako

---

295 EBAE-k, *M'Bodj* aferan, ezarri zuen: "[2]004/83 Zuzentarauaren 15. artikuluaren b) letra interpretatzeko beharra [egungo 2011/95/BE] Gutunaren 19. artikuluko 2. atalaren arabera, (...) zeinaren bidez inor ezingo da Estatu batera itzularazi, bertan tratu inhumano edo humiliagarriak jasateko arrisku larria duenean, eta aintzakotzat hartuta GEHE-ren 3. artikulua". BEAEE, 2014ko abenduaren 18koa, *M'Bodj* afera, C-542/13, 38. paragrafoa. Halaber, ikusi, BEAEE, 2012ko abenduaren 12koa, *El Kott eta beste batzuk* afera, C-364/11, 43. paragrafoa.

296 Ikusi, BEAEEE, 2014ko urtarrilaren 30ekoa, *Diakité* afera, C-285/12, 21 eta 35 paragrafoa, eta 2009ko otsailaren 17koa, *Elgafaji* afera, C-465/07, 35 eta 43. paragrafoa.

297 2011/95/BE Zuzentauaren 27. Arrazoiak honen inguruan hau dio: "[j]azarpen edo kalte larrien eragileak Estatua edo bere agenteak baldin badira, susmatu behar da eskatzaileak ez duela benetako babesik".

298 EBAEE, 2010ko martxoaren 2koa, *Abdulla eta beste batzuk* afera, metatutako aferak C-175/08, C-176/08, C-178/08 eta C-179/08.

informazioa zehatza eta eguneratua izatea, eta iturri fidagarrietatik etortzea, hala nola, ENBGK-tik edo Asiloari Laguntzeko Bulego Europarretik (ALBE) (8.2 artikulua). Gai honek SOGI-arengatik nazioarteko babes eskatzaile diren LGBTI+ pertsonei eragiten die; izan ere, Estatu kide kopuru handi batek behartu du aurretiazko betebehar hau, eta baita, honako kasuetan ere: LGBTI+ pertsonak heldu ziren Estatuetan, sexu bereko pertsona helduek borondatez edukitako sexu-ekintzak zigortzen direnean. Halere, Batasunaren asilo araudiaren arabera, *bere ihesaldiaren alternatibaren* betebehar honen aplikazioa arbuiatu behar da kasu honetan: LGBTI+ pertsonen jatorrizko Estatuak bere zigor legerian aurreikusten badu bere SOGI-arengatik zigorrak, zeren, Estatu horren leku desberdin batean kokatu baldin badaiteke ere, benetako arriskuak lurraldeko edozein tokitan jarraitzen du, eta agintariengana iristea ezinezkoa egiten zen, arrazoi horiengatik zigortua izateko arriskuarengatik[299].

c) BE-ko asilo araudian xedatutako irizpideak nazioarteko babesa eskatzen duen pertsonaren kontaketaren sinesgarritasuna baloratzeko.

Halaber, Zuzentarau honek, GEAE-ren jurisprudentziaren ildotik, ezarri zuen nazioarteko babes eskaeren balorazioa banan-bana egitea, ondorio hauetarako aintzakotzat hartuta jatorrizko herrialdeari dagozkion gertaera egokiak, eta baita bere barne legeria eta eskatzailearen gorabehera pertsonalak ere. Kasu hauetan, zigortua dagoen herrialdeetan LGBTI+ kolektiboari buruzko informazioa biltzea zaila da, eta GKE-tara heltzea arriskugarria izan daiteke, horietako askok haien langileen segurtasuna bermatzeko klandestinitatean lan egiten dutelako. Askok haien familiaren aldetik diskriminazioa jasaten dute, eskolatik bidali dituzte, mespretxuzko eta gorrotozko lengoaia, poliziaren jazarpena, osasun zerbitzuaren umiliazioak, edo garraio publikoko zerbitzura sartzerakoan, eta, kasu okerrenetan, bortxaketa zuzentzaileak oso kasu gutxitan jatorrizko herrialdeari buruzko informazioan erregistratzen direnak,

299 *Cfr*. TSOURDI, E., *Guidelines transposition of..., op. cit.,* 9. orrialdea.

eta pertsonek herrialde jazartzailean nekez kanporatzen dituztenak[300], edo baita jazarpena jasan duela edo jasan dezakeela egiaztatzeko dokumentazio espezifikoan jasotze dira[301] (4.3 artikulua). BEAE-k berretsi zuen *X. eta beste batzuk* aferan, honela:

> "agintari eskudun batek nazioarteko babes eskaera bat Zuzentarauaren 4. artikuluko 3. atalaren arabera aztertzen duenean, kontuan izan behar dira eskatzaileak jasan dituen edo jasan lezakeen ekintzak guztiak erabakitzeko, gorabehera pertsonalak ikusita, ekintza horiek jazarpentzat jo daitezkeela, zuzentarauaren 9. artikuluko 1. Atalaren zentzuan"302.

300 *Cfr*. PANGILINAN, Ch., "Erronkak jatorrizko herrialdeko LGB-ri buruzko ekoizpenean", *Behartutako Migrazioen aldizkaria*, 42. zk.koa, 2012ko maiatza, 31. orrialdea.

301 Ondorio hauetarako, 4. artikuluko bigarren atalak xedatzen du: "osatuko dute eskatzailearen deklarazioek eta berari buruzko datuek (adina, iragana, baita erlazionatutako ahaideena ere, nortasuna, nazionalitatea/k, eta aurreko bizilekuak, aurretik egindako asilo eskaerak, bidaiaren ibilbidea, eta nazioarteko babes eskaeraren arrazoiak) biltzen dituen dokumentazio guztiak".

302 BEAEEE, 2013ko azaroaren 7koa, *X. eta beste batzuk* afera, metatutako aferak, C-199/12tik C-201/12ra, 68. paragrafoa. *A. B. eta C* aferetan, Auzitegiak gai hau azpimarratzen du, 4.3 artikuluari aipamena eginez; izan ere, "agintari eskudunei behartzen die eskaera baten ebaluazioa egitea kontuan hartuta eskatzailearen egoera partikularra eta gorabehera pertsonalak (...) asilo eskaeraren ingurukoak". BEAEE, 2014ko abenduaren 2koa, *A., B. eta C.* aferak, metatutako aferak, C-148/13tik C-150/13ra, 61. paragrafoa. Azkenik, *Shepherd* aferan Auzitegiak gai honetan urrats bat gehiago ematen du, eta berresten du banakako azterketa egitearen beharra, eta ondorio hauetarako kontuan eduki behar dena: "2004/83 Zuzentarauaren 4. artikuluaren, 3. atala, a), b), eta c) letren arabera, eskaerari buruz erabaki bat hartzerakoan nazioarteko babes eskaeraren banakako ebaluaketa egiteko kontuan izan behar dira jatorrizko herrialdeari buruzko elementu egoki guztiak, deklarazioak, eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazio egokia, eta baita eskatzailearen egoera partikularra eta gorabehera pertsonalak". EBAEE, 2015ko otsailaren 26koa, *Shepherd* afera, C-472/13, 26. paragrafoa.

Ildo honetatik, banakako ebaluazioaren ondorioetarako, baita ere jazarpena jasateko ganorazko beldurra edo kalte larriak jasateko benetako arriskuaren *zantzu seriotzat* joko da, LGBTI+ pertsonak jazarpen edo kalte hori jasateko mehatxuak eduki izana, salbu jazarpen edo kalte horiek errepikatuko ez diren ganorazko arrazoiak badira (2011/95/BE Zuzentarauaren 4.4 artikulua)[303].

Bestaldetik, hasiera batean nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonari dagokio bere eskaera oinarritzeko beharrezko elementuak lehenbailehen aurkezteko betebeharra[304], eta dagokion Estatu kideari eskatzaile horri laguntzea eskaeraren elementu egokiak ezartzeko fasean (4.1 artikulua)[305]. Horri dagokionez, gertatu daiteke arlo zehatz batzuk froga dokumentalen bidez ezin egiazta ahal izatea, esate baterako SOGI-arengatik jazarpena. Kasu horietan, Estatu kide desberdinetan kontaketaren sinesgarritasuna ebaluatzeko aplikatutako irizpide desberdintasuna ikusita, eta honi gehitzen badiogu LGBTI+ pertsonak duten kalteberatasun eta babes eza egoera, ezinezkoa baldin bazaio jazarpena eta hori sortzen duen arrazoia frogatzea – orientazio afektibo-sexuala eta /edo bere genero-identitatea edo adierazpena -, asko zailtzen du asilo prozeduraren markoan erabaki positiboa lortzea. Nolanahi ere, kasu horietan, Zuzentarauak aurreikusten du berme bereziak, SOGI-arengatik errefuxiatu pertsonei zuzenean aplikagarriak direnak. Hau da, Estatu kideek egiaztatutako gertaerak aztertuko dituzte betebehar metagarri batzuk betetzen diren: eskatzailea frogatzen saiatu dela, dituen elementu guztiak aurkeztuz, eta gainera, azalpen egokia eman duela; diskurtso koherente eta sinesgarria mantentzea;

---

303 Horri dagokionez, *Elgafaji* aferan, BEAE-k adierazi zuen babes subsidiario eskaera baten banakako balorazioa egiterakoan, kalte larriak daudela aintzakotzat hartzeko, Zuzentarau honen15 c) artikuluaren arabera, kontuan hartu daiteke: "bortizkeri indiskriminatu egoeraren hedapen geografikoa, eta baita eskatzailearen benetako helburua, dagokion herrialdera kanporatzerakoan (...), eta, hala balitz, benetako arriskuaren *zantzu serioa* egotea, Zuzentarauaren 4. artikuluko, 4. atalean azaltzen den modukoa; bortizkeri indiskriminatuaren zantzu honen *exijentzia*, babes subsidiarioari heltzeko eskatutakoa, *apalagoa izan daiteke"*. BEAEE, 2009ko otsailaren 17koa, *Elgafaji* afera, C-465/07, 40. paragrafoa.

304 Honi dagokionez, BEJA-k adierazi du *El Kott eta beste batzuk* aferan *sine qua non* betebehar moduan "pertsonak (...) aurkeztu behar du (...) eskaera bat errefuxiatu estatutoa eskuratzeko, eta Estatu kide arduraduneko agintari eskudunak aztertuko dituzte". BEJAE, 2012ko abenduaren 12koa, *El Kott eta beste batzuk* aferan, C-364/11, 76. paragrafoa. Halaber, ikusi, BEJAE, 2010ko ekainaren 17koa, *Bolbol* afera, C-31/09, 52. paragrafoa. Eskaerak izan behar dituen froga eta agirien inguruan, BEJA-k, *A. B. eta C* aferan, zehazten ditu nazioarteko babes eskatzailearen deklarazioak, eta aitortutako sexu-orientazioaren froga dokumentalak egiaztatzeko mugak; eta nahiz eta 4.1 artikuluak honakoa xedatu: "ondorioztatzen da Estatu kideek pentsa dezaketela eskatzailearen betebeharra dela aurkeztea "lehen baino lehen "bere nazioarteko babes eskaera oinarritzen duen beharrezko elementu guztiak""Halere, pertsona baten esparru pertsonaleko galderak, eta *zehazki bere sexualitateari buruzkoak,* delikatuak direla ikusita, ezin da ondorioztatu pertsona horrek sinesgarritasunik ez duenik hasiera batean bere homosexualitatea aitortu ez duelako, bere bizitzako arlo intimoak mesfidantzarengatik ezagutzera eman nahi ez dituelako". BEJAE, 2014ko abenduaren 2koa, *A., B. eta C.* afera, metatutako aferak, C-148/13tik C-150/13ra, 68 eta 69. paragrafoa.

305 BEJAE, 2012ko azaroaren 22koa, *M.* afera, C-277/11, 65. paragrafoa. Halaber, ikusi, BEJAE, 2014ko abenduaren 2koa, *A., B. eta C.* afera, matatutako aferak, C-148/13tik C-150/13ra, 56. paragrafoa.

bere nazioarteko babes eskaera lehen baino lehen aurkeztu izana, salbu atzerapena justifikatzen duten ganorazko arrazoiak daudela egiaztatu baldin badezake, eta azkenik, dagokion Estatu kideak egiaztatzea nazioarteko babes eskatzailearen sinesgarritasun orokorra[306] (4.5 artikulua).

Bestalde, Zuzentarau honen 5. artikuluak baimentzen du nazioarteko babesa ematea honako kasuetan: jazarpena jasateko ganorazko beldurrak edo kalte larriak jasateko benetako arriskua oinarritu baldin badaiteke eskatzaileak bere jatorrizko herrialdea utzi zuenetik izan diren gertaera edo jardueretan; zehazki, egiaztatzen bada jarduera horiek jatorrizko herrialdean izan zituen konbikzio edo orientazioen adierazpena eta jarraipenak direla. Modu honetan, LGBTI+ pertsonak nazioarteko babesa eskatu dezake, Batasunaren Zuzenbidea medio, bere jatorrizko herrialdean jazarpen xede diren ekintzak bera bertatik atera ondoren gertatzen direnean. Adibidez, sexu bereko pertsona batekin harreman afektibo bat edukitzea. Baina, arau europarrak zehazten duen moduan, bizipen horiek "jatorrizko herrialdean izan zituen konbikzio edo orientazioen adierazpena eta jarraipenak" izan behar dira. Hortaz, praktikan, LGBTI+ kolektiboari errekeritu lekioke jatorrizko herrialdean bere SOGI-aren bizipenaren graduren bat. Gai honek talka egiten du *diskrezioaren* betebeharrarekin (azterlan honen lehen zatian aztertutakoa), Estatu kide batzuen jurisdikzioak behartzen duena, eta BEJA-k 2013ko azaroaren 7ko *X. eta beste batzuk* aferan arbuiatu zuena; izan ere, Estatu kide zehatz batzuetan dagoen *praxis komunak* ematen du egiaztatzen duela haien joera dela bere jatorrizko herrialdean giza eskubideen defentsan parte hartze aktiboa izan duten LGBTI+ pertsonei nazioarteko babesa aitortzea, hau da, aktibistak eta lider politikoak izateagatik, edo bere homosexualitatea agerian bizi dutenak, eta horren ondorioz, jazarpena jasaten dutenak[307].

2.2.2. 2013/32/BE Zuzentarauan SOGI-arengatik nazioarteko babes eskaera egin duten pertsonei nazioarteko babesa emateko edo ukatzeko prozedura erkideak

Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/32/BE Zuzentaraua *nazioarteko babes eskaera egin duten pertsonei nazioarteko babesa emateko edo ukatzeko prozedura erkideei buruzkoan*[308], arau engranaje konplexu bat garatzen du, eta arautzen ditu Estatu kideetan nazioarteko babesa emateko edo ukatzeko prozedurak[309]. Hori guztia izan da marko juridikoen

306 Ildo honetatik, ikusi, *A., B. eta C.* aferak, bertan BEJA-k sakontzen du bere sexu-orientazioarengatik pertsona errefuxiatuen babesean, eta babes eskaera horien ebaluazio duin batean, baina Auzitegiak ez du onartzen eskatzailearen deklarazioak eta/edo aurkeztutako froga dokumentalak edo beste modukoak, oinarrizko eskubideen kontrako eskaerak indartzeko badira, zehazki, giza duintasunaren kontrakoak badira (BEOEH-ren 1. artikulua), eta LGBTI+ pertsona errefuxiatuaren bizitza eskubidea eta bizitza pribaturako eta familia bizitzarako eskubidea (7. artikulua). BEJAE, 2014ko abenduaren 2koa, *A., B. eta C.* afera, metatutako aferak, C-148/13tik C-150/13ra, 64-65 eta 72. paragrafoa.

307 *Cfr.* DÍAZ LAFUENTE, J., *Asilo eta babeslekua…, op. cit.,* 144-145. paragrafoak.

308 *DOUE*, L 180, 2013ko ekainaren 29koa. Zuzentarauaren xedapenak aplikagarriak izango dira nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonei, salbu segurtasun nazionaleko edo ordenu publikoko ezinbesteko arrazoiak kontrakoa eskatzen dutenean. Azken kasu horretan, ikusiko dugun bezala - 2008/115/KE Zuzentarauaren 5. artikulua beteta, ez itzularazteko printzipioa jasotzen duenak -, itzularazi beharko da, hori bai, helburu "seguru" batera.

309 Ondorio hauetarako, kontuan izan halaber, Legebiltzar Europarraren eta Kontseiluaren 604/2013 Erregalamendua, 2013ko ekainaren 26koa, *zeinaren bitartez ezartzen dira nazioarteko babes eskaera baten azterketa egingo duen Estatu kide arduraduna aukeratzeko irizpide eta mekanismoak, Estatu kide batean hirugarren herrialde bateko nazional batek edo aberrigabe batek aurkeztutako eskaera* ("Dublineko III Erregalamendua"). *DOUE*, L 180, 2013ko ekainaren 29koa.

desberdintasunak bultzatutako Estatu kideen arteko pertsonen joan-etorri sekundarioak murrizteko asmoarekin, eta horretarako prozedurak estandarizatu dira baldintza parekideak eratzeko,"asilo prozedura bakarraren" maximaren ildotik"[310], 1951ko *Genevako Konbentzioarekin bat*, zehazki 33. artikuluarekin bat, eta bere *1967ko New Yorkeko Protokolo Gehigarriarekin bat*, GEHE-kin, GEAE-ren dagokion jurisprudentziarekin, eta BEOEH-rekin[311].

Zuzentarau honek Estatuei gutxieneko parametro eta betebehar batzuk ezarri dizkie nazioarteko babesa eskatu nahi duten LGBTI+ pertsonentzat bermeen inguruan. Ildo honetatik, araudi europarrak Estatu kideei ezartzen die asilo prozeduran zehar berme bereziak behar dituzten *pertsona kalteberak identifikatzeko mekanismoak hartzea*, eta horien artean, SOGI-arengatik jazarpena jasaten dutenak. Hori guztia, babes egokia emateko helburuarekin, eta beharrezkoa den denbora ere izango du, beharrezkoak diren baldintzak sortzeko eskatzaileak SOGIa-ri sentikorrak diren prozeduretara benetan sartu ahal izateko, eta beharrezko elementuak aurkez ditzaten, nazioarteko babes eskaera oinarritze aldera[312]. Halaber, Estatu kide batek LGBTI+ pertsonei babes egokia ezin badie eman – prozedura berme bereziak behar dituztelako prozedura azeleratu baten edo mugako prozedura baten markoan -, eskaera horiek prozedura horretatik salbuetsiak izango dira, baina baita ere berme osagarriak ematea behartuko zaie, ukatzearen kontrako errekurtsoak ez duenean eteteko efekturik[313].

Bestaldetik, 2013/32/BE Zuzentarauak elkarrizketa pertsonal bat egiteko beharra ezartzen du (14. artikulua), eta oso garrantzitsua da nazioarteko babes eskatzaile LGTBI+ pertsonentzat; izan ere, baimentzen zaie bere ihesaldia bultzatu zuten arrazoiak osorik adieraztea, eta bermatzen da, behar izanez gero, interprete baten parte hartzea. BEJA-k, *Sakto* aferan, azpimarratzen du "txostenak edo eskatzailearekin edozein elkarrizketen transkripzio espedienteari gehitu behar zaio, (...) txosten edo transkripzio horren edukia organo jurisdikzional eskudunarentzat ebaluazioa egiteko elementu garrantzitsua da, gertaeren eta Zuzenbidezko oinarrien azterketa osoa eta *ex nunc* egiterakoan"[314].

Praktikak agerian utzi du LGTBI+ nazioarteko babes eskatzaileek zailtasun handiak dituztela bere orientazio afektibo-sexuala edo bere genero-identitatea edo adierazpena azaltzeko, alde batetik, adierazpen horiek bere intimitatearen esparru pribatuenari dagokiolako, eta bestaldetik, haien jatorrizko herrialdeetan erakundeen aldetik, gizartearen aldetik eta familia aldetik jasandako jazarpenaren ondorioz. Horregatik, aipatutako Zuzentarauaren 15.3 artikuluak ezartzen du, nobedade moduan, Estatu kideek ziurtatuko dutela elkarrizketa egingo duen pertsonak behar bezain gaitasun izango duela, kontuan izateko "eskaeraren zirkunstantzia pertsonalak eta orokorrak, hala nola, sustrai kulturalak, generoa, *sexu-orientazioa, genero-identitatea* edo eskatzailearen kalteberatasuna". Bestalde, 34.2 artikuluak Estatu kideei behartzen die segurtatu dezatela "elkarrizketak egingo dituzten langile arduradunek beharrezko prestakuntza izan dezatela, bereziki, giza eskubideei buruzko nazioarteko Zuzenbidean, asiloari buruzko Zuzenbide komunitarioan, eta elkarrizketak egiteko tekniken inguruan", eta zehazkiago, genero ikuspuntutik formakuntza inklusiboaren inguruan, LGBTI+ pertsonen oinarrizko eskubideak bermatzeko.

---

310 Ikusi, 2013/32/BE Zuzentarauaren 11. zk.ko, 12. zk.ko, 13. zk.ko eta 25. zk.ko Arrazoiak.

311 Ikusi, 2013/32/BE Zuzentarauaren 3. Arrazoia.

312 Ikusi, 2013/32/BE Zuzentarauaren 29. Arrazoia.

313 Ikusi, 2013/32/EB Zuzentarauaren 30. Arrazoia eta 24. artikulua.

314 Ikusi, EBAEE, 2017ko uztailaren 26ko, *Sacko* afera, C-348/16.

Ildo honetatik, Estatuek bermatuko dute nazioarteko babesari buruzko ebazpenak azterketa zuhur eta egoki baten ondoren hartuko direla; hau da, erabakia oinarritzeko, azterketa banakakoa, objektibo eta inpartziala izango da, eta iturri fidagarriak erabiliko dira, hala nola, EASO edo ENBGK, (6.2 artikulua), eta debekatuta egongo da jazarpenaren eragileei informazioa ematea edo eskatzea LGBTI+ pertsonen et haien senideen integritate fisikoa, segurtasuna eta askatasuna zaintzeko (30. artikulua). Halaber, ebazpenak emango dira idatziz eta banan-bana, eta egitatezko eta zuzenbidezko arrazoiak ezarriko dira, eta errekurtsoa jartzeko bide egokiak, eta LGBTI+ pertsonari arrazoizko epe batean jakinarazi behar zaio (11 eta 12. artikuluak). Kasu hauetan, kalteberatasun egoera berezian dauden pertsonekin gaudenean, eskaeraren azterketari lehentasuna emango zaio (31.7 b)), eta horrek nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ kolektiboari mesede handia egiten dio, bere prozedura arinago egingo baita, bere egoera kontuan izanda.

Gai eztabaidagarrienetakoa erakundeen mailan da mediku frogen irizpide minimoak arautzearena, LGTBI+ pertsonen kontaketaren sinesgarritasuna egiaztatze aldera, eta 18 eta 25.5 artikuluetan ezartzen dena. Ildo honetatik, bi xedapen horiek interpretatuz, DIÁZ LAFUENTE-ri jarraituz, mediku frogek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

> "1. Eskatzaileak borondatez eta libreki adostasuna ematea derrigorrezkoa da. Eskatzaileak mediku froga egiteari uko egingo balio, jarrera horrek ezingo luke inongo froga zantzurik sortuko, eta ez lioke nazioarteko babesa onartzeko edo ukatzeko erabakiari eragingo;
>
> 2. Norbanakoaren duintasunari eta bere oinarrizko eskubideei erabateko errespetua, hala nola, integritate fisiko eta psikologikorako eskubidea edo intimitaterako eskubidea. Gainera, mediku froga inbasiboa ahal den eta mugatuena izan behar du;
>
> 3. Medikuaren kualifikazioa. Azterketa medikua mediku profesional kualifikatuek egin behar dute, emaitzaren fidagarritasuna bermatze aldera;
>
> 4. Froga medikua doakoa izango da. Eskatzaileak azterketa beste profesional batzuekin egin nahi baldin badu, edo agintari eskudunek ezarritako unean ez badu egin nahi, harrerako Estatua izango da froga medikuaren gastuak ordainduko dituena"315.

Bestaldetik, prozesuko bermeei jartzen zaizkien oztopoak[316] Zuzentarau honetan begi-bistakoak dira; izan ere, Estatu kideei baimentzen zaie lege ordezkaritza eta doako laguntza juridikoa ematea baldintza hauek betez gero:

i. Laguntza juridikoa eta prozedurarako laguntzari buruzko informazioa doakoa izango da soilik lehen instantziako prozeduretan, eta eskatzaileak hala eskatzen badu (19.1 artikulua);

---

315 *Cfr.* DÍAZ LAFUENTE, J., *Asiloa eta babeslekua…*, *op. cit.*, 155. orrialdea.

316 Honi dagokionez, 2010ean, ENBGK-k Estatu Kide zehatz batzutan 2013/32/BE Zuzentarauaren xedapenen aplikazioari buruzko azterlan bat egin zuen, eta bertan aztertzen da Estatu kide batzuetan asilo sistemetan ez dagoela bermerik, eta modu desberdinetan aplikatzen dela. ENBGK-ren iritziz, gabezi hauek 2013ko Zuzentarauarekin ez dira zuzendu; Zuzentarau hau askok kritikatu dute soilik prozedura estandarren zerrendaketa bat egiten duelako. *Cfr.* ENBGK, *Asilo prozedurak hobetzen: azterketa konparatiboa, eta gomendio legal eta praktikoak. Ondorio Nagusiak eta Gomendioa*, 2010eko martxoa.

ii. Lehen instantziako prozeduretan laguntza juridikoa eta lege ordezkaritza bermatuta dago (kasu horietan 19.1 artikulua ez da aplikagarria izango), eta errekurtso bideko prozedurak bermatuta egongo dira soilik "interesdunak eskatuta" (20.1 artikulua);

iii. Estatuek erabaki dezakete doako laguntza juridikoa eta lege ordezkaritza ez ematea, organo jurisdikzionalak edo beste agintari eskudun batek eskatzailearen errekurtsoak aldeko erantzuna izateko zantzu eskasak dituela pentsatuko balu (20.1 artikulua);

iv. Baimentzen da eskatzaileak prozeduraren fase guztietan laguntza juridikoa izateko aukera, baina eskatzaileak berak "ordainduta" (22.1 artikulua);

v. Laguntza juridikoa emango dion gizonezko edo emakumezkoak espedientea aztertzeko murriztapenak izango ditu, informazioa edo informazioaren iturriak ezagutzera emateak segurtasun nazionalari eragiten badio, eta baita, informazioa ematen duten elkarte edo pertsonen segurtasunari, informazioan azaltzen den pertsonaren segurtasunari eragiten badie, edo Estatu kideetako agintari eskudunen nazioarteko babes eskaeraren azterketaren inguruko interesak arriskuan jartzen badira edo bere nazioarteko harremanak, eta Estatuen esku uzten dute prozedura nazionalen markoan defentsa eskubidea bermatzea (23.1 artikulua);

vi. Estatuek, aldi berean, "utziko dute" laguntza juridikoa ematen duen pertsona elkarrizketa pertsonalean bertan egotea, eta ezarri ahal izango dute elkarrizketaren amaieran bakarrik parte hartzea, zehaztu gabe ze egoeratan (23.3 artikulua);

vii. 46. artikuluak ezartzen ditu kasuak non nazioarteko babes eskatzaileak benetako errekurtso baterako eskubidea duen; baina ez du ezer adierazten "izaera suspentsiboari" buruz. Horrek, BEJA-k arlo honetan ezinbestekoa ematen duen "efektu suspentsiboko errekurtsoaren" dotrina berresten duelako, GEAE-ren jurisprudentziaren ildotik, zentzu honetan: "lehen instantziako agintari erabakitzailearen ebazpenaren kontrako errekurtsoa aurkezteak ahalbideratuko du asilo eskatzaileek Estatu horretako lurraldean jarraitzeko aukera, aipatutako errekurtso horren emaitzaren zain dauden bitartean"[317]. BEJA-k *Abdika* aferan berariaz aipatzen du errekurtsoaren efektu suspentsiboaren garrantzia, ez itzularazteko printzipioa betetze aldera: "itzularazteko erabakiaren kontra aurkeztutako errekurtsoaren eraginkortasunak behartzen du hirugarren herrialde bateko nazional horrek *efektu suspentsiboa duen errekurtsoa izatea, bermatzeko itzularazteko erabakia ez dadila exekutatu agintari eskudun batek 2008/115 Zuzentarauaren 5. artikuluaren urraketaren alegazioa aztertu baino lehen – Gutunaren 19. artikuluko 2 atalaren arabera interpretatua-*. Izan ere, hirugarren herrialdeko nazional interesdun batek bere osasun egoera okertzeko arrisku larri eta konponezina izan dezake"[318]. Gai honetan arazoa nagusiki oinarritzen da Estatu kideen legeri ez guztiek aurreikusten dutela errekurtsoaren efektu suspentsiboa, nahiz eta itzularazteak ondorio larriak sortuko lituzkeen LGBTI+ pertsonaren bizitza eta integritate fisikoa arriskuan legokeen lurralde batean.

317 Ildo honetatik, ikusi, BEJAE, 2013ko maiatzaren 30ekoa, *Arslan* afera, C-534/11, 47. paragrafoa, eta 2017ko uztailaren 26koa, *Sacko* afera, C-348/16, 49. paragrafoa.

318 BEJAE, 2014ko abenduaren 18koa, *Abdida* afera, C-562/13, 50. paragrafoa.

Halere, bermeen murrizketei buruzko gaiak oraindik ere okerrera egin du Zuzentarauak Estatu kideei baimentzen dielako doako lege ordezkaritza eta laguntza juridikoa ematea. Alde batetik, "*soilik* nahiko baliabide ez dutenei; eta/edo *soilik* aholkulari juridikoek edo Zuzenbide nazionalean bereziki aurreikusitako aholkulariek emandako zerbitzuentzat" (21.2.ko a) eta b) atalak). Eta, bestetik, baimena ematen die "*doako lege ordezkaritzari eta aholkularitza juridikoari muga ekonomiko eta denborazkoak ezartzeko,* baldin eta murriztapen horiek ez badiote lege ordezkaritza eta aholkularitza juridikoa eskuratzea arbitrarioki galarazten" eta "*tasa eta kostei dagokienez, eskatzaileei emandako tratua bere nazionalei eman ohi zaiena baino mesedegarriagoa izatea,* laguntza juridikoari dagokionez" (21.4 artikuluko a) eta b) atalak); gainera, "*ordaindutako gastu oro osorik eta partzialki itzularaztea eskatzea***,** eskatzailearen finantza egoera asko hobetu bada, edo onura horiek emateko erabakia eskatzaileak emandako informazio faltsuarengatik hartu balira" (21.5 artikulua).

Nahiz eta benetako babes judizialerako eskubidearen egikaritzearentzat ondorio larriak izan ditzakeen (atxiloketa arbitrario bat ekiditeko arloan), eta azkenean behartutako itzularaztea eragingo duen, BE-k erabaki du prozedurazko bermeak eskuratzeko aukera murriztea eta Estatu kideen esku uzten ditu horiek erabiltzeko edo galarazteko eskumena. Eta hori egitea, jakinda Estatuek, ekonomia prozesalaren irizpideak medio, interpretazio hertsia egingo dutela, LGBTI+ pertsonen defentsarako eskubidearen kaltetan; izan ere, gehienek ez dute baliabide ekonomikorik horrelako kostu handiak ordaintzeko haina, eta segurtasun juridiko ezaren mugan egongo lirateke, eta itzularazteko arriskuan egongo lirateke eta ezinezkoa litzaieke nazioarteko bermea eskatzea.

Gure iritziz, "ziurtatuko dira", "bermatuko dira" o "eskainiko dute" terminoak erabiltzea, "beharko dute" ordez, islatzen du BE-ren arduragabekeria nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonen eskubide prozesalak babesterakoan, kaltebera den kolektiboa den neurrian; hori Estatu kideen interes ekonomiko eta administratiboen *mesedeetan* da, eta maniobra-tarte handi bat mantentzea lortzen du arlo honetan irizpide erabakigarriak ezartzeko. Horren ondorioa da horietako askok araudia ez dutela betetzen, Espainiaren kasuan bezala, ez baitu Zuzentaraua bera ere bere barne ordenamenduan txertatu. Bestaldetik, Errefuxiatuei Laguntzeko Batzorde Espainiarrak (ELBE), bere 2017ko txostenean, *Errefuxiatuak eta migranteak Espainian: hegoaldeko mugaren atze aldeko harresi ikusezinak*, azpimarratzen ditu nazioarteko babesa eskatzeko dauden zailtasun handiak: informazio ezarengatik, letratuaren laguntza eskuratzeko oztopoengatik, edo internamendu zentroetan sistematikoki sartzeagatik, eta hauek, gehienetan, ez dute baldintza egokiak, eta batzuetan ez dute ere interpreterik[319].

Azkenik, 2013/32/EB Zuzentarauak aipatzen du *hirugarren herrialde seguruak deitutakoen azterketa*, hau da, "jatorrizko herrialde segurua" (36. artikulua eta I Eranskina), "hirugarren herrialde segurua" (38. artikulua), eta "hirugarren herrialde europar segurua" (39. artikulua). Oro har, pentsatu izan da "herrialde segurua" zela, bere egoera juridikoa eta zirkunstantzia politikoak kontuan hartuta, oro har edo sistematikoki jazarpenik, torturarik edo tratu edo zigor inhumano eta umiliagarririk ez egotea, ezta ere bortizkeria indiskriminatuaren mehatxurik, edo gatazka egoerak, pertsonaren integritate fisikoa arriskuan jartzen dutena. Kategorizazio hau ez da erabili behar LGTBI+ pertsonaren segurtasunaren erabateko berme moduan honek egiaztatzen badu, bere gorabehera partikularrak aztertuta, bere herrialdea segurua ez dela benetako arrazoiak daudela egiaztatzeko[320].

---

319 *Cfr.* ELBE, 2017ko Txotena, *Errefuxiatuak eta migranteak Espainian: hegoaldeko mugaren atze aldeko harresi ikustezina*.

320 Ikusi, 2013/32/BE Zuzentarauaren 42. zk.ko Arrazoia.

Alderdi hau garrantzitsua da seguruak deitutako herrialdeetatik etorritako LGTBI+ pertsonei nazioarteko babesa emateko; horietako askotan, besterik pentsatu arren, egiaztatzen dira jazarpen, abusu fisiko, psikiko edo sexualen indize handiak daudela, edo SOGI-arengatik bortizkeria eta diskriminazio larriak. Halere, BE-ko Estatu kideek zoritxarrez kontzeptu hauek erabili ohi dituzte nazioarteko babes eskaerak erabakitzerakoan - "segurtasunaren" presuntzio juridikoan oinarritzen den prozedura azeleratuak aintzakotzat hartuta -, eskaerak azterketa sakon eta banakako bat egin gabe funtsik gabekotzat jotzean, eta maizegi LGBTI+ pertsonak behartuta itzularazten dira.

- Nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonaren kontaketaren egiazkotasuna egiaztatzeko prozedurei buruzko aipamen berezia

SOGI-arengatik nazioarteko babesa ematea edo ukatzearen inguruan, gai konplexu eta sentiberenetakoa da Estatu kideek nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonaren kontaketaren sinesgarritasuna egiaztatzeko prozedurak erabiltzeko moduen desberdintasuna. Alde batetik, batzuetan, zaila da frogak eta agiriak aurkeztea, batez ere sexu-orientazioa egiaztatzen dutenak; izan ere, soilik bere testigantza dago, eta, bestetik, elkarrizketaren pertsona arduradunaren erraztasuna estereotipoak eta gizarte irudikapen okerrak aintzakotzat hartzeko.

Azterlan honetarako nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonei egindako elkarrizketetatik ondorioztatu dugu haietaz uste ohi dela lehen elkarrizketan trans edo gay, lesbiana edo bisexual moduan identifikatzeko gai izango direla, nahiz eta terminologia honekin ez dauden ohituta; edo garrantzitsuagoa dena, ez dakitela herrialdeko mugako agintarien aurrean bere buruak deskribatzen. Baita ere arrazoizkotzat jotzen da eskatzaileak jazarpenarekin erlazionatutako gertaeren zerrenda xehatua aurkeztuko dutela, nahiz eta izugarri konplexua izan dakiokeen bere esperientzia traumatikoak berriz kontatzea.

Ildo honetatik, Estatu kideek erabilitako formulak dira mediku azterketa, lekukoen froga, galde-sorta, eta presuntzio soilak, pertsona eskatzaileak LGBTI+ inguruneari buruz duen ezagutza sakona, jatorrizko herrialdean bere jarrerak duen arriskua, edo jatorrizko herrialdean edo harrerako herrialdean izandako harreman sentimentalak egiaztatzea[321].

Orientazio afektibo-sexuala edo *genero-identitate edo adierazpena* egiaztatzeko froga medikua egiten zen Estatu desberdinetan, hala nola, Austria, Bulgaria, Txekiar Errepublika, Alemania, Hungaria, Polonia, Errumania eta Eslovakian, 2011ko *Homofobiatik ihes egiten* azterlanak bere momentuan egiaztatu zuen bezala[322]. Edonola ere, froga medikuak LGBTI+ pertsonaren duintasuna eta oinarrizko eskubideak errespetatu behar ditu, hala nola, integritate fisiko eta psikikoa, edo intimitaterako eskubidea (2013/32/EB Zuzentarauaren 18 eta 25.5 artikuluak). Halaber, froga egiten aurretik adostasuna behar da, librea eta borondatezkoa. Beharrezkoa da aipatzea testuinguru honetan Yogyakartako 18. Printzipioak xedatzen duela "inor ez dago behartua inongo tratamendu, prozedura edo azterketa mediku edo psikologiko mota jasotzera, ezta ere, establezimendu mediku batean konfinatuta egotera, bere sexu-orientazioa edo genero-identitatearengatik.

321 *Cfr.* DÍAZ LAFUENTE, J., *Asiloa eta babeslekua…, op. cit.,* 162. orrialdea.

322 *Cfr.* JANSEN, S. eta SPIJKERBOER, T., *…tik ihesean, op. cit.,* 49. orrialdea.

Kontrakoa dioen edozein sailkapen badago ere, pertsona baten sexu-orientazioa eta genero-identitatea ez da, berez, osasunaren nahasmen bat, eta ez du tratamendu edo laguntza medikurik jaso behar, eta ez eta sendatu behar ere"[323].

Bulgarian, asilo arloan ohiko *praxiak* egiaztatu da jatorrizko herrialdean eskatzaile LGBTI+ pertsonen egoera zibila edo guraso-egoera nahikoa dela nazioarteko babesa ukatzeko. Gainera, asilo agintari bulgariarrek galdera inbasiboak egin ohi dituzte izandako bikoteen kopuruari buruz, sexu-postura gustukoenei buruz, edo beste sexukoekin izandako sexu-kontaktuei buruz. Halaber, praktikak Hungarian egiaztatu da nazioarteko babes prozeduraren lehen fasean sexu-orientazioa azaltzeko edozein atzerapen, sinesgarritasuna ebaluatzekoan faktore negatibo bihur daitekeela. Gainera, harreman heterosexualak eta hortik sortutako semeak asilo prozeduran LGBTI+ pertsonen sinesgarritasuna zalantzan jartzeko arrazoi nahikoak dira[324].

Bestaldetik, *trans eta intersex* pertsonek SOGI-arengatik jazarpena egiaztatzea gai zaila da. Kasu hauetan, kontaketari sinesgarritasuna emateko eskatzailearen identitateari buruz gizarteak duen irudia egiaztatu behar da, eta frogatu behar da, bere identitatearen ondorioz, trans edo intersex pertsonak bere jatorrizko herrialdean jazarpena jasan duela, edo jasateko ganorazko beldurra duela.

Oro har, herrialde europarretan sinesgarritasuna egiaztatzeko froga medikuak egitea behartzen da, genero-identitatea baieztatzeko. Finlandian, pertsona intersexual baten genero-identitatea egiaztatzeko proba pediatrikoak eta endokrinologikoak egin dira. Austrian, asiloari buruzko agintari eskudunak, Georgiatik zetorren emakume transexual bati buruz ondorioztatu zuen: "(...) pertsona transexuala izanda, jatorrizko herrialdean tratamenduaren gutxieneko baliabide medikuak eta terapeutikoak ez daude bermatuta, eta ez du inolako berme legezkorik izango. Diagnostikoak transexualitatea egiaztatzen du, baina baita ere, beldur argi bat portaera depresibo batekin nahastuta"[325].

Kasu hauetan, baita ere erabili ohi da "portaera sorta" (emakumeek halakoa egin ohi dute, gizonezkoek bestelakoa egin ohi dute), baina arazoak sortzen ditu; izan ere, arau estereotipatutakoak dira, eta berarekin ekartzen du benetako "trans" izateko modu zehatz batean portatu behar izatea. Baita ere, trantsizioaren frogak bilatzea ere erabiltzen da, hau da, senide eta lagunei kontatu izana; agiri legezkoetan izena eta sexua aldatzea; jaiotzerakoan aitortu zaion beste sexuko pertsona bat bezala janztea, portatzea, edo bizitzea; terapia hormonalak izatea edo balizko kirurgia. Kasu hauetan, askotan, sahiestu egiten da nazioarteko babes eskatzailearen jatorrizko herrialdean ez dela posible kanpoko trantsizioa egitea, maila sozialean, medikuan edo legezkoan, eta, beraz, ezin dira kontuan izan faktore hauek, generoaren pertzepzio propioaren erakusle moduan.

Bestaldetik, Jatorrizko Herrialdeko Informazioa (JHI) bakarrik noizean behin eguneratzen da, eta bere txostenek trans pertsonei buruzko informazio gutxi dute, edo bat ere ez. Nazioarteko babes eskatzaile trans-en arrisku handienetakoa da, hauek jasaten duten diskriminazioaren inguruko informazioa zehatz eza, eta oro har jotzen da ez dagoela inongo mehatxurik[326].

---

323 *Cfr. Yogyakartako Printzipioak..., op. cit.*

324 *Cfr.* ŚLEDZINSKA-SIMON, A. eta ŚMISZEK, K., "LGBTI pertsonen asilo eskaerak–Erdialdeko eta Ekialdeko Europako ikuspuntua", Behartutako Migrazioen Aldizkaria, 42. zk.koa, 2012ko maiatza, 16. orrialdea.

325 *Cfr.* JANSEN, S. y SPIJKERBOER, T., *...-tik ihesean, op. Cit.,* 51. orrialdea.

326 *Cfr*. BACH, H., "Transgeneroen asilo eskaeren ebauazioa", *Behartutako Migrazioen Aldizkaria*, 42. zk.koa 2012ko maiatza, 34-35. orrialdeak.

Azkenik, beste faktore bat kontuan izan beharrekoa nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonen kontaketaren sinesgarritasuna egiaztatzeko prozedurak jarraitzerakoan da SOGI zehatz batekin auto-identifikatzeko prozesua "birraktibatzen" hasi daitekeela harrerako herrialdera iritsi ondorengo urteetan. Azterlan honetarako LGBTI+ pertsona errefuxiatuei egindako elkarrizketetatik ondorioztatu daiteke, egoera horrek ekar ditzakeela ondorio batzuk: lehenik eta behin, atzerapenak arlo honetan lan egiten duten GKE-k jazarpenen aurkako babesa bilatzerakoan; eta, bigarrenik, babesa bilatu arren, nazioarteko babes eskaeraren prozeduran ez dela ezagutzera ematen eskaeraren oinarria bere SOGI-a dela; izan ere, kolektiboko kideak izateagatik jasandako abusu sozial eta familiakoek hesi psikologiko indartsu batzuk sortu dituzte, laguntza eskatzea galarazten diena. Halaber, LGBTI+ pertsonek haien SOGI ezagutzera ematen dutenean lotsa eta beldur maila handi bat sentitzen dute, bereziki, biktiman izan zireneko bortizkeria traumatiko gertaerak berriz kontatzerakoan. Horietako askori, kosta egiten zaie asimilatzea agintari nazionalek edo GKE-k (ACCEM, CEAR edo Gurutze Gorria) laguntza emango diela; izan ere, haien jatorrizko herrialdeetan haien SOGI-rengatik jazarpena jasateagatik harrerako herrialdean epe luze bat pasa arte, urteak iraun dezakeena, lotsa hori eta beldur hori ez da nahiko jaisten aitortzeko eta laguntza bilatzeko moduan. Honek zailtasunak sor ditzake epaile emakumeari edo epaile gizonezkoari LGBTI+ kolektiboko kidea dela konbentzitzeko. Ildo horretatik, LGBTI+ pertsonek haien SOGI-rekiko izan ditzaketen aldaketen bilakaera dokumentatzeko, interesgarria izango litzateke aditu nazionalen lana zentratuko balitz denboran zehar izandako aldaketak dokumentatzean: adibidez, posible da LGBTI+ pertsona batek inoiz harreman afektibo-sexualak edo erromantikoak sexu bereko bikote batekin eduki ez izana; harreman heterosexual bat edo ezkontza heterosexual bat eduki izana; bikote heterosexual barruan semeak eduki izana, eta baita, harrerako herrialdean beste LGBTI+ pertsonekin harremanak eduki izana, modu mugatuan, edo batere ez.

Halere, haien buruak LGBTI+ pertsona moduan identifikatu zitzaketen, eta honako datuak aipatu: sexu bereko pertsonekin maitemintze historial bat; beldur sentimenduak; bere SOGI-ren ezaugarri batzuei buruz jabetzerakoan, bere sexualitatea ezkutatzeko saioak; bortizkeria jasatea, eta bere buruari uko egitea bere portaerak ez duelako bat egiten bere generoarekin, eta beldurra bere jatorrizko familiak desengainua hartuko duelako. Gure iritziz, datu hauek nazioarteko babes eskaera baten adierazle baliozkoak izan zitezkeen; izan ere, nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonek ez dute behar bere portaera afektibo-sexuala, edo bere jatorrizko herrialdean LGBTI+ komunitatean bere inplikazioa, sinesgarritasuna lortzeko horrelako frogarik behar.

2.2.3. 2013/32/BE Zuzentarauan SOGI-rengatik nazioarteko babesa eskatu duten pertsonei harrera emateko exijitutako bermeak

Parlamentu Europarraren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/32/EB Zuzentarauak, *nazioarteko babes eskatzaileei harrera emateko arauak onartzen dituenak*[327], aztertzen ditu Estatu kideetan harrera egokia bermatzeko giza eskubideak errespetatuko dituzten baldintzak, nazio arteko babes eskatzaileak[328] haien eskaera aztertzeko zain dauden bitartean; baldintza hauek izan behar dira: "bizitza maila duina, eta Estatu kide guztietan konparagarri diren baldintzak"[329].

Begi-bistakoa da bizi-baldintzek eragin dezakeela asilo prozedurari benetan heltzeko, aurkeztutako eskaeraren kalitateari, eta, *hortaz*, babesa eskuratzeko dituen probabilitateei. Horregatik, 2013/32/EB Zuzentarauaren[330] aplikazio esparruan dauden pertsonen trataerei buruz, Estatu kideak Parte diren nazioarteko Zuzenbidezko tresnetan ezarritako nazioarteko betebeharretara lotuta daude[331], zehazki, 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioaren aplikazioari, eta bere *1967ko New Yorkeko Protokoloari,* eta horrela baieztatzen da ez itzularazteko printzipioa, eta inor jazarpena jasaten duen herrialdera ez dutela bueltatuko bermatuko da[332].

Hain zuzen ere, pertsona eskatzaileen harrera baldintza duinei buruz, BEJE-k, *Cimadi eta Gisti* aferan, baieztatzen du nagusiki BEOEH-n aitortutako oinarrizko eskubideak eta printzipioak errespetatu behar direla, "giza duintasunaren erabateko errespetua bermatu behar dela, eta Gutunaren 1 eta 18. artikuluaren aplikazioa sustatu behar dela". Ondorioz, "betebehar horiek ezartzen dira, bai Estatu kide arduradunaren lurraldean asilo eskaeraren inguruan honek hartuko duen erabakiaren zain dauden pertsonei, eta baita asilo eskatzaileei ere, eskaeraren arduraduna zein Estatu kide izango den zehazten den bitartean"[333]. Ildo honetatik, Zuzentarauak nazioarteko babes eskatzaileen bizitza baldintzei buruzko arau minimo erkideak ezartzen ditu, eta ziurtatzen du haiek etxebizitza, enplegua, elikadura egokia, osasun zerbitzuak edo laguntza mediku eta psikologikoa (10. eta hurrengo artikulua) eskuratu ahal izango dutela, eta behar guzti horiek Estatu kide bakoitzean ezarritako harrerarako prozedura nazionaletan integratuko direla.

---

327 *DOUE*, L 180, 2013ko ekainaren 26koa.

328 Ikusi, III Kapitulua, "Estatu kideen betebeharrak nazioarteko babesaren onuradunentzat", 8tik 16ra bitarteko artikuluak.

329 Ikusi, 2013/32/EB Zuzentarauaren 11. zk.ko Arrazoia. Horri gehitu behar zaio Zuzentarauaren 25. zk.ko Arrazoai, honakoa adierazten baitu: "[h]arrera sistemaren gehiegizko erabileraren aukera murriztu behar da, eta zehaztu behar da ze zirkunstantzietan eskatzaileen harrera baldintza materialak murriztu edo kendu daitezkeen, aldi berean bizitza maila duin bat bermatuta". Hortarako, harrerako sistema nazionalen eraginkortasuna bermatu behar da, eta Estatu kideen elkarlana eskatzaileen harrera esparruan (26. Zk.ko Arrazoia).

330 Aipatutako Zuzentarauaren aplikazio esparrua hedatzen da 3. artikuluaren arabera: "(…) hirugarren herrialdeko nazional eta aberrigabe guztiei, lurraldean, baita mugan, itsas ur territorialetan edo Estatu kide bateko korridore eremuetan ere, nazioarteko babes eskaera aurkezten dutenei, baimentzen bazaie eskatzaile moduan eta bere senideei ere bere lurraldean gelditzea, nazioarteko babe eskaeran sartzen badira Zuzenbide nazionalarekin bat".

331 Ikusi, 2013/33/BE Zuzentarauaren 10. zk.ko Arrazoia.

332 Ikusi, 2013/33/BE Zuzentarauaren 3. zk.ko Arrazoia.

333 Ikusi, BEJAEE, tratu dunarekin bat egiten duten harrera baldintza materialen blaintzei buruzkoak, 2012ko irailaren 27koa *Cimadi eta Gisti* afera, C-179/11, 42-43 paragrafoa, eta 2014ko otsailaren 27koa, *Saciri y otros* afera, C-79/13, 35. paragrafoa.

Halaber, Estatu kideek, lehentasunez kontuan izango dute [Zuzentarau honen xedapenak aplikatzen dituzten legeri nazionaletan] pertsona kalteberen egoera zehatza[334], besteak beste LGBTI+ pertsonena (21. artikulua), eta harrera edo internamenduak babes behar partikularrak zehazki beteko dituztela "asilo prozedura osoan zehar", eta bere egoeraren azterketaren "segimendu egokia" egingo dela (22.1 artikulua). Babes hori internamenduan zehar indartzeko, Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte harrerarako lokaletan eta zentroetan jazarpena eta genero bortizkeria ekintzak sahiesteko, sexu bortizkeria eta jazarpenak barne (18.4 artikulua). Zehazki, SOGI-rengatik bortizkeria fisiko, psikiko edo hitzezkoa, tortura edo tratu inhumano edo umiliagarriak jasan dituzten LGBTI+ pertsonei dagokionez, Zuzentarauak aurreikusten du tratamendu eta laguntza mediku eta psikologikoa. Gainera, ezartzen du pertsona kalteberekin lan egiten duten langileek "prestakuntza iraunkorra eta egokia" izan behar dutela, eta "konfidentzialtasunari buruzko arau zehatzak" errespetatu behar dituztela (32.1 artikulua). Halere, beharrezkoa da kritikatzea Zuzentarauak ez duela jasotzen inolako betebehar zehatzik pertsona kalteberen identifikazio eta segimendu prozeduren inguruan, eta horrek aurreikustarazten digu Estatuek prozedura tramitatuko dutela modu egokian eta eraginkorki, haien eskubideak eta duintasuna errespetatuz, baina horrek lekarkeen arriskuekin.

2013/33/EB Zuzentarauak mamiari buruzko arazo bat planteatzen du (azterlan honi interesatzen zaiona) zilegitasuna ematen diolako nazioarteko babes eskatzaileen internamenduari, edo ezerezten duelako; izan ere, Estatu kide askotan garatutako internamendu praktikak arautzeko aitzakiarekin (aldi baterako harrera neurria bezala) honakoa baimentzen duela: "[h]ori beharrezkotzat jotzen denean, kasu bakoitzeko banakako ebaluazioan oinarrituta, Estatu kideek eskatzaile bat barruratu dezakete, beste neurri ez horren hertsatzailea ezarri ezin denean" (8.2 artikulua). Horrekin pentsatu behar da Zuzentarauaren asmoa dela, 20. zk.ko Arrazoiak xedatzen duen moduan, barruratzea aplikatu beharreko azken neurria izatea, askatasun-gabetzaile ez diren neurri guztiak baztertu ondoren.

Guretzat begi-bistakoa da araudi honetan bigarren mailako mugimenduak ez sustatzeko helburua argi azaltzen dela[335], eta horretarako, ez du eragozpenik internamendua zilegitzat jotzeko. Bestela ezin da ulertu nazioarteko babes eskatzaileari barruratzea aplikatzea, aldez aurretik ez itzularazteko printzipio humanitarioaren bidez babestu baldin bada. Nahiz eta azterlan honen xedea Atzerritarrentzat Internamendu Zentroen (AIZ) azterketa kritiko bat egitea ez izan, beharrezkoa da azpimarratzea nazioarteko babes eskatzaileek dituzten baldintza eskasak, eta Estatu kide zehatz batzuetan giza eskubideen urraketa salaketen kopuru handia, esate baterako, Espainiaren kasua. Nahiz eta pertsona hauen internamendu agindua salbuespenekoa izan, Estatuek sistematikoki erabiltzen dute bigarren mailako giza mugimenduak ekiditeko[336].

---

334 Ikusi, 2013/33/BE Zuzentarauaren 14. zk.ko Arrazoia.

335 Europan asilo sistemen arteko desberdintasunek irauten dutenez, errefuxiatuak Batasunaren barrualdera lekuz aldatu ohi dira, eta nahiago dituzte baldintza onuragarriagoak dituzten Estatu kidek. Horri dagokionez, ikusi, GARLICK, M., "¿Bide jendetsua? Asilo eta babes eskatzaileen bigarren mailako desplazamenduak, *Behartutako Migrazioen Aldizkaria*, 51. zk.koa, 2016 urtarrila, 42-44. orrialdea.

336 Ildo honetatik, Espainian AIZ-en egoerari buruz, eta haien bideragarritasun zalantzagarriari buruz, babes humanitario tresna baten ordez, sistema errepresibo-polizialtzat jo behar dena, honakoa ikusi, EE.BB., 99. zk.koa, 2012 iraila, 201-220. orrialdeak; SOLANES CORRELLA, A., "Espainian Atzerritarren Internamendurako Zentroen azterketa kritiko bat: araudia, errealitatea eta alternatibak", *Zuzenbidearen Filosofiaren Aldizkari Telematikoa*, 19. zk.koa, 2016, 37-76. Orrialdeak, eta ELBE, 2017 Txostena, *Errefuxiatuak eta migrazioak Espainian: hegoaldeko muga atze aldeko hesi ikustezinak*, 2017, 16-18. orrialdeak. Halaber, ikusi, "AIZ-en eraginkortasunak2016an behera egiten du: internatutako migranteen %70 ez dituzte deportatu", *Eldiario.es*, 2017ko apirilaren 27koa, y "Algecirasko AIZ-n dauden pertsonen azken bi urteetako eskaeren %60 asilo eskubideei buruzkoa da", *Eldiario.es*, 2017ko ekainaren 6koa.

Nazioarteko babes eskatzaileen internamenduari aplikatu behar zaion printzipioa da inori ezin zaiola internamendua aplikatu soilik nazioarteko babes eskaera egiteagatik (8.1 artikulua) – Estatu kideek bere gain hartutako nazioarte izaerako betebehar juridikoekin bat, eta zehazki, 1951ko *Genevako Konbentzioarekin bat* -. Baina, halere, internamendua aplika dakieke 8.3 artikuluan argi zehaztutako eta ezarritako salbuespenezko zirkunstantzietan, "beharraren eta proportzionaltasunaren printzipioaren arabera, internamenduaren bai modua eta baita helburuari dagokionez"[337]. Helburu hauetarako, soilik intermanendua aginduko da:

a) bere identitatea edo nazionalitatea atzemateko o egiaztatzeko;

b) nazioarteko babes eskaeraren oinarri diren elementu batzuk zehazteko internamendua ezinbestekoa denean, bereziki eskatzaileak ihes egiteko arriskua dagoenean;

c) prozeduraren markoan, eskatzaileak lurraldean sartzeko eskubideari buruz erabakitzeko;

d) internatutako pertsona 2008/115/EK Zuzentarauak arautzen duen itzularazte prozedura batean nahastuta dagoenean (...) itzularaztea edo kanporaketa prozeduraren exekuzioa prestatzeko, eta Estatu kideak irizpide objektiboen bitartez egiaztatu baldin badezake, zehazki, pertsona interesdunak asilo prozedura bat hasteko aukera jada izan duela, eta arrazoizko arrazoiak daudela pentsatzeko nazioarteko babes eskaera aurkezten duela itzularazteko erabakiren exekuzioa atzeratzeko edo galarazteko;

e) segurtasun nazionalaren eta ordenu publikoaren babesak hori behartzen duenean;

f) 604/2013 Araudiaren 28. artikuluarekin bat (EB), non lekualdatzeko helburuarekin internamendu baldintzak arautzen diren[338].

Araudi europarrean salbuespenezko neurritzat jo arren, Estatuek atxiloketak geroz eta gehiago erabiltzen dituzte immigrazio irregularra eragozteko. Eta horrek LGTBI+ pertsonei eragiten die, bere giza eskubideen urraketa anitz jasateko arriskua dagoen atxiloketa zentrotan sartzen dituztelako[339]. Horrela, Giza Eskubideen Komisario Europarraren txostenean – *sexu-orientazioa eta genero-identitatearengatik diskriminazioa borrokatzen* -, agerian uzten du Estatu kide ezberdinen harrera sistemen arteko harmonizazio falta dela, eta horrek galarazten duela harrera, egonaldi eta atxiloketa zentroetan LGTBI+ pertsona batzuen kalteberatasun bereziari erantzun eraginkorra ematea[340]. Instalazio hauetan, Amsterdameko Unibertsitatearen 2011ko txostenak

---

337 Ikusi, 2013/33/EB Zuzentarauaren 15. zk.ko Arrazoia.

338 EBAE-k *Cimade eta Gisti* aferan ondorioztatu zuen "Estatu kide bat, asilo eskaera bat egin zaiona, aipatutako Zuzentarauak aurreikusitako harrera baldintzak emateko behartuta dago; baita ere honako kasuan: asilo eskatzaile baten kasuan, non erabakitzen duen beste Estatu kide bati errekeritzea pertsona hori hartzeko edo berriz onartzeko, asilo eskaeraren aztertzaile arduradun moduan" (50. paragrafoa). Halaber, oinarrizko eskubideak eta, zehazki, BEOEH-ren 1. artikulua betetze aldera gehitzen du: "Zuzentarauaren egitura orokorra eta helburua (...) ez dute nahi asilo eskatzaileari ukatzea, aldi baterako izan arren, asilo eskaera aurkeztu ondoren eta Estatu kide arduradunera benetan bidali baino lehen ["Dublingo Sistemaren" markoaren barruan], Zuzentaruan ezarritako gutxieneko arauen babesaren arduraduna" (56. paragrafoa). Azkenik, baieztatzen du Estatu kidearentzat obligazio hori bukatzen dela "errekerimendua egiten duen Estatu kideak eskatzailearen benetako leku aldaketa egiten duenean, eta gutxieneko badintza horiek emateko kostu ekonomikoa azken Estatu kide honi dagokio" (61. paragrafoa). BEJAE, 2012ko irailaren 27koa, *Cimade eta Gisti* afera, C-179/11.

339 *Cfr.* TABAK, S. eta LEVITAN, R., "LGBTI migranteak eta inmigranteen atxiloketak", *Behartutako Migrazioan Aldizkaria*, 42. zk.koa, mayo 2012 maiatza, 47. Orrialdea.

340 *Cfr.* Council of Europe, *Combating discrimination on the grounds of sexual orientation and gender identity*, June 2011.

salatzen zuen moduan - *Homofobiarengandik ihesean. Sexu-orientazioarekin eta Genero-identitatearekin erlazionatutako asilo eskaerak Europan -,* LGTBI+ pertsonak atxiloketaldi luzeak jasaten dituzte; beste atxilotuek edo zentroko langileen aldetik abusuak; bortizkeria fisikoa eta ahozkoa; eta askotan bere sexu bereko pertsonek eragindako bazterketa soziala. Horiek guztiak Estatu kide gehienetan askotan gertatzen diren praktikak dira, oso bereziki, Grezian, Maltan edo Hungarian[341].

LGBTI+ eskatzaileen atxiloketaren atzean Europan ezkutatzen den errealitatea

Nazioarteko babes eskatzaileen atxiloketa geroz eta maizago erabiltzen den praktika bat da, migrazio fluxuak kontrolatze aldera, eta lurralde europarretik bigarren mailako mugimenduak ekiditeko, baina hori ez da eragozpena izan Batasuneko kanpo mugetatik barrena sartzen jarraitzeko. LGBTI+ kolektiboko kideen kasu zehatzean, askotan atxiloketa zentroetan bazterketa soziala jasaten dute, eta baita abusuak eta bortizkeria psikiko eta sexuala, kolektibo honen kontra bere SOGI-rengatik zuzendua, edo zentroko langileek edo beste atxilotu batzuk egindako jazarpena. Egoera hauetan, trans emakumeak dira bereziki kalteberak; izan ere, oro har, arrisku handiagoa dute, eta atxiloketa eta harrera zentroetan gizonezkoekin sartzeko erabateko arrisku dute, eta horrek guztiak, nazioarteko babes eskaera prozeduran zehar bere buruari erasotzeko edo bere burua beste egiteko arriskua ere sortzen du[342].

Halaber, jakina izan arren atxiloketa egoeran dauden LGTBI+ pertsonek haien jatorrizko herrialdeetan bortizkeria fisiko eta sexuala etengabea jasan dutela, eta harrerako herrialdeetara ondorio larriekin iristen direla, haien osasun mentalari eragiten diena; eta horiei gehituta harrerako edo korridoreko herrialdeko egonaldi edo atxiloketa aldian jasandako esperientziengatik trauma berriak, biktimizazio bikoitza eragingo die. Ildo honetatik, atxiloketa zentro europar zehatz batzuetan soilik premiazko laguntza medikua ematen zaie, prozedura medikuan oso gutxitan interpreteak dituzte, eta ez daude pribatutasuna gordetzen duten nahiko espazio. Horrek guztiak bultzatu du trans kolektibo honek medikuek egindako azterketa mediku inbasiboak salatzea; izan ere, mediku horiek ez dituzte haien burua identifikatzen duen generoaren osasun behar zehatzak ezagutzen. Halaber, oso gutxitan ematen zaie behar izanez gero medikazio erregimen iraunkor bat, edo terapia hormonal bat. Baldintza horietan, LGBTI+ kolektiboak GIB-rengatik infekzioak harrapatzeko arrisku handia du, eta beste Sexu-Kutsapenezko Infekzioak ere (SKI). Horrelako pertsona batzuk jada atxilotzerakoan infektatuta daude, sexu-lan asko egin dutelako, edo bortizkeria sexualaren arriskupean egon delako. Beste batzuk, ordea, atxilotuta dauden lekuan kutsatu dira; izan ere, han GIB eta SKI tasak handiagoak dira gainerako herritarrekin alderatuta. Zehazki, atxiloketa aldian zehar jasandako sexu-abusuen ondorioz kutsatzea nagusiki trans emakumeei eragiten die, askotan, gizonezkoen gela beretan sartzen dituztelako[343].

Ildo honetatik, LGBTI + pertsonen atxiloketek sortzen dituen arazo larriak konpontzeko nahikoa ez izan arren, ENBGK-k 2012ko urrian argitaratu zuen *Asilo eskatzaileen atxiloketei eta atxiloketaren alternatibari aplikagarriak diren irizpide eta estandarrei buruzko ildoak* agirian, berariaz honakoa xedatzen du:

---

341 *Cfr.* JANSEN, S. eta SPIJKERBOER, T., *...-gandik ihesean, op. cit.,* 78. orriladea.

342 *Cfr.* EE.BB., "Sanctuary, Safety and Solidarity: Lesbian, Gay, Bisexual, Transgender Asylum Seekers and Refugees in Scotland", a report by Equality Network BEMIS and GRAMNet, Scotland, 2011, 13. orrialdea.

343 *Cfr.* TABAK, S. eta LEVITAN, R., "LGBTI inmigranteak...", *op. cit.,* 47-49. orrialdeak.

> "Beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira bermatzeko asilo eskatzaile lesbiana, gay, bisexual, transgenero edo intersexualen atxiloketak ez dituela bortizkeria, tratu txarra edo abusu fisiko, mental edo sexualaren arriskuan jarriko, eta laguntza mediku egokia eta aholkularitza izango dutela, aplikagarria den lekuan. Halaber, atxiloketa zentroetan dauden atxiloketaren langileek eta beste funtzionario publiko zein pribatuk, entrenatuta eta kualifikatuta egon behar dute giza eskubideen eta berdintasun eta ez itzularazteko printzipioei buruzko nazioarteko arauen arloan, baita sexu-orientazio edo genero-identitateari dagokionez. Atxilotzerakoan ezin denean bere segurtasuna bermatu, libre uztea erabaki behar da, edo atxiloketa ez den beste alternatiba bat bilatu. Bera bakarrik konfinatzea ez da egokia pertsona hauen babesa kudeatzeko eta bermatzeko" (9.7 Ildoa)[344].

Horrelako zirkunstantzietan, uste dugu beharrezkoa dela - Estatu kideek ziurtatu behar dute - "praktika zuzenen" gidak eratzea sexu eta genero aniztasuna tratatzeko, eta bertan jaso beharko lirateke babes, sentsibilizazio, prestakuntza eta laguntza psikologikoko neurriak, harrera, egonaldi edo atxiloketa zentroetan aplikatzekoak, Batasunaren araudiarekin bat datozenak. Halaber, bermatu beharko du: bere segurtasuna lehentasunez; osasun laguntza egokia; laguntza sozialak izatea, eta kanpoaldeko munduarekin kontaktua izatea, barne hartuta aholkularitza juridikoa, laguntza medikua, eta LGBTI+ kolektiboari laguntzeko kanpoaldeko sistema, LGBTI+ pertsonak abusuetatik babesteko; guzti hori tratu duin bat jaso dezaten, Zuzenbidearekin bat. Bestalde, Estatu kideek nazioarteko babes eskatzaileen askatasun gabetzeko neurriaren legezkotasunaren kontrol zuhurra egin beharko dute, bere eskaera tramitatzen den bitartean; izan ere, atxiloketa askatasunaren oinarrizko eskubidearen salbuespena da, eta hortaz, LGBTI+ pertsona baten atxiloketak babes zorrotzak izan behar ditu. Babes horiek dira, besteak beste, atxiloketak legeak aurreikusitakoak izan behar dute; berme prozesalak aurreikusi behar ditu, eta ezin du arbitrarioa izan; gertatu liteke pertsona bat denbora luzez askatasuna gabetzea, eta prozedura azeleratu bat aplikatu behar izatea beharrezko bermerik gabe, eta itzularazteko debekua errespetatzen ez duen kanporatze agindua ematea. Hortaz, ez badira errespetatzen, ondorioztatuko litzateke internamendu neurria ezarri dela helburu utilitarista batekin eta kontrolatzeko asmo batekin, ekiditeko, besteak beste, errefuxiatuen bigarren mailako mugimenduak EBko lurraldeetatik barrena.

344 *Cfr.* ENBGK, *Asilo eskatzaileen atxiloketei eta atxiloketaren alternatibari aplikagarriak diren irizpide eta estandarrei buruzko ildoak*, 9.7 zk.ko ildoak: asilo eskatzaile lesbiana, gay, bisexual, transgenero edo intersexual, 2012 urria.

2.3. Batasun Europarreko Justizia Auzitegiaren (EBJA) jurisprudentzia SOGI-arengatik asilo eskubidearen ingurukoa jurisprudentzian

SOGI-an oinarritutako asilo eskubidearen arloko jurisprudentziak bilakaera desberdina izan du, eta ildo honetatik atzeman daitezke arazo batzuk azterlan honetan aztertu behar direnak. Lehenik eta behin, *diskrezioaren betebeharraren* eskaera, hau da, bere SOGI-a ezkutatzea jazarpena ekiditeko. Diskrezioak, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen eskubide oinarrizkoenetakoari azpia jateko potentziala du, hau da, pertsona bati ezin zaio behartu bere identitatea ezkutatzea, aldatzea edo uko egitea. Bigarren, *kriminalizazioa* eta erronkak ezartzeko ea sexu bereko pertsonen arteko erlazioak delitutzat jotzea jazarpena egitea ote den. Lege horiek izatea soilik jurisdikzio batzuetan ez da nahikoa errefuxiatu estatusa edo kondizioa aitortzeko; behar da legearen duela gutxiko edo ohiko aplikazioa, eta baita aplikazioa bere banakako kasuan. Hirugarrenik, *sexualizazioa* aipatu behar da, erabakiak hartu behar dituzten pertsonek gehiegizko garrantzia ematen die ekintza sexualei, pertsona baten bizitza sexualaren identifikazio inbasibo eta umiliagarri moduan. Laugarren arazoa da *estereotipoena*, SOGI ez da ikusten arraza eta nazionalitatea ikusten den moduan. Frogak ezean, erabakiak hartzen dituztenek haien usteak edo estereotipo pertsonalak oinarritzat erabili dituzte ondorioak ateratzeko, eta horrek, ezinbestean, erabakiak hartzerakoan inpartzialtasuna akastu egiten du. Bosgarren eta azken alderdia da *sinesgabetasunarena,* askotan estereotipoekin batera doana. Auzitegi guztiek ez dute onartzen eskatzaileen LGTBI+ auto-identifikazioa. Batzuk lekukoen deklarazioak edo agiriak behartzen dituzte, hala nola, posta elektronikoak, eta ez dute kontutan hartzen eskatzailearentzat aurkeztea ezinezkoa egin dakiokeela, zehazki, haien SOGI-a modu guztietan ezkutatzen saiatu direlako[345].

BEJA-k batzuetan SOGI-rengatik asilo eskubideari buruz erabakiak hartu ditu, zehazki, *diskrezioaren irizpidearen* aplikazioaren inguruan; baita ea jatorrizko herrialdean ekintza homosexualak tipifikatzea jazarpentzat jotzea posible izatearen inguruan; jazarpena jasateko beldur handia alegatzen duen pertsona baten kontaketaren froga edo sinesgarritasuna egiaztatzeko elementuen inguruan; eta zehazki, nazioarteko babes eskatzaileari bere SOGI-a atzemateko azterketa psikologikoaren debekua.

2013ko azaroaren 7ko *X., Y. eta Z.* aferan, Sierra Leona, Uganda eta Senegaleko nazional batzuk Herbehereei eskatu zioten pertsona errefuxiatuaren estatutua, eta alegatu zuten haien sexu-orientazioarengatik haien jatorrizko herrialdeetan jazarpena jasateko ganorazko beldurra zutela. Herbehereetako organo jurisdikzional gorenak BEJA-ri eskatu zion *diskrezio irizpidea* deitutakoari buruz iritzia emateko; izan ere, asilori buruzko agintari batzuk ez dute nazioarteko babesa ematen eskatzaileak bere sexu-orientazioa jatorrizko herrialdean ezkutatu baldin badezake. Bigarrenik, eskatu zion iritzia emateko ea sexu bereko pertsonen artean izandako sexu ekintzak kriminalizatzea jazarpen ekintzatzat jo daitekeen. Halaber, horrekin erlazionatuta, eskatu zion adierazi zezan ea gainera legeria benetan aplikatu izana behar den ("arauaren benetako aplikazioaren betebeharra"), eta eskatzaileari zuzenean aplikatu izan behar zaion, eta orduan bai zigorraren banakako aplikazioa gertatu den[346].

---

345 *Cfr.* TÜRK, V., "LGBTI+ intereseko pertsonentzat babesa bermatzea", *Behartutako Migrazioen Aldizkaria*, 42. zk.koa, 2012 maiatza, 5-7 orrialdeak, eta ŚLEDZINSKA-SIMON, A. eta ŚMISZEK, K., "Asilo eskaerak...", *op. cit.*, 16-18.. orrialdeak

346 Sakonago aztertze aldera, ikusi, BOLLO AROCENA, M.D., "EBAE-ren Epaia...", *op. cit.*, 43-48. orrialdea.

Diskrezioaren irizpideari buruz, Luxenburgoko Auzitegiaren iritzi eztabaidaezina honela adierazten da:

> "errefuxiatu estatutua lortzeko eskaera bat aztertzerakoan, agintari eskudunek ez dute zentzuz espero behar, jazarpen arriskua ekiditeko, asilo eskatzaileak bere jatorrizko herrialdean bere homosexualitatea ezkutatzea edo bere sexu-orientazioa diskrezioarekin bizitzea"[347].

BEJA-k argudio juridiko hauekin agerian uzten du arau europarraren kontraesana: diskrezioaren irizpidearen betebeharra behartu, eta aldi berean bere identitatearen ezaugarri horren oinarrizkoa den sexu-orientazioa aintzakotzat hartu – ezaugarria, uko egitera behartu ezin dena da, eta, ondorioz, giza talde zehatz beteko kideak definitzen dituena da, 2011/95/EB Zuzentarauaren 10.1. d) artikuluan jasotzen den moduan:

> "beharrezkoa da aldarrikatzea sexu-orientazio bera partekatzen duten giza talde bateko kideei orientazio hori ezkutatzeko behartzea, horren oinarrizkoa den ezaugarria aitortzearen kontrakoa dela; izan ere, interesatuei ezin zaie uko egitea behartu"[348];
>
> "arauak ez du baimentzen honako konklusioak ateratzea: sexu-orientazioaren kontzeptua, xedapen beraren d) letran aipatzen dena, bakarrik erabiltzen da pertsonaren bizi pribatuaren esparruarekin erlazionatutako ekintzentzat, eta ez bizitza publikoko ekintzentzat. [...] Ez da zilegia pentsatzea, jazarpena jasatea ekiditeko, asiloa eskatzen duen pertsona batek bere homosexualitatea bere jatorrizko herrialdean ezkutatzea".

Hortaz, Luxenburgoko Auzitegiaren argudio hauek Estatu kide zehatz batzuk *diskrezioaren irizpidearen* aplikazio praktikoari amaiera eman diote, hala nola Austria, Belgika, Bulgaria, Zipre, Danimarka, Espainia, Finlandia, Frantzia, Hungaria, Irlanda, Malta, Herbehereak, Polonia eta Errumanian, eta jada eskatzaileari ez diote eskatzen, berariaz edo tazituki, jazarpena ekiditeko bere sexu-orientazioa bere jatorrizko herrialdean ezkutatzeko[349]. Erresuma Batuan betebehar hori aplikatzetik baztertuta gelditu zen, britaniar Auzitegi Gorenaren 2010eko *HJ (Iran) eta HT (Kamerun)* epaiaren ondoren, eskatzaileak bere borondatez berariaz eskatu baldin badu, eta familiaren edo gizartearen presiorengatik eskatu baldin badu[350]. DÍAZ LAFUENTEk baieztatzen duen moduan, "pertsona bati bere sexu-orientazioa edo genero-identitatea ezkutatzea behartzen bazaio, bere intimitatearen oinarrizko zati bati uko egin behar dio, eta baita bere pertsonalitatea libre garatzeari, eta gizaki bezala duen duintasunari; horiek guztiak, giza eskubideen nazioarteko eta europar tresna juridikoek jasotakoak. Hortaz, pertsona bati bere sexu-orientazioa edo bere genero-identitatea ezkutatzeko behartzea, pertsona horren giza eskubideen bortxaketa argia

---

347 EBAEE, 2013ko azaroaren 7koa, *X. eta beste batzuk* afera, metatutako aferak, C-199/12tik C-201/12ra, 46. orrialdea.

348 *Ibídem*., 45. paragrafoa.

349 *Cfr.* LGNE-Europe, *Statement on pending preliminary rulings by CJUE regarding alleged persecution on the ground of sexual orientation,* 2012ko maiatzaren 2koa.

350 United Kingdom. Supreme Court. Cases *HJ-Iran and HT-Cameroon*, 2010.

da, eta asilo eskubidearen babesaren espirituaren kontrakoa da"[351]. Horri dagokionez, ENBGK-k baieztatu du "sexu-orientazioa edo genero-identitatea ezkutatzeko behartzea, Estatuak kitzikatzen edo zigortzen duen herrialdean, jazarpentzat jo daitekeela"[352].

Jatorrizko herrialdean ekintza homosexualen tipifikazioa jazarpentzat jo ote daitekeen gaiaren inguruan aipatu behar da Batasun Europarraren esparruan ez dagoela asiloari buruzko praktika prozesal uniforme bat. Alemania, Erresuma Batua, Finlandia edo Suedia bezalako herrialdeek exijitzen dute sexu bereko pertsona adinez nagusiek libreki izandako ekintzak tipifikatzen dituen zigor arauak – hala nola, askatasun gabetzea edo heriotz zigorra – benetan aplikatzea; eta beste batzuk, Espainian bezala, eskatzen dute zigor arauaren benetako aplikazioaz gain, eskatzaileari banakako aplikazioa egitea[353]. A *sensu contrario*, Italiak uste du jazarpena jasateko ganorazko beldurra justifikatzeko nahikoa dela jatorrizko herrialdean zigor arau bat egotea; izan ere, erakundeen eta gizarte mailan giro homofobo jazartzaile bat sortzen laguntzen du eta herrialdeko agintariei babesa eskatzea ezinezkoa egiten du[354].

Horri dagokionez, BEJA-k honakoa adierazten zuen:

> "ekintza homosexualak delitu edo faltatzat tipifikatzeagatik soilik ezin da pentsatu ekintza horrek interesdunari nabarmenki eragiten dionik, eta hori errekeritzen den larritasunera iristen denik zigor tipifikazioa jazarpentzat jotzeko moduan, Zuzentarauaren 9. artikuluaren 1. atalak ezartzen duenaren arabera"; halaber, "ekintza homosexualak delitutzat tipifikatzen dituen legezko xedapen batek askatasun gabetzeko zigorra ezartzen badu, horrek berez jazarpen ekintzatzat jo daiteke Zuzentarauaren 9. artikuluaren 1. atalak ezartzen duenaren arabera, baldin eta mota horretako legeria onartu duen jatorrizko herrialdean benetan aplikatzen bada"[355].

Hortaz, BEJA-k emandako erabakiak horri buruz kasazio Auzitegi italiarrak ezarritako dotrina arbuiatzen du, eta Estatu kideak behartzen ditu jazarpentzat jotzeko elementutzat 2011/95/EB Zuzentarauaren 9.2 artikuluarekin bat, honakoa onartzea: zigor arauaren benetako aplikazioa, banakatu Gabe egitea, eskatzailearen zirkunstantzia zehatzei dagokionez. Nolanahi ere, ENBGK-ren jarrera argi eta garbi BEJA-renaren kontrakoa da, behin da berriz hau adierazi baitu: "maiztasun batekin ezarri ez baldin badira ere, sexu bereko pertsonen arteko erlazioak debekatzen dituzten legeek LGBTI+ pertsonen egoera jasanezin bihurtu dezake, eta jazarpentzat jo daiteke (…)". Egoera honek "sor lezake edo sortzen lagundu lezake intolerantzia inguru itogarria, eta harreman horiek izateagatik auzipetua izateko beldurra"; gainera "LGBTI+ pertsonei zaildu diezaieke Estatuaren babesa bilatzea eta eskuratzea"[356]. Bestalde, Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans eta Intersexen Nazioarteko Elkarteak (LGNE) salatzen duen moduan, zigor

---

351 *Cfr.* DÍAZ LAFUENTE, J., *Asilo eta babeslekua…, op.cit.,* 125-126. orrialdeak.

352 *Cfr*. ACNUR, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak 9. zk.koa…, op. cit*., 2. orrialdea.

353 Véase, JANSEN, S. eta SPIJKERBOER, T., …-rengandik ihesean, *op. cit*., 22-23. orrialdeak. Halaber, ikusi, LGNE-Europe, *Annual Review of the Human Rights situation of Lesbian, Gay, Bisexual, Trans and Intersex people in Europe*, 2013, 91. eta hurrengo orrialdeak.

354 Kasazio Auzitegi Italiarra, 15981/2012 Epaia.

355 EBJAE, 2013ko azaroaren 7koa, *X. eta beste batzuk* afera, metatutako aferak, C-199/12tik C-201/12ra, 51-52. paragrafoak.

356 *Cfr.* ENBGK, *Naziaorteko Babesari buruzko Ildoak, 9. zk.koa…, op. cit.*, 27. paragrafoa.

lege bat baldin badago, Estatuak aplikatu ez arren, jazarpen ekintzatzat jo behar da; izan ere, funtsezko elementua baita - Estatuaren tolerantziarengatik- modu zuzenean homofobia giro bat eta baita LGBTI+ kolektiboaren aurkako giro etsaitasunezkoa eta estigmatizatzaile bat sortzen laguntzeko [357].

Azkenik, *jazarpenarengatik beldur handia jasaten duela alegatzen duen pertsona baten kontaketaren sinesgarritasuna egiaztatzeko frogak eta elementuei dagokionez*, 2014ko abenduaren 2ko BEJAE-k, *A., B. eta C.* aferan, Estatu kideetako agintariek izan behar dituzten mugak ezartzen ditu, hain zuzen ere, dagokion Estatuan nazioarteko babes eskaerarako sexu-orientazioko arrazoia alegatzen duen pertsonaren deklarazioen sinesgarritasuna ebaluatzeko[358]. Kasu zehatz honetan, demanda jartzaileek eskatzen dute aldi baterako bizileku baimena (asiloa) Herbehereetan, eta alegatzen dute jatorrizko herrialdean haien homosexualitatearengatik jazarpena jasateko beldurra. A. jaunak adierazten zuen borondatez "azterketa" bat egiteko asmoa zuela, bere sexu-orientazioa frogatu aldera, edo horretarako ekintza homosexual bat egiteko prest zegoela; C. jaunak, berriz, zuzenean bideo bat aurkeztu zuen, beste gizonezko batekin sexu harremanak izaten ikusten zena.

Lehenik eta behin, galdeketen bitartez egindako azterketei dagokienez, non agintariek haien balorazioa kontzeptu estereotipatuetan oinarritzen dituzten, BEJA-k honakoa baieztatzen du:

> "estereotipatutako kontzeptuei dagokien galdeketak agintari eskudunentzako ebaluazioa horrentzat elementu erabilgarriak izan baldin badaitezke ere, errefuxiatu estatutua emateko eskaeren ebaluazioak soilik homosexualei lotutako kontzeptu estereotipatuak soilik kontuan hartuta (...) ez du uzten agintari horiek kontuan hartzea dagokion asilo eskatzailearen egoera zehatza eta zirkunstantzia pertsonalak", 2011/95/EB Zuzentarauaren 4.3 artikulua eta 2013/32/EB Zuzentarauaren 10. artikuluak xedatzen dutenarekin bat[359].
>
> "Hortaz, asilo eskatzaile batek galdera horiei ez erantzuteko gaitasuna ez da, *per se*, arrazoi nahikoa eskatzaileak ez duela sinesgarritasunik ondorioztatzeko"[360].

Aldi berean, BEJA-k zehazten du:

> "agintari nazionalek, hala balitz, galdeketak egin ditzakete asilo eskatzaile batek aitortutako sexu-orientazioaren inguruko gertaera eta zirkunstantziak aztertzeko, baina *eskatzaile horren sexu-praktikei buruzko xehetasunen inguruko galdeketak Gutunak bermatutako oinarrizko eskubideen kontrakoak dira,* eta zehazki, bizitza pribatua eta familia bizitza errespetatzeko eskubidearen kontrakoa, bere 7. artikuluan xedatzen den moduan"[361].

Demanda jartzaile batzuk auzi nagusietan proposatutako ekintza homosexualak egitearen aukera agintari nazionalek onartzeari buruz, eta baita bere homosexualitatea egiaztatzeko

---

357 *Cfr.* LGNE-Europe, *Statement on pending..., op. cit.,* 2. orrialdea.

358 Gai honetan gehiago sakontzeko, ikusi, BOLLO AROCENA, M.D., "...-ei mugak", *op. cit.*, 55-61. paragrafoa.

359 BEJAE, 2012ko abenduaren 2koa, *A., B. eta C* afera, metatutako aferak, C-148/13tik C-150/13ra, 62. paragrafoa.

360 *Ibídem.*, 63. paragrafoa.

361 *Ibídem.*, 64. paragrafoa.

"azterketak" egiteari buruz, edo baita ere, haien ekintza intimoei buruzko bideo grabaketak bezalako frogak aurkezteari buruz, Auzitegiak argi adierazten du:

> "elementu horiek nahita nahiezko froga balioa ez dute, eta gainera, giza duintasuna kaltetu dezake, Gutunaren 1. artikuluan bermatuta dagoena". Ildo honetatik, "baimentzea edo onartzea horrelako frogak, beste eskatzaileei sustatuko lieke, eta berez, froga horiek inposatzea ekarriko luke[362].

Bere azken epaian, 2018ko urtarrilaren 25eko *F.* aferan, nigeriar herritar bat agintari hungariarren aurrean nazioarteko babes eskaera bat aurkeztu zuen, eta bertan alegatzen zuen bere jatorrizko herrialdean bere homosexualitateko arrazoiarengatik jazarpena jasateko ganorazko beldurra. Agintari horiek pentsatu zuten eragindakoaren deklarazioak ez zirela kontrajarriak, eta halere, nazioarteko babes eskaera ukatu zioten, interesdunak alegatzen zuen sexu-orientazioa bere pertsonalitatea aztertzeko *aditu txosten psikologikoak* ez zuela egiaztatu oinarrituta. Luxenburgoko Auzitegiak aurreko dotrina berretsi du eta adierazi du:

> "Gutunaren 7. artikuluaren arabera, honela interpretatu behar da: nazioarteko babes eskatzaile batek alegatutako sexu-orientazioaren sinesgarritasuna baloratzeko, azterketa psikologiko bat egitea eta erabiltzea ez du eragozpenik jartzen; auzi nagusian eztabaidagai den azterketa, eskatzaile horren sexu-orientazioaren irudi bat emateko xede duena, eta pertsonalitate-test proiektiboetan oinarritzen dena"[363].

Beraz, epai honen arabera, aditu baten irizpen modalitateek BEOEH-k bermatutako oinarrizko eskubideak errespetatu behar ditu, hala nola, giza duintasunerako eskubidea, eta bizitza pribatua eta familia bizitza errespetatzeko eskubidea. Epaileek ere azpimarratzen dute azterketa hauek bere sexu-orientazioari buruzko eskatzailearen deklarazioen *sinesgarritasuna ebaluatzeko ez direla ezinbestekoak*[364]. Gainera, BEJA-k adierazten du "pertsonalitate test proiektiboak egin behar dituen pertsona egoera batean dago non bere etorkizuna erabat baldintzatuta dagoen agintari horrek bere nazioarteko babes eskaeraren inguruko erabakiarengatik; eta test horiek ez egiteko balizko hautua faktore garrantzitsua izan daiteke agintariak finkatzen duenean ea eskatzaileak benetako esfortzu bat egin duen bere eskaera oinarritzeko". Horregatik, baita adituaren txostenaren test psikologikoak egiterakoan, auzi nagusiaren kasuan bezala, eskatzaileak bere adostasuna eman beharko badu ere, pentsatu liteke adostasuna ez dela nahita nahiez libreki ematen; izan ere, *de facto*, nazioarteko babes eskatzailea dagoen zirkunstantzien presioarengatik inposatu daiteke"[365].

Azkenik, agintariek sinesgarritasunik ez dagoela jotzen badute, zehazki, eskatzaileak bere sexu-orientazioa adierazteko aukera eman zitzaion lehen momentuan alegatu ez zuelako, EBJA-k dio bere nazioarteko babes eskaera oinarritzeko elementu guztiak "*lehenbailehen*" aurkeztu ezin izateak (2011/95/EB Zuzentarauaren 4.1 artikulua), ez duela justifikatzen babesa ukatzea bere kontaketa sinesgarritzat jotzen ez dutelako. 2013/32/EB Zuzentarauaren 10. artikuluak dioen moduan, "[E]statu kideek bermatuko dute nazioarteko babes eskaerak ez direla ezetsiko edo azterketatik baztertuko soilik ez delako aurkeztu ahal zen eta azkarren". Ondorio hauetarako,

362 *Ibídem*., 66. paragrafoa.

363 BEJAE, 2018ko urtarrilaren 25ekoa, *F.* afera, C-473/16, 71. paragrafoa.

364 *Íbidem*., 67 eta hurrengo paragrafoak.

365 *Íbidem.*, 52 eta 53. paragrafoak.

EBJA-k kasu honetan baieztatzen du: "kontutan izanda pertsona baten esparru pertsonalari buruzko galderak, eta zehazki, bere sexualitateari buruzkoak, delikatuak direla, ezin da ondorioztatu pertsona horrek ez duela sinesgarritasunik soilik bere bizitzaren alderdi intimoak azaltzeko erreparoak dituelako, ez duelako lehen momentutik bere homosexualitatea aitortu". Ondorioz, SOGI-rengatik nazioarteko babes eskaeren inguruan, ez da beharrezkoa jazarpenaren arrazoia "lehenbailehen" ezagutaraztea. Halaber, gehitzen du kasu hauetan entzunaldi bat egitea beharrezkoa izango dela, kontuan izanda eskaeraren inguruko zirkunstantzia pertsonalak edo orokorrak, eta baita ere eskatzailearen kalteberatasuna, eta eskaeraren banakako ebaluazioa egitea ere, eskatzaile bakoitzaren egoera partikularra eta zirkunstantzia pertsonalak kontuan izanda, 2011/95/EB Zuzentarauaren 4.3 artikuluarekin eta 2012/32/EB Zuzentarauaren 10.3 artikuluarekin bat. Hortaz, eskatzaile bat sinesgarritzat ez jotzea soilik bere sexu-orientazioagatik jazarpenaren arrazoiak azaltzeko eskaini zitzaion lehen aldian ez ezagutarazteagatik, ebaluazioa egiteko eskaera bera baztertu beharko litzateke[366].

366 *Ibídem*., 67-71. paragrafoak.

III. SOGI-ARENGATIKO ASILO ESKUBIDEA ORDENAMENDU JURIDIKO ESPAINIARREAN

1. SOGI-rengatik asilo eskubidearen aitortza eta babes subsidiarioa asiloari buruzko araudi espainiarrean

Konstituzio espainiarraren 13.4 artikuluak xedatzen ditu "beste herrialdeetako herritarrak eta aberrigabeak asilo eskubidea Espainian erabili ahal izateko baldintzak". Bestalde, urriaren 30eko 12/2009 Legeak, *asilo eskubidea eta babes subsidiario arautzen duenak*[367], araudi europarraren ildotik, zehazki, 2011/95/EB Zuzentarauak, bere 3. artikuluaren ildotik, ezartzen du *errefuxiatu kondizioaren* aitorpena honako terminoetan:

> "[e]rrefuxiatuen kondizioa pertsona orori aitortzen zaio jazarpena jasateko ganorazko beldurra duenean, *arraza, erlijio, nazionalitatea, iritzi politikoa, giza talde zehatz bateko kide izatea, genero edo sexu-orientazioko arrazoiengatik*, bere nazionalitateko herrialdetik kanpo dagoenari, eta ezin duena, edo ez duena nahi, beldur horiengatik, herrialde horretako babesa eskuratzea, edo aberrigabeko bati, nazionalitaterik ez duena eta ohiko bizilekua zuen herrialdetik kanpo egotean, arrazoi berdinengatik ezin duenean edo, beldur horiengatik, ez duenean bertara itzuli nahi".

Ordenamendu juridiko espainiarrak SOGI-rengatik nazioarteko babeserako eskubidearen berariazko aitortza legala egiten du, eta horrek araudi aurrerapen handi bat suposatzen du jatorrizko herrialdeetatik ihes egiten duten pertsona guzti horientzat, soilik bere SOGI-a libreki eta duintasunez bizi eta garatu nahi izateagatik jasandako jazarpenarengatik.

Bere aldetik, *babes subsidiarioa* 12/2009 Legeko 4. artikuluan jasotzen da:

"beste herrialdeetako pertsonei aitortutako eskubidea da, eta aberrigabeei ere, asiloa eskuratzeko edo errefuxiatutzat jotzeko baldintzak ez dituzten arren, bai ganorazko arrazoiak daudela *jatorrizko haien herrialdera itzuliko balira* nazionalen kasuan edo, aurreko ohiko bizilekura, aberrigabeen kasuan, Legearen 10. artikuluan aurreikusitako *kalte larriak jasateko benetako arriskuari aurre egin beharko liokete* (...)".

Ildo honetatik, aurreko xedapenak aipatzen duen 10. artikuluak babes subsidiarioa sortzen duten *kalte larritzat* honakoak jotzen ditu:

---

367 EAO, 263. zk.koa, 2009ko urriaren 31koa.

> "heriotz zigorra ezartzea edo exekuzio materialaren arriskua egotea, tortura eta tratu inhumanoak eta umiliagarriak eskatzailearen jatorrizko herrialdean, eta mehatxu larriak zibilen bizitzaren edo integritate fisikoaren kontra, nazioarteko edo barne konfliktu egoeretan bortizkeria indiskriminatuak eragindakoa".

Horri dagokionez, nagusiki bi dira argudio garrantzitsuak, DÍAZ LAFUENTE-ren arabera, Administrazioak eta Auzitegiek SOGI-rengatik babes subsidiarioa aitortzen dutenak:

> "a) Jatorrizko herrialdean sexu bereko adinez nagusien artean izandako ekintza sexualak zigortzen diren kasuak, eskatzailearen benetako banakako jazarpena jasan dela ezin izan denean frogatu.
>
> b) Aurreko kasuak baino ohikoagoak dira: torturak jasan edo jasateko benetako arriskua egiaztatzen denean, sexu-orientazio edo genero-identitatea arrazoiengatik"[368].

Hortaz, errefuxiatu estatutua edo babes subsidiarioa emateak ondorio hauek ditu 12/2009 Legearen 36. artikuluaren arabera: "Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioan ezarritako eskubideak aitortzea, atzerritarrei eta inmigrazioari buruzko indarrean dagoen araudian daudenak, eta halaber Batasun Europarraren araudian daudenak". Halaber, aipatutako xedapenak eskubide minimo batzuk izendatzen ditu, nazioarteko babesaren funtsezko edukia eratzen dutenak. Hauek dira, besteak beste, ez itzularazteko eskubidea (*non-refoulement*), informaziorako eskubidea, bizileku eta lan iraunkorrerako baimena, agiri zehatz batzuk eskuratzeko eskubidea, lanera, hezkuntzara, osasun laguntzara, etxebizitzara, gizarte laguntzara eta gizarte zerbitzuetara heltzeko eskubidea, zirkulatzeko eskubidea, familia unitatea elkartuta mantentzeko eskubidea, eta borondatez itzultzeko programetara heltzeko eskubidea.

Gainera, 12/2009 Legeak aukera du *arrazoi humanitarioak medio* Espainian egonaldia edo bizilekua baimentzeko, 37.b) artikuluarekin bat, ebazpenak negatiboak diren kasuen efektuen barruan:

> "[n]azioarteko babes eskaerak tramitatzera ez onartzea edo ezesteak honakoa ondorioztatuko du, hala balegokio: itzularaztea, kanporatzea, lurralde espainiarretik derrigorrean irtetea, edo asilo eskatzailearen eskaera aztertuko duen Estatu arduradunera lekuz aldatzea, salbu, (...) b) Espainian egonaldia edo bizilekua baimentzea, indarrean dagoen araudian zehazten diren arrazoi humanitarioengatik"[369].

Bere aldetik, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak - *4/2000 Lege Organikoaren Erregalamendua onartzen duena, Espainian atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarte integrazioari buruzkoa, 2/2009 Lege Organikoak aldatu ondoren*[370]-, bere 126. artikuluan zehazten ditu zein kasutan LGBTI+ pertsonei baimena emango zaion *arrazoi humanitarioengatik*. Kasuak honakoak dira:

---

368 Cfr. DÍAZ LAFUENTE, J., *Asilo eta babeslekua..., op. cit.,* 237. orrialdea. Halaber, ikusi, Auzitegi Goreneko Epaia (aurrerantzean, AGE), 2013ko uztailaren 18koa, 5. O.J. eta Entzutegi Nazionaleko Epaia (aurrerantzean, ENE), 2012ko ekainaren 13koa, 6. O.J..

369 Kontuan izan, baita ere, 12/2009 Legeko 46.3 artikulua.

370 EAO, 103. zk.koa, 2011.ko apirilaren 30ekoa.

> "Zigor Kodearen 311tik 315ra, 511.1 eta 512. artikuluetan tipifikatutako delituen biktima izatea; delituak inguruabar astungarriak izatea arrazoi arrazista, antisemita edo beste mota bateko diskriminazioengatik, Zigor Kodeko 22.4 artikuluaren arabera tipifikatua; edo delituak familiaren ingurunean izandako jarrera bortitzengatik, baldin eta prozedura judizialari amaiera eman dion ebazpen judiziala badago, non ezartzen den delitu horien biktima kondizioa;
>
> Egiaztatzea geroz sortutako izaera larriko gaixotasuna izatea, osasun laguntza espezializatua behar duena, ezin duena bere jatorrizko herrialdeak eskuratu, eta etenez gero, edo ez jasotzeak osasunarentzat edo bizitzarentzat arrisku larria suposatzen duenean. Salbuespenez, ez da behar izango gaixotasuna gerora sortzea, atzerritar adingabe baten egonaldia luzatzeko kasuan, estatu espainiarrera aldi baterako lekualdatu bada, mediku tratamendua jasotze aldera;
>
> Jatorrizko herrialdera edo abiapuntu izan duen herrialdera lekualdatzea dagokion bisatua eskuratze aldera, bere edo bere senideen segurtasunarentzat arriskua dakarrela egiaztatzea, eta gainerako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzea aldi baterako bizilekurako edo bizilekurako eta lanerako baimena eskuratzeko".

Halaber, 12/2009 Legeko 46. artikuluak, bere lehen atalean, kaltebera egoera berezian dauden pertsona errefuxiatuak babesten ditu, honako ezartzean:

> "kontuan izango dira egoera kalteberan dauden nazioarteko babes eskatzaileen edo onuradunen egoera zehatza, hala nola, adingabeak, lagundu gabeko adingabeak, desgaitasuna duten pertsonak, pertsona zaharrak, emakume haurdunak, adingabeak dituzten gurasobakarreko familiak, torturak, bortxaketak, edo beste bortizkeria psikologiko edo fisiko edo sexual mota larriak jasandako pertsonak, eta giza salerosketaren biktimak".

LGBTI+ pertsonen duintasuna eta giza eskubideak bermatzeko funtsezkoa da SOGI-a neurri espezifiko batzuk behar dituen kalteberatasun arrazoitzat jotzea, bai prozeduraren bermeei dagokionez, eta baita harrerako baldintzei dagokienez. Halere, artikulu honetan gabezia bat dago, ez baita LGBTI+ kolektiboaren aipamen berariazko eta autonomoa egiten, talde bereziki kaltebera den neurrian, eta jo behar da, oro har, "torturak, bortxaketak, edo beste bortizkeria psikologiko edo fisiko edo sexual mota larria jasan dutenen" artean sartuta egon behar duela".

Bere aldetik, nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsonei aipatutako 46. artikuluaren bigarren atalean xedatzen dena onuragarria izan dakieke, honakoa adierazten baitu: "[b]ere kalteberatasun bereziko egoera kontuan izanda, beharrezko neurriak hartuko dira aurreko atalak aipatutako pertsonek egindako nazioarteko eskaerei trataera berezitua emateko, beharrezkoa denean. Halaber, trataera zehatza emango zaie ezaugarri pertsonalak medio, jazarpena jasan izan badute, Lege honetan aurreikusitako hainbat arrazoiengatik".

2. SOGI-arengatik nazioarteko babesaren elementuak asiloari buruzko araudi espainiarrean

2.1. SOGI-a, gizatalde zehatz baten ezaugarri moduan

Behin eta berriz azterlan honetan aipatu den bezala, errefuxiatu estatutua edo babes subsidiarioaren aitortza eskuratzeko, jazarpena nahita nahiez 1951ko Genevako Konbentzioaren 1.A. (2) artikuluan ezartzen diren bost arrazoietako bati lotuta egon behar du, hau da, arraza, erlijioa, nazionalitatea, iritzi politikoak edo giza talde zehatz bateko kidea izatea. Horri dagokionez, 12/2009 Legeak bere 3. artikuluan sartzen ditu sexu-orientazioa eta genero-identitatea jazarpen arrazoi moduan, eta LGBTI+ pertsonak giza talde zehatz bateko kide izan daitezke.

Ildo honetatik, giza talde zehatz baten ezaugarriak zehazteko, 12/2009 Legeko 7.1.e) artikuluak baloratzeko bi irizpide ezartzen ditu. Alde batetik, talde horretako kideek "*berezko* ezaugarri bat partekatzen dute edo *aurrekari komunak,* aldaezinak direnak, edo partekatzen dute *ezaugarri edo sinesmen bat, bere identitatearentzat oso funtsezkoa dena eta ezin zaie horri uko egitea exijitu*". Bestalde, aipatzen du talde horrek "dagokion herrialdean *identitate bereizle bat izan behar du,* inguruko gizarteak desberdinak ikusi behar dituelako".

Horri dagokionez, gogora ekarri behar dugu berriz ENBGK-k xedatutakoa; izan ere, irizpideak onartu behar dira modu alternatiboan, eta ez metatze moduan. Hortaz, Administrazio espainiarrak sexu-orientazio edo genero-identitate arrazoiengatik nazioarteko babesa ematea baimendu behar du, *banaka*, jatorrizko herrialdean pertsonek lesbiana, homosexual, bisexual, trans edo intersexual izateagatik giza talde zehatz bat osatzen badute[371].

Halere, azpimarratu behar da 12/2009 Lege berak SOGI-a aitortzen duela giza talde zehatz bateko kide izatea ezaugarri moduan, nazioarteko babesa eskuratu dezakeena, baina nabarmenki murriztaileak diren parametro batzuen arabera.

Ildo honetatik, aipatutako 12/2009 Legeko 7.1.e) artikuluan islatzen da lehen murriztapena, eta horren arabera, giza talde zehatz kontzeptuan sar daitezke sexu-orientazioa eta sexu-identitatea, *jatorrizko herrialdean indarrean dauden zirkunstantzien arabera*, "alderdi hauek berez ez dute artikulu honen aplikazioa ahalbideratzen". Sexu-orientazio eta genero-identitate arrazoiak eta jatorrizko herrialdeak lotzeak, DÍAZ LAFUENTE-ren arabera, bi funtsezko ondorio eragiten ditu:

> a) Behar da herrialde bakoitzean agintari nazional eskudunek LGBTI+ pertsonen egoera ezagutzea. Eskaera horrek asilo eta babes subsidiario eskatzaile LGBTI+ pertsonei segurtasun juridiko eza argia eragiten dio; izan ere, agintariek jatorrizko herrialdeari buruzko informazioa ezak aurreiritziak sor ditzake, eta eskaerak sistematikoki ezeztea eragin dezake, eta eskatzailearen zirkunstantzia pertsonalen banakako azterketa ez tramitatzea;
>
> b) Murriztapen hori modu diskriminatuan aplikatzen da, beste jazarpen arrazoiekin konparatuta: arraza, erlijioa, nazionalitatea edo iritzi politikoak; izan ere, jatorrizko herrialdean indarrean dauden zirkunstantzien baldintza ez da eskatzen[372].

371 *Cfr.* ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak 9. zk.koa…, op. cit.*, 45. paragrafoa.

372 *Cfr.* DÍAZ LAFUENTE, J., *Asilo eta babeslekua…, op. cit.*, 232-233. paragrafoa.

Bigarren murrizketa, dotrinak ez beharrezkotzat, anbiguotzat eta argiki diskriminatzailetzat jotzen duena, 12/2009 Legeko 7.1.e) artikuluan jasotzen da: "inolaz ere ezingo da ulertu sexu-orientazio moduan, ordenamendu juridiko espainiarrean delitutzat tipifikatutako jarrerak". Jakina da adinez nagusiak diren sexu bereko pertsonen artean izandako sexu ekintzak ez direla delituzko ekintzatzat joko egungo Zigor Kode espainiarrean. Gure iritziz, gai honek itxura du legegile espainiarrak ez duela orientazioaren izaera eta edukia ezagutzen, ENBGK-ren 9. zk.ko Nazioarteko Babesari buruzko Ildoan definitzen den moduan: "pertsona bakoitzak duen gaitasuna bere generokoak ez diren pertsonengatik, edo genero berekoengatik, edo genero bat baino gehiagorengatik erakargarritasun emozionala, afektiboa eta/edo sexual sakon bat sentitzeko, eta halaber, pertsona horiekin harreman intimoak eta sexualak mantentzeko gaitasuna"[373]. Ondorioz, honek legegile espainiarra bultzatzen du aurreiritzi diskriminatzaileak izatera, zeharka lotzean sexu-orientazioa eta ordenamendu juridiko espainiarrak tipifikatzen dituen jarrerak, esate baterako, adingabekoei abusuak edo pederastia.

2.2. Jazarpentzat jotzen diren ekintzak

Jazarpena diren ekintzak, eta nazioarteko babesaren objektu direnak, bere izaerarengatik behar bezain larriak izan behar dute, edo behin eta berriz gertatu behar dute, oinarrizko giza eskubideen urraketa larri bat izateko moduan. Horrela ezartzen du 12/2009 Legearen 6. artikuluak, eta lotzen ditu, oinarrizko eskubide horiei dagokienez, "salbuespenik ez duten eskubideekin, Giza Eskubideen eta Oinarrizko Eskubideen Babeserako Hitzarmen Europarraren 15. artikuluko 2. atalean jasotzen direnekin". Hortaz, jazarpentzat jo daitezkeen ekintzak izango dira bizitza eskubidea larriki edo behin eta berriz urratzen dituztenak, torturatzat jo daitezkeenak, zigor edo tratu inhumano eta umiliagarriak, edo esklabotza edo morroitza mota bat suposatzen dutenean. 2011/95/EB Zuzentarauaren ildotik, xedapen horrek ezartzen du baita ere jazarpentzat jo daitekeela "zenbait neurriren metaketa, giza eskubideen urraketak barne, behar bezain larriak direnean, pertsona bati modu antzekoan eragiteko moduan".

Ildo beretik, Asiloari buruzko 12/2009 Lege espainiarreko 6.2 artikuluak zerrenda batean jartzen ditu, *numerus apertus* moduan, neurri eta ekintza batzuk jazarpentzat jo daitezkeenak, eta nazioarteko babesa emateko beharra ezartzen dutenak, hala nola: bortizkeria fisiko edo psikikoak, sexu bortizkeria ekintzak barne; berez diskriminatzaileak izan daitezkeen legezko neurriak, administratiboak, polizialak edo judizialak, edo modu diskriminatzailean aplikatzen direnak; auziperatze edo zigorrak neurriz kanpokoak edo diskriminatzaileak direnak; benetako babes judiziala ukatzea, hortik zigor neurriz kanpokoak edo diskriminatzaileak eratortzen direnean; auzipetzea eta zigortzea konfliktu batean soldaduskari uko egiteagatik, zerbitzua egiteak delitua egitea ekarriko lukeen kasuetarako; edo 12/2009 Legeko 8 artikuluaren bigarren atalean ezarritako baztertze klausuletan sartzen direnak; sexu izaerako ekintzak adinez nagusiei edo adingabeei eragiten dienak, eta diskriminazio ekintza larriak.

2.3. Jazarpenaren eragileak edo kalte larrien sortzaileak

12/2009 Legeak bere 13. artikuluan ezartzen du *jazarpenaren eragile edo kalte larrien sortzailetzat,* Estatuaz gain, eta Estatua edo bere lurraldearen zati handi bat kontrolatzen duten alderdi edo erakundeak, Estatuz kanpoko eragileak, "aurrekoek ezin dutenean edo ez dutenean

373 *Cfr.* ENBGK, *Nazioarteko babesari buruzko ildoak, 9. zk.koa…, op. cit.*

nahi benetako babesa ematea jazarpena edo kalte larriaren kontra". Azterlan honetan behin eta berriz aipatu dugun bezala, Estatuz kanpoko eragileen berariazko aitortza legala, jazarpentzat jo daitezkeen ekintzen balizko eragile moduan, funtsezko garrantzia du etengabeko krimenen biktimak diren LGBTI+ pertsonentzat, hala nola, ohorezko-krimenak, bortizkeria, torturak, eta bere inguru sozialeko pertsonek eragindako diskriminazio ekintzak, edo, maizago, familiakoek eragindakoak.

Horrela, bi epaietan, 2008ko abenduaren 19koan eta 2009ko urtarrilaren 13koan, Entzutegi Nazionalak adierazi zuen: "tokiko biztanleek diskriminazio ekintza larriak eta beste irain batzuk egiten badituzte, jazarpen ekintzatzat jo daitezke agintariek nahita toleratzen badituzte, edo hauek benetako babesa emateari uko egiten badiote, edo emateko gai ez badira". Entzutegi Nazionalak bi epaietan ezarritako dotrinak eskatzen du estatuz kanpoko eragile baten jazarpena aitortzeko erlazio kausal bat behar dela honako kasuetan:

> a) Estatuz kanpoko eragile baten aldetik Konbentzioaren arrazoietako batekin erlazionatutako arrazoiengatik benetako jazarpen arriskua egotea; eskatzailearen babesaren omisioa, Konbentzioarekin erlazionatuta badago ala ez;
>
> b) Estatuz kanpoko eragile baten aldetik benetako jazarpen arriskua Konbentzioaren arrazoietako batekin erlazionatuta ez dagoenean, baina babesa ez ematea Estatuaren gaitasunenarengatik edo gogo txarrarengatik, Konbentzioaren arrazoi batengatik izan behar du[374].

3. SOGI-arengatik asilo eskubidearen gainean ezarritako dotrina jurisprudentzial espainiarra

Asilo eskubidea sexu-orientazio edo genero-identitateko arrazoiengatik aitortzeko, Auzitegi Gorenaren dotrina jurisprudentzialak beharrezkoa ikusi du kasu bakoitzaren banakako azterketa egitea, zehazki, jatorrizko herrialdeko gizartearen testuinguruko zirkunstantzien arabera[375]. Ildo honetatik, SOGI-arengatik asilo eskubidea emateko bi dira irizkide erabakigarriak:

> a) Bere orientazio homosexualarengatik, babes eza eta jazarpena testuinguru sozial larri batean eman behar da;
>
> b) Banaka aztertu behar da arrazoi horrengatik jazarpena egiaztatutzat emateko, eta errefuxiatu kondizioa merezi izateko[376].

Dotrina jurisprudentzialak behin eta berriz adierazi du errefuxiatu kondizioa eskuratzeko beharrezkoa dela eskatzailearen kontaketan adierazitako jazarpen ekintzak aintzakotzat

---

374 Ikusi, ENE, Administrazioarekiko Auzien Sala, 8. sekzioa, 2008ko abenduaren 19koa, eta 2009ko urtarrilaren 13koa. Halaber, ikusi, AGE, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa, 2007ko abenduaren 13koa.

375 *Cfr.* AG, Administrazioarekiko Auzien Sala, (Gabinete Teknikoa), *Nazioarteko babesari buruzko dotrina jurisprudentziala (asiloa eta babesa, babes subsidiarioa eta Espainian egoteko baimena arrazoi humanitatioarengatik)*, 2009-2012, 11. orrialdea.

376 Ikusi, besteak beste, AGE, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa, 2012ko irailaren 21ekoa.

hartzeko gertaerek garrantzi handia izatea; izan ere, "gertaera puntualak, edo bakarrak edo/eta garrantzi eskasa dutenak, eta ezin direnak bere funts txikiarengatik jazarpen babesgarritzat jo"[377]. Honi dagokionez, Auzitegi Gorenak 2009ko urriaren 9ko epaian adierazi zuen "asiloa emateko oinarrizko irizpidea da jazarpena jasateko beldurra, baina ez da nahikoa beldurra egon daitekeela esplikatzeko datu objektiboak ez baldin badira aurkezten"[378].

Jatorrizko herrialdean ekintza homosexualak delitutzat tipifikatzea jazarpena dagoen balizko efektuari buruz, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ulertzen du adinez nagusiek izandako ekintza homosexualak delitutzat ez jotzeak ez duela esan nahi sexu-orientazioaren eta genero-identitateko arrazoiengatik jazarpenik egon ez daitekeenik. Ildo honetatik, Auzitegi Gorenak, 2005ko azaroaren 30eko epaian, Moldaviako homosexual bati buruz, erabaki zuen "(...) homosexualitatearen errepresio legeak indargabetu ondoren ere, orientazio afektibo-sexual hori duten herritarrek Segurtasun Indarren aldetik tratu txarrak jasatzen jarraitzen dute, eta bizitza sozialaren eremu desberdinetan diskriminatzen dituzte (...)"[379]. Gainera, Auzitegiak gai honetan oraindik ere gehiago sakondu zuen eta 2012ko irailaren 21eko epaian ezarri zuen asilo eskubidea emateko egiaztatu behar zen "ez soilik jatorrizko herrialdeko segurtasun eza egoera, baizik eta horrek zuzenean interesdunari honela eragiten badio: mehatxu horien aurrean herrialdeko agintarien aldetik babes egokia eta nahikoa ez jasotzea; hori agintariei egindako salaketa edo eskaera batekin egiazta zitekeen, eta haien jarrera eta baita bere egoeraren hedapen subjektiboa baloratzea ahalbideratu zezakeen"[380]. Beste alde batetik, Entzutegi Nazionaleko 2008ko azaroaren 7ko epaian, aljeriar homosexual batek ezarritako errekurtsoari buruzkoan, herrialde horretan legeriak sexu bereko pertsonek izandako sexu-ekintzak kriminalizatzen ziren, eta adierazi zuen hori "ez dela arrazoi nahikoa frogatzeko benetan jazarpena edo jasateko beldurra dagoela"[381]. Horregatik, auzitegi espainiarrek ulertzen dute LGBTI+ pertsonen nazioarteko babes eskaeren kasuan, ez dela soilik kontuan izan behar jatorrizko herrialdeko araudi sistemak homosexualitatea espetxe-zigorrarekin zigortzea, edo baita heriotz zigorrarekin zigortzea, baizik eta gainera, beharrezkoa dela frogatzea, gutxienez zantzuekin, eskaera aurkezten duen pertsonak benetako jazarpena jasaten duela.

Gure iritzi, interpretazio jurizprudentzial hori argi eta garbi asilo eskubidearen funtsaren kontrakoa da; izan ere, izaera humanitarioko eskubidea da, jazarpenaren ondorioz haien jatorriko herrialdeetatik ihes egiten duten pertsonei babesa emateko. Hortaz, herrialde zehatz batzuetan zigor sistemak pertsona baten SOGI kriminalizatzea nazioarteko babesa eskuratzeko arrazoi nahikoa izan behar du, ENBGK-k behin eta berriz baieztatu duen moduan[382]. Ondorio hauetarako, beharrezkoa da azpimarratzea 12/2009 Legeko 6. artikuluak berak jazarpentzat jo daitezkeen ekintzen artean aipatzen dituela: "neurri legal eta administratiboak". Ildo honetatik, LGNE-k salatzen duen moduan, indarrean dagoen zigor lege bat, Estatutuak ez badu aplikatzen ere, jazarpentzat jo behar da; izan ere, "Estatuak toleratzen duen homofobia giroa sortzen

---

377 *Cfr.* AG, Administrazioarekiko Auzien Sala, (Kabinete Teknikoa), *...-ri buruzko dotrina jurisprudentziala, op. cit.*, 13. orrialdea.

378 AGE, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa, 2009ko urriaren 9koa.

379 AGE, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa, 2005ko azaroaren 30ekoa.

380 AGE, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa, 2012ko irailaren 21ekoa.

381 ENE, Administrazioarekiko Auzien Sala, 8. sekzioa, 2008ko azaroaren 7koa.

382 *Cfr.* ENBGK, Naziaorteko Babesari buruzko Ildoak, 9. zk.koa..., op. cit., 27. paragrafoa.

laguntzen du, eta baita pertsona lesbiana, gay, bisexual eta transexualak estigmatizatzen dituen kontrako giro ere"[383]. Gainera, zehapen araudi bat izateagatik soilik, agintari nazionalei babesa eskatzea ezinezkoa egiten du; izan ere, legearen aginduz, harrapatu eta zigortu behar dituzte, hain zuzen, pertsegituak eskatzen dituen babes arrazoi berengatik; horrek 12/2009 Legeko 14. artikuluaren babes ezaren urraketa eragiten du. Azkenik, iritzi jurisprudentzial hau zati batean BEJA-k ezarritako irizpidearen kontrakoa da, adierazi den moduan; izan ere, jazarpen ekintzatzat jotzeko zigor arauaren benetako aplikazioaren betebeharra ezartzen bada ere, ez da behar, ordea, nazioarteko babes eskatzailearen gainean benetako banakako aplikazioa egitea[384].

Kontaketaren sinesgarritasunaren irizpideari dagokionez, SOGI-arengatik asilo eskaerak tramitatzera onartzeko, dotrina jurisprudentzial espainiarrak aipatu du, lehenik eta behin, nazioarteko babes eskaera ezin dela amaitu tramitera ez onartzeko ebazpen batekin, baizik eta, alderantziz, prozedura tramitatuta, eta azkenean, eskatutako babesa ematea bidezkoa den ala ez erabaki behar da [385]. Horregatik, ondorio hauetarako beharrezkoa egiten da bi betebehar betetzea asilo eskaera tramitatzera onartzeko:

> a) SOGI-arengatik jazarpenaren deskribapena;
>
> b) Begi-bistako faltsutasun edo itxuragabetasun eza[386].

Bigarrenik, dotrina jurisprudentzial espainiarrean, eta, zehazki, Auzitegi Gorenaren 2005eko apirilaren 12ko epaian irizpide batzuk ezarri dira, eskaeran adierazitako kontaketaren egiantzekotasuna atzemateko:

> a) Begi-bistako itxuragabetasuna espediente administratibotik ondorioztatu behar da, bai bertan dauden datuetatik, bai Administrazioak horretarako egiten duen arrazoiketatik;
>
> b) Gertaera, datu edo alegazioek begi-bistako gezur-itxura duten zalantzak; "ez du uzten gezurrak ez direla egiaztatzeko eskatzaileari karga helarazten; baizik eta Administrazioari behartzen zaio eskaera tramitatzera onartzea, eta zalantzak argitzeko instrukzioko egintzak egitea";
>
> c) zalantzek jarraitzen badute "Administrazioak ezin du tramitatzera ez onartzeko erabaki bat hartu, baizik eta espedienteari ekin behar dio, azkenean, espedientearen behin betiko bidezkoa den erabakia hartzeko"[387].

Horrela, SOGI-arengatik jazarpena jasateagatik edo jasateko beldurrarengatik nazioarteko eskaera aurkezterakoan, gertaeren begi-bistako itxuragabetasun kasuan izan ezik, eskatzailearen aldeko *iuris tantum* presuntzioa aplikatu behar da, eta ondoren eskaeraren eta aurkeztutako zantzuen azterketa egin beharko du[388].

---

383 *Cfr.* Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans e Intersex-en Naziaorteko Elkartea (LGNE-Europe), *Statement on pending..., op. cit.*, 2. orrialdea.

384 EBJAE, 2013ko azaroaren 7koa, X. eta *beste batzuk* afera, metatutako aferak, C-199/12tik C-201/12ra.

385 AGE, Administrazioarekio Auzien Sala, 5. sekzioa, 2006ko abenduaren 22koa.

386 AGE, Administrazioarekio Auzien Sala, 5. sekzioa, 2006ko apirilaren 21ekoa.

387 AGE, Administrazioarekio Auzien Sala, 5. sekzioa, 2005ko apirilaren 12koa.

388 *Cfr.* DÍAZ LAFUENTE, J., *Asiloa eta babelekusa..., op. cit.,* 261. orrialdea.

Kontaketaren oniritziaren parametroak egokitzeko, dotrina jurisprudentzialak finkatu du *zantzu nahikoaren printzipioa*; horren arabera, eskatzailearen ardura da prozeduran zehar frogatzea, zantzuen bidez, eta ez erabat derrigorrean, nazioarteko babes eskaeran kontatutako zirkunstantziak. Bere aldetik, Auzitegi Gorenak 2011ko urriaren 10eko epaian zantzu nahikoaren printzipioari buruz honakoa baieztatu zuen:" [...] nahiz eta, benetan, asilo eskubidea aitortzeko ez den beharrezkoa eskatzaileak arrazoi horietako batengatik bere jatorrizko herrialdean jazarpena jasan izanaren erabateko froga, beharrezkoa da, gutxienez, *horretarako zantzu nahikoak izatea,* bestela gorabehera sozial larriak dauden herrialde bateko – zibilen heriotza eta gizakiaren oinarrizko eskubideen babes eza - herritar orok asiloa emateko eskubidea izango luke, eta hori ez da, inola ere, instituzio honen helburua.[...]"[389].

Zantzu nahikoen edukia zehazteko, 2010eko otsailaren 24ko Auzitegi Goreneko epaia aipatzea beharrezkoa da, eta bertan definitzen dira horrela: "zantzu horiek dira pentsarazten dutenak errekurtso jartzaileak dioena errealitatearekin bat egiten duela arrazoizko segurtasun batekin"[390]. DÍAZ LAFUENTE-rentzat, dotrina jurisprudentzialak behin eta berriz erabilitako argudio da, eta badirudi erakusten duela eragile juridikoek asilo eskubidearen abusuari duten beldurra, "horrek, batzuetan, zantzu nahikoen printzipioa aplikatzea ahalbideratu du, egiazko kontaketak eta begi-bistako faltsutasunezko kontaketak filtratzeko baino gehiago, hesi bat bezala eskatzailearen errealitatearen azterketa xehatua eta sakon bat egitea galarazteko"[391].

LGBTI+ komunitateak herrialde zehatz batzuetan bizi duen egoera ikusita - ikusezintasuna, ezkutatu beharra eta estigmatizazio maila handia -, beharrezkoa da Administrazioak eta Auzitegi espainiarrek zantzuak eskatzerakoan zuhurtasuna malgutzea. Gure iritziz, frogaren konplexutasuna ikusita, batez ere sexu-orientazioa jazarpenaren arrazoia denean, bidezkoagoa izango litzateke ildo jurisprudentzial bat nazioarteko babesa ematea ahalbideratuko duena, nahiz eta zantzu elementuak falta izan, kontaketak zehaztasuna eta koherentzia baldin badu.

Ildo honetatik, Epaitegi Goreneko dotrina jurisprudentzialak onartu du nazioarteko babes eskatzailearen kontaketa frogarik gabe egiazkotzat jotzea, baldin eta kontaketaren egiazkotasunaren *elementu kalifikatzaile* batzuk izan, hau da, "asilo eskatzaile baten kontaketak berez adierazitakoaren zantzu nahikoa izateko, zehaztasun, detaile eta koherentzia izan behar ditu, egiazkoa dela – jatorrizko herrialdeko egoera soziala eta politikoa erlazioan jarrita – arrazionalki ondorioztatu ahal izateko, froga gehiago falta diren arren"[392].

Hortaz, nazioarteko babesaren aitortza posible da eskatzailearen deklarazioek abala emateko froga dokumentalak edo beste motatakoak ez dituenean, Auzitegi Gorenak 2009ko otsailaren 16ko epaian ezarri zituen ondoko baldintzak betetzen badira: eskatzaileak bere eskaera oinarritzeko benetako esfortzua egin izana, eta dituen elementu egokiak aurkeztuta, eta beste elementu egoki ez izateari buruzko behar bezalako azalpenak ematea; deklarazioak koherenteak eta sinesgarriak izatea, eta bere kasurako dagoen izaera orokorreko informazioak ez gezurtatzea; eskatzaileak ahal den eta azkarren bere nazioarteko babes eskaera aurkeztu izana, salbu egiaztatu baldin badezake ganorazko arrazoiak daudela horrela ez aurkezteko, eta eskatzailearen sinesgarritasun orokorra egiaztatu baldin bada[393].

---

389 AGE, Administrazioarekiko Auzien Sala, 5. sekzioa, 2011ko urriaren 10ekoa.

390 AGE, Administrazioarekiko Auzien Sala, 5. sekzioa, 2011ko otsailaren 24koa.

391 *Cfr.* DÍAZ LAFUENTE, J., *Asiloa eta babeslekuaa..., op. cit.*, 263. orrialdea.

392 AGE, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa, 2011ko apirilaren 29koa.

393 AGE, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa, 2009ko otsailaren 16koa.

4. SOGI-arengatik prozeduren markoan hartu beharreko neurriak espezifikoak

SOGI-arengatik asilo prozeduren markoan gai konplexu eta sensibleenetako bat da LGBTI+ errefuxiatuaren kontaketaren sinesgarritasuna egiaztatzea. Alde batetik, hori gertatzen da soilik bere testigantza duen pertsonak batez ere sexu-orientazioa egiaztatzeko frogak eta agiriak aurkezteko batzuetan duten zailtasunarengatik; eta, bestalde, oso erraza da elkarrizketak egin behar dituzten arduradunek estereotipoak eta gizarte errepresentazio okerrak erabiltzea.

Lehendik aurreratu dugun moduan, espero izaten da LGTBI+ pertsonak lehen elkarrizketan gai izango direla "trans" edo gay, lesbiana edo bisexual moduan bere burua identifikatzea, nahiz eta nazioarteko babes eskatzaileei terminologia hori ez zaien ezaguna egiten; eta agian, are garrantzitsuagoa, mugako agintari espainiarraren aurrean haien burua nola identifikatu ez jakin. Ildo beretik, ohikoa da espero izatea bere aurkako jazarpenarekin erlazionatutako gertaeren zerrenda xehatua aurkeztuko duela, nahiz eta asiloari buruzko lehen elkarrizketan esperientzia traumatikoak berriz kontatzea zaila egin dakion; izan ere, errealitatea da SOGI-an oinarritutako asilo eskaerei lotutako sinesgarritasun eza bat existitzen dela.


Ildo honetatik, Estatu espainiarrak erabiltzen dituen formuletan sartzen dira lekukoen froga, eskutitzak eta argazkiak bezalako dokumentazioa (batzuetan ezinezkoa egiten da aurkeztea pertsonen sexu-orientazio eta genero identitatearengatik jazarpena dagoelako), galde-sorta, eta presuntzio soilak, eskatzaileak LGBTI+ ingurunearekin duen konfidantzaren arabera; bere jarreraren arriskua jatorrizko herrialdean, edo eskatzaileak jatorrizko nahiz harrera herrialdean izan dituen harreman sentimentalak egiaztatzea. Halere, kontaketa frogatutako gertaerekin oinarritzeko presio hau gutxitu egiten da Venezuelaren antzeko kasuetan bezala; izan ere, Espainiak uste du LGBTI+ komunitateari dagokionez ez dagoela aurkako jarrerarik, eta horren froga dela nazioarteko babesa eskatu zuten nazionalen kopurua 2017an 10.350koa izatea, eta horietatik 15ek soilik eskuratu zuten errefuxiatu estatutua, eta inork ez babes subsidiarioa[394]. Frogak lortzeko zailtasunak honako ondorioa dakar: aitortzen den babes eskasa LGBTI+ kolektiboaren oinarrizko eskubideen *aldeko* LGBTI+ aktibistentzat izatea; hauek sona eta garrantzi publiko handikoak dira, eta diskriminazio ekintzak edo eraso fisiko edo sexualen inguruko frogak biltzea eta asilo espedienteari eranstea errazago zaie, eta gainerakoak erabateko babes eza egoeran gelditzen dira, jakina denean gizartearen zati handi batek, estatuaren egiturak barne, LGBTI+ komunitatearen aurkako jarrera erakusten duela.


Zehazki, *trans* eta *intersex* pertsonen genero-identitate arrazoiengatik jazarpena egiaztatzea da gai korapilatsuena. Kasu hauetan kontaketari sinesgarritasuna emateko egiaztatu behar da eskatzailearen identitateari buruz gizarteak duen irudia, eta baita ere frogatu behar da, identitatearengatik, trans edo intersex pertsonak jazarpena jasan duela edo jasateko ganorazko beldurra duela. Kasu hauetan, "portaera gamari" heltzen zaio (emakumeek hau egiten dute, gizonek bestea), eta hori arazo bat da, oinarrizko arau batzuen arabera suposatzen delako eta behartzen delako, benetako "trans" bat izateko, modu zehatz bateko portaera eduki behar izatea. Baita ere trantsizio horren frogetara jotzen da, hala nola, senideei eta lagunei kontatu izana; agiri legezkoetan izena eta sexua aldatzea; kontrako sexuko pertsonak bezala janztea, portatzea edo bizitzea; terapia hormonalak egitea, edo balizko kirurgia. Kasu hauetan ahaztu egiten da askotan

394 *Cfr.* ELBE, *Kopuruak baino gehiago*. Datuak eskuragarriak daude honako web orrialdean: http://www.masquecifras.org/#solicitantes-proteccion-internacional-nacionalidad (azken aldiz sartu izanaren data 2018ko apirilaren 26a). Halaber, ikusi, Venezuelako Gobernuaren kontrako iritzi politikoak azaltzen dituzten LGBTI+ pertsonen egoerari dagokionez, "Marico Opositor no mereces vivir". *20minutos*, 2018ko apirilaren 19koa.

ez dela posible kanpoko-trantsizioa egitea maila sozialean, medikuan edo legezkoan jatorrizko herrialdean eta, hortaz, faktore hauek ezin dira kontuan hartu generoaren bere pertzepzioaren adierazle moduan.

Inkesta egin zaien LGBTI+ pertsonek baieztatu dute elkarrizketan zehar batzuetan galdera inbasiboak egin dizkietela eta, gainera, nabaritzen dute oker "epaitzen" dituztela, LGBTI+ pertsonen jokatzeko moduen irudi estereotipatuak erabiltzeagatik, kontuan izan gabe kultura eta erlijio desberdintasunak. Halaber, bertako konfidentzialtasun eta pribatutasun ezari buruz ohartarazten dute, baita ere, erabiltzen diren interpreteak batzuetan sexu-orientazioa eta/edo





genero-identitatearekin sentsibilitate gutxi dutela aipatzen dute.

Arrazoi horiengatik, elkarrizketak eta ondorengo eskaeren azterketak egiten dituzten agintari arduradunek maizegi modu orokorrean aplikatzen dituzten estereotipoak baztertu behar dira. Kasu hauetan, galderak modu ez kritikoan planteatu behar dira, azalpenak ematen dituen pertsona epaitua ez sentitzeko. Kasu horietan, galderak honakoak izan daitezke: bera LGBTI+

pertsonatzat auto-identifikatzeari buruzkoak; haurtzaroko bizipenei buruzkoak, pertsona bezala autoerrealizatzea; bere herrialdean nagusi diren generoa eta sexualitatearekin erlazionatutako kultura eta erlijio arauekin bere desadostasunari buruz; edo bere familia harremanei buruz edo harreman sentimentalei buruz, eta komunitatean duen integrazioari buruz[395]. Azken finean, sinesgarritasunaren balorazioa banaka egingo da, eta modu sentiberan; ezingo dira sexu-orientazio edo genero-identitate froga neurriak exijituko, eskatzailearen oinarrizko eskubideak urratu dezaketenak, eta bere asilo eskaera oinarritzen ahalbideratzeko laguntza egokia bermatu beharko zaie, eta horren sinesgarritasuna ezin da zentratu aurkeztu ditzakeen frogetan, eta beti bere segurtasunari lehentasuna emango zaio, bere kasuari buruzko zalantzak alde batera utzita.

Asiloari buruzko elkarrizketaren ondoren, instrukzio-epailea espedientea aztertzen hasiko da, eta bukatzeko instrukziozko txosten bat idatziko du, eta bertan errefuxiatu estatutua edo babes subsidiarioaren aldeko edo kontrako ebazpen-proposamena argudiatuko du. Egun ez dago inolako gidarik edo ildo zehatzik txosten hauek egiteko. ABB-aren ohiko *praxiak* egiaztatzen du txostenek eta instrukzio-epaileek hiru faktore hartzen dituztela kontuan: 1) eskatzailearen kontaketa, 2) bere eskaera oinarritzeko aurkeztutako froga, eta 3) jatorrizko herrialdeari buruzko informazioa. Horregatik, nazioarteko babes eskaeren balorazioetan garrantzi berezia du eskatzailearen baieztapenen sinesgarritasunak; izan ere, askotan, ez da posible adierazitakoa frogatuko duen dokumentazioa aurkeztea. Puntu honetan, Defensor del Pueblo erakundeak bere 2016ko txostenean, *Espainian asiloari buruzko azterketa. Nazioarteko babesa eta harrera sistemaren baliabideak*, garrantzia ematen dio honi: "[s]inesgarritasun azterketa bereziki garrantzitsua da sexu-orientazioan oinarritutako edo genero gaiei dagokien eskaeratan; izan ere, erabakia neurri handi batean eskatzailearen sinesgarritasuna kontuan izanda hartzen da,"[396].

Jatorrizko Herrialdeko Informazioari dagokionez (COI), trans pertsonen inguruko informazioa soilik aldiro eguneratzen da, eta haiei buruzko txostenek informazio eskasa dute. Trans asilo eskatzaileen arrisku handienetakoa da jasaten duten diskriminazioari buruzko informazio eza. Estatu espainiarrak askotan inolako mehatxurik ez dagoela jotzen du, giro transfobikoa ezin duelako egiaztatu[397]. Horri dagokionez, ENBGK-k erabaki du – sexu-orientazio eta genero-identitatearengatik jazarpen kasuetan – jatorrizko herrialdean LGBTI+ pertsonen egoera eta tratuarekin erlazionatutako informazio egoki eta zehatz ezak ezin duela automatikoki ondorioztatu eskaerak ez duela funtsik edo herrialde horretan LGBTI+ pertsonen aurkako jazarpenik ez dagoela[398]. Gainera, beharrezkoa da ABB-en dagoen laguntza dokumentalaren zerbitzua indartzea, zehaztasunarekin atzemateko LGBTI+ nazioarteko babes eskatzaileek alegatzen duten arazoa; izan ere, informazio iturririk ezean, ezinbestekoa da berriz ere sinesgarritasunaren azterketa ezinbestekoa egiten da, eta instrukzio-epaileak informazio ezean bere intuizioari heldu beharko dio, edo bere eskarmentuak erakutsitako beste abilidade batzuk erailiko ditu, eta hori ahal den neurrian ekidin behar da. Instrukzio zuzen eta osoak duen garrantzia ezin da zalantzan jarri; izan ere, espedientean hartuko den erabakiak LGBTI+ pertsonaren bizitzarako ondorio oso garrantzitsuak izan ditzake.

---

395 *Cfr.* ENBGK, *Nazioarteko Babesari buruzko Ildoak, 9. zk.koa: ..., op. cit.*, 34. paragrafoa.

396 *Cfr.* Defensor del Pueblo, *Espainian asiloari buzuko azterketa. Nazioarteko babesa eta harrera sistemaren baliabideak*, 2016ko ekaina, 30. orrialdea.


397 *Cfr.* BACH, H., "Persona transgeneroen eskaeren ebaluazioa", *Behartutako Migrazioen Aldizkaria*, 42. zk.koa , 2012 maiatza, 34-35. orrialdeak.

398 *Cfr.* ENBGK, *Naziaorteko Babesari buruzko Ildoak, 9. zk.koa: ..., op. cit.*, 63. paragrafoa.

Azkenik, kontuan izan beharreko beste faktore bat nazioarteko babes eskatzaile LGBTI+ pertsona baten kontaketaren sinesgarritasuna egiaztatzeko prozedura tramitatzerakoan honakoa da: bere burua sexu-orientazioa edo genero-identitate zehatz batekin identifikatzeko prozesua "birraktibatzen" hasi daiteke Espainiara iritsi eta handik urte askotara. Kasu hauetan *sur place* errefuxiatuaren figurari buruz hitz egiten ari gara. Azterlan honetarako LGBT+ errefuxiatuei egindako elkarrizketetatik ondorioztatzen da egoera horrek ondorio batzuk sor ditzakeela: lehenik eta behin, arlo honetan lan egiten duten GKE-tan atzerapenak jazarpenaren kontrako babesa bilatzerakoan; edo, bigarrenik, babesa bilatzea, baina asiloa eskatzeko prozeduran aditzera ez ematea eskaeraren oinarria sexu-orientazioa eta genero-identitateko arrazoiarengatik dela; izan ere, LGBTI+ kolektiboko kide izateak eragin dizkioten gizarte eta familia abusuek oztopo psikologiko handiak sor dizkie, laguntza eskatzea galarazten diena. Halaber, LGBTI+ pertsonek lotsa eta beldur maila handi bat nabaritzen dute haien sexu-orientazioa eta genero-identitatea ezagutzera ematen dutenean, bereziki, berriz kontatzen dituztenean bere SOGI-arengatik jasandako bortizkeriaren adibide traumatikoak. Horietako askori, agintari nazionalek edo harrera elkarteek – hala nola, Gurutze Gorria, ELBE edo ACCEM - laguntza emango dietela asimilatzea kostatzen zaie; izan ere, jatorrizko bere herrialdean SOGI-arengatik jazarpena jasan ondoren, harrera herrialdean denboraldi luze bat pasa arte, urteak batzuetan, bere lotsa eta beldurra ez da nahiko gutxituko, aditzera emateko eta laguntza eskatzeko moduan.

Horrek epaileak LGBTI+ kolektiboko kide direla konbentzitzeko zailtasun handiak sor ditzake. Ildo horretatik, berriz azpimarratzen dugu LGBTI+ pertsonek bere SOGI-ari dagokionez nabaritu dezaketen bilakaerari buruzko aldaketak dokumentatzeko, interesgarria izango litzatekeela aditu nazionalek denboran zehar nabaritutako aldaketak dokumentatzean zentratuko balira; adibidez, gertatu liteke LGBTI+ errefuxiatu batek inoiz sexu bereko bikote batekin harreman sexual edo erromantiko bat ez eduki izana, harreman edo ezkontza heterosexuala eduki izana, ezkontza heterosexualean semeak eduki izana, eta baita, bere harrera herrialdean beste LGBTI+ pertsonekin harremanak mugatuak eduki izana. Haatik, LGBTI+ pertsonatzat identifikatu zitezkeen, eta sexu bereko pertsonekin maitemindu izanaren historia baten berri eman zezaketen, eta baita ere bere SOGI-aren ezaugarri batzuengatik jabetu izateagatik beldur sentimenduena; bere sexualitatea ezkutatzeko saioak ere; bortizkeria eta gaitzespenaren biktima izatea bere jokaera bere generoarekin bat ez dagoelako, edo bere jatorrizko familiak desengainua hartuko duen beldurrarengatik. Gure iritziz, datu hauek nazioarteko babes eskaera batean adierazle onargarriak izan zitezkeen; izan ere, nazioarteko babes LGBTI+ eskatzaileak ez du behar frogak aurkeztea bere sinesgarritasuna lortzeko, hala nola, bere jatorrizko herrialdean bere sexu-jokaerari buruzkoak edo LGBTI+ komunitatean duen inplikazioari buruzkoak.

Espainiako asilo prozeduraren eskema



Iturria: ELBE[399]

Jazarpenaren ondorioz haien herrialdeetatik ihes egiten duten LGBTI+ pertsonek asilo prozeduraren fase guztietan oztopo batzuk gainditu behar dituzte, eskaera aurkezten dutenetik, horren ebazpena eskuratu arte, eta kaltebera bereziko egoeran jartzen dute. Aipatutako elkarrizketetatik ondorioztatu da beharrezkoa dela neurri zehatz batzuk hartzea, edo daudenak indartzea, LGBTI+ pertsonek nazioarteko babes eskaeren prozeduretan zor zaien berme prozesalak errespetatu ditzaten:

→ SOGI-aren arrazoiengatik nazioarteko babes eskatzaileek asilo prozedura osoan zehar segurtasun eta laguntza giroa behar dute, baita eskaera aurkeztu baino lehen,

399 Informazioa honako web orrian dago eskuragarri: https://www.cear.es/publicaciones-elaboradas-por-cear/publicaciones-anteriores/ (azken kontsultaren data, 2018ko apirilaren 17a).

Administrazio espainiarrari erabat eta beldurrik gabe laguntzeko, libre hitz-egiteko eta une oro asiloa eskatuz gero, emango zaien babesari buruzko informazioa izango dute.

→ Elkarrizketari dagokionez, erabakigarria da LGBTI+ pertsonari bere eskaeraren arrazoiak modu xehatuan eta zuzenean esplikatzeko aukera ematea. Kasu hauetan, halaber, kontuan hartu beharko lirateke prozedurazko bermeak aplikatzea, eta langile kualifikatuek egitea; eta saiatuko da honako kasuetan eskaeren gainean erabakiak ekiditen: konfidentzialtasun ingurunea izaten laguntzen ez duten - haien ezaugarriengatik - ingurune eta prozeduretan. Horregatik, Defensor del Pueblo erakundeak, 2016ko bere txostenean, gomendatzen du derrigorrezko prestakuntza espezializatu programa bat egitea eta, elkarrizketak egin behar dituen langile berri bakoitzari irakastea, lanean hasterakoan eta elkarrizketa pertsonalak egiten hasi baino lehen[400]. Egiaztatuta baldin bada ere ABB-ak bere langileak genero eta sexu-aniztasun gaietan gaitzen inbertitzen duela, beharrezkoa egiten da halaber, prestakuntza asilo prozeduretan aktiboki parte hartu duten erakunde eta GKE guztietako langilegoari hedatzea, bai estatu mailakoei eta autonomia erkidegoko mailakoei. Horrela, lortuko da langile horien gaitasunen garapenean sartzea, modu transbertsalean, genero eta sexu-aniztasun gaiak (2013/33/EB Zuzentarauaren 15.3 artikulua).

→ Horretarako, azpimarratzen dugu "praktika zuzenen" eskuliburuak egiteko beharra, elkarrizketa teknikak garatzeko, adibidez "formulario eredua", oraindik existitzen ez dena, jazarpen arrazoiak soilik sexu-orientazioa eta/edo genero-identitatearengatik baloratzeko, eta ekidin behar diren aipamenekin; galdera-gidak, jazarpen arrazoi hauei buruzkoa, galdera orokorrak edo zehatzak, interesdunaren kontaketa zehatzari dagokienez; eta existitzen diren tresnak hobetzen jarraitzea, kontuan izanda beti sexu-gutxiengoen ikuspuntua, langileen prestakuntza, eta jazarpen arrazoietan oinarritutako eskaerekin erlazionatutako gaien transbertsalizazioa. Modu honetan, elkarrizketa tekniken hobekuntza, eta eskatzaileen auto-identifikazioan dagoen konfiantzak, lagundu dezake bigarren elkarrizketaren beharra, eta froga horren adierazgarriak lortu beharra gutxitzea[401];

→ Adituak behar dira genero eta sexu-aniztasunaren gaietan, bereziki, EBB-ko egungo egituran langileen espezializazioa eremu geografikoen araberakoa delako. Aditu hauek koordinazio lanak egingo lituzkete, hala nola, LGBTI+ pertsonen nazioarteko babes eskaera bat tramitatzeko jarraitu beharreko protokoloak eginez; jatorrizko herrialdeei buruzko informazioa biltzen eta aztertzen, bertan dagoen LGBTIfobia egoerari buruz ohartaraziz; "praktika zuzenen" Eskuliburuak genero eta sexu-aniztasunaren ikuspuntutik eginez, tresna juridiko nagusienekin - bai nazioarte mailakoak, eta baita

---

400 Cfr. Defensor del Pueblo, ...*-ri buruzko azterlana, op. cit.*, 30. orrialdea.

401 Cfr. Asilorako elkarrizketa egiteko garrantzitsua da aipatutako teknikak garatzea, batzuetan elkarrizketa egiten duen pertsonek ez duelako hori egiteko prestaketa nahikoa edukitzen. Adibidez, pentsa Polizia Nazionalaren komisaldegietako langileak, edo atxiloketa zentroetako talde teknikoa (AIZ). Defensor del Pueblo-k bere 2016ko txostenean islatzen duen moduan: "bigarren elkarrizketen kopurua pontzetualki txikia da, eta hori, lehen elkarrizketa egiten duten pertsonek beharrezko prestakuntza ez izan arren. Horregatik, bigarren elkarrizketa egitea derrigorrezkoa izatea eskatu behar da, instruktoreak lehena egin ez badu (12/2009ko Legeko 17.8 artikulua); erakunde honen iritziz, lan hori instruktoreak bere gain hartu beharko luke". Gainera, aipatutako txostenak jasotzen du "ENBGK-k ELNB-aren barruan elkarrizketa berri bat egiteko eskaerak ez dira onartzen kasuen kopuru adierazgarri batean". Cfr. Defensor del Pueblo, ...*-ri buruzko azterlana, op. cit.*, 31-32. orrialdeak.

eskualdekoak eta nazionalak ere -, LGBTI+ pertsonak babesten dituztenak, lurralde espainiarrean integrazio eta harrera handiagoa eta hobeago lortze aldera; aldiroko ebaluazioak jakiteko ELB-ren eguneroko lanean ze neurritan eta zein modutan garatzen diren genero eta sexu-aniztasun gaiak, eta baita ere hobetu beharreko puntuak eta egindako aurrerapenak; edo ELB-ko eta ABBM-ko (Asiloa eta Babesari buruzko Batzorde Ministerioartekoa) langileei aholkua ematea, lehena eskaeraren instrukzioa eta azterketaren arduraduna izateagatik, eta bigarrena, hartu beharreko erabakiaren arduraduna izateagatik. Azken finean, LGBTI+ errefuxiatuak atzemateko eta tratatzeko informazio eta prestakuntza egokia jasotzea erabakigarria da; izan ere, haien behar emozionalak bereziki zaindu behar dira, haien kontaketa bizipen pribatu eta intimoetan oinarritzen delako, eta horiek bere identitatearen berezko ezaugarriak direlako;

→ Nahi genuke ELB-k aldiro bilerak izatea, “topaketa eta eztabaida foro” moduan, LGBTI+ nazioarteko babes eskatzaileei laguntza juridikoa ematen duten harrera elkarte nagusiekin (ACCEM, ELBE, eta Gurutze Gorria), eta baita ere, LGBTI+ kolektiboaren eskubideen aldeko borrokan espezializatutako elkarteekin (LGTBFE), besteak beste, prestakuntza programetan lan egiteko, eta munduko alde desberdinetan LGBTI+ komunitatearen eskubideen aurrerapenak eta atzerapausoak aztertzeko.

→ Komenigarria litzateke Estatu espainiarrari ELB-k egindako urteroko memoriak eskatzea behin eta berriz– bertan aurkeztu diren nazioarteko babes eskaerei buruzko datu estatistikoak biltzen dira, onartutakoak edo ez onartutakoak, edo aldeko edo kontrako ebazpenarekin - jazarpen arrazoien araberako bilketa eta erregistro bat egitea, Espainian urtero SOGI-arengatik nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen kopurua zehaztasun handiagoarekin jakiteko.

IV. SOGI-ARENGATIK ASILO POLITIKA KOPURUETAN: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN KASUA (EAE)

1. Europar Batasuna eta bere Asilo Politika Erkidea kopuruetan

Batasun Europarrean asiloa eskatzen duten LGBTI+ pertsonen kopuruari buruzko datu ofizialik ez dago, eta ezinezkoa da Batasunean SOGI-arengatik asilo eskaeren kopuru zehatz baten erradiografia egitea; izan ere, Estatu kideek, Espainiaren kasu zehatzean bezala, ez dituzte LGBTI+ nazioarteko babes eskatzaileei buruzko estatistika bereiziak, eta are gutxiago, datu deskribatzaileen desagregazio lanak soilik jatorrizko herrialdeetatik edo hirugarren Estatu batetik ihes egin duten pertsona gay, lesbiana, bisexual, trans edo intersexual hauen kondizioa kontuan hartuta[402].


EASO-k prentsa ohar bat argitaratu zuen 2017ko BE-ko asilo joerei buruzkoa. Bertan nazioarteko babes 704.625 eskaera erregistratu zirela jasotzen da[403]. Datu hauek islatzen dute % 43ko jaitsiera, 2016kin konparatuta, eta 2017 da bigarren urtea jarraian eskaera gutxiagorekin (2015 eta 2016an inoiz ikusi gabeko izandako fluxuaren ondoren). ELBE-ren arabera, guztira 1.259.955 pertsonek eskatu zuten nazioarteko babesa EB-ego Estatu kideetan 2016an, 2015eko kopurua baino pixka bat txikiago, 1.322.825 pertsona erregistratu baitziren, baina 2014an baino ia bikoitza, 626.960 izan baitziren[404], eta horrek adierazten du EB-ea nazioarteko babesa behar duten pertsona errefuxiatuen fluxua garrantzitsua izaten jarraitzen duela.

402 *Cfr*. ŚLEDZINSKA-SIMON, A. eta ŚMISZEK, K., "LGBTI pertsonen asilo eskaerak – Europa Erdialdea eta Ekialdearen ikuspuntua", Behartutako Migrazioei buruzko Aldizkaria, 42. zk.koa, 2013 maiatza, 16. orrialdea.

403 *Cfr*. EASO, *Press Release: EASO releases overview of 2017 EU+ asylum trends*. Eskuragarri honako web orrialdean: *https://www.easo.europa.eu/news-events/press-release-easo-releases-overview-2017-eu-asylum-trends* (azken kontsultaren data, 2018ko otsailaren 22koa).

404 *Cfr.* ELBE, Asilo kopuruak EB-ean 2017. Eskuragarri honako web orrialdean: *http://www.masquecifras.org/#solicitantes-proteccion-internacional-ue* (azken kontsultaren data, 2018ko apirilaren 10ekoa). Asimismo, véase, Eurostat, *Asylum in the EU Member States 2016. 1.2 million first time asylum seekers registered in* 2016, 46/2017, 16th March 2017.


2017. urteko babes internazionalaren eskaleak EBn



Iturria: ELBE[405]

Ildo honetatik, 2017an nazioarteko babes estatusa duten pertsonen kopuru handiena Alemanian erregistratu zen (524.185), ondoren, Frantzian (111.445), Italian (78.235), Erresuma Batuan (33.780), Suedian (27.770) eta Espainian (13.350).

Aldeko eta kontrako ebazpenak Europar Batasunean 2017




Iturria: ELBE [406]

405 *Cfr.* ELBE, *Asilo kopuruak…, op. cit.*

406 *Ibídem.*

Bestalde, 2016an EBko Estatu kideek nazioarteko babes 745.265 eskatzaileei babesa eman diete, 2015koaren bikoitza baino gehiago. 2016an EB-ean eman ziren babesetatik errefuxiatu estatutua aitortu zitzaien 389.670 pertsonei (aldeko erabakien %55), babes subsidiarioa 263.755 pertsonei (%37) eta 56.970 pertsonei arrazoi humanitarioak medio egonaldia baimendu zitzaien (%8)[407]. Babes estatusa lortu zuten pertsonen kopuru handiena Alemanian da (631.180), ondoren Suedian (95.605), Italian (35.180), Frantzian (87.775), Espainian (10.250) eta Hungarian (5.105)[408].

Aldeko eta kontrako ebazpenak Europar Batasunean 2016



Iturria: *ELBE*[409]

Nazioarteko babes estatutuaren onuradunen nazionalitateei dagokionez, 2016an nagusiki siriarrak dira (405.600 pertsona) eta babesa jaso dute 19 Estatu kideetan[410], ondoren afganiarrak (186.595 pertsona) eta irakiarrak (130.015 pertsona).

Oinarrizko Eskubideen Agentzia Europarrak (FRA) 2017an bere txostena argitaratu zuen: *EB-ean migrazioen egungo egoera: asilo eskatzaile lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualak,* eta bertan baieztatzen du azterlan honen xede diren inongo Estatu kideetan ez

407 Aipatu behar da, Batasunaren Zuzenbidean errefuxiatu babes estatutua eta babes subsidiarioa arautua egon arren, zehazki, Parlamentu Europarra eta Kontseiluaren 2011ko abenduaren 13ko 2011/95/EB Zuzentarauan, (*zeinaren bidez, honako betebeharrak ezartzen dira: hirugarren herrialdeetako nazionalei edo aberrigabeei - nazioarteko babesaren onuradun moduan -, estatutu uniforme bat aitortzeko errefuxiatuentzat edo babes susidiariorako eta emandako babesaren edukirako eskubidea duten pertsonentzat)*, baldintza humanitarioa aitortu ohi da legedi nazionalaren arabera.

408 *Cfr.* ELBE, 2017 Txostena: *Pertsona errefuxiatuak Espainian eta Europan*, 46-47. orrialdeak.

409 *Cfr.* ELBE, *Asilo kopuruak EB-ean*, 2016.

410 EB-k babesa eman zien 405.600 pertsona siriarretatik, %70 baino gehiago Alemanian erregistratu ziren (294.700). Cfr. Eurostat, *Asylum decisions in the EU. EU Member States granted protection to more than 700 000 asylum seekers in 2016*, 70/2017, 26th April 2017.

direla SOGI-arengatik oinarritzen diren nazioarteko babes eskatzaileei buruzko estatistikak erregistratu, Eslobakian izan ezik, eta honek kopuru partzialak eman zituen. Horrela, asilo eskaeren arrazoien gaineko datuak oro har ez dira biltzen eta erregistratzen. Estatuek alegatzen dute sexu-orientazio edo genero-identitatean oinarritutako asilo eskaeren estatistikek zuzenean datuen babesari eragin diezaieketela, edo urratu dezaketela elkarrizketa pertsonaletan zehar bildutako informazioaren konfidentzialtasuna[411].

Ildo honetatik, FRA-k bere txostenean erakusten dituen datuak gizarte zibileko elkarteek laga dizkiotenak dira - haiekin zuzenean kontaktuan jarri eta haien laguntza eskatu ondoren -, eta LGBTI+ pertsonek emandako testigantzetan oinarritzen diren estimazioetan oinarritzen dira. Estimazioak ez dira benetako egoeraren erradiografia zehatz bat, hau da, ez dira sakonak, eta soilik GKE-ak aritzen diren herrialdeko eremu zehatzak hartzen ditu, eta horrek ez du uzten ondorioztatzen eskatzaile kopurua esanguratsua denik.

411 *Cfr.* FRA, *Current migration situation in the EU: Lesbian, gay, bisexual, transgender and intersex asylum seekers*, March 2017. Eskuragarria honako web orrialdean: *http://fra.europa.eu/en/publication/2017/march-monthly-migration-focus-lgbti* (azken kontsultaren data, 2018ko uztailaren 20a).

SOGI-arengatik nazioarteko babes eskaeren kopurua EB-ean 2016

ESTATU KIDEAK	ASILO ESKAEREN GUTXI GORA BEHERAKO KOPURUA SEXU ORIENTAZIO EDO IDENTITATEA DELA ETA	ITURRIA
AUSTRIA	Ez daude eskuragarri	
BULGARIA	50-100 (2016ko urtarriletik ekaina arteko datuak)	LGBT "Deystvie" elkartearen kideak
DANIMARKA	70 asilo eskale berri	LGBT asilo eskaleen GKE
FINLANDIA	500 (2015eko udazkenetik 2017ko otsaila arte)	HeSeta GKE
FRANTZIA	Ez daude eskuragarri	
ALEMANIA	56	Fliederlich GKE
GREZIA	32 (7 transgenero eta 23 homosexual)	Pertsona trasngeneroen laguntzarako elkarte baten kideak
HUNGRIA	Ez daude eskuragarri	
ITALIA	80 (2012tik 2017ko otsaila arte)	LGBTI MigraBo proiektua
HERBEHEREAK	100-100 LGBT eskaerak	COC Netherlands
POLONIA	2 edo 3	Homofobiaren aurkako kanpainaren erabiltzaileak
ESLOBAKIA	0	Inakost ekimena GKE
ESPAINIA	Ez daude eskuragarri	
SUEDIA	Ez daude eskuragarri	

Nolanahi ere, EB-ean nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak milaka dira, jatorrizko herrialdeetan kriminalizatuak, estigmatizatuak direnak eta jazarpena jasaten dutenak, soilik bere SOGI-a libre eta publikoki garatzeagatik[412]. Hainbat azterlanek aipatzen dute Europar Batasunean LGBTI+ nazioarteko babes eskatzaileei errefuxiatu kondizioa aitortzeko prozedurak zehaztugabeak eta desberdinak izaten jarraitzen dutela, ez dutela eskaerak aztertzeko ildo ofizial komunik, eta laguntza juridikoa eta gizarte laguntza ematerakoan espezializazio eza ohiko ezaugarria dela EB-ego Estatu kideen artean. Ildo honetatik, eskaerak aztertzeko funtzionario arduradunek askotan erakusten dute LGBTI+ kolektiboaren kontrako jazarpenaren izaeraren inguruko ezaguera eskasa dutela, eta erakusten dituzte, ordea, giza talde zehatz horren kontrako aurreiritziak[413].

412 *Cfr.* JANSEN, S. eta SPIJKERBOER, T., ...-tik ihesean, op. cit., 16. orrialdea.

413 *Cfr.* JANSEN, S. eta SPIJKERBOER, T., ...-tik ihes egiten op. cit., 16. orrialdea.


2. Espainia eta bere Asilo Politika kopuruetan

Gurutze Gorria-Euskadi-ren Nazioarteko Babes Programako langileei egindako elkarrizketetatik ondorioztatzen dugu Administrazio espainiarrak gehiegi luzatzen duela datu estatistikoak argitaratzeko epea, hain zuzen, arlo honetan lan egiten duten eragile desberdinek eskatzen dituztenak, besteak beste, harrera elkarteak, ELBE, Gurutze Gorria Espainiarra edo ACCEM. Gainera, ez du jazarpen arrazoi desberdinen araberako erregistro bat egiten, eta ezinezkoa egiten du sexu-orientazio eta/edo genero arrazoiengatik asilo eskaeren kopuruen datu ofizialak eta zehatzak jakitea, azterlan honen intereserako direnak. Argitaratzearen atzerapenaren adibide moduan, aipatu behar da azterlan hau amaitzerakoan, 2018ko iraila, Barne Ministerioko web orrian ez zela jasotzen 2017 edo 2018 urteei dagokien nazioarteko babesari buruzko inolako daturik (behin-behineko datuak), eta soilik 2016ko datuak zeudela argitaratuta, eta hortaz, Estatistikaren Bulego Europarrarengana (Eurostat) eta beste elkarteengana jo behar izan da, hala nola, ELBE-Euskadi eta Gurutze Gorria Gipuzkoa nagusiki, horiek eskuratzeko eta azterlan honetan jartze aldera.

Ez du desagregazio gehigarririk egiten ere, hala nola, generoarena edo kolektibo kalteberetako kide izatearena, eta datu horien artean nazioarteko babes espedienteen amaiera bataz besteko epeena. Defensor del Pueblo erakundearen 2016ko Txostenak – *Espainian Asiloari buruzko azterlana. Nazioarteko babes eta harrera sistemaren baliabideak* - jasotzen duen moduan: "estatistiken eskuragarritasuna eta horien fidagarritasuna sistemaren gardentasunaren eskaera da, eta harreraren kudeaketan eragin zuzena du; izan ere, benetako eta duela gutxiko datuen gainean neurriak hartzea laguntzen du"[414]. Kasu hauetan Barne Ministerioak SOGI-arengatik nazioarteko babes eskatzaileen datu zehatzak emango balitu, errazago izango litzateke harrera programan dauden baliabideak eta kolektibo honen behar zehatzak modu hobeagoan egokitzea, eta gainera balizko gabeziak atzematea eta baliabide berriak sortzea.

Bere aldetik, Barne Ministerio espainiarrak jarraitzen du argitaratzen asiloari buruzko datuak genero bitarraren arabera (emakumezkoak eta gizonezkoak), eta ez du bereizten nazioarteko jazarpen arrazoi desberdinen artean, hain zuzen, Espainian nazioarteko babes eskaerak oinarritzekoa arrazoiak, eta horrek berriz ere ezinezkoa egiten du sexu-orientazio eta/edo genero-identitatearengatik nazioarteko babesa eskatu duten pertsonen kopurua zehaztea.

Nazioarteko babes eskaeren bilakaera genero bitarraren arabera 2009-2015



414 *Cfr.* Defensor del Pueblo, ...-*ri buruzko azterlana*, 46. orrialdea.

Iturria: *Baren Ministerioa*[415]

Ondorengo grafikoaren azterketatik ondorioztatu dezakegu emakumezkoen generoa konstante mantentzen dela 2013. urtera arte, eta gizonezkoen generoa da 2011n gorakada txiki bat nabaritu duena, eta 2012an jaitsi egiten da. 2014 eta 2015ean bi generok (estruktura bitarraren itxura fisikoari kasu eginez) gorakada handia nabaritu zuten.

2017an nazioarteko babes eskaeren kopurua nabarmenki handitzen da 2016an erregistratutakoekin konparatuta, ELBE-k argitaratutako datuen arabera[416]. Zehazki, 31.121 egin dira, eta 2016an 15.755 eskaera egin ziren; eta azken horrekin konparatuta %11,13ko igoera izan zuen 2015 urteko 14.881 eskaerekin alderatuta, Barne Ministerioak, azterlan hau egiterakoan, argitaratu dituen datuen arabera.

Nazioarteko babes eskatzaileen eboluzioa 2004-2017 urteen bitartean



Iturria: *ELBE eta Barne Ministerioa*[417]

2016ko Barne Ministerioaren datuak erakusten dute mugan aurkeztutako eskaerak 2016an altuak izaten jarraitzen dutela, 3.088 eskaera, guztien %18a. Halaber, azpimarratu dezakegu lurraldean egindako eskaerak %79,70 handitu direla.

415 *Cfr*. Barne Ministerioa, *Txostena: asiloa kopuruetan 2015*.

416 *Cfr.* CEAR, *...asiloa kopurutan, op. cit*.

417 *Cfr*. Barne Ministerioa, Txotena: *asiloa kopuruetan 2016*, 20. orrialdea.

Nazioarteko babes eskatzaileen bilakaera

Eskaeren aurkezteko lekuan arabera 2012-2016 urteen bitartean


Urtea	Lurralde Nazionala	P. Mugakoa	Enbaxada	A.B.Z.	Guztira
2012	1.841	401	186	160	2.588
2013	3.615	381	211	306	4.513
2014	3.980	1.039	346	587	5.952
2015	6.913	6.862	327	785	14.887
2016	12.423	3.088	264	769	16.544
Guztira	28.772	11.771	1.334	2.607	41.877

Iturria: *Barne Ministerioa*[418]

Herrialdeka, azpimarratu behar da 2017an Venezuelatik etorritako eskatzaileen igoera (10.350 pertsona, eta 2016an 4.196, eta 2015an 596), eta horiek osatzen dute urte horretako eskatzaileen igoeraren zati handiena. Siriak jarraitzen dio, eskaera kopuru handi batekin (4.225 pertsona, eta 3.069 2016an). Nolanahi ere, gorako joerari jarraituz, baina ehuneko txikiago batean, hauei jarraitzen die eskaera kopuru handienak dituzten jatorrizko herrialdeak, Kolonbia (2.460, eta 2017an 656, eta 2015ean 129), ondoren Ukraina (2.265 pertsona, 2016ko 2.764ko kopurua baino nabarmenki txikiago), Palestina (1.165 pertsona), Aljeria (1.165, eta 2016an 760, eta 2015ean 679), El Salvador (1.120), Honduras (970), Kamerun (750). Herrialde horiek dira erreferentziako urtean nazioarteko babes eskatzaile gehien dituztenak.

418 *Cfr. Ibídem.*, 27. orrialdea.

10 nazionalitate nagusietako nazioarteko babes eskatzaileak 2017an



Iturria: *ELBE*[419]

Nazioarteko babes eskaerak kontinenteen arabera 2016

KONTINENTEA	GIZONAK	EMAKUMEAK	TOTALA
AFRIKA	**2.215**	**685**	**2.900**
AMERIKA	**3.153**	**2.864**	**6.017**
ASIA	**2.451**	**1.708**	**4.159**
ERDIALDEKO ETA EKIALDEKO EUROPA	**1.696**	**1.335**	**3.031**
EUROPAR BATASUNA (28)	**1**	**1**	**2**
BESTE EUROPA (Turkia)	**16**	**7**	**23**

Iturria: *Barne Ministerioa*[420]

419 *Cfr.* ELBE, *...asilo kopuruak, op. cit.*

420 *Cfr.* Barne Ministerioa, Txostena: *asiloa kopuruetan..., op. cit.*, 12-15. orrialdeak.

10 nazionalitate nagusietako nazioarteko babes eskatzaileak 2016an


HERRITARTASUNA	ESKALEAK
VENEZUELA	4.196
SIRIA	3.069
UKRANIA	2.764
ARJELIA	761
KOLONBIA	656
EL SALVADOR	444
HONDURAS	399
PALESTINA EONU	368
MOROKO	345
NIGERIA	294

Iturria: *Barne Ministerioa*[421]

2017an aurkeztutako nazioarteko babes eskaera guztietatik %58 gizonezkoek aurkeztutako eskaerak dira, hau da, 2016ko datua baino pixka bat baino gutxiago, %59,39 izan baitzen. Bestalde, %42 dira 2017an emakumezkoek aurkeztutakoak, eta 2016an %40,61. Eta hortaz, azken hauek igoera txiki bat izan dute.


421 *Cfr. Ibídem.*, 20. orrialdea.

Nazioarteko babesaren eskatzaileak sexuaren arabera 2017



Iturria: *CEAR*[422]

Nazioarteko babesaren eskatzaileak sexuaren arabera 2016



Iturria: Barne Ministerioa[423]

Nazioarteko babes-eskaerei dagokienez, kontinenteka, Barne Ministerioak argitaratutako datuen arabera, 2016an, kopuru handiena Ameriketako kontinentean dute jatorria (4.159), Asiako kontinentean gero (4.159), Europa ekialdean (3.031) eta kontinente afrikarrean (2.900) agertzen da.

422 *Cfr.* CEAR, *Cifras de asilo..., op. cit.*

423 *Cfr.* Barne Ministerioa, Txostena: *asilo en cifras..., op. cit.*, 15.or

Nazioarteko babesaren eskaerak jatorrizko herrialdearen eta sexuaren arabera 2016

JATORRIZKO TOKIA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	OROTARA
Venezuela	2.122	2.074	4.196
Siria	1.730	1.339	3.069
Ukraina	1.534	1.230	2.764
Aljeria	689	72	761
Kolonbia	367	289	656
El Salvador	244	200	444
Honduras	217	182	399
Palestina	260	108	368
Maroko	277	68	345
Nigeria	70	224	294

Iturria: Barne Ministerioa[424]

2017an, CEAR erakundeak bildutako datuen arabera, guztira 13.350 ebazpenetatik, 595 errefuxiatu-estatutu soilik izan ziren, 4.080 babes subsidiarioko aintzatespen eta baimen bakar bat ere ez arrazoi humanitarioengatik; horrela, aitortza-tasa %35ekoa da (4.675), eta ukapena dezente handiagoa da, %65ekoa (8.675). Erakunde horrek salatu duenez, iaz Espainiak nazioarteko babesa eskaini zion hiru eskaeratatik bati, eta 8.675 atzera bota zituen[425]. Horrela, Espainiako Estatua Europako batez bestekoaren azpitik dago, %35ean, Europako %45aren aurrean, asilo-eskubidea aitortzean. Babes motaren bat jaso duten pertsonen portzentajeari dagokionez, CEAR-ek nabarmentzen du Siriako pertsonen %95ek babesa jaso duela, baina Ukrainako herritarren %9k eta Venezuelako herritarren %1ek baino ez. Hala ere, Eritrea eta Marokoko herrialdeen kasuan, errefuxiatuen estatutuaren kontzesioak zertxobait igo ziren, LGTBI+ pertsonen eskaerei esker[426].

424 *Cfr.* Barne Ministerioa, Txostena: *asilo en cifras…, op. cit.*, 12-15 or.


425 Ikus, *"España rechazó dos de cada tres peticiones de asilo en 2017". Eldiario.es*, 2018ko martxoaren 22koa.

426 Nahiz eta Espainiak babes eskaerei uko egiten jarraitzen duen, LGBTI+ errefuxiatuek jazarpena saihestu lezakete, euren sexu-orientazioa edota genero-identitatea "diskrezioz" bizi bazituzten.. Cfr. "*El Gobierno ha denegado el asilo a personas LGBTI porque "pueden vivir en su país con discreción". Eldiario.es,* 2016ko uztailaren 1ekoa.

2016. urtean, 369 errefuxiatu-estatutu eta babes subsidiarioko 6.500 estatutu eman ziren, eta, beraz, onartutako ebazpen guztien % 59,37 onartu zen. Azkenik, nabarmendu behar da 2016. urtean jasotako aberrigabe-estatutua aitortzeko eskabideen kopurua 1.401 izan dela; hau da, aurreko urtean erregistratutako eskaerei dagokienez, % 21,72 igo dela, 1.151 izan baitira.

Beraz, ondoriozta daiteke Espainia modu murriztailean interpretatzen ari dela asilo-eskubidea, gure herrialdean hilabetetan edo urtetan babes bila dabiltzan milaka pertsona itxaronaraziz, eta gero, nazioarteko edozein babes ukatu eta linbo juridiko eta sozial batean utz diezaieten.


Aldeko eta aurkako ebazpena Espainian 2017an



Iturria: *CEAR*[427]

427 *Cfr.* CEAR, *asilo-kopurua..., op. cit.*

Asilo-aitortza herrialdeka Espainian 2017an



	SIRIA	UKRANIA	VENEZUELA	ARJELIA	MOROKO	PALESTINA	KOLONBIA	IRAK	EL SALVADOR	HONDURAS
EZEZTATUTAKO ESKAERAK	150	3.025	1.530	1.035	285	75	240	40	60	30
BABES SUBSIDIARIOA	3.470	245	0	0	0	130	0	80	0	0
ERREFUXIATU ESTATUTUA	20	25	15	10	55	115	10	25	0	0

Iturria: CEAR[428]

Taulen azterketaz ohartarazi daitekeenez, 2017an nazioarteko babes eskaera handienak jaso zituzten nazionalitateak venezuelarra (10.350), siriarra (4.225) eta kolonbiarra (2.460) izan ziren, eta hori ez dator bat nazionalitate horietako bakoitzari dagozkion aldeko ebazpenen kopuruarekin; Esate baterako, 15 pertsona venezuelarrek errefuxiatu-estatutua jaso zuten eta babes subsidiariorik ez; Hamar kolonbiarrei soilik onartu zieten beren errefuxiatu-estatutua eta inolako babes subsidiariorik ez. Beraz, babes handiagoa ematen zaien nazionalitateak ezberdinak direla ikus daiteke, nahiz eta bere nazionalek ez duten gehiengoa adierazten eskaeren kopuruari dagokionez. Palestinako, Marokoko, Ukrainako eta Irakeko pertsonei buruz ari gara, CEARek emandako datuen arabera.

3. EAEren kasuari buruzko erreferentzia berezia

3.1. Euskal Autonomia Erkidegoko LGBTI+ errefuxiatuen nazioarteko babes-eskaeren kopurua.

EAEn, 2016an, nazioarteko babes eskaerak aurkeztu dituzten bost nazionalitateak Venezuelako herritarrak izan dira (143), jarraian Ukrainako (54 pertsona), Kolonbia (53), Siria (27), eta, azkenik, Honduras (23).

428 *Cfr.* CEAR, *asilo-kopurua…*, *op. cit.*

Nazioarteko babes-eskaerak EAEn 2016an

EUSKADI	
HERRITARTASUN	**ESKALE KOPURUA**
Albania	1
Aljeria	9
Armenia	7
Bielorrusia	3
Brasil	4
Burkina Faso	1
Kamerun	5
Txina	3
Kolonbia	53
Boli Kosta	6
Kuba	3
Egipto	1
El Salvador	5
Eritrea	9
Georgia	7
Guatemala	1
Ginea	14
Ekuatore Ginea	5
Honduras	23
Iran	3
Irak	1
Libano	1
Libia	2
Mali	5
Maroko	4

Mauritania	2
Mexiko	3
Mongolia	2
Nikaragua	4
Nigeria	48
Ez aitortua (Sahara)	1
Pakistan	10
Palestina EONU	10
Kongoko Errepublika Demokratikoa	3
Dominikar Errepublika	2
Ruanda	2
Errusia	5
Senegal	2
Siria	27
Somalia	4
Hego Sudan	1
Tunisia	1
Ukrania	54
Venezuela	143
Guztira	500

Iturria: Barne Ministerioa[429]

EAE-N, nazioartean SOGI-aren nazioarteko babes-eskaeren kopurua 2016an

Estatu espainiarrean nazioarteko babesa eskatu duten pertsona ez-heteronormatiboen kopuruari buruzko datuak ez dira argitaratu. Kongresuko Atzerri Batzordeak, 2016ko irailaren 28an, jatorrizko herrialdeetan jazarritako lesbiana, homosexual, transexual eta bisexualei asiloa ematea eskatu zion Gobernuari, Senatuan idatzitako galdera baten bidez. Galdera honako hau izan zen: "Zenbat lagunek aurkeztu zuten euren eskaera sexu-jazarpenaren beldur izateagatik?". Barne Ministerioak "ez du zifrarik" erantzun zuen. Bestalde, Eusko Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 862/2007 (EE) Erregelamenduak, 2007ko uztailaren 11koa, migrazioari eta

429 *Cfr.* Barne Ministerioa, Txostena: *asiloa zenbakitan..., op. cit., 12-15.or*

nazioarteko babesari buruzko estatistikei buruzkoak[430] migrazioari eta asilo harmonizatuari buruzko Erkidegoko estatistikak funtsezkoak direla adierazi du, immigrazioari eta asiloari eta pertsonen joan-etorri askeari buruzko legedia eta erkidegoko politikak garatu eta horien jarraipena egiteko. Era berean, Europako Batzordeak ezartzen du Estatuek nazioarteko babesa eskatu duten pertsonen kopuruari buruzko estatistikak egitera behartuta daudela, baita sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera bereizitako lehen eta azken instantzian nazioarteko babesa lortu duten pertsonen kopuruari buruz ere, eta beraz, ez da nahikoa izango eskaera hori LGTBI+ kolektiboko pertsonek aurkeztu duten jakiteko.

Hala eta guztiz ere, ikerketa honetan, 2016 eta 2018 artean eskaera aurkeztu zuten LGBTI+ nazioarteko babeseko eskatzaileei buruzko datuak jaso dira. Datu horiek ikerketa honen xedeetarako utzi dira, eta harrera-erakundeek, ACCEM, CEAR-Euskadi eta Gurutze Gorria-Gipuzkoak berariaz egindako bilketa-lan eta erregistroaren emaitza dira, eta horiek zuzenean haiekin harremanetan jarri ziren LGBTI+ nazioarteko babeseko pertsonen testigantzetan oinarritzen dira, eta horiek laguntza eskatu behar izan zuten. EBko asilo-zifrei dagokien zatian bezala, datu horiek gutxi gorabeherakoak dira, eta, beraz, ez dute xehetasunik, hau da, ez dira benetako egoeraren erradiografia zehatza; izan ere, kontuan izan behar da, CEAR-en gertatzen den bezala, kasu horretan gertatzen den bezala, erregistroa 2016 urtearen erdialdean hasten da, eta ez dago harrera-erakundeen artean datu-trukerik, EAEn nazioarteko babesa eskatzen duten LGBTI+ pertsonen kopurua zehatz-mehatz jakin ahal izateko. Ondorio horietarako, erakunde horien uneren batean (behin bakarrik) igaro diren pertsonak agertzen dira. Hori dela eta, gehiengoa bada ere, baliteke eskaera egin duten pertsona horiek guztiek ez edukitzea nazioarteko babesa EAEn (beste probintzia batzuetan asiloa eskatu zuten eta gero beste probintzia batzuetan bizi izan ziren, eta, gero, asiloa eskatu zuten, eta gero beste erkidego batzuetara joan ziren); horrek zaildu egiten du kontrol eta erregistro zehatza egitea, baina, hala ere, ez du eragozten eskatzaile kopurua esanguratsua dela EAEn.

430 *DOCE*, L 199, 2007ko uztailaren 31koa.

EAEn SOGIren bitartez nazioarteko babesa eskatzen duten eskatzaileak

	2016 (2016ko erdialdetik bilketa)	2017	2018	TALDEKA GUZTIRA
LESBIANAK	2	14	8	20
HOMOSEXUALAK	8	45	5	58
TRANS	2	3	1	6
GUZTIRA URTEKA	12	62	14	84

2016 urtearen erdialdetik eta 2018ko urtearen hasierara arteko EAE-ko nazioarteko babesaren eskatzaile gehien duten LGTBI+ pertsonen jatorrizko herrialdeak

Aljeria

Kamerun

Kolonbia

Ganbia

Honduras

Maroko

Nigeria

Venezuela

* Herrialde horiek SOGI-ari buruz egiten duten tratamendu juridikoa eta soziala sakonago aztertuko da hurrengo epigrafean.


3.2. EAEn nazioarteko babesa eskatzen duten LGBTI+ pertsonen ohiko jatorriko herrialdeetan, SOGI-aren tratamendu juridikoa eta soziala

Munduko toki askotan, LGBTI+ pertsonek giza eskubideen abusu larriak jasaten dituzte, Estatuko eragileen, haien familien eta oro har komunitatearen eskutik SOGI-a jaso dutelako. Zentzu horretan, LGTBIfobiak mundu mailako errealitatea izaten jarraitzen du, eta hainbat faktorek eragiten dute horretan[431]:

- → **Esparru heteronormatiboa:** Ez da zaila egiaztatzea gizarteak bi generoren ideiaren inguruan nola eraikitzen diren, eta horien artean hierarkia-planoak eta gizarte-ordena estratifikatua ezartzen direla. Identitateei dagokienez, kategoria pertsonal guztiz zurrunak eta estankoak ezartzeaz gain, paradigma horrek, beste parametro batzuen artean, gizonaren nagusitasuna ezartzen du emakumeari dagokionez, sexualitatearen esparruko alternatiba zilegi bakar bezala. Paradigma bat, azken finean, bizipen alternatibo guztien gaitzespenerako eta jazarpenerako oinarriak ezartzen dituena, eta aniztasun sexualaren adierazpenetan aipatutako ordena zalantzan jartzen dute.
- → **Esparru ideologikoak:** Munduko herrialde askok jazarri dituzte historikoki eta jazartzen dituzte sexualitate ez-normatiboak, LGBTI+fobia sinesmen eta ohituretan oinarrituz, batez ere erlijiosoak. Gaitzespena zuzena izan daiteke, homosexualitatea bizimodu gisa ukatuz, edo zeharka Homosexualen arteko adierazpen homosexualak kondenatuz. Sexualitate eta bizipen ez normatiboak naturaren aurkako errealitatetzat hartzen dira ikuspegi horretatik, eta halabeharrez, konpondu behar dira, edo bestela, kondenatuak edo zigortuak. Zoritxarrez, gainditzeko zaila den esparru batez ari gara, berez ekintza homofoboaren kontzientzia errealik ez baitago, eta esparru ideologikoetatik datozen sinesmenen bitartez zilegi egiten baitira.
- → **Estatu-homofobia.** LGTBI-fobiaren instituzionalizazioa, berriz, Estatu batek bere gain hartzen du, homosexualitatearen edo sexu-aniztasunaren beste edozein adierazpenaren aurrean errepresio ezartzeko eta zigortzeko neurri legalak ezartzeko.

Beraz, faktore horiek guztiak dira, inguru errepresiboak eta egoera dramatikoak sortuz, LGBTI+ pertsonentzat, migrazio-bidaiak bultzatzen dituzte, eta nahitaezko konponbide gisa ulertuta, gizarte-posizio ahuletan kokatzen dituzten zailtasun-ziklo berri baten hasiera baino ez da. Nazioarteko babes-eskaera hori babesteko bide bakarra da, eta, bide horretatik, ziurgabetasun handia, beldurrak, orientazioa eta erabateko prekarietatea eragiten dute.

431 Ikus honi dagokionez, AGNU, I*nforme del Experto Independiente sobre la protección contra a violencia y la discriminación por motivos de orientación sexual o identidad de género,* 2017ko apirilaren 19koa (A/HRC/35/36) eta AGNU, *Informe del Experto Independiente sobre la protección contra a violencia y la discriminación por motivos de orientación sexual o identidad de género*, 2017ko uztailaren 19koa (A/72/172).



Iturria: *Ilga 2017*[432]

Lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersex Nazioarteko Elkarteak egindako txostenaren arabera (ILGA), Homofobia de Estado 2017. Estudio jurídico mundial sobre la orientación sexual en el derecho: criminalización, protección y reconocimiento[433], 72 estatu daude sexu bereko harremanak kriminalizatzen dituztenak: 33 Afrikan, 23 Asian, 10 Amerikan eta 6 Ozeanian. Estatu horietako 45etan (24 Afrikan, 13 Asian, 6 Amerikan eta 2 Ozeanian).

